Egunkaria

eusk aldunon

• osteguna • 2000ko maiatzaren 4a -- XI. urtea -- 2.918. zenbakia -- Salneurria: 125 pta. 6 libera

■ Filipinak

Abu Sayyaf gerrillak bahitutako lagunetatik 15 erreskatatu ditu Armadak • 30



EAJ-EA-ETA harremanak ◆

Marko berri bat lortzeko lanean jarraituko duela esan du EAJk

EAk «elkarrizketan oinarritutako irtenbidearen» aldeko apustua berretsi du

■ «FASE bat itxi» dela onartu zuen atzo Euzkadi Buru Batzarreko lehendakari Xabier Arzalluzek, baina EAJk marko berri bat lortzeko lanean jarraituko duela azaldu zuen, egunotan *Gara* egunkariak argitaratu dituen ETAren agiri batzuei buruz azalpenak emateko egindako agerraldian. Gainera, ETAk argitaratu ez duen agiri bat erakutsi zuen. EAJren eta EAren «ñabardurei» ezetza ematen zien ETAk agiri horretan. EAk ere hitz egin zuen atzo agiri horiei buruz. Gorka Knörren arabera, bere inguruan jaso dituen kritikei aurre egiten saiatu da ETA. EAk, halaber, «elkarrizketan oinarritutako irtenbidearen» aldeko apustua berretsi zuen. • 6-9

- ▶ **Xabier Arzalluz:** «Fase bat itxi da, baina beste batzuk etorriko dira»
- ▶ **Gorka Knörr:** «Bere inguruan jasotako kritikei aurre egiten saiatu da ETA»
- ▶ **Rodolfo Ares:** «Lehendakaria ezin da isilik geratu, ezinbestekoa da azalpenak ematea»
- ▶ **Jaime Mayor Oreja:** «Azken bi urteetako errealitateak akordioa bazegoela baieztatzen du»

gizartea

■ Perituek ez diete arrazoirik eman Arakil-Uharteko tren istripuko akusatuei •15

■ Haurrak protagonista Seaskaren 30. urtemugako Herri Urratsen •16

ekonomia

■ Hego Euskal Herriko sare elektrikoa zabaltzeko 13.500 milioi pezetako inbertsioak egingo dira •21

europa

■ **Erresuma Batua**

'Ken Gorria' Londresko alkatetza lortzear izango da gaurko bozetan •38

kirola

■ **Saskibaloia**

Finalerdietarako txartela lortzen saiatuko da gaur Tau Baskonia •36

kultura

■ **Elkarrizketa**

Joaquin Atxukarro: «Zoritxarrekoa nintzateke pianoa lasaitasunagatik utziko banu» •42-43

JOXE LACALLE

Anaitasun besarkada Iruñean

■ ARGAZKIAN ikusten den modura besarkatu ziren atzo Iruñean Bernardo Atxaga eta Pablo Antoñana idazleak, Iruñeko Biurdana ikastetxeak antolatutako Atxagaren *Obabakoak* liburuaren jendaurreko irakurraldian. Anaitasun sinbolikotzat jo zuen besarkada Atxagak, Antoñanak obra guztia gaztelaniaz idatzi arren idazle euskaldun baten obra irakurtzera joan zelako. Bide batez, Sanz lehendakariak euskararen aurka esandakoei aurre egiteko moduko ekimena izan zen asteasuarrarentzat atzokoa. • 44

Kontseiluak euskararen aldeko konpromisoak saritzeko ziurtagiria sortu du

■ GIZARTE eragileek kalitate zigilu gisa erabili ahal izango dute Kontseiluak kudeatuko duen Bai Euskarari ziurtagiriaren ikurra. Atzo aurkeztu zuten lehen aldiz. • 13

Estrasburgoko txosten batek finantzatzeko arazoak ikusten dizkio 'Euskal Y'-ari

■ *Europako legebiltzarkideek gaur bozkatuko dute Garraio Batzordearen urteroko txostena* • 14

iritzia

gaurko...

...elkarrizketa

Teresa Gaztañaga
• DOKTOREA •

«Elikadura oso kontuan hartzekoa da»

Elikadura: janaria eta ariketa hitzaldia emango du gaur Estadio aretoan, Gasteizen, arratsaldeko 20:00etan.

■ **Zertaz izango da hitzaldia?**

Gehienbat kirol bat egiterakoan osasun ona edukitzeko beharrezkoa den elikadura izango da hizpide; kirol hori izan daiteke bai egoera fisiko egokian jarraitzeko bai txapelketetan parte hartzeko, baina edozein dela ariketa, dieta orekatu batean oinarritu behar dugu, hau da, gorputzari behar dituen elikagaiak eman behar dizkiogu osasuntsu jarraitzeko.

■ **Gaur egun ezjakintasuna dago elikaduraren alorrean?**

Bai, gehienbat zenbait aldizkaritatik datozen informazioak direla eta. Kirol aldizkari berezitu batzuek kontsumoa dute helburu, eta askotan behar ez diren hainbat edari eta elikagai saltzen dituzte, eta askok,erosten dute, beharrezkoa duten aztertu ere egin gabe.

■ **Zeintzuk dira kasurik ohikoenak?**

Proteina, bitamina edo mineralak gehiegi hartzen dira, norberaren beharrei kasurik egin gabe. Horrelako egoerak gertatzen dira etekinak handitu nahi direnean, edo kirolari famatu baten eredua jarraitu nahi denean. Hala ere, elikadura oso kontuan hartzeko zerbait da, ez baita komenigarria behar ez dugun zerbait kopuru handietan hartzea.

Jon Rejado
GASTEIZ

...esaera *«Ai gure Jainkoa! Bat eta bera nahikoa!»*

...hizpideak

Ziurtagiria konpromisoak hartu eta betetzen dituztenentzat

■ Quebecen, Hizkuntzaren Kartaren arauak betetzen dituzten enpresei —edo betetze bidean direla erakusten dutenei— ziurtagiri bat ematen die bertako Gobernuak; hizkuntz ziurtagiririk ez dutenek, esate baterako, ez dute Quebeceko Administrazio Publikoaren enpresekin merkataritza harremanik izaterik. Jakina da Quebeceko hizkuntza errealitatetik urrun dela Euskal Herria. Eta, beraz, oso urruti gaudela han frantsesa sustatzeko hartzen diren neurriak hemen euskararen alde hartzetik.

Kontseiluak atzo aurkeztu zuen Bai Euskarari Ziurtagiria ere urruti dago inor ezertera behartzetik. Behartu barik, saritu egiten du, eta sustatu.

Norbere esparruan hizkuntz normalizaziorako bidean pauso eraginkorrak emateko konpromisoa hartu dutenak sarituko dira Ziurtagiriarekin, eta, hauek sarituz, konpromisoak hartu ez dituztenak normalizazioaren bidean sartzera sustatu.

Inbertsioak argindarrean

■ Sektore elektrikoaren liberalizazioaren ildotik milaka milioi pezetako inbertsioak iragarri dira han eta hemen, sektore garrantzitsu horren garrantziaz jabeturik. Gasteizko Gobernuaren helburuetako bat arlo elektrikoan autohornikuntza lortzea da, eta horretarako hasi da inbertsioak eta epeak zehazten. Ingurugiroa ere kontuan izan beharko da, izan ere, linea elektrikoen kutsadura nabaria baita. Arazo horren irtenbidea energia gutxiago kontsumitzetik iritsi daiteke.

Euroligara pausoa

■ Partidu garrantzitsua du gaur Gasteizko Tau taldeak, Euroligan urrats handia egiteko aukera baitu. Irabazten badu, finalerdietara sailkatuko da, eta Unicajak gauza bera egiten badu Bartzelonarekin, Tauk Unicaja izango du kontrario, eta, jakina, teorian errazago izango du finaleko txartela. ACBko bi lehenek baino ez dute jokatuko hurrengo denboraldian Euroligan, Lauko Finala Gasteizen jokatuko den denboraldian.

Mugabe, kanpainan

■ Zimbaweko Legebiltzarrerako hauteskundeen kanpainari begira Zimbaweko Batasun Nazional Afrikarra (ZANU) bere alderdiaren programa aurkeztu zuen atzo Robert Mugabe lehendakariak. Espero zen bezala, zurien etxaldeen okupazioen auzia izango da kanpainaren ardatza. Mugabek argi eta garbi utzi du gaiak herrialdearen geroarentzat duen garrantzia. Xede hori gogoan aukeratu du bere alderdiaren leloa: *Lurra ekonomia da; ekonomia lurra da.*

Zimbaweko lehendakaria zorrotz mintzatu da okupazioak gaitzetsi dituztenen kontra: «Ez diezaiogun inori ere sinesten utz gerra beteranoei etxaldeetatik irteteko esango diegunik». Bere ustez, zurien hamabi milioi hektareen erdiak behar dituzte beltzek. Zimbawe kinka larrian dago egun, eta, bozak direla medio, egoera larriagotuko den beldurra hedatu da bertan.

...pertsonaiak

LUIS FERNANDEZ • Athleticeko entrenatzailea denboraldiaren balorazioa egiten hasi da. Fernandez penatuta dago bere taldeak aukera paregabea galdu duelako «denboraldian gauza handiak egiteko».

ASIER ALTUNA • Film luze bat egiteko gidoia idazten ari da Telmo Esnalekin batera. *Txotx* lanaren zuzendariak estropaden inguruko gidoia prestatzen ari dira.

FELIX IÑURRATEGI • Etxerako bidea hartu dute anaia mendizaleek. Annapurna inguruko eguraldi eskasak atzera eginarazi die. «Gure lepoa arriskuan jartzea ez da gure estiloa», adierazi du Felix Iñurrategik.

...datua

2.000 gerrillari txetxeniar hil direla errusiarren erasoa hasi zenetik adierazi du Aslan Maskhadov Txetxeniako presidenteak. Vladimir Putin Errusiako presidentearekin bildu nahi duela berretsi du.

...adierazpena

«Bere burua kontrolatzen duen ero baten antzekoa naiz»
•
Atom Egoyan
Zinema zuzendaria

... seiko urrea

• GAIZKA ARANGUREN •

Jokaldi gordina

ETAk, *Gara* egunkariaren bitartez argitara eman dituen dokumentuetan, EAJ eta EArekin izandako bileren berri eman du. Norberari dagokio testu horiek guztiek duten sinesgarritasuna neurtzea. Bere jokaera historikoari begira, ordea, ETAk egiarekiko joera nabarmena izan du. Egia gordina. Alta, interpretazio eta hausnarketa tarteak egonik, erakunde armatuaren ikuspegitik idatzitako testuak direla aintzat hartu behar dugu.

Bertan erraten direnen artean badira azpimarratzeko hiru puntu:

a) 1977an izandako aukera historikoari buruz ETAk egiten duen hausnarketa. Ikuspegi abertzaletik egin daitekeen irakurketarik garbiena eta koherenteena. Hura errepikatu ez dadin agertzen duen irmo- tasun txalogarria.

b) Egun eta biharko (ez etziko), ETAk aurkezten duen erakundetze eta instituzionalizazio egitasmoa. Adjektibo aunitz erabili dituzte EAJk eta EAk bide hori deskribatzeko: utopikoa, errealitatetik at dagoena... Baina bertze inork ez du aurkeztu hura bezalako proposamen zehatzik. Horrek ez du erran nahi ETArena baliogarria denik, hain zuzen ere, egiten zaizkion kritikak aintzat hartuta. Baina horren aitzinean dagoen bide bakarra orain arte urratutako autonomismo baskongadista banatzaile eta lapurra baldin bada, orduan, ETAren proposamena abertzale batek goza dezakeen laztanik kilikatzaileena da.

c) Ulergaitza da, EAJk dioen bezala, 1998ko bileretan EHk esku hartu ez izana. ETAk bere irudi politikoa indartu du eta EHrena ahuldu. Argitara emandako dokumentu hauen ondorioz, badirudi, ETAk bere gain hartu nahi duela Ezker Abertzalearen ordezkaritza politiko gorena une erabakiorretan; eta ez dirudi horrek mesede handia eginen dionik EHri.

Egoera zailean paratu ditu ETAk EAJ eta EA. Baina egoera zailean, bereziki, espainiako botere eta komunikabideen aitzinean. Hautua behin betikoz egin dezaten diseinatutako jokaldia dela ematen du. Jokaldi gordina. Erakunde armatua ez da galtzen ohi politikaren protokoloetan. Zorionez ala zoritxarrez?

• MATTIN •

Ez naiz manifestaziora joan

• J. R. ETXEBARRIA •

[EHUTIK KALERATUTAKO IRAKASLEA]

Bi milagarren urteko maiatzaren bata heltzean, urtero bezala, giro berezia sumatu ohi da airean, eta langileek beren erreibindikazioak bozgorailuz aldarrikatzeko premia sentitu ohi dute, horixe baita manifestatzeko egun ofiziala. Dena dela, neure burua behargin langiletzat —alferra ez naiz behintzat, hori ez!— daukadan arren, ez naiz manifestazio ofizialera atera. Nolanahi dela, ez nuen ezer egin gabe gelditu nahi, eta pentsatu dut ene mobilizatzeko modua, mobilizazio horri buruzko gogoeta txiki bat egitea izan zitekeela.

Egia esanda, gogorik ez neukan sindikatuen gidaritzapean manifestatzeko urteko gainerako egunetan, goizeko zortzietatik arratsaldeko bost eta erdietara bitartean, pankarta baten atzean unibertsitateko ateetan manifestatzen naizen honek. Urteak dituen lanegun guztietan, han gaude, pankarta atzean, sindikatuek gure aldeko manifestazio aldarrikatzailerik egingo ez dutela jakinik. Zortzi urte badaramatzagu behintzat, horrelakorik entzun gabe, egunez egun manifestatuz; eta han irauteko asmoa dugu, egunen batean sindikatuek ere gure aldarrikapen hori —eta unibertsitateko *lurrean kondenatuak diren langile pobreek* (ez *tristeek*) dituzten aldarrikapenak— entzun, bereganatu eta guztiok *zutik* jarriko garelakoan eskuz esku.

Izan ere, unibertsitatean badira zutik jartzeko motiboak aski, borrokan *nekez elkarganatu* arren. Eta guk borroka horretan elkarganatu nahi genuke, batzuk *barrutik* dihardutela, gu geu *kanpotik* ekin eta ekin egiteko prest gaudela.

Motiboak badaudela diot; hona hemen batzuk. Lehenik eta behin, Irakaslego Propioa eraiki beharra, Euskal Herriari zor zaion irudi berria alegia. Eta horretarako bidean goazela, konpondu beharreko arazo sindikal konkretuak: gaur egun unibertsitateko irakasle askok eta askok jasaten duten diskriminazioa, neurriz kanpoko behin-behinekotasuna, bigarren mailako irakasle-izatea, eta baldintza ez-duinetan lan egin beharra (erabat diskriminatorioak diren kontratu partzialak, adibidez). Zer borroka eramaten ari da arazo larri horiek konpontzeko?

Baina ez dut hori uste borrokatzeko gai bakarra denik. Prentsa eta aldizkarietatik enteratu garenez, arazo larriak dira Euskal Herriko unibertsitate publikoetan. Zer esan euskarak UPNAn pairatzen duen tratuaz, eta horrek langile euskaldunengan ere eragin zuzen duen politika deuseztatzaileaz? Zer esan, adibidez, UPVko masterren inguruko korrupzioa dela-eta agertu diren informazioez? Horretaz, prentsan irakurrita dakigunez, errektore berriak erabakia hartu du departamentu bateko kontuak blokeatzeko, eta bertako kontrola zuzen-zuzenean hartzeko. Dena den, ez dugu ikusi sindikatuen mobilizaziorik gauzak benetan argitzeko; eta gauzak laster batean isildu dira, *laissez faire, laissez passer* esaldi famatuaren antzera, *mundua berez doala* sinetsita-edo.

Beste arazo bat aipatuz, mobilizazio-ezari dagokionez, azken boladan niretzat bereziki mingarria suertatu dena, Protecsa-ren arazoaren inguruko isiltasun ia erabatekoa izan da. Gauza ezaguna da, salaketa judiziala ere egin dela, UPVn Protecsa espioitza-sare modura ibili izanagatik. Salaketaren muina, unibertsitate barnean pintxazo telefonikoak egitea, areto nagusira talde abertzaleek antolatutako batzarretara joandakoen autoetako matrikulen-zerrendak estatuko segurtasun-taldeei pasatzea, gazteei jipoiak ematea, zinpeko guardiak ikasgela eta klaustroaren barneko infiltrazioan aritzea, eta antzeko mailako ekintzak izan dira. Nik ordea, ez dut unibertsitateko sindikatuek organizaturiko inolako mobilizaziorik ikusi. Non gelditzen da behinola antolatutako errepresioaren aurkako plataforma, zeinean sindikatuak ere bazeuden, Protecsa-ren gehiegikeriei aurre egiteko? Zer neurri berezi hartu du errektoretza-taldeak horrelakorik gerta ez dadin? Kontrolpean hartu al du? Ez al da harrigarria ia erabateko isiltasun hori? Non daude sindikatuak?

Unibertsitateko langilea naiz, duela zortzi urte kaleratua. Eta unibertsitatean *kondenatua* izan naizen aldetik, horietan guztietan motiboak ikusten ditut *zutik* jartzeko, *elkarganatzeko, albistea* emateko, eta *oro gudura* abiatuz, gauzak justiziarako bidean jartzeko, *bihar izan dadin* justizia *gizonaren adin.*

Ez! Ez naiz manifestaziora joan, ene borondatez. Baina manifestatu egin naiz, eta borrokatzen segitzeko asmo tinkoa adierazi nahi izan dut artikulu honen bidez. Nahi nuke sindikatuek artikulu honetako kezkei —eta aipatu ez ditudan beste askori— buruzko gogoetarik egingo balute, eta behingoz arazo horiei konponbidea bilatzen lagunduko balute. Desiatzen bainago «gertatuak ez du ardura, jende esklaboa jaiki» esateko. Baina horretarako, gauzak justizian konpondu behar dira. Bitartean, bego hor galdera. Guk eutsiko diogu geureari. Ziur gaude: *Aldaketak datoz mundura, nor den herriak badaki.*

ANA URKIZA

Fenomeno berria

Azken egunotako fenomeno berria T5 telebista kateko *El Gran Hermano* da; ikus-entzulegoaren azterketak egiten dituzten adituen ustetan, *2000. urteko iraultza telebisiboa.*

Nik ezin dut inolako iritzirik eman, oraindik ez dudalako aipatu programa ikusi; eta oraindik, morboari ez diodalako neure baitangoan leku egin dezan utzi.

Kalean entzun nituen lehenengoz honen inguruko: ezagun batek, ea programa berria ikusi nuen galdetu zidanean. Galdetu zidanak ere ez zekien zertaz zihoan, baina jadanik, *modan egoteko premia bizian jakin behar zen* zerbaiti buruz zebilela antzeman zitekeen, ez dakigula aitortzeak sortzen duen halako urduritasun kutsagarri bat antzematen baitzen bere hitzetan. Eta gero, senarra etxeratu zenean, lanean eguna nola joan zitzaion galdetu nionean, «ondo» esan eta, «ba al dakizu? T5 katean programa berri bat hasi omen da, egunean hiru aldiz konektatzen dutena... sekulakoa izan behar duena!», gaineratu zuenean.

Izurritea hedatua zen.

Hurrengo egunotan, egunkariek, giza portaera eta giza harremanen nondik norakoak aztertzeko programa bikaina dela azpimarratu dute. Eta ni, ez nago batere ados. Aipatu programaren eragile nagusia *morboa* dela iruditzen zait, eta horretarako darabilen bidea, ikus-entzulegoa *voyeur* bilakatzea. Ez diot bestelako eduki ekarpenik antzematen.

Espazio itxi batean sartutako gizakiaren konportamenduaren berri jakin nahi duenak, badauka nahikoa idatzita, literaturaren, mitologiaren eta historiaren orrialdeetan. Eta beraz, ez da programaren balio edo ekarpen *gutxienik orijinala,* tankera horretako egoerak erakustea. Ikuspuntuari dagokionean ere, gogora dezagun, *La ventana indiscreta* filmea estreinatu zenean, *voyeur* figuraren agerpena oso kritikatua izan zela, *ez etiko*tzat jotzearren.

Pentsa dezagun beraz, *El Gran Hermano* programa zein nolako hutsune edo premiak dituzten pertsonei zuzendua dagoen, ez baita normala, anonimoak zaizkigun pertsonen arteko gertaerek guregan arreta piztea, *morboa edo besteen bizitzetan sartu nahi izate eroa* ez bada behintzat, gure jakinmina pizten duen piztitzarra.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Kontraesanak

■ Elkarrizketan, eztabaidan, teorian, guztiok gara solidario, justizia-zale, berdin-zale, askatasunaren defenditzaile... Baina hitzetatik ekintzetara jotzeko orduan, praktikara igarotzean, hitzek indarra galtzen dute. Denok omen ditugun kontraesan *balioaniztun* horiek sortzen dira. Barakaldoko salestarren eskolan ez dituzte, gurasoek, hiru ikasle ijito onartu nahi. Ez ijitoak direlako, noski; «gatazkatsuak» direlako. Jakina, ikasle ijito asko daude eskolatuta, eta hau arazo oso partikularra omen da. Baina pentsatzekoa da gurasoek *plante*-rik egiten ez dieten ikasle «gatazkatsu» asko ere egonen dela, ijitoak izan gabe. Ez dut ezagutzen afera baina gurasoen arrazoia susma nezake: «Ikusiko genuke zuk zer egingo zenukeen zure seme-alabei tokatuko balitzaie». Balioak sekula praktikan eta gatazkan jarriak ez izateko sortuko bagenitu bezala.

Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain
zuzendariari@egunkaria.com
943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari

Etorkinak

Nire lankideak ez zuen aukerarik txikiena ere pasatzen uzten etorkinei buruz gaizki esaka aritzeko: «Cacereño hauek ez ditek hemen uzten ezta txakur txiki bat ere!; irabazten duten dena sakelean sartu eta bere jaioterrira eramaten ditek bertan etxe bat egiteko, bizitzaren azkenaldia beren herrikideen artean emateko, eta merke-xuhurrean, gai dituk, hiriko beste muturreraino joateko —oinez jakina— sagarrak diru bat merkeago erosteko aukera baditek. Honela eskertzen ote ziotek bera eta bere familiari abegi eman dion herriari?».

Nire lankideak azken Aste Santu honetako oporrak Caceres probintziako herrixka batean eman ditu: «Ez zegoan pagotxa hau galtzerik; pentsa ezak, 22 mila pezeta aste osoa nekazari etxe batean pasatzeagatik!, ez al zaik merkea iruditzen?». Abertzalea dela dio. **Joseba Austin Arzallus Muxika** • LEZO (GIPUZKOA)

Tabua

Euskal Herrian lan, bizi eta jaio ere egiten diren espainiar eta frantziarrek burugogor segitzen dute espainiar eta frantziar izaten. Ez esatea badago, baina horregatik ez da egia tipiago. Integrazioa gezur hutsa suertatu da, erabateko porrota. Ongi da aukera bat eman izana. Baina, aski da! Eta sentitzen dut, baina Euskal Herrian bizi diren eta bere hitza eta existentzia bera onartzen ez duten espainiar eta frantziarrek argi dago ez dutela eskubide kolektiborik. Hau munduko edozein herri normaletan ulertzen den gauza elementala da. Hemen badirudi jendeari pittin bat kostatzen ari zaiola ulertzen.

«Espainia ondo doa; baina norantza?»

Euskal eskuina (PNV), bere konplexu nazionala delaeta, eta euskal ezkerra (HB), bere konplexu soziala dela eta, ez dira esatera ausartzen. Ezin daitekeena egin zera da: iragan hauteskundeetako emaitzak baloratzerakoan espainiar bozak ez direla handitu esan, duela 20 urteko berak direla eta hain lasai geratu, eta hemen lan, bizi eta jaio ere egiten diren guztiak euskaldun direla dioen diskurtso absurduarekin segitu. Hona bizitzera etorri zirenen seme-alabek, hots hemen jaio direnak, espainiar eta frantziar izaten segitzen badute, nork ziurta diezaguke hauen semealabak berriz ere espainiar eta frantziar izaten ez segitzea? Eta horrela, 500 urte barru Ipar Irlandan bezala egongo gara. Agian ez da posible espainiar eta frantziarrak izan daitezen ekiditea, baina jakinarazi behar diegu etorkizuneko Euskal Herrian ez dutela eskubide kolektiborik izanen.

Gainera, gu baino mila aldiz arrazistago eta xenofobogo dira. Euskaldunak eta euskaldun den oro gorrotatu egiten dute. Eta Euskara argi dago kaka zahar bat iruditzen zaiela. Ez esatea badago, baina horregatik ez da egia tipiago.

Integratu den jendearen kasu zehatzak badira, eta benetan, ez dut uste bere burua aipatutzat ere joko dutenik artikulu honengatik.

Gauza bat *emigrantea* izatea da eta beste oso diferente bat *kolonoa.* Emigrante eta kolonoaren arteko diferentzia oso erraza da. Emigranteak emigratu duen herriko nazionalitatea hartu nahi due, eta kolonoak, aldiz, emigratu duen herriko hiritarrak haren nazionalitatea hartzea nahi du. Emigranteak ahal duen guztia egiten du emigratu duen herriko hizkuntza eta kultura ikasteko. Kolonoak, ordea, ahal duen guztia egiten du emigratu duen herriko hiritarrek haren hizkuntza eta kultura ikas dezaten. Adibide ilustratiboa ondorengoa. Kolonoak izan dira eta dira Ingelesak Irlandan. Eta emigranteak Irlandesak Ingalaterran. **Mikel Enparantza** • DONOSTIA

galdeiozu...

Asisko Urmeneta

• MARRAZKILARIA •

Euskal komikiak izan al du historiarik? Edo gaur egungo kontua da?

Andoni Oiarbide [Legorreta]

■ **LEHEN KOMIKI** modernoa *Tauletac* izenekoa duzu, Xakes Belak zuzendurik XVI. mendean, gaur egun osoki galdurik. Protokomikiak, genierrakeenak ordea, aise lehenagotik fabrikatzen omen ziren: Ibn Habib arabiar kronikaren arau, Leireko fraideek fanzine bat obratzen omen zuten XI. mendearen hasmentan, afixa plegagarri eta oro! Ez dakigu argitalpen haren izena, bai ordea *Al Basqiya*z idatzia zela, hau da, euskaraz. Berrikiago, jeltzaleak bitartekoaren balio didaktikoaz jabetu zirela, «haurrak euskaraz irakur dezaten, *bortxatu* egin behar zaie, baina extiki, oharkabean», zioen Kizkitzak *Txistu* komiki aldizkarian. XX. mendearen hastapenetakoak artista bikainak: Otermin, Gaztelu, Santafe, J.M.A. eta oroz gain Zabalo anai-arrebak: Txiki eta Nor Nai. Eta Olariagak digu oraina mustu.

Maiatzaren 9tik aurrera
Iñaki Perurena
• HARRIJASOTZAILEA
izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

Nafarroa Garaian behar dugun hizkuntz politika

• JOAN MARI BELOKI •
[EH-NAFARROAKO EUSKARA ARLOKO KOORDINATZAILEA]

Historikoki Nafarroak berezko hizkuntza bakarra izan du, euskara, *Lingua Navarrorum,* bertan duela 10.000 urte mintzatzen delarik. Gaztelera XVI. mendetik aurrera hedatzen da herrialde osora, Gaztelak Nafarroa Garaia armen bitartez konkistatu ondoren. Dena den, egungo errealitatea kontutan hartuta, gaur gaztelera ere bertako hizkuntzatzat har daiteke, nafar gehienen hizkuntza bakarra baita.

Nafarroa Garaian, beraz, bertako bi hizkuntza daudela esan beharko dugu aurrerantzean, bi hizkuntzak gure kultur ondare direlarik. Bi hizkuntzek hiztun ugari dute eta, guztiok nafarrak garenez, denoi dagozkigu hizkuntz eskubide berberak. Demokraziak nafar guztioi hizkuntz eskubideak maila berean arautu behar dizkigu. Ordenamendu juridikoak, hizkuntz eskubideei dagokienez, nafar guztioi aukera berberak eman behar dizkigu. Ez da inola ere onargarria nafar batek administrazioarekiko harremanetan euskaraz atenditua izateko eskubidea bermatua izan dezan eta beste nafar batek, Nafarroako beste herri batean bizi delako soilik, berme hori ukatua izan dezan.

Are gehiago, bi hizkuntzak nafar guztion kultur ondare gisa hartu behar baditugu, botere publikoek, administrazioak alegia, nafar guztiok bi hizkuntzak ongi menpera ditzagun ahalegina egin beharra du. Inposaketak ez dira onargarriak, sufrimendu handia baitakarkie herritarrei. Horregatik, administazio publikoaren jarduera bi hizkuntza hauen ezaguera eta erabileraren sustapen eta laguntza politikan oinarrituko da. Administrazioak herritar guztiok ttikitatik gureak diren bi hizkuntzak ongi ikas ditzagun arautu beharra du, aberasgarriena nazioarteko beste hirugarren hizkuntzaren bat ere ikastea delarik. Aski frogatua dago biziaren lehen urteetan, umetan alegia, haur batek hiru hizkuntza oso erraz ikas ditzakeela. Bitarteko eta pedagogia egokiak aplikatzea da horretarako zeregin bakarra. Eta erantzukizun hori administrazio publikoari dagokio bete-betean eta berari bakarrik.

Gauza jakina da batzuetan eskubide ezberdinen arteko txokea ematen dela eta pertsonak kasu horietan ezin ditugula gure eskubide guztiak bermatuta izan. Denok dugu lanpostu duin baterako eskubidea, adibidez. Baina zer gertatzen da administrazio publikoak edo ekimen pribatuak denontzako nahikoa lanposturik eskaintzen ez dutenean? Bada, hautaketa prozesu bat aplikatu behar dela, bere bitartez langile prestatuenak aukeratzen direlarik. Hizkuntz eskubideei dagokielarik, administrazioak Nafarroa Garaiko bi hizkuntzak menperatzen dituzten langileei eman beharko die lehentasuna, jendeak hautatu duen bertako hizkuntzan atenditua izateko duen eskubidea erabili ahal dezan. Are gehiago, dagoeneko administrazio publikoan lanpostua eskuratua duten langile elebakarrek, publikoa hautatu duen bere hizkuntzan atenditu ahal izateko helburuz, bertako bigarren hizkuntza ikasteko prozesuan murgildu beharko lukete, publikoa atenditzen den leihatiletan aritu ahal izateko behinik behin.

Beste adibidea. Zer gertatzen da ospitale eta osasun etxeetan? Bada, haur eta adindu asko medikuari bere gaitzaren sintomatologia ezin adieraziz aurkitzen dela, medikuak ez diolako haren hizkuntzan ulertzen. Kasu hau, gainera, gero eta gehiago ematen ari da, mediku gehienak (ia denak) elebakarrak izanik adin ttikietan gero eta gehiago baitira medikuek ulertzen ez duten beste hizkuntza bakarrik dakiten haurrak. Hiru edo lau urteko haurrek, adinagatik soilik, ez dute bertako bi hizkuntzak ongi menperatzeko betarik izan oraindik. Baina badute menperatzen duten hizkuntzan atendituak izateko eskubidea. Beraz, administrazioak mediku elebidunak eskaintzeko beharra du, sistema demokratiko bat eraiki nahi badugu behintzat.

> *Demokraziak nafar gehiengoaren nahia aintzat hartu beharra du. Beraz, euskara eta gaztelera normaltasunez eskaini behar dira*

Nafarron borondate garbia

Nafarroan, herritarren gehiengoak bertako bi hizkuntzak ikastearen aldeko hautu garbia egin du, hurrengo ikasturterako guraso gehienek beren seme-alabentzat bide hori aukeratu dutelarik. Aurrematrikulazioaren garaian, gurasoen %67k euskara eta gaztelera dituzten ereduak hautatu dituzte. Nafar gizarteak elebitasunaren aldeko apustua egin du. Oinarriak-ek jasotako 50.000 sinadura horiek ere beste hainbeste adierazten dute. Demokraziak nafar gehiengoaren nahia aintzat hartu beharra du. Beraz, euskara eta gaztelera normaltasunez eskaini behar dira. Nola ikasteko hala erabili ahal izateko orduan. Haur Hezkuntzatik hasita Unibertsitatea bitarte, ospitale eta osasun etxeetako zerbitzuetan, lantokietan, justiziaren administrazioan, komunikabideetan... nafar orori eman behar zaizkio bi aukerak berdintasunez.

Hori bera da egun Europan eta Nazioartean hizkuntz eskubideen inguruan onartuta dauden bi dokumentu nagusiek aldarrikatzen dutena (Eurokarta, batetik, eta UNESCOk bere egin duen Deklarazio Unibertsala, bestetik). Hona hemen, adibide gisa, Europako Ministro Kontseiluaren Batzordeak onartutako Eurokartak hizkuntza historikoei dagokienez bere sarreran dioena:

a) Helburua bizirik iraun dezaten dela.

b) Horretarako status juridiko egokia izan behar dutela.

c) Esparru publiko eta pribatu guztietan erabiliak izan behar dutela, nahiz ahoz nahiz idatziz.

d) Egun jasaten ari diren era guztietako diskriminazioak ezabatu behar dituztela Administrazio guztiek.

e) Eleaniztasunaren balioa azpimarratu behar dela.

f) Administrazio banaketa geografikoak ez duela beren garapena oztopatu behar.

g) Maila guztietan egokiro irakatsita izan behar dutela, haur hezkuntzan hasi eta unibertsitatea bitartean.

h) Eremuko unibertsitateetan azterketa eta ikerketa lanak bermatu egin behar direla.

i) Ez dakien eremuko jende larriak ikas dezan ahalegindu behar dela.

j) Nazioarteko akordioak lortzen saiatu beharra dela.

k) Aurreko guztiaren sustapena egiteko erakunde bereziak sortu beharrak direla.

Eta hori dena zergatik? Bada, hizkuntza historiko hauek Europako ohiturak eta kultur ondarea gordetzen eta garatzen laguntzen dutelako. Europar guztien ondare direlako. Eleaniztasuna balio nabaria delako. Halaber, hizkuntza historikoak sustatuz, Europa demokratikoaren eraikuntza bultzatzen delako. Arrazoiok Eurokartan daude jasoak.

Talde Parlamentarioen erantzukizuna

Orain artean esandakoak nafar guztioi geure hizkuntz eskubideak maila berean ezagutu behar zaizkigula adierazten digu. Ezin dezakegu ontzat eman hizkuntz eskubideen inguruan nafarron artean hain diskriminazio handiak inposatzen dizkigun egungo sistema. Euskaldunok ezin baitugu euskaraz bizi. Egungo egoera ezdemokratikoa gainditzeko eta, beraz, Nafarroa Garaian demokrazia eraikitzeko, nafar guztion hizkuntz eskubideak aitortuko dizkigun esparru juridiko berria sortu beharra dugu. Horretarako, lehen urratsa bertako bi hizkuntzen pareko ofizialtasuna arautzea izanen da, horren ardura Talde Parlamentarioei dagokielarik. Baina Legebiltzarrean ez da halako aldaketarik azkartzeko borondaterik. Indar politiko nagusiak, interes politiko-ekonomikoak direla medio, ez datoz bat herritarren borondatearekin. Foru Hobekuntzan bertan (9.art.) paratzen dute euskarari oldartzeko euskarri nagusia: gaztelera herrialde osoan izanen da ofiziala; euskara, gehienek hitz egiten duten zonaldeetan soilik.

Hortik aurrera, euskararentzat dena da traba eta oztopo. Foru Hobekuntzaren 9. artikulua garatzen duen Vascuencearen Legeak hiru zonaldetan puskatzen du herrialdea, biztanleei beren hizkuntz eskubideak bizi diren eskualdearen arabera arautzen zaizkielarik. Nafarron arteko diskriminazioa instituzioetatik bultzatzen da eta Talde Parlamentarioei dagokie diskriminazio onartezin hori ezabatzea, denoi

hirusta...

JASONE OSORO

'Big Brother'

Umetan arrain gorria erosi zidaten gurasoek. Ontzia urez bete genuen eta huraxe bihurtu zen bere itsaso bakarra, olaturik gabeko ozeano mugatua. Egunean hiru aldiz ematen nion jaten, barkiloaren antza zuten koloretako pusketak mara-mara botatzen nituen ontzira, eta arrainak berehala zabaltzen zuen ahoa, gosez bezala. Egun batean, arrainari laguna ekarri genion, bigarren arrain gorria. Eta biek ikasi zuten ur gozotan igeri egiten, eremu estu hartan nork bere txokoa aurkitzen. Hirugarren arraina erosi arte, eta laugarrena. Orduan, ontzi handiagoa ekarri genuen etxera, plastikozko belar eta irla artifizialez osatua, aurrekoaren aldean paradisua, pentsatu nuen. Baina Eden hartan lau arrainek kumeak egin zituzten eta dozena erditik aurrera askotxo ziren, gehiegi hazi zen taldea. Noraezean ibiltzen ziren, muturra beiraren kontra joz, gardentasunetik ihes egin nahi balute bezala, talka egiten zuten eta begia hurreratzen nuenerako, guztiak neureganatzen nituen, zerbaiten eske, arreta bereganatu nahirik. Nire begia handiegia zen haien mundu txikiaren aurrean, horregatik, arrain-ontzia lagun bati oparitu nion eta arrainak banatu egin nituen.

Orain, telebista bizileku hertsi bilakatu da eta gurea dena zelatatzen duen begi erraldoia. «Colon potea izan nahi dut, eta telebistako iragarkietan agertu», abesten zuen Alaskak. Gizakion miserien erakusleihoak amarrua jarri digu, eta guztiok harrapatu gaitu sarean.

EAJ-EA-ETA harremanak

EUZKO ALDERDI JELTZALEAK ATZO ADIERAZI ZUENEZ, LIZARRA-GARAZIKO «ESKEMAK» INDARREAN JARRAITZEN DU

«Fase bat itxi den arren», marko berri bat lortzeko lanean jarraituko du EAJk

- Ibarretxek eta EAJren Asanblea Nazionalak ETArekin hitz egindakoaz «xehetasun» guztiak zituztela esan zuen Arzalluzek
- Elkarlanean aritzeko, HBri «modu autonomoan eta nortasun propioarekin» jarduteko eskatu zion EBBko buruak
- «Botoekin eraikitako frankismoan bizi» garela eta Aznarrekin hitz egitea «hormarekin egitea bezala» dela iritzi zion buruzagi jeltzaleak

Joseba Arruti / **Bilbo**

«FASE bat itxi da, baina beste batzuk etorriko dira atzetik». Horrela hitz egin zuen atzo Xabier Arzalluz EBBko lehendakariak EAJ, EA eta ETAren artean akordio bat lortzeko saioak porrot egin ostean —hala adierazten dute egunotan ezagutarazi diren dokumentuek—. «Gaur egun ez dugu ETArekin berba egiten jarraitzeko inolako espektatibarik, baina horrek ez du esan nahi etorkizunean egingo ez dugunik», zehaztu zuen Arzalluzek.

Gara egunkariak iragan asteburuan argitara emandako dokumentuen inguruko ikuspuntua azaltzeko eta horrek egoera politikoan izango duen eraginari buruzko gogoeta egiteko azaldu zen prentsaurrekoan atzoEAJko burua, Joseba Egibarrekin batera. Etorkizunari begira Arzalluzek esan zuen «bakearen aldeko aktibistak» direla, eta bake bidean lan egiten jarraituko dutela.

Egoera berrian Lizarra-Garaziko «eskemak» baliagarria izaten jarraitzen duela ohartarazi zuen, eta esparru politiko berri batera abiatzeko gutxieneko adostasunak bilatzen ahaleginduko direla nabarmendu zuen, eta hori ezinezkoa bada, ezberdintasunetik elkarlanean aritu ahal izateko formulak bilatuko dituztela esan zuen Arzalluzek. Bide horretatik aurrera jotzeko, HBri «modu autonomoan» jarduteko eta «nortasun propioa» azaltzeko eskatu zion.

Bestalde, Ibarretxe lehendakariak eta EAJren Asanblea Nazionalak ETArekin izandako elkarrizketen inguruko «xehetasun» guztiak ezagutzen zituztela adierazi zuen. Bestalde, Eusko Jaurlaritza egokordagoela adierazi zuen EBBko lehendakariak, eta legegintzaldi osoa bete ahal izango duela.

«Ibarretxe bota nahi badute zentsura mozioa aurkeztu beharko diote», esan zuen EBBko buruak. «Aiztoa sartu nahi badiote, saia daitezela, edo utz dezatela bakean, baina ez diezaiotela eskatu berak bere buruari sartzea».

Xabier Arzalluzek gogor jo zuen Aznarren eta bere gobernuaren jokabidearen kontra. «Aznarrek asko hitz egiten du, baina elkarrizketaren alde ez du deus egiten, berarekin berba egitea horma batekin egitearen parekoa da», esan zuen.

PP ere ez zen onik atera Arzalluzen kritiketatik. «Ez dute frankismoa gaitzetsi. HB, gaitzespen hitza erabili barik izan arren, ETAren ekintzen aurka azaldu da. Baina ez PPk, ez Mayor Orejak, ez Iturgaitzek ez dute gaitzespen hitza erabiltzen frankismoa bezain gauza ikaragarria kondenatzeko». Hori dela eta, egungoa «botoekin eraikitako frankismoa» dela esan zuen, eta hori demokrazia denik

JOSU ETXEBARRIOSTE

Joseba Egibar eta Xabier Arzalluz EAJko burukideak, atzo ETAren agiriei buruz eskainitako agerraldian.

XABIER ARZALLUZ
Eusko Jaurlaritza

«Ibarretxek legegintzaldia amaituko duela uste dut»

ETAk EAJren eta EAren ñabardurei emandako ezetza

XABIER ARZALLUZ EAJko Euzkadi Buru Batzarreko lehendakariak atzo aditzera eman zuenez, ETAk bere idatzietako bat «ezkutatu» du, eta ez du agerrarazi *Gara* egunkariak iragan asteburuan argitara eman dituen dokumentuetan.

Buruzagi jeltzaleak ezagutzera eman zuen idatzia 1998ko irailekoa da, eta bertan ETAk ez zituen onartzen EAJk erakunde armatuaren akordio-proposamenari egindako «ñabardurak».

Arzalluzen esanetan, ETArekin adostasuna bilatzeko saioek «huts egin» zuten, eta ez zen hiru aldeen arteko adostasunik lortu. «Ondorioz, su-etena hausteko aitzakia gisa akordio horiek bete ez izana egotzi zigunean, ETA gezurretan ari zen», adierazi zuen.

Bere aburuz, akordioa lortu ahal izateko prozesuan hiru aldeek elkarri emandako dokumentuak ezagutzera eman izana ETAk «EHren munduaren aurrean» bere jokabidea zuritzeko saio bat da. Arzalluzen berbetan, «mundu horrek ez du ulertu ez onartu ETAren jokabidea, eta lurrikara bat sortu da hor barruan».

Bestalde, ETAk azaldutako «desleialtasuna» izan zuen hizpide EBBko buruak. «Dokumentuak hiru aldeen adostasunik gabe ezagutzera ez ematea hitzartu genuen arren, ETAk ez du hori bete; eta hurrengoan kontu handiagoz ibiliko gara». Gainera, ETArekin hitz egiten aritu zirenean, haren jokabidea «inposiziozkoa» izan zela gaineratu zuen. Lehen agiriari ados egon gabe ziligua jarri izana klandestinitatearen gorabeherei egotzi zien Arzalluzek.

EAJ-EA-ETA harremanak

EAk «elkarrizketan oinarritutako irtenbidearen» aldeko apustua berretsi du

ETAren proposamenek «errealismo politiko falta» dutela esan zuen Gorka Knörrek

Joseba Arruti / **Bilbo**

Indarkeriari aurre egiteko «aurrerantzean ere elkarrizketan oinarrituriko irtenbide bat lortzeko lanean gogor ariko dela» adierazi zuen atzo Eusko Alkartasunak. ETArekin «inolako akordiorik» lortu zenik ukatu eta erakunde armatuaren proposamenek «errealismo politikorik ez» dutela azpimarratu zuen Gorka Knörrek.

EUSKO ALKARTASUNAK «elkarrizketaren bidez indarkeriari amaiera emateko irtenbideen bila jarraituko» duela adierazi zuen atzo Gorka Knörr idazkari nagusiak. Adierazpen horiek ETA, EAJ eta EAren arteko elkarrizketetan erabilitako dokumentuak ezagutzera eman izanaren ondorioz EAren Batzorde Eragileak herenegun Gasteizen landutako adierazpenaren berri ematean egin zituen Knörrek.

EAren adierazpenean esaten denez, *Gara*k kaleratutako agiriak «ETArekin elkarrizketa suspertuz Eusko Alkartasunak izandako harremanen gaineko alde zehatz baten bertsioa dira, osagabea gainera». Dena den, «gure alderdiak ETArekin inongo akordiorik ez zuela lortu ikusten da, ETAk uko egin baitzion jarri zitzaizkion baldintzak onartzeari», dio EAren adierazpenean.

TXEMA FERNANDEZ / EFE

Onintza Lasa, Gorka Knörr eta Rafa Larreina atzo EAren batzorde eragilearen agiria azaldu zutenean.

GORKA KNÖRR

ETAren jokabidea

«ETA bere inguruan jasotako kritikei aurre egiten saiatu da dokumentu horiek kaleratuz»

Gorka Knörrek adierazi zuenez, EAk «aniztasun politikoaren eta giza eskubideen exijentzia» jarri zion mahai gainean ETAri akordio bat lortzeko, eta erakunde armatuak ez zuen onartu.

Kritikei aurre eginez

Eusko Alkartasuna ez dator bat «elkarrizketaren bide honetan saiatu izanagatik» jaso dituen kritikekin. Gainera, EAk ez deritzo aipatu puntuetan oinarritutako balizko akordioa «indarkeria zaleen aurrean belaunikatzea» izango zenik, aipatu ardatzak alderdiaren barne arauetan jasotzen direlako.

Ildo horretatik, Espainiako gobernuari, PPri eta PSEEEri «kritikatzeari utzi eta alternatibak eskaintzeko» eskatu zien EAko idazkariak.

Elkarrizketetako agiriak argitara eman izana ETAk «bere inguruan» jasotako kritikei aurre egiteko saiakeratzat jotzen ditu EAk. Knörrentzat, ETAren proposamenetan ez dago «errealismo politikorik». «Abertzale bati galdetzea ea sei herrialdeetan egindako hauteskunderik nahi duen, egunero mezatara doan katoliko bati Jainkoagan sinesten duen galdetzearen parekoa da. Kontua da nola lortu errealismoz hori ahalbidetzea», esan zuen Knörrek.

Ibarretxeren ustez, «ETA eta PP EAJren aurka aliatu direla ematen du»

Erredakzioa / **Bilbo**

JUAN JOSE IBARRETXE EAEko lehendakariak atzo adierazi zuenez, ETA eta PP Euzko Alderdi Jeltzalearen aurka aliatu direla ematen du, «bi muturrak helburu horrekin lotzen dituen interes berezia baitago». Catalunya Radiori eskainitako elkarrizketan esan zuenez, «ETAri interesatzen zaio esatea EAJk ez duela hitzartutakoa bete, eta aldi berean ematen du PP aliatu gisa bilatzen duela; alderdi hori ETAk esandakoaz baliatzen baita akordioa egon zela adierazteko».

Ibarretxek esan zuen hauteskundeak aurreratzeak ez lukeela irtenbide berririk ekarriko eta PPri egindako elkarrizketarako proposamena berretsi zuen. «Nik ez dut uste arazoak elkarrizketarik gabe konpon daitezkeenik, eta PPrekin ere hitz egin behar da». Horretarako, Aznarren alderdiak «ezaugarri izan duen inmobilismo itsua» baztertu behar duela esan zuen lehendakariak eta guztiekin hitz egin behar duela, «baita lehendakariarekin ere».

Lehendakariak EHren protagonismo handiagoa ere eskatu izan du azkenaldian, su-etena apurtu zenetik talde politiko horren «tonu politikoa» jaitsi egin dela iritzi baitio.

Ibarretxe ETB-2an elkarrizketatuko dute gaur, 21:30ean.

Hitzarmena aukera gisa

Pello Urzelai

Akordioa / interpretazioa • EAJk eta EAk ziurtatu dute ez zutela ETArekin hitzarmenik egin, beraiek egindako ñabardurak ETAk ez zituela onartu argudiatuz. Baieztapen horri eusteko ETAk 1998ko irailean EAJri bidali zion gutuna ezagutarazi dute jeltzaleek. EAk, ildo beretik, argitara eman gabe, bi idazki ekarri ditu gogora argudio gisa: berak jasotakoa eta ETAri igorritako erantzuna (ñabardurak onartu ezean akordioa baliorik gabe uzteko eskatuz). Azalpen hauek guztiak kontuan hartuta ere, zaila da gertatutako hitzarmen gisa ez ulertzea. Batetik, beste bi agirik hitzarmena izan zela ulertarazten dute: lehenik, ETAk EAJri eta EAri 1999ko otsailean, su-etenaren lehen hilabeteak betetzean, igorri ziena, adostutako lau puntuen balantzea eginez, eta, bigarrenik, EAJk ETAri 1999ko abuztuan igorri ziona (batetik, ETAk uztailean aurkeztutako proposamenari ezezkoa ematen zion, baina bestetik aurreko «akordio eta eranskinetik» ez zela «deus aldendu» aldarrikatzen zuen. Beste batetik, Udal Ordezkarien Biltzarraren sorrera konpromiso baten ondoriotzat jo daiteke (1998ko uztaileko akordioaren lehen puntuari zegokiona). Azkenik, EAJk eta EAk sarritan esan dute ETAren su-etena neurri batean beraien ahaleginei esker etorri zela eta, azken batean, baieztapen hori nolabaiteko aitorpena da, akordiorik ez balitz izan, ezin izango zuketelako eskuhartzerik aldarrikatu. Dena dela, hitzarmenaren existentziari buruzko desadostasunak baino garrantzitsuagoa dirudi beste honako honek: hitz egindakoari, abian jarritako eta egin beharreko ekimenei buruzko interpretazioari dagokiena.

Hitzarmenaren bidea • Desadostasun hau handituz joan da iazko udatik hona eta EAJk eta EAk emandako azalpenenei kasu eginez, beste eredu bat bilatzen dute, prozesuaren lidergoa beraien esku eta ETArekiko lotura zuzenik gabe. Baina ildo horretan EAJk eta EAk ia ez dute jokatzeko tarterik, Jaurlaritzaren egonkortasuna kolokan baitute (ezker abertzalearen jarreraren menpe). Dena den, *elkar estutzeko* estrategiak aukera berriak zapuzteko arriskua du. Aitzitik, hitzarmena aukera gisa planteatuta emankor gerta daiteke. Izan ere, abertzaleen arteko adostasun esparru batzuek —Udalbiltzak, esparru politikoa gainditzeari buruzko alderdi abertzaleen arteko foroak...— indarrean jarraitzea itxaropen iturria da, bitartean hitzarmenaren bidea irekita baitago.

EAJ-EA-ETA harremanak Agiria

ETAren erantzuna EAJ-EAri

1998ko irailean idatzi eta urrian ETAk helarazi zion agiria eman zuen ezagutzera atzo EAJk, bertan hiruren arteko akordiorik ez zela izan agerian gelditzen dela uste baitu. EAJk eta EAk akordio-proposamenari egin zizkioten ñabardurei erantzuten die ETAk, ondoren jasotzen den agirian.

Agur t'erdi,

Luzatu genizuen akordio proposamenari eman diozuen erantzuna aztertu ondoren honoko erabaki eta gogoetak jakinarazi nahi dizkizuegu:

– Forma aldetik seriotasun gutxiko adierazpena iruditzen zaigu dokumento originalaren gainean aldaketak egitea. Areago aldaketa horiek akordioaren irakurketa edota garapena izan nahi dutenean. Zuek esan zenigutenez horrelaxe ulertzen zenuten ere, eta EAren iritzia izan zen bereziki gauzak horrela egitearen arrazoia. Ulertzen dugu beraz ardura ezberdinak direla, baina bion aldetik sinatuta dagoenez zuei ere esan beharrean aurkitzen gara.

–Bi alderdien artean egin dituzuen ñabardurak ez ditugu onartzen. Izan ere kontenidoari dagokionean antzematen dugun kezka nagusia da politikoki zuen eremua zaintzea eta neurri batean ausardia falta aurrerapausoak emateko.

–Beranduago izanen dugu aukera luze eta sakon mintzatzeko, akordioaren inguruko argipenetaz zein subiranotasuna lortzeko egin beharreko urratsetaz.

–Zuek planteatu zeniguten nahiago zenutela harreman bilateralak edukitzea eta bion artean akordio bat lantzea. Guk uste dugu inor ez dela baztertu behar, eraikuntza nazionalaren ardura guztioi dagokigula bakoitzaren indar eta ahalmenak ezberdinak izanik ere. Beraz, hiruren arteko formula horri eutsi diogu. Honek ez du baztertzen harreman bilateralak edukitzea, beste momentu batzuetan trilateralak ala multilateralak izan daitezkeen bezala.

Bestalde, azken asteotan EAJren aldetik antzeman dugun jarrerari buruzko zenbait gogoeta egin nahi dizuegu. Eta hasteko ezberdindu nahi dugu su-etena eta Lizarra-ko Hitzarmenaren aitzineko jarrera batetik eta ondorenean somatu duguna bestetik.

Zuen erantzuna jaso genuenetik jokabide guztiz ezberdinak antzeman ditugu zuen alderdikideen artean. Orohar EAJk alderdi gisa diskrezioa eta seriotasuna adierazi duen bezala, Gasteizko gobernuan ardura duten zuen alderdikide batzuen aldetik batere zintzoa ez den jarrera ikusi dugu. Lehenik eta behin diskrezio gutxi izan dutelako. Eta denok dakigu protagonismoak eta alderdikeriak ezer gutxi laguntzen dutela horrelako une politiko garrantzitsuetan. Baina gehien kezkatu gaituztenak akordioa eta sor zitekeen egoera desitxuratzeko egin dituzten ahaleginak izan dira.



Josu Etxebarrioste

Xabier Arzalluz, atzo, ETAk igorri zien idatzia eskuan duela.

Gertatzen ari diren aldaketa politikoak esplikatu nahi izatea Ezker Abertzalearen eboluzio edota aldaketa baten ondorio gisa soilik, funtsa haundirik ez duen gauza da. Erakundearen erabakiaren plazaratzeari aurrea hartu nahi izatea bezala. Uler dezakegu mezu batzuk lantzearen beharra, besterik ez bada Espainiatik zuzentzen diren eraso mediatiko/politikoen aurrean bizkarra zaintzeko. Baina norberaren interesak ez du arriskuan jarri behar elkarren artean egin daitekeen urratsa. Eta jarrera horiek arriskuan jarri dute edozein urrats egiteko aukera. Jakin badakigu EAJ eta Gasteizko gobernua ez direla gauza bera, eta mezuak zein posizioak ere ezberdinak izan behar direla, baina *rolen joku* hori soberan zegoen une horretan. Hala uste dugu behintzat.

Denbora tarte horretan, orohar EAJren aldetik entzun dugun mezu politikoa ez da kokatu subiranotasunaren inguruan edota helburu hori lortzearren irekitzen zen aukeraz. Bakar bakarrik *pakeaz* mintzatzen aritu da eta beti pakea ETAren su-eten batekin identifikatuz. Hartara, datorren fase politikoa ez da *pakearena* izan behar, SUBIRANOTASUNARENA baizik. Eta Gasteizko parlamentoarena ez da *pakearen* legealdia izan behar, AZKEN LEGEALDIA baizik. Horixe da behintzat proposatutako akordioaren zentzua. Gero ikusi behar noraino ailegatzen garen bide horretan, ze nolako oztopoak aurkitzen ditugun, ze nolako indarrak jartzen ditugun denon artean, etabar.

Eta horretarako, batu behar gaituen kezka ez da Madril edota Pariseko gobernuek emango duten erantzuna, abertzale garenok hartzen dugun konpromezua eta egiten ditugun urratsak baizik. Jakin badakizue afera ez dela Madrilgo gobernuari «ardura eta ausardia» eskatzea, baizik eta hitzez hartutako konpromezua praktikan jartzea. Ardura abertzaleok gure buruari eskatu behar diogu, Euskal Herrian sortu den egoera politiko hau aprobetxatu eta pausoak emanez, etorkizunerako oinarri sendoak jartzeko.

Zentzu horretan, Lizarra-ko Hitzarmena egoki eta garrantzitsutzat hartzen dugu. Eta zinez bere sakontasun osoarekin baloratzen dugu EAJ-k izandako jarrera, subiranotasunerantz daramaten urratsak egiteko konpromezuaren adierazle argia delako. Lizarra-ko Hitzarmenak eskeini duen elkarrizketarako gunea eta konponketa politikorako abiapuntua ontzat ematen dugu beraz, eta parte hartze zein elkarlanerako marko egokia dela iruditzen zaigu.

Ildo beretik, Erakundeak hartutako iniziatiba horrek sortu duen egoera eta orohar Euskal Herrian somatzen diren aldaketa politikoak oso interesgarriak direla baloratzen dugu. Ilusioa, urratsak egiteko aukera eta konponbide politikoa lortzeko konpromezua nabarmentzen ari dira gizartean. Aspaldidanik ikusi nahi genuen egoera berezi baten aurrean aurkitzen gara denok. Subiranotasunerantz abiatzen diren pausoak emateko aukera paregabe baten aurrean hain zuzen ere. Eta aukera horretan denon parte hartzea, konpromezua eta ardura ezinbesteko izango dira.

> *EAJren aldetik entzun dugun mezu politikoa ez da kokatu subiranotasunaren inguruan. Bakarrik 'pakeaz' mintzatzen aritu da eta beti ETAren su-eten batekin identifikatuz*

Hartara, EAJ-k su-etenaren aurrean izan duen jarrera zuzena iruditu zaigu. Seriotasun eta heldutasun politikoa erakutsi baitu. Kaleratutako Agiriaren kopia bat bidaltzen dizuegu, prentsan agertu arren zuzenean zuei helaraztea merezi duelakoan.

Dudarik gabe, Euskal Herrian subiranotasuna lortzeko bidea dugu aurrean. Hori horrela izanik, ez dugu batere gutxiesten euskal gizartean nabarmentzen den ilusioa, aurrera egiteko griña eta pakean bizitzeko nahia. Aldiz, «biolentziarik gabeko egoeraz» mintzatu bada ere, biolentzia nonnahi eta uneoro jasaten ari da Euskal Herria. Indar armatu okupatzaileek gure herriko karriketan izua sortzen jarraitzen dute. Ertzaintzak berak ez du bere jokabide errepresiboa alboratu, presoek sakabanatuak diraute, euskarak eraso orokor baten helburu izaten jarraitzen du, gure herriaren eskubideak zapalduak daude... Biolentzia beraz egon badago, gure herria zapaltzen duten estaduek erabiltzen dutena. Eta horri ere denon artean egin beharko diogu aurre.

Bestalde, oso argi planteatu genizuen orain sortu den egoera berria behin betirakoa izatearen ardura denona zela. Eta denona esaten dugunean printzipioz Espainia eta Frantzia ez dugu kontutan hartzen. Ardura Euskal Herriaren askatasuna nahi eta maite dugun guztiona da. Hitzez behintzat hor kokatzen duzue zuen burua, ea ekintzetan ere gauza bera egiten dugun guztiok. Urrats praktikoak behar baitira, eta ez bihar-etzirako asmoak.

Elkarlanerako garaiak dira egungoak, norberak bere lan eremu eta ikuspegitik. Baina subiranotasuna eta pakea lortzea denon helburua izanik, ikuspegi horiek adostasun orokor batean kokatu eta aritzeko aukera delakoan gaude. Publikoki ere adierazi dugun bezala aukera paregabea ikusten baitugu aurrerantzean Euskal Herriaren independentzia bidean ardura eta esfortzuak konpartitu eta elkarlanerako adostasun eta bilgune berriak sortzeko. Eta gure aldetik adostasunezko bide berri horretan aurrera egiteko erabateko borondatea dugu.

Euskal Herriaren etorkizunerako berebiziko garrantzia duen egoera honetan denok lan egin eta urrats sendoak egingo diren esperantzan agurtzen zaituztegu.

Euskal Herrian,
1998ko irailean

EAJ-EA-ETA harremanak ◆ Erreakzioak

Legegintzaldi ituna lortu nahi zuen «itxura egitea» egotzi dio PSE-EEk Ibarretxeri

Akordioa ezagututa, norekin hitzartuko zuen bazekiela salatu dute sozialistek

Agentziak / **Bilbo**

Bezperan PSE-EEko hainbat ordezkarik egin bezala, atzo Rodolfo Ares eta Jesus Egiguren, Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariari zuzendu zitzaizkion. Bilbon eskainitako prentsaurrekoan Legebiltzarrean ager dadila eta EAJk ETArekin sinatutako akordioaz zekiena azal dezala eskatu zioten sozialistek. Aresek ETArekin sinatu akordioak Jaurlaritzaren jardunean izan duen eraginaz galdegin zion Ibarretxeri.

LUIS TEJIDO / EFE

Rodolfo Ares eta Jesus Egiguren buruzagi sozialistek atzo Bilbon eskainitako prentsaurrekoan.

ETA-REKIN sinatutako akordioa noiz ezagutu zuen eta horrek Eusko Jaurlaritzaren aliantza politikan zein eragin zuen azaltzeko galdegingo diote sozialistek Ibarretxeri, atzo Legebiltzarreko PSE-EEko bozeramaile Rodolfo Aresek ezagutarazi zuenez. «Akordio horrek eragin zuzena izan du Jaurlaritzaren jardunean eta, era berean, jarduera politikoa bera ere baldintzatu egin du; beraz, lehendakariak ezin du isilik geratu eta ezinbestekoa da azalpenak ematea», adierazi zuen.

Ildo horretan, sozialistek uste dute Ibarretxe, akordioa ezagutzen bazuen behintzat, PSE-EErekin legegintzaldi ituna lortu nahi zuen «itxura egiten» aritu zela, ordezkari sozialistekin egindako bileretan jada bazekielako EHrekin sinatuko zuela ituna. «Akordioa ezagutzen ez bazuen, bere alderdiko norbaitek ezkutatu egin ziola esan nahi du, eta hori ere oso larria da», gaineratu zuen.

EAJri akordioa ezkutuan mantentzen saiatzea leporatu zion Aresek. «Baina garrantzitsuena da agiri horiek praktikara eraman dituztela. EAJk ez du alderdi ez abertzaleekin koaliziorik egin nahi izan eta euskal erakunde nazionala eratu dute Udalbiltzarekin, ETAk eskatu bezala», adierazi zuen legebiltzarkide sozialistak.

«Konspiraziorik» egon ote den ere galdegin zuten buruzagi sozialistek atzokoan, helburua «su-etenaren aitzakian proiektu politiko zehatz bat inposatzea» zela uste baitute. «Bide bati ekin zioten, su-etenaren babesean, baina ez soilik bakea lortzeko, abertzaleen batasuna lortzeko nazio eraikuntzaren bidean», azaldu zuen Aresek.

Erakundeak zalantzan jartzea helburu

EAEko PPko lehendakari Carlos Iturgaitzek atzo adierazi zuenez, ETArekin sinatutako akordioak «ez abertzaleak baztertzea zuen helburu, eraikuntza nazionalaren bidean egungo erakundeen egonkortasuna zalantzan jartzea eta ahultzea bilatuz». Iturgaitzen aburuz, hori larriagoa da EAJko buruzagiak «egunetik egunera gezurretan aritu» direla jakitea baino. EAJ, EA eta ETAren arteko akordioaren beste helburuetako bat, EAEko PPren iritziz, «ETA Euskal Herriko agente politiko eta sozial bezala geratzea zen».

Ibarretxeri buruz, berriz, Iturgaitzek tamalgarria iritzi zion EAEko lehendakariak oraindik azalpenik eman ez izanari. Haren ustez, horren arrazoia «Ibarretxe Arzalluzen aginduetara dagoen morroia» izatea da.

«Azken bi urteetako errealitateak akordioa bazegoela baieztatzen du», Mayor Orejaren iritziz

Agentziak / **Madril**

JAIME MAYOR OREJA Espainiako Barne ministroak atzo adierazi zuen jada «inork» ez duela sinesten EAJ, EA eta ETAren arteko akordioa egon ez zenik. «Izan ere, azken bi urteetako errealitateak akordioa bazegoela baieztatzen du», esan zuen. Arzalluzi erantzunez, «nahi duen bezala» deitzeko esan zuen, «akordioa, ituna edota akordio oinarria». Mayor Orejaren iritziz, gizartea gero eta seguruago dago akordio hori egon zela, «EAJren barnean, Jaurlaritzan eta Eusko Legebiltzarrean gauzak era berean gertatuko bailirateke akordioa sinatu izan balitz».

Horri jarraiki, Barne ministroak adierazi zuen PPk ez duela «inor harrapatzen» joateko asmorik; baina Ibarretxeri hauteskundeak aurreratzeko eskatu zion ondoren. «Gauza gehiegi gertatu dira, gauza gehiegi ezkutatu, euskal gizarteari bere iritzia eman dezala ez eskatzeko», adierazi zuen.

Mayor Orejak esan zuen Ibarretxeri egindako eskaeran ez daudela «alderdi interesak», «PPri eta PSOEri interesatzen zaiena hauteskundeak piska bat geroago egitea bailitzateke». Haren arabera, EAJri interesatzen zaio, batez ere, hauteskundeak une honetan bertan egitea. «Izan ere, norbait lokatzetan sartzen bada, egunero bezperako gezurra arrazoitzeko gezurrak esan beharrean aurkitzen bada, alderdia indarra galtzen joaten baita», azaldu zuen.

Amaitzeko, Gobernuak ETAren kontrako borroka orain arteko ildotik eramango duela berretsi zuen; hots, «Zuzenbide Estatua indartuz». Esan zuenez, Frantziaren lankidetza eta komunikabideen laguntzarekin eta Estatuko Segurtasun Indarrekin lortuko da hori.

Sanzek dioenez, akordioak zalantzan jarri du EAJ eta EAren «zilegitasun demokratikoa»

Agentziak / **Iruñea**

MIGUEL SANZ Nafarroako lehendakariak atzo adierazi zuenez, «gogorra da ETAk igorritako mezuei sinesgarritasuna ematea, baina errealitatea ezin daiteke ukatu, agiriak sinatuta daude». Ildo horretan, EAJri eta EAri euren jarrerak zuzentzea eskatu zien: «Espero dut EAJk eta EAk argia ikustea, eta ulertzea ideiak demokraziaren aldean jarrita bakarrik defenda daitezkeela».

Nafarroako lehendakariak uste du EAJk eta EAk «zilegitasun demokratiko osoa galdu» dutela akordioa ezagutzera eman denetik, eta zilegitasun hori berreskuratu nahi badute akordioak sinatu aurreko bideari hel diezaiotela aholkatu zien.

Azkenik, Lizarra-Garaziko akordioa kritikatu zuen Sanzek. «Lizarra bakea lortzeko estrategia bat zela defendatu nahi izan dute, subiranotasuna eta independentzia lortzeko helburua baino ez zuenean», adierazi zuen Foru Erkidegoko lehendakariak atzo.

«Bilbon ETArekin sinatu akordio guztiak bete dira», PPk esandakoaren arabera

Agentziak / **Bilbo**

BILBOKO UDALEKO PPko bozeramaile Antonio Basagoitik atzo adierazi zuenez, «Bizkaiko hiriburuan EAJk ETArekin sinatutako akordio guztiak bete ditu». Ildo horretan, Iñaki Azkuna alkateari ETArekiko «malgutasunez» jokatzea leporatu zion, «bere legegintzaldiaren hasieratik akordio horrek Bilbon isla izan dezan aritu baita lanean».

Aurretik esandakoaren adibide moduan, Bilboko Udala Udalbiltzan sartu izana, EAJk PSE-EErekin eta PPrekin akordioak egiteari ateak itxi izana eta Euskal Herriaren eraikuntza nazionala bultzatu izana aipatu zituen Basagoitik.

Euskal presoak

EDURNE KOCH

Tomas Karrera Senideen koordinatzailea beste zenbait seniderekin agertu zen prentsaurrekoan.

Presoen auzia konpontzeko «denek zerbait ematea» beharrezkoa da Senideen ustez

Presoek «daukaten guztia» ematen dutela azaldu zuten gose greba aipatuz

Axun Erzibengoa / **Donostia**

Euskal presoen auzia konpontzeko guztien aldetik zerbait jartzea beharrezkoa dela azaldu zuten atzo Senideek. Ehundik gora preso gose greba mugagabean daudela Euskal Herriaren hitza errespeta dadin eta bakearen alde presoak edozer egiteko prest daudela adierazi zuten. Arazo horrek «konponbide orokorrak» eskatzen dituela esan zuten, «ez erdibideak».

PRESOEK gose greba mugagabeari ekitea senitarkoentzat «oso gogorra eta latza» dela adierazi zuten atzo Senideek Donostian eginiko agerraldian. Baina ekimen horrek presoak prozesuaren alde dena emateko prest daudela adierazten du Tomas Karrerak azaldu zuenez. Haien bizitza arriskuan jarriz, bakearen alde, indarkeria mota guztiak desagertzearen alde eta Euskal Herriaren hitzaren alde ari direla esan zuen.

Presoak egoera horretan dauden artean, gizartean zenbait jarrera maltzur ikusten ari direla adierazi zuen Karrerak. CCOO eta UGT sindikatuak eta Manuel Huertas PSE-EEko buruzagia aipatu zituen adibide gisa. «Euskal Herrian giza eskubideak ez direla errespetatzen diote. Ezin da giza eskubideen bortxaz hitz egin eta presoen egoera ahaztu. Ezin dira isolamendua, istripuak, heriotza, jipoiak eta gaixotasunak ezkutatu. Hori guztia ezin da ahaztu, are gutxiago bakoitzak zein erantzukizun dituen», azaldu zuen.

Senideek giza eskubideen urratzea amai dadin legeak jartzen dituen bide guztiak erabili dituztela adierazi zuten, «eta isiltasuna edo mesprezua jaso dugu erantzun gisa». PPk jarrera inmobilista duela esateak arazoaren luzapena besterik ez duela ekartzen iritzi diote Senideek.

Horregatik presoen auziaren irtenbideak euskal gizarte osoaren inplikazioa eskatzen duela azaldu zuten. «Irtenbide orokorrak behar ditugu, ez isiltasuna edo mesprezua. Bakoitzak erabakiko du bere konpromisoa, baina denok eman behar dugu zerbait», amaitu zuen.

Beste 38 presok egin dute bat baraualdiarekin

Erredakzioa / **Donostia**

JADA 174 preso daude gose greba mugagabean euren eskubideen alde, atzoko zerrendan zeudenetatik bik utzi arren beste 38 presok bat egin baitute ekimenarekin. Ondokoak dira. Apirilaren 28an Cartagenan Jose Mari Mujika, eta Langraizen Oscar Abad, eta Fernando Diez 29an.

Apirilaren 30ean: Villabonako espetxean Xabier Izaga eta Josu Amantes, Zaragozan Bautista Barandaia, Algecirasen Antxon Lopez Ruiz eta Joxean Pagolk, Albaceten Imanol Haranburu, Fernando del Olmo eta Saturnino Lopez, Murcian, Koldo de Marcos eta Valdemoron Armando Legaz.

Maiatzaren 1ean: Xabier Oregi Murcian, Teruelen Jose Ramon Artola, Castellon Pedro Jose Etxeberria, Fermin Ventura eta Estanis Lopez, Ourensen Carlos Larrañaga eta Peio Odriozola, eta Malagan Koldo Martin Carmona.

Maiatzaren 2an: Curtisen Pilar Gabirondo eta Gonzalo Rodriguez. Atzo: Mansillan Joseba Artola, Iñaki Rego, Juan Jose Rego, Fernando Alonso, Jesus Bollada eta Oroitz Salegi. Horiez gain A Laman Fernando Etxegarai, Jaen IIn Joxean Etxabarri, Valencia IIIn Jaime Rementeria eta Benancio Sebastian, Cuencan Raul Alonso eta Topasen Josu Aierbe, Jose Mari Etxaniz, Jaione Beaskotexea eta Mertxe Galdos daude gose greban.

Koordinaketako lau kidek gose greba abiatu dute presoekin elkartasunez

Hur Gorostiaga / **Baiona**

PRESOEN sostengu komiteen Koordinaketako lau kidek gose greba mugagabea abiatu zuten atzo Baionan, 138 euskal presok abiatu duten ekimenarekin bat eginik.

Hastapeneko asmoa Baionako katedralean egitea bazen ere, bertaratzean ateak itxita atzeman zituzten, eta ondorioz, Koordinaketak Baionan duen egoitzan abiatu zuten ekimena.

Heldu diren egunetan, alderdi, sindikatu eta giza mugimenduekin bilduko dira Koordinaketako ordezkariak, maiatza bukaeran Euskal Herri osoan presoen eskubideen alde egitekoak diren mobilizazioak Ipar Euskal Herri mailan nola antolatu aztertzeko. Koordinaketa «proposamen oro aztertzeko prest» agertu zen. «Ipar Euskal Herrian mobilizazio indartsua» izanen dela adierazi zuen Jean François Lefort Koordinaketako bozeramaileak, eta nahiz eta Ipar Euskal Herrian sekula ez den egin, greba orokor baten aukera bideragarria izanen ez dela adierazi zuen.

Gose greba abiatu duten 138 presoetarik 19 Frantziako presondegietan daude. Eneko Borda, Filipe Bidart, Kontxi Iglesias, Iraun Zabaleta, Patxiku Gimon eta Arkaitz Saez dira ekimena abiatu duten Iparraldeko presoak.

BOB EDME

Gose greba abiatu zuten atzo Baionan Koordinaketako lau kidek.

Euskal presoen sakabanaketaren aurkako plataformak manifestaziora deitu du uztailaren 1ean Iruñean

■ *«Preso eta senideen eskubide urraketaz» ohartarazteko hainbat ekintza antolatu ditu*

Irene Arrizurieta / **Iruñea**

EUSKAL PRESOEN Sakabanaketaren Aurkako Plataformak «sakabanaketak presoentzat eta hauen senideentzat dakartzan ondorio latzak eta eskubideen urraketaz» gizartea ohartarazteko hainbat ekintza antolatu ditu. Hala, heldu den uztailaren 1-ean Iruñeko Golem zinematokitik 18:00etan aterako den manifestaziora deitu du.

Presoen legez kanpoko sakabanaketa eta hauen oinarrizko eskubideen etengabeko urraketa salatzeko 1998an sortutako plataformak egoerak bere horretan jarraitzen duela gogoratu zuen. «Egungo egoera ez da aldatu. Sakanabanaketa politikak presoen eskubideak urratzen jarraitzen du, eta senideentzat bereziki, eta gizartearentzat, oro har, zigor gehigarri bat da», gaitzetsi zuen Gorka Vierge plataformako kideak.

Ildo berean, Espainiako eta Frantziako espetxeetan kartzelaratuak dauden 464 euskal presoetatik 71 bakarrik daudela Hego Euskal Herriko espetxeetan deitoratu zuen Pili Erro, Senideak elkarteko kideak. «140 gose greban daude, ehun baino gehiagok zigorraren hiru laurden bete dute, 20tik gora hainbat espetxetan isolatuta mantentzen dituzte, eta ez zaie behar duten osasun arreta eskaintzen», salatu zuen Errok.

Bi gobernuok «presoen egoera isiltzeko egiten dituzten ahaleginak» kritikatu zituen. «Gizarteak gertatzen ari denaz ez du informazio nahikoa», gaineratu zuen Errok. Hori ekiditeko elkarretaratzeaz landa, plataformak Nafarroako herri eta auzoetan «legez kanpoko espetxe politikari buruzko informazioa» zabalduko du. Halaber, unibertsitate eta gizarte erakundeetan hitzaldiak eta informazio ekitaldiak eginen dituzte datozen asteotan.

Euskal Departamendua

Senta-Gabelako martxa «masiboa» izan dadin herritarrei dei egin diete antolatzaileek

Eskaera Jospinen herrira eramanez Estatu osoan oihartzuna izatea espero dute

Hur Gorostiaga / **Baiona**

Heldu den ekainaren 4an Senta-Gabela Lionel Jospin Frantziako Lehen Ministroaren herrira Euskal Departamenduaren alde egitekoa den martxa «masiboa» izan dadin dei egin die herritarrei, autobus bidaiaren antolaketaz arduratu den Urriaren 9ko Deiak. Ekimena, «Euskal Departamenduaren aldeko borrokan urrats garrantzitsua» izanen dela adierazi zuten, «euskal gizartearen instituzio eskaera euskal mugetatik atera eta Frantzia osora hedatzeko parada» izanen delakoan.

BOB EDME

AB, EAJ, ELB, CFDT eta Berdeen ordezkariek parte hartu zuten atzoko prentsaurrekoan.

«IPAR EUSKAL HERRIKO milaka herritarrek eta hautetsien gehiengoak Euskal Departamendua galdegin badu ere, Lionel Jospinen Gobernua elkor egon da gure eskakizunen aitzinean. Are gehiago, Lionel Jospinek berak, 1995 urtean Euskal Departamenduaren sortzea hitzeman ondoren, hitza jan du, eta euskal hautetsiekin biltzeko denborarik ere ez duela jakinarazi digu», adierazi zuen atzo Renaud Delizagarai Euskal Departamenduaren aldeko ekimen berri hau antolatzen duen *Urriaren 9ko Deia* talde antolatzaileko kideak. «Ministerioan hartu nahi ez gaituenez, bere herrira joanen gara» gehitu zuen Baionako hautetsi zentristak.

Hilabeteko epea baldin badago ere, guztia dago prest «festa giroan eginen den martxa» izan dadin. «Autobuseko tiketak 40 salmenta puntutan ezarri ditugu, eta autobusak Ipar Euskal Herriko lau puntu ezberdinetatik abiatuko dira. Herritarrei dei egiten diegu, martxa masiboa izan dadin, Euskal Departamenduaren eskaera, euskal gizartearen eskaera euskal mugetatik atera eta Frantzia osora hedatzeko parada izanen baita» azpimarratu zuen Jean Noel Exeberri Abertzaleen Batasuneko kideak. «Hemengo eta kanpoko herritarrek jakin behar dute, hemengo zenbait hautetsik interes politiko hutsez, Euskal Herriak ezinbesteko duen tresna galarazi nahi digutela» adierazi zuen.

Senta-Gabelara traba guztien gainetik

«Festa giroan» eginen den ekimena izanen dela adierazi zuten behin eta berriz. Musikari, euskal ekoizkinen erakusketa eta ikuskizun ugari prestatu dituzte horretarako, Senta-Gabelako herritarrei festan partehartzeko gomita eginik ere. Ez dakite ea bidean trabarik ukanen duten ala ez, baina «zernahi gerta ere baketsuki, baina helduko gara» adierazi zuen Delezgaraik. Hainbat herritan eztabaidak egingo dira egunotan.

Eguneko egitaraua

10:00: Autobusen abiatzeak Euskal Herritik.
13:00: Senta-Gabelarat heltzea eta festaren hasiera txaranga, trikitilari, bertsolari, joaldun, dantzari...
14etan: Jojo eta Ramuntxoren kontzertua.
15:00: Mintzaldia. Hautetsien ordezkaritzak mozio bat utziko du Senta-Gabelako Herriko Etxean.
15:30: Fermin Muguruza eta Dub Manifest kontzertua.
18etan: Itzulera.

Sorrerako asmoek «bizirik» dirautela berretsiko du CDNk bere V. urteurrenean

■ *Sorrerako asmoek «bizirik dirautela» berresteko asteburuan batzarra du*

Irene Arrizurieta / **Iruñea**

«NAFARROAN gehiengoa lortzeko asmoz lanean jarraituko du CDNk», adierazi zuen atzo Juan Cruz Alli alderdiko presidenteak. Ildo horretan eta sortu zeneko asmoek «bizirik dirautela» berresteko V. urteurrena ospatuko du CDNk. Asteburu honetan batzarra eginen du Garaioa herrian. «Abagune politikoak aldatu egiten dira. Erakundeetan lehen baino ordezkari gutxiago izan arren, Nafarroako gizartean gehiengoa lortzeko lanean jarraituko dugu», esan zuen Allik. «Konstituzioaren baitan autogobernu gehiago duen Nafarroa federalista defendatuko dugu», gehitu zuen. «Konstituzioaren proiektua defendatzen dugu federazio asimetriko bat lortzeko, eta aurreko gatazka politikoak gainditzeko. Europa federal eta politikoaren alde lan eginen dugu», gaineratu zuen.

Asteburuan batzarra dute Garaioan urteotako lanaz gogoeta egiteko. Heldu den astean, aldiz, bi mahainguru eginen ditu: bata, «Espainiako nazio aniztasunaren» inguruan izanen da, eta bestean, «bizikidetzan bitartekaritza politikoaz» ariko dira.

FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO BATZARRAK jakitera ematen du: 2000ko apirilaren 17an bildu eta honako hau onartu zuen Batzarrak:

1. Espainiar zein Frantziar Barne eta Justizia Ministeritzei eskatzea Fakultate honetan preso dauden ikasleak, Euskal Herriko espetxeetara ekar ditzatela, hainbat legedik adierazten duen bezala, Estatu biena, Europako Elkartearena eta Nazio Batuena, besteak beste. Era horretan presoak euren senideengandik eta gizartetik hurbilago egongo lirateke, bai eta Fakultate honetatik ere.

Erabaki hau Fakultateko ikasle presoak dauden espetxeetako zuzendariei ere bidaltzea.

2. Era berean, Euskal Preso politikoen Mintzakidetza partaideekin biltzea. Horretarako behar diren jestioak egitea. Une honetan Fakultatean 19 ikasle preso ikasten dute.

Hernaniko komertzioa erabat gelditu da, greba orokorrerako deiari erantzunez

Azken egunotako mobilizazioetan Ertzaintzak izandako jarrera salatu dute

Nagore Irastorza / **Hernani**

Greba orokorrerako deialdiak jasotako erantzuna «oso ona» izan dela adierazi dute *Utzi Hernani bakean* herri ekimeneko kideek. Denden %100ek erantzun diote deialdiari, eta enpresa ugaritan lanuztea egin dute. Eguerdiko manifestazioan 3.000 lagun inguru bildu ziren.

KALEAK hutsik eta denda, taberna eta bestelako guztiak itxita egon ziren atzo egun osoan Hernanin (Gipuzkoa), *Utzi Hernani bakean* herri ekimenak deitutako greba orokorrari erantzunez. Joan den astean Hernanin eta Goizuetan Ertzaintzak 13 lagun atxilotu izana salatzeko egin zuen deialdia herri ekimenak.

Dendari eta ostalarien %100ek bat egin zuten deialdiarekin, eta enpresa txiki gehienek ere bai. Hainbat enpresa handitan ere lanuztea egin zuten, Hernaniko Udalak bezalaxe. Ikastetxe guztiek ateak itxiak izan zituzten egun osoan.

Herri ekimenak oso ontzat jo ditu deialdia eta egunotan izandako mobilizazioak. «Hernanin aspaldi ez bezalako mobilizazioak antolatzeko gai izan gara, Ertzaintzak Entzutegiaren laguntzaz emandako kolpe gogorra gaindituz», esan zuten. Gainera, mobilizazioetan Ertzaintzak izandako jarrera salatu zuten, «herritarrak bortizki jipoitu, mehatxatu eta iraindu baitituzte». EAk, aldiz, greba «EHren porrota» izan dela esan zuen.

Eguerdian manifestazio jendetsua egin zen, eta 3.000 lagun inguruk parte hartu zuten. Atxilotuak askatzearen aldeko eta Ertzaintzaren aurkako oihuak entzun ziren bereziki. Manifestazioaren ibilbide osoan Ertzaintzaren presentzia erabatekoa izan zen. Besteak beste, Mertxe Etxeberria herriko alkatea eta Karmele Aierbe HBko Mahai Nazionaleko kidea izan ziren bertan.

Aierbek gogor salatu zuen Ertzaintzaren operazioa, eta Hernaniko herriak emandako erantzuna goraipatu zuen. Bestalde, atxiloketen erantzuleak ere gogoratu zituen. «Batetik, PP eta PSOEren erantzunkizuna gogoratu nehar da, Euskal Herriaren aurkako presioa egiten jarraitzen dutelako. Bestetik, EAJrena, presioa ikusirik kikildu delako eta zapalkuntzaz baliatu delako, Espainiako Gobernuaren aurrean ondo geratzeko». EAJren jarrerak «atzerapausoa» adierazten duela gehitu zuen: «Aurrera ekinbidez egin behar da, ez errepresioz».

PABLO S. QUIZA

Ehunka lagunek parte hartu zuten eguerdian egindako manifestazioan.

PABLO S. QUIZA

Ertzaintzak hurbiletik zaindu zituen kaleak manifestazioan.

Atxilotuetako bi aske, bermea ordainduta

Eduardo Karrera eta I.G. adin txikikoa aske geratu ziren atzo, senitartekoek hiru eta lau milioiko bermeak ordaindu ostean. Karreraren askatzea egun batez atzeratu da, bermea dirutan ordaintzeko agindua eman baitzuen Entzutegiak. Atzo arratsean ziren iristekoak Hernanira.

Bestalde, gainontzeko 11 atxilotuak Alcala Mecoko espetxean daude. Euren abokatuek oraindik ez dute ikusteko aukerarik izan. Inkomunikatuta deklaratu zutenez, abokatuek ez zuten kreditaziorik bisita egiteko. Egunotan sartu berrien moduluan egon dira, baina atzo modulu arruntera eramatea espero zen.

EHk Legebiltzarrean agerraldia eskatuko du

Erredakzioa/ **Donostia**

Hernanin eta Goizuetan joan den astean Ertzaintzak egindako operazioa azaltzeko Gasteizko Legebiltzarrean agerraldia egitea eskatuko dute EHko parlamentarioek. EHk dio gertaera larriak izan direla, operazioa «gaztearen ehiza gisa» planteatu baitu Ertzaintzak. «EAJ eta Gasteizko Gobernua Espainiako Gobernuaren aldetik jasotzen duten presioa gainetik kentzen saiatu dira operazio honekin». Bestalde, Hernanikoa bezalako «propaganda operazioak» bultzatuz, EAJk eta Gasteizko Gobernuak Euskal Herrian abian den prozesuarekin dituzten «konpromisoak alde batera» uzten dituztela dio EHk, «errepresioari babesa emanez». Ertzaintzaren inkomunikazioa ere salatu du EHk bere oharrean, eta «lehengo errezetak» direla gehitu. Josu Jon Imaz Jaurlaritzako bozeramaileari azalpenak eskatu dizkio, atxiloketak justifikatuz egindako adierazpenengatik.

Lasa eta Zabala sendiek epaia errekurrituko dute, ez duelako GALeko kide zirenik jaso

Kondenatuek ere aurkeztuko dute helegitea

Agentziak / **Donostia**

IÑIGO IRUINEK, Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren senideen abokatuak, kasazio helegitea aurkeztuko du gaur Entzutegi Nazionalean, ondotik Auzitegi Gorenean tramitatu dadin. Izan ere, akusazio partikularreko abokatuak akusatuak talde armatuko kide izateagatik eta lesioen delituagatik kondenatzeko eskatu zuen, baina epaiak ez ditu jaso bi delitu horiek.

Bestalde, helegitea aurkeztuko du kondenatuei bahiketagatik jarri zaien zigorraren kontra. Iruinek dio bahiketak hamabost egun baino gehiago iraun zuela, baina epaiak ez du onartzen. Iruinek datu hori garrantzitsua dela uste du, zigorra ere handiagoa izango bailitzateke.

Senideentzako kalteordaina handitzeko ere eskatuko du Lasa eta Zabala familien abokatuak helegitean, ez baitu uste nahikoa direnik.

Enrique Rodriguez Galindok atzo aurkeztu zuen kasazio helegitea Entzutegi Nazionalean, eta gaur gauza bera egingo dute Angel Vaquerok eta Enrique Doradok ere. Bestalde, Estatuaren abokatuak Estatua *Lasa-Zabala kasuan* kondenatutakoen ordezko erantzule zibila izendatu izana errekurrituko du.

HBko nazioarteko taldeari buruzko ikerketa Gorenak hartzearen kontra azaldu da fiskala

Agentziak / **Madril**

AUZITEGI GORENEKO Fiskaltza HBko nazioarteko taldeari buruzko ikerketa Entzutegi Nazionalak eramatearen alde azaldu da, kasua daraman Baltasar Garzon epaileak eginiko galderari erantzunez. Izan ere, Garzonek Esther Agirre legebiltzarkidea sartu du sumario horretan, eta hura foruduna denez kasua Gorenak eramateko eskatu du.

KONTSEILUAK KUDEATUKO DUEN IKURRA KALITATE ZEINU GISA ERABIL AHAL IZANGO DUTE GIZARTE ERAGILEEK

Euskararen aldeko konpromisoak saritzeko ziurtagiria sortu du Kontseiluak

- 'Bai Euskarari' ziurtagiriaren ikurra erakutsi zuten Kontseiluko kideek atzo Bilbon egin zuten aurkezpenean
- Mendiguren: «Gure hizkuntzaren aldeko pauso oro saritzeko modua izango dugu lanabes berri honen bitartez»
- Aurtengoak 'Bidean' leloa du, euskararen bidean barneratu izana baita ziurtagiriak erakusten duena

Gorane Agirre / **Bilbo**

KONTSEILUKO ordezkariek *Bai Euskarari* ziurtagiria aurkeztu zuten atzo Bilbon. Haiekin batera LKS Aholkularitzako estrategia arduradunak eta *Bai Euskarari* Akordioaren Jarraipen Batzordeko hainbat kide izan ziren agerraldian. Euskararen aldeko gutxieneko konpromisoak hartuko dituzten gizarte eragileek kalitate zeinu gisa baliatu ahal izango dute ikur hori.

«Ziurtagiri honekin lanabes berri bat aurkezten dugu, zeinaren bitartez gure hizkuntzaren aldeko pauso oro saritzeko modua izango dugun». Horrela aurkeztu zuen Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak *Bai Euskarari* ziurtagiria atzo.

Mendigurenek argitu zuenez, Akordioaren Jarraipen Batzordeak helarazi zion Kontseiluari ziurtagiria egiteko eskaria, horren bitartez euskararen aldeko pausoak saritzeko bidea zabalduko delakoan. Eskari hori hainbat talde profesionalekin aztertu zuten, eta ondoren Kontseiluko teknikariek eta Jarraipen Batzordeak onetsi zuten. Kontseilua arduratuko da ziurtagiria kudeatzeaz. Edonola ere, ez du ikuskatze egiturarik sortuko.

JOSU ETXEBARRIOSTE

***Bai Euskarari* Ziurtagiriaren aurkezpen ekitaldia, atzo Bilbon.**

Aurrena, 'Bidean'

2000-2001eko epean erabiltzekoa da atzo aurkeztu zuten ziurtagiria. *Bidean* leloa du aurtego ikurrak, —*Bai Euskarari ziurtagiria Bidean*—, konpromisoak hartu izana, alegia euskararen aldeko bidean barneratu izana, baita ziurtagiriak erakusten duena.

Ziurtagiriaren definizioa oso garrantsitzua dela nabarmendu zuen Fermin Garmendia LKSko estrategia arduradunak; batetik, gizarte eragileek minimo homogeneo batzuk betetzea lortzeko, eta bestetik, euskara erakunde barnean gestionatu beharreko beste aldagaitzat jotzea posible delako.

Joxe Jabier Iñigo Kontseiluko plangintza-buruak azaldu zuenez, ekainaren 13an Donostian egingo den ekitaldi batean emango zaie ziurtagiria Plan Estrategikoaren prozesuan parte hartu eta bertan proposaturiko gutxieneko konpromisoak hartuko dituzten gizarte eragileei. Joxe Jabier Iñigok nabarmendu zuenez, «*Bai Euskarari* akordioa zazpiehun sinatzaileetatik laurdenek bere egiten badute, oso arrakastatsua izango da».

ezaugarriak

Baldintzak, helburuak eta prezioak

Datorren ekainaren 13an Donostian egingo duten ekitaldian banatuko duten *Bai Euskarari* ziurtagiria eskuratzeko baldintzen, helburuen eta prezioaren nondik norakoak hauek dira:

Helburua • *Bai Euskarari* ziurtagiriaren helburua hizkuntzaren normalizaziorako prozesu kualitatiboa kreditatzea da, *Bai Euskarari* akordioaren Plan Estrategikoan ezarritako neurrien aplikazioari lotuta eta asmo honekin betiere:

- Zerbitzuak euskaraz jasotzeko dagoen eskari sozial geroz eta handiagoari erantzutea.
- Erakunde parte-hartzaileen baitan hizkuntzaren normalizaziorako prozesua antolatzea eta horren eutsigarritasuna ahalbidetzea.
- Erakundeari gizartearen aurrean normalizazioaren alde eginiko lana kreditatzeko aukera ematen dio.

Baldintzak • Ziurtagiria *Bai Euskarari* akordioaren sinatzaile eta Plan Estrategikoaren prozesuko parte-hartzaileei zuzendua dago. Alabaina, prozesuan parte hartu ez duen edozein erakundek ere lor dezake, baldin eta *Bai Euskarari* akordioaren edukiak onartzen dituela Kontseiluari adierazi eta dagokion sektoreak ezarritako konpromiso minimoak bere egiten baditu.

Bai Euskarari ziurtagiria 2000-2001 lortzeko baldintza da erakundearen aldetik bere sektoreari dagozkion neurri minimoak hartzea.

Prezioa • Ziurtagiria lortzeko erakundeak duen tamainaren araberako kopurua ordaindu beharko da. Urtero 10.000 pezetako prezioa izango du oinarritzat, eta horri erakunde bakoitzak duen langileko beste 1.000 pezeta gehitu beharko zaizkio.

Irudiaren erabilera • *Bai Euskarari* ziurtagiriak bere anagrama du. Berau lortzen duten erakundeek edozein publizitate euskarritan eta kanpo nahiz barne komunikaziorako erabili ahal izango dute. Ziurtagiri bakoitzak epe jakina du eta ezingo da erabili hurrengo aldiari dagokion ziurtagiria indarrean sartzen denean. Agiria kendu ahal izango zaio arrazoi hau edo beste dela medio erabilera okerra egin duen erakundeari.

Europako garraio sare nagusiko zazpi proiektuk diru iturri arazoak dituzte

Euskal Herriko AHTa tartean da, Garraio Batzordearen txostenaren arabera

I. Petxarroman / **Donostia**

Europako garraio sareari buruz Eskualde Politika, Garraio eta Turismo Batzordeak egindako urteroko txostena eztabaidatu zuen atzo Europako Legebiltzarrak, eta gaur bozkatuko du. Legebiltzarreko Garraio Batzordeak kezka du Essengo goi bileran Europako Kontseiluak lehenetsi zituen 14 garraio proiektuetarik zazpik finantzaketa arazoak dituztelako, tartean Euskal Herria zeharkatuko lukeen AHT sareak, Hegoaldeko sareak. Egoerari aurre egiteko, kapital pribatuaren beharra dagoela dio, eta estatu eta eskualdeen finantzazio handiagoarena.

GAUR bozkatuko du Europako Legebiltzarrak Eskualde Politika, Garraio eta Turismo Batzordeak Europako Garraio Sareari buruz egindako txostena. Atzo eztabaidatu zuten Garraio Batzordearen proposamena.

Funtsean, Garraio Batzordeak dio gaur egun Europako Batzordeak dituen diru fondoak ez direla aski Europako Garraio Sare Nagusia ordaintzeko. Ildo horretan, dioenez, «ez badira diru ekarpen handiagoak egiten nazio, eskualde eta herri mailako erakundeetatik, eta gainera arlo pribatuaren aldetik, ez da posible izanen alor honetan aurrerapenik egitea zentzuzko epe batean behintzat».

Alde horretatik, Garraio Batzordek sektore pribatu eta publikoaren arteko elkarlanaren aldekoa da, Essengo 14 proiektu nagusien finantzatzeko bideragarritasuna handituko bada. Hala, Garraio Batzordeak oso ontzat jotzen du Europako Batzordearen araudia aldatu izana, alor pribatuaren esku hartze handiagoa ahalbidetze aldera.

Aldi berean, Europako Inbertsioetarako Bankuari eskatzen dio elkarlanean jardun dadila estatuekin, mailegu bermeak emanez eta bestelako inbertsioak eginez garraio proiektu nagusiak bultzatzeko.

ANDER GILLENEA

Abiadura handiko tren bat, Hendaiako geltokian geldituta.

Zazpi proiektu ez aurrera ez atzera

Gaur Europako Legebiltzarrak bozkatuko duen testuak agerian uzten du ez direla betetzen ari Essenen jarri ziren xedeak. «Kezka agertzen dugu, Essengo 14 proiektuetarik zazpik, oraindik ere zailtasunak dituztelako, ez baitute osoki ziurtatua beren ordainketa, eta ez dute lanak aurrera eramateko egutegi finko bat ere».

Ildo horretan, Europako Batzordeari eskatzen dio neurriak jar ditzala eta laguntzak eman ditzala proiektu horiek aurrera eramateko, eta estatuekin batera lanak burutzeko egutegi bat ezartzeko.

Europako Batzordeak aurten aurkeztuko du Essengo akordioaren berrazterketa. Kezkaz ikusten ditu Garraio Batzordeak azterketa horretan ageri diren joera batzuk. Izan ere, Batzordeak jakinarazi du Europako Garraio Sare Nagusiaren irizpideak berraztertuko dituela, eta, lehentasuna egun oraindik dauden butxadura guneak konpontzeari eman behar zaiola. Hori hala egiten bada, Legebiltzarreko Garraio Batzordeak dio Europako Batasuneko erdialdeko herrialdeetan dauden proiektuak lehenetsiko liratekeela, eta bazterrean utziko litzatekeela eskualde periferikoen egoera. Europako Batzordeko Garraio Zuzendaritza Nagusiak adierazi du aurtengo ekainean emango duela Essengo akordioaren berrazterketaren berri.

Aurrekontu Batzordearen oharra

Garraio Batzordearen txostenean Europako Aurrekontuen Batzordeak egindako oharrak ere ageri dira. Aurrekontu Batzordeak dioenez, Essenen lehenetsi eta arazoak pairatzen ari diren azpiegitura proiektuen bideragarritasuna zalantzan jartzeko arrazoi handiak daude. «Proiektu haietako batzuk azterketa fasean daude oraindik, eta, beraz, oso zalantzagarria da Batzordeak duen egutegiari egokituko zaizkion.

Horregatik, txostengile honek proposatzen dio batzordeari arazoak pairatzen ari diren proiektuen sakoneko azterketa egin dezala, eta proposa dezala haientzat gordeta dauden diru fondoak bideratzeko B5-700 aurrekontuekin finantzatzekoak diren beste jarduera batzuetara».

Proiektuak

Arazoak dituzten garraio proiektuak

Ondorengo zazpiak dira Essenen lehentasuna eman zieten eta finantzatzeko arazoak dituzten zazpi proiektuak:

- **Hegoaldeko AHT sarea** • Bi adar ditu: Euskal Herria zeharkatuko lukeen bidea, Akizetik Gasteizera; eta Katalunia zeharkatuko lukeena. Bigarren hori egiten ari dira.
- **Ipar Hegoaldeko AHT-garraio konbinatuko sarea** • Berlin (Alemania) eta Verona (Italia) lotuko lituzke.
- **Ekialdeko AHT sarea** • Paris-Estrasburgo (Frantzia) eta Alemaniako eta Luxenburgoko mugak lotuko lituzke.
- **Lyon-Turin-Trieste AHT eta garraio konbinatua** • Frantzia eta Italiako ekialdea lotuko lituzke, Alpeetatik.
- **Portugal-Espainia-Europa lotura intermodala** • Aireportuak, portuak, garraio eta trenbide azpiegiturak aurreikusten ditu Irundik eta Lisboa bitartean.
- **Iparraldeko Triangeluko pasabide multimodala** • Suedia, Norvegia eta Finlandia arteko azpiegitura multzoa.
- **Irlanda, Erresuma Batua eta Benelux arteko autobidea** • Eskozia, Gales, Irlanda eta Ingalaterra lotuko lituzke.

Barakaldoko Salestarren eskolan atzo berriro ikasleek ez zuten eskolarik eman, ikasle ijitoen afera dela eta

Ijitoen Ekimena elkarteko lehendakaria ikasle berrien alde ari da: «Ez dira gatazkatsuak»

Arantxa Iraola / **Donostia**

BARAKALDOKO San Juan Bosco Salestarren ikastetxeko Guraso Elkarteak manifestazioa deiturik zuen atzo goizerako eskolako atarian, Hezkuntza Sailak ikastetxe horretara sartu nahi dituen hiru ume berriak direlaeta kexa azaltzeko. Manifestazioaren ostean —asteartean urratu bidean—, ikaslerik ez zen joan ikasgeletara. «Gaur ere ez da eskolarik izan», esan zioten eskolatik EGUNKARIA-ri.

Hiru umeak ijitoak izaki, gertaera horrek biziki kezkatzen dituela azaldu zuen atzo Ijitoen Ekimena elkarteko lehendakari Jesus Jimenezek. Hala, afera hau konpontzeko Hezkuntza Saila hainbat estamenturekin bideratzen ari den negoziazioetan esku hartzen ari direla esan zuen. Zurrun mintzatu zen negoziazio horiei buruz, ordea. «Gaur gauza handirik ezin dugu esan. Negoziatzen ari garela, besterik ez».

Gatazkarik, ez

Argi hitz egin nahi izan zuen hiru ume horien alde atzo Jimenezek. «Ez dira ume gatazkatsuak. Lau, zazpi eta zortzi urteko ume kozkorrak dira, hortik atera daitezke kontuak. Txikiena mutikoa da, eta zaharrenak neskato bi... Zein gatazka eragin dezakete? Txartel bat ipini diete lepoan, txartelak gatazkatsuak direla dio. Baina ez dira gatazkatsuak, eta negoziaziotan hori esan eta esan ari gara», azaldu zuen.

Negoziazio horietan zein xede duten ere argi dutela esan zuen. «Ume horiek eskolara joatea». Gurasoek Barakaldoko San Juan Bosco ikastetxea hautatu, eta bertara joan behar dutela esan zuen.

Orain aste batzuk, Zuazo ikastetxe publikoko hezkuntza komunitateak ez zituen onartu ikasleok.

Arakil-Uharteko tren istripua Epaiketa

Geldialdi seinaletik ezbeharra jazo zen lekura mantsotzeko beta bazegoela diote ingeniariek

Ez dute baztertu bi seinaleen artean kontraesana izan zitekeelako hipotesia

Agentziak / **Iruñea**

Arakil-Uharteko tren istripuari buruzko txostena idatzi zuten ingeniarien arabera, gidariak bazeukan abiadura mantsotzeko denbora gelditzeko adierazten zuen seinaletik istripua gertatu zen lekura. Ez zuten baztertu seinaleak kontraesankorrak izatea, baina istripua abiadurak eta balazta desegoki erabiltzeak eragin zutela diote.

JESUS DIGES / EFE

Francisco Ramirez, Jose Javier Muruzabal eta Eduardo Romo hiru ingeniariak, atzo, Iruñeko Entzutegira bidean.

ARAKILGO geltokiaren sarrerako seinaleak gelditzeko adierazten zuela azpimarratu zuten ingeniariek, eta ezbeharra gertatu zen lekura arte 700 metro zeudela, «trenaren abiadura murrizteko nahikoa». Txostena egiteko hipotesietan oinarritu zirela aitortu zuten, baina «sinesgarriena» istripua azkarregi joateak eta balazta desegoki erabiltzeak eragin izana dela adierazi zuten. Seinalizatze sisteman akatsik egotea ukatu zuten, «egoki funtzionatu zutela frogatu ahal izan zelako».

«Orduko 30 kilometroko abiaduran joan behar zutela jakitean, gidariak zuzeneko balazta sakatu zuen, zuzenena larrialdikoa sakatzea zen arren», esan zuten, «Ez trenak eta ez bide bereiziak ezin zuten jasan abiadura». Trena bidetik zuzeneko balazta sakatzean atera zela adierazi zuten, eta balazta erabiltzea debekatuta dagoela, «non eta tren makina ez baldin badoa bakarrik, eta orduko 40 kilometro baino abiadura txikiagoan».

Aurkakorik ez

Renfeko orduko Babes Zibil eta Segurtasunerako arduradun Javier Morenok esan zuen ezinezkoa zela seinaleak aldatzea trenak lehena igaro ondoren, nahikoa denbora ez zegoelako. Adierazi zuenez, bi seinaleen arteko bidea egiteko 31 segundo behar izan zituen trenak, eta gutxienez 54 segundo behar dira seinalea aldatzeko. Horregatik, lehen seinaleak abiadura mantsotzeko adierazten zuela uste du. Ukatu egin zuen giltza faltsuak zeudela seinaleak aldatu ahal izateko denbora murrizteko, baita sabotaja edo akats bat izan zela ere.

Astelehenean jarraituko du epaiketak.

Aurten Donostiako Aquariumak iaz baino bisitari gutxiago izango dituela iragarri dute arduradunek

Berriz irekitzeak sortu ikusmina apur bat apaldu dela diote

Efe / **Donostia**

DONOSTIAKO Aquariuma kudeatzen duten enpresetako arduradunek atzo iragarri zutenez, aurten ez dira joango bertara iaz adina bisitari. 459.000 lagun joango direla iragarri dute, iaz bertaratu zirenen %80. Izan ere, iaz 574.000 bisitari izan zituen Aquariumak.

Aurten aipatu iragarpena betetzeko estreinako urratsak egiten hasi direla azaldu zuten atzo Gipuzkoako Ozeanografia Elkarteko lehendakari Bizente Zaraguetak, diruzain Juantxo Arrizabalagak eta zuzendari Karmen Arrazolak. Hain justu, aurreneko lau hilabeteotan Aquariumak 112.000 bisitari izan dituela azaldu zuten.

Esan zutenez, hainbat birmoldaketa egin ostean 1999a Aquariuma berriz irekitzeko urtea izan zen, eta bisitari askoren ikusmina piztu zuen. Ikusmin hori jadanik apur bat apaldu egin dela esan zuten eta, halaber, ETAk su-etena apurtu izana kaltegarria izan dela azaldu zuten.

'Aurki' euskara hutsezko lehenengo bilatzaileak domeinu propioa dauka

'Eibar.org' orritik aske da orain, eta 1.000 bisitari lortzea espero dute egileek

Ainara Mendiola / **Donostia**

ARKI euskara hutsezko lehen bilatzailea Eibar.org orritik aske da orain, elkarteko kideek Eibarko Udalaren laguntzaz domeinu bat erosi ondoren. Luis Fernandez egileetako batek atzo Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean jakinarazi zuenez. Helbide berria *www. aurki.com* da, eta horri esker erabiltzaile kopurua eguneko 1.000 izatea espero du Fernandezek —*Eibar.org* helbidearen barruan zela 300dik gora bisitari izaten zituen egunean—.

Eibar.org helbidera jotzen zuten bisitari gehienek *Aurki* bilatzailea erabiltzeko asmoz egiten zutela ikusirik, bilatzaileak independente izan behar zuela pentsatu zuten bultzatzaileek, eta horregatik erosi zuten domeinua, Horretarako 100.000 pezeta inguru (4.000 libera) behar zuten, eta Udalari laguntza eskatu zioten. Udalak baietza eman zuen, Nerea Alustiza Hego Ibarra batzordeko buruaren arabera, «euskara hutsezko lehen bilatzailea lagundu nahi izan genuelako, kulturaren mesederako delako».

Gainerantzean, elkarteko kideek urtean jartzen dituzten mila pezetei esker mantentzen dute; urteko 25.000 pezetarekin, guztira (mila libera). Horregatik, «Europako bilatzailerik merkeena» dela esan zuen Fernandezek. «Irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta gastu asmorik gabekoa ere bai», adierazi zuen Fernandezek.

Hasteko, garaikurra

Aurki bilatzaileak *America Online* doako bilatzailearen edukiak eskaintzen ditu, eta baita Interneten aurki daitezkeen euskarazko edukiak hierarkikoki zerrendatuta eta ordenatuta ere. Era berean, *Eibar.org* elkarteari esker, *America Online*-ko euskarazko egokitzapena hainbat hizkuntza bitartez dago eskura. Edukiez gain, interfazeak ere euskaratzeko ari da lanean elkartea. 2.300 lotura eskaintzen ditu bilatzaileak.

EDURNE KOCH

Luis Fernandez, Maria Jesus Aranburu Gipuzkoako Aldundiko Kultura zuzendaria eta Nerea Alustiza Hego Ibarra batzordeko burua, atzo.

Bilatzaileak eta elkartearen orriak martxan sei hilabete eskas daramatzan arren, 2000. urteko Sareko Argia saria lortu zuen, Interneten egindako lanarengatik.

Eibar.org Internet eta Teknologia Berrien Erabiltzaileen Elkartea iazko urrian sortu zen.

Haurrek hartuko dute protagonismoa Seaskaren 30. urteko Herri Urratsen

Lehen baino animazio gehiagorekin ospatuko dute mendeko azken ekitaldia

Eneko Bidegain / **Baiona**

Herri Urrats maiatzaren 14an iraganen da; aurten, gainera, Seaskaren 30. urtearen ospakizunen baitan da. Haurrek protagonismo berezia izango dute karia horretara. Izan ere, ohi baino animazio gehiago prestatu dute haurrentzat Herri Urratsen antolatzaileek. Musikak eta kantuak ere leku gehiago hartuko dute: *Herri Urrats kantuz* ekimenak jendea kantaraziko du. Erakusketa ugari ere ekarriko dute aintziraren ingurura. Halaber, alkoholik gabeko ostatu bat irekiko dute aurten, lehen aldikotz, eta Maiatz argitaletxeak liburu berezia plazaratu du Herri Urratsen karietara.

HAURREK iragan urteetan baino egitarau aberatsagoa aurkituko dute aurtengo Herri Urratsen. Hala jakinarazi zuen Dominique Idiart Herri Urratseko lehendakariak atzoko aurkezpenean. Haurren xokoa usaian baino zabalagoa izanen da, Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen animazioekin, pailazoekin, zirku, kantu eta antzerkiarekin. Egun guzian animatuko duten agertoki bat antolatuko dute haurrentzat. Pottoka gaineko ibilaldiak ere eskainiko dizkiete Senperera joaten diren haurrei.

Alkoholik gabeko edariekilako ostatu bat ere irekiko dute aurten, lehen aldikotz. Haurrentzat, alkoholik edateko xederik ez dutenentzat eta familian datozenentzat ostatu berezi bat antolatzea egokitzat jo dute antolatzaileek. Alkoholismoaren Prebentziorako Elkarteak lagunduko du gune berezi hori.

BOB EDME

Seaskako ordezkariak, Herri Urratsen aurkezpenean, atzo.

Abesbatzak, animazioen irekitzeko

Animazioak goizik hasiko dira aurten. Euskal Herriko hiru abesbatzak irekiko dituzte animazioguneak. Arabako gunean Oldarra taldeak kantatuko du, goizeko hamarretan. Lapurdi taldean, aldiz, Ezpela eta Burgaintziko gazte koruek abestuko dute, goizeko hamaikak eta erditik lekora. Kukumiku, Otsoak, Eztanda, Stepin Jogo, Kolpe K, Tekno DJ, Hemendik At (aurtengo kantuaren egileak), Kriolinak, Zazpi Lili, Kattalin Habans eta Ximistak kantariak eta taldeak ariko dira egun guzian hiru oholtza gainetan.

Ohiko bertze animazioak ez dira eskastuko Herri Urratsen: bertsolariak, txarangak, trikitilariak, gaitariak eta abar.

Epe laburreko eraikuntzak lagundu

HERRI URRATSEKO aurtengo irabaziak epe laburreko eraikuntza berrien laguntzeko erabiliko dira. Oztibarreko, Donibane-Garaziko, Kanboko ikastolei eta Donaixtiko kolegioari banatuko zaie dirua. Ikastolen Kontseilua arduratzen da diruaren banaketaz.

Itxaro Bordak atzo azpimarratu zuen Herri Urrats beharrezkoa dela egoitzen arazoari buru egiteko. «Botere publikoek guti edo aski laguntzen dute ibilmoldea, baina eraikuntzak ez dituzte batere laguntzen», adierazi zuen. Ikastolak garapen mugimenduan daudela gehitu zuen. Ipar Euskal Herriko kantonamendu guztiek ikastola bat badutela oroitarazi zuen. Orain Hiriburu, Ahetze eta Ezpeleta inguruetan nahi dituzte ireki klaseak.

Iaz 1,95 milioi libera irabazi zuen Senpereko bestak (49,75 milioi pezeta). Horietatik % 65 ikastolen inbertsioentzat baliatu ziren, % 15 Seaskari eman zitzaion, % 10 ikastolentzat izan zen, eta bertze hainbertze elkartearen funtzionamenduarentzat.

Herri Urratsen antolatzaileek azpimarratu dute Herri Urratsek Iparraldeko ekonomia arloan parte hartzen duela, bertako enpresei lana eskainiz.

Blayaisko zentral nuklearreko erreaktore bat berriz ireki dute

Segurtasun neurrietarako lanak ez dira bukatuak oraino

Erredakzioa / **Baiona**

Blayaisko zentral nuklearreko bigarren erreaktorea berriz ireki zuten atzo. EDF elektrizitate konpainiak uholdeei buru egiteko zenbait obra egin ditu. Oraino bertze lan batzuk gelditzen zaizkio. Erreaktorea hainbat baldintzarekin ireki dute.

CHRISTIAN LUTZ / AP

Haizeteak kalte handiak eragin zituen Frantziako argindar sare osoan ere.

BORDELE ondoko Blayaisko zentral nuklearraren erreaktore bat berriz ireki zuten atzo, abenduaren 27tik geldirik egon ondoan. Gau hartako ekaitzak uholdeak eragin zituen zentral nuklearrean. Uholdeak lehen eta bigarren erreaktoreak kaltetu zituen. Lehen erreaktoreak geldirik jarraituko du ekaina arte gutxienez.

Segurtasun nuklearreko aginteak zenbait baldintza ezarri dizkio EDF argindar konpainiari. Hogei inspekzio baino gehiago egin ditu Blayaisko zentralean. «Ikerketa sakonak eta bilkura teknikoak» kudeatu ditu, bere prentsa agiriaren arabera. EDFek proposatzen zituen lanak eraginkorrak ziren ala ez zaindu nahi zuten.

Lan guztiak ez dira oraino bururatuak. Itsaskirriak dikea ez gainditzeko, azken hau handitu eta azkartu beharko da. EDFek urte amaierarako obratu behar ditu lan horiek. Segurtasun aginteak EDF konpainiari alerta egoera mantentzeko eskatu dio. EDFek zentral nuklearreko lau erreaktoreak hertsi beharko ditu, eta orduko 50 kilometrotik gorako haizeak iragartzen dira.

Urak erreaktoreak ez hunkitzeko azpiegiturak ere bukatzekoak dira. Seguritate aginteak ez du uste, lanak diren heinera heldurik, uholdeak «seguritate nuklearra dudan ezar» lezakeenik. Baina abenduaren 27ko uholdea bezalakoak gerta litezkeela abisatu zuen.

EDFek Girondako barraren aldeko dikea metro batetik 6,2 metrora goratu du. Eta oraino gehiago azkartu beharko luke. Idoietako dikea metro erdiz goratu du eta bertze metro erdi batez goratu beharra du ekaina bukaera bitarte.

Bertze zentral nuklearretan ere bai

Segurtasun nuklearreko aginteak EDFi ez dio bakarrik Blayaisko zentrala antolatzeko eskatu. Ur hegiko zentral nuklear guztietan uholdeei buru egiteko azpiegiturak zaintzeko eta eraikitzeko eskaera zuzendu zion argindar konpainiari, martxoan. EDFek zentral guztiak kontrolatu beharko ditu. Neurketaren emaitzak maiatzean aurkeztu behar dizkio segurtasun aginteari.

Gune bakoitzak jasan dezakeen ur heina aztertu beharko du, bigarren fase batean. Dikeak, urgentziazko prozedurak, uraren saihesteko dispositiboak eta abarren neurria aztertuko dituzte. Hobekuntza proposamenak landuko dituzte datorren urria baino lehen, azterketa horietaz baliatuz. Dikeek lurrikaren aurrean nola iraun dezaketen aztertuko dute ondoren. Segurtasun nuklearreko aginteak azterketa eta lan guztiak hurbiletik jarraituko ditu.

Zentral nuklearrak ez diren gainerateko instalazio nuklearrek azterketak izan beharko dituzte. Gune nuklear anitzek dituzte uholde arriskuak.

Ekaitzaren kalteak uste baino handiagoak ziren

ZENTRAL nuklearreko erreaktoreen moztearen berria nahiko berant heldu zen publiko zabalaren eskura. EDFko eta Blayaisko zentral nuklearreko arduradunek ekaitzaren kalteen hedadura gutietsi nahi izan zuten. Iazko abenduaren 27tik 28rako gaueko haize ekaitza historikoak itsasoko ura zentrala babesten zuten dikeetatik gaindikarazi zuen. Ura zentral nuklearreko lehen bi erreaktoreetako gunera sartu zen. Erreaktoreak moztu zituzten, uholdearen ondorioz. Uraren biltzen hasi ziren. Baina zentraleko materiala franko andeatua zen. Erreaktoreen berriz irekitzea berandutu zuen materialaren kaltetze uste baino larriago horrek.



Udako elkartasun brigadak zehaztu dituzte Askapenak eta Komite Internazionalistak

Bi elkarteek Amerikako zenbait herriren errealitatea ezagutzeko aukera eskainiko dute

Ekaitz Agirre / **Donostia**

Urtero bezala, Askapenak zein Komite Internazionalistak elkarteek, elkartasun brigadak antolatu dituzte udarari begira Ertamerikako eta Hego Amerikako zenbait herrialdetara. Hilabete osoan zehar Kuba, Txiapas, Nikaragua, Venezuela edota Kolonbiako errealitateak ezagutzeko parada izango da.

AP

Txiapasko Amador Hernandez herriskan, Mexikoko armada Zapatisten jarraitzaileak geldiarazten 1999an.

KOMITE Internazionalistak elkarteak (KI) Nikaragua, Mexiko, Kuba eta Kolonbiara antolatu ditu elkartasun brigadak aurtengo udan. Iaz, lau herrialde horiez gain, Guatemala ere bisitatu zuten. Uztailean eta abuztuan hilabeteko luzapena izango dute brigadek. Hiru astean zehar taldean ibiliko dira, azken astea, aldiz, turismoa egiteko erabiliko da.

Mikel Zinkunegi KIko kideak EGUNKARIAri azaldu zionez, bidaiek bi atal izango dituzte. «Batetik, hango taldeekin hitz egiteko aukera izango da, bertako errealitatea, giroa eta mugimenduak ikusteko. Bestetik, herrialde bakoitzean *zerbait* egingo dugu», adierazi zuen. Horrela, Kuban nekazaritza produktuak biltzen lagunduko diete bertako nekazariei. Nikaraguan, aldiz, sandinistek Managua inguruan duten udaletxe batera joango dira frutarbolak landatzera.

Izena emateko epea maiatzaren 15ean amaituko da, eta informazio gehiago nahi duenak Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur etxean bihar 19:30ean egingo den aurkezpenean eskuratu ahal izango du. Izena emateko, 943 340404 edo 948 206055 telefonoetara hots egin dezake.

Askapenak, bestalde, Kuba, Txiapas eta Venezuelara antolatu ditu aurtengoan brigadak. Lehenengo bietara, uztailean, abuztuan edo irailean joateko aukera izango da. Venezuelakoa, aldiz, abuztuan izango da soilik.

Iñaki Letamendi Askapenako kideak jakinarazi zigunez, «brigada hauetan elkartasuna, lana eta harreman politikoak burutzen dira». «Izan ere —Iñaki Letamendiren esanetan— brigadetan parte hartzen duten pertsonak nolabaiteko harreman politikoak sortzeko joaten dira».

Izena emateko azken eguna maiatzaren 20a izango da. Askapenarekin joan nahi duenak 948 212271 edo 943 552365 telefonoetara deitu behar du.

Etxebizitza batzuetan jazotako sutearen ondorioz 14 lagunek etxetik irten beharra izan zuten atzo goizaldean Bilbon

Bizilagunen ustez zigarrokin batek eragin zuen ezbeharra

Agentziak / **Bilboko**

BILBOKO San Mames Zumardiko etxebizitza batzuetako sotoan atzo goizaldean —04:40an— sua zabaldu zen, eta 14 familiak etxetik irten beharra izan zuten. Bizilagunak, ordubeteren bueltan —suhiltzaileek garrak amatatu ostean— itzuli ahal izan ziren etxera. Ezbeharra ez zen larria izan eta suteak ez zuen zauriturik eragin.

Bizilagunek ezustearen ondoren aditzera eman zutenez, sua auzokoren batek pizturiko zigarrokinak eragin zuen. Azaldu zutenez, zigarroa erretzen ari zela, lo geratu zen, eta ez zen ohartu zigarrokinaren garrak eragin zuen suteaz.

Erretako etxebizitzak DYAko egoitza baten ondoan daudenez, etxetik harrapaladan irtendako bizilagunek hara jo zuten aterpe bila, suhiltzaileek suarekikoak egiten zituzten bitartean. Itzaldu eta amaitu ostean, etxera itzultzeko moduan izan ziren guztiak.

Nikaraguako haurren aldeko kanpaina egingo du Honek-ek

Takolo, Pirritx eta Porrotx ariko dira Lasarten

Ekaitz Agirre / **Lasarte**

HONEK Herri Oinperatuen Nazioarteko Elkartasunerako Kideak gobernuz kanpoko erakundeak, Nikaraguako Somoto herriko *Los Quinchos* Haurren Prebentzio Zentroaren mantenimendurako diru bilketa eta sentsibilizazio kanpaina egingo du datozen asteetan. Helburu horrekin, Lasarte-Oriako Kultur Etxean, saio berezia eskainiko dute Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek larunbatean arratsaldeko 18:30etik aurrera.

Mainel Serra Honek elkarteko kideak Lasarten eskainitako prentsaurrekoan jakinarazi zuenez, maiatzean eta ekainean ekitaldi zenbait antolatzeko asmoa dute, sentsibilizazio kanpainaren barruan. Besteak beste, ikastolaz ikastola ibiliko dira, «Euskal Herriko haurrek Nikaraguakoak nola bizi diren ikus dezaten». Era berean, erakusketa bat eta Nikaraguatik bidalitako irudiekin osatutako bideo emanaldi bat eskaintzeko asmoa dute.

Somotoko *Los Quinchos* haur-txokoak hamar urte daramatza martxan. Egunero, inguruko eskualdeetako haur eta gazteei laguntza eskaintzen die janaria, babes eskolarra... emanaz.

EDURNE KOCH

Honek erakundeko kideak eta Takolo, Pirritx eta Porrotx atzoko aurkezpenean.

EDURNE KOCH

Ibilgailuek sortzen duten kutsadura kontrolatu egin behar dela dio Europako Ingurugiroaren Agentziak.

Europako Batasuna ez da Kioton hitzarturikoak betetzen ari

Europako Ingurugiroaren Agentzia ezkor da txosten batean

Efe / **Brusela**

Europako Ingurugiroaren Agentziak txosten bat aurkeztu zuen atzo Europako Legebiltzarrean. Bertan Kioton 1997an Negutegi Efektuari aurre egiteko burututako goibileran hartu ziren erabakiak Europako Batasuneko estatu gehienek ez dituztela beteko azaldu zuten.

KIOTON hitzarturikoaren arabera 2012. urterako Negutegi Efektua eragiten duten gas kutsagarrien jarioa %8 jaitsi behar da –1990. urteko datuekin alderatuz–. Atzo Europako Ingurugiroaren Agentziak Europako Legebiltzarrean esan zuenez, ordea, jaitsi baino, ordurako igo egingo da Europako Batasuneko estatuen artean jario hori. Hain justu, 2010. urtean %6 kutsadura gehiago izango dela iragarri dute.

Iragarpen kezkagarri hori gauza ez dadin oraintxe bertan Austrian, Belgikan, Danimarkan, Finlandian, Alemanian, Italian eta Holandan gas kutsagarrien jarioa %10 gutxitu beharko luketela azaldu du txostenak. Batez ere dioxido karbonoa kontrolatu beharko litzatekela dio, gas guztien artean, Negutegi Efektua bereziki horrexek eragiten baitu.

Lorpen gutxi

Txostenaren arabera, orain artean gas kutsagarrien jarioa gutxitzeko egindako ahalegin gehienak antzuak izan dira Europako Batasunean. Aditzera eman duenez 1990-1996 epean EBko estatuek soilik %1ean lortu zuten dioxido karbonoaren jarioak gutxitzea.

Halaber, txostenaren arabera, 90ko hamarkada hasieran jario horietan jaitsiera batzuk egon baziren ere, 1994tik aurrera berriro ugaritzen ari dira.

Hiru estatu baino ez Kiotorekin bat

Txostenaren arabera orain arteko bilakaerak aztertuz, soil-soilik Europako Batasuneko hiru estatuk lortu dezakete gas kutsagarrien jarioa Kioton hitzarturiko neurrietara egokitzea: Alemaniak, Luxenburgok eta Erresuma Batuak.

Atzo Europako Legebiltzarrean aurkeztutako txostenean, aipatu datu orokorrez gain, datu zehatzagoak ere aurkeztu zituzten. Airearen eta uraren kalitatea, nekazaritzaren egoera, energia iturriak eta ingurugiroan eragina duten hainbat faktore izan zituzten hizpide.

Automobilak, Negutegi Efektuaren eragile nagusietarikoak

EUROPAKO Ingurugiroaren Agentziaren arabera datozen urteetan Negutegi Efektua batez ere automobil eta antzeko ibilgailuek eragingo dute. Antza, Kioton hitzarturikoetara hurbiltzeko eragozpenik handiena, errepideetan dabiltzan ibilgailu andanak izango dira.

Agentziaren arabera, teknologikoki aurrerapen dezente egin dira ibilgailuek geroz eta gas kutsagarri gutxiago jaurti ditzaten, baina ibilgailu kopurua gora eta gora doa, eta horrek eragotzi egiten du aurrerapen teknologiko horiei behar adinako etekina ateratzea.

Ibilagailuek erabiltzen dituzten erregaiak kontrolatuz ere Negutegi Efektuari aurre egin dakiokeela dio txostenak, baina 70. hamarkadatik gaurdaino ez dela urrats esanguratsurik egin ildo horretan.

laburrean

Gaur Bilboko Ingeniarien Goi Eskolako euskara taldeak antolatutako hitzaldi sorta hasiko da

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA (UEU) ezagutzera emateko eta hainbat gai euskaraz jorratzeko, hitzaldi sorta bat antolatu du Bilboko Ingeniarien Goi Eskolako euskara taldeak, eta gaur izango da estreinako hitzaldia. Hain justu, 17:30etan, B gradu gelan Carlos Gorriak *Matematikaren zenbait paradoxa* hitzaldia eskainiko du. Datozen asteetan, hilaren 9an, 10ean, 11n, eta 16an, hain justu, gainerako hitzaldiak izango dira. Hurrenez hurren honako hizlariok eskainiko dituzte hitzaldi horiek: Jose Ramon Etxebarriak, Ander Lipusek, Alfontso Martinez Lizarduikoak eta Danel Madariagak. Azken honek *1999ko eguzki-eklipsearen filminen erakustaldia* eskaniko du, eta hitzaldi horrekin batera UEUko Fisika saileko Astronomia taldearen aurkezpena egingo da.

65 kilo kokaina atzeman ditu Guardia Zibilak Bilboko Portuan

BILBOKO PORTUAN apirilaren 28an Guardia Zibilak 65 kilo kokaina atzeman zituen. Aditzera eman dutenez, bandera alemaniarra duen itsasontzi baten barruan atzeman zuten droga hori guztia, eta salmentan jarriz gero, 350 milioi pezeta eskuratu zitezkeela horrekin azaldu dute (14 milioi libera). Droga hau Bilboko Portura nork ekarri zuen argitzeko ikerketa bat jarri zuten droga konfiskatu ostean Espainiako poliziek, baina oraindik ez dute inor ere atxilotu afera hau dela eta.

Unibertsitaterako hauta-probak ekainaren 14, 15 eta 16an egingo dituzte Nafarroako ikasleek

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAK (NUP) aditzera eman duenez Foru Erkidegoko ikasleek ekainaren 14, 15 eta 16an egin beharko dituzte unibertsitaterako hauta-probak. Azterketa horiek non eta nola egingo diren ere NUPeko arduradunek azalduko dute aurki. Hauta-proba hauek antolatzeko batzordea Nafarroako Gobernuko ordezkari bik eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko beste bik osatzen dute. Batzorde horretako lehendakaria Jose Luis Goñi Sein irakaslea da, errektoreak Unibertsitatera Heltzea saila koordinatzeko bera izendatu baitzuen.

Europako Batzordeak 'Behi eroen' gaitzari aurre egiteko neurriak hartu behar direla nabarmendu du

DANIMARKAN *Behi Eroen* gaitzaren kasu bat agertu dela eta kezkaturik, Europako Batzordeak dei egin die Europako Batasuna osatzen duten estatu guztiei, gaitz horri aurre egiteko neurri zorrotzak har ditzaten. Gaixotasun hori zuzenki lotuta dago abereei bazkatzeko ematen zaien janarekin, eta batez ere hildako animalien gorpuzkinekin egindako bazkarekin. Hala, horrelakoak saihesteko eskatu du Europako Batzordeak. Orain arte debeku horretatik at egon dira Espainia, Alemania, Danimarka, Grezia, Austria, Suedia eta Finlandia. Baina hori aldatu nahi du Europako Batzordeak.

Gizaseme bat hil da Urnietan trenak harrapatuta

URNIETAN atzo goizaldean –02:30etan– ezbehar larria jazo zen tren geltoki parean, trenak pertsona bat harrapatu baitzuen eta hil egin baitzen. Hildakoa –L.B.L, 48 urtekoa– gizasemea zen. Atzo, ezezagunak ziren ezbeharraren zergatiak, baina ertzainek ikerketa bat jarri zuten abian istripua zernola jazo zen jakiteko.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria

Haurren % 40k telebista aurrean bazkaltzen dute

Telebistaren erabilera egokia sustatu nahi dute familia elkarteek

Gorane Agirre / **Bilbo**

Haurren % 40k baino gehiagok telebista aurrean egiten dituzte eguneroko otorduak, % 31,5ek telebista aparailu bat daukate logelan eta % 30ek telebista ikusten dute gaueko 22:00etatik 24:00etara bitartean. Datu horien aurrean, telebistaren erabilera egokia sustatzeko jardunaldiak antolatu ditu Accion Familiar elkarteak Bilbon.

ACCION FAMILIAR Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKE) komunikazioari buruzko jardunaldiak antolatu ditu. Familiek telebistaren erabilera egokia egitea da helburua, eta aisialdirako beste alternatiba batzuk bila ditzatela sustatzea.

Elkarteak *Familiaren barneko komunikazioa eta sormenaren aldeko* lehenengo astea egingo du hilaren 10etik 15era bitartean. Ekimen honen helburua gizartea «familiaren funtsezko paperaz eta bere komunikazio beharraz» sentsibilizatzea dela azaldu zuen Luis Hernando elkarteko lehendakariak atzo.

Familiako kideen arteko komunikazioa, hein handi batean, telebistaz egiten den erabilera okerrak zailtzen duela nabarmendu zuen Hernandok. Horren adibide, honako datuak eman zituen: haurren % 40k baino gehiagok telebista aurrean egiten dituzte eguneko otorduak; % 31,5ek telebista bat dute bere gelan, eta 4 eta 10 urte bitartekoen % 30ek telebista ikusten du gauero 22:00etatik 24:00etara.

«Telebistak, ondo erabiliz, sormena aberats dezake, baina oker erabilita, ondorio txarrak ekartzen ditu adin txikikoentzat», ohartarazi zuen Luis Hernandok.

Hori dela eta, elkarteak hainbat ekimen egingo ditu datorren astean: telebista egoki erabiltzeko gomendioak jasotzen dituzten 130.000 esku orri banatuko dituzte; eztabaida eta tertuliak egingo dituzte irrati eta telebistetan, edo mahai inguru bat adituen artean.

EGUNKARIA

Haurrek ordu gehiegi egiten dituzte telebistari begira, kanpainaren sustatzaielen ustez.

gomendioak

Haurrei telebistaz baliatzen irakatsi

Haurrek telebistari «familiarteko eta arrazoizko» erabilera ematearen garrantzia nabarmendu zuten Accion Familiar erakundeko kideek atzo. Erabilera egoki hori egiteko hainbat gomendio eman zituzten:

Lagunartean • Haurrak telebista aurrean bakarrik ez uztea. Telebista lagunartean ikustea.

Denbora • Umeekin erabaki behar da pantailaren aurrean egunero igaro dezaketen denbora.

Tokia• Ez jarri telebista sukaldeko mahaian.

Zigorra • Telebista ez ikusteak ez du inoiz zigorra izan behar.

Zapping • *Zapping*-a ez da gehiegi erabili behar.

Musika hobe • Lanean ari zarenean ez piztu telebista, egizu lan musikarekin.

Komunikazioa • Susta ezazu haurren komunikazioa. Komenta itzazu programak familiarekin.

Sen kritikoa •Susta ezazu haurren sen kritikoa.

Kultura • Piztu ezazu kulturaren aldeko interesa.

Hizkuntz plangintzarik eza salatu dute 'demoek'

Angelun bide seinaleak elebitan jarri dituzte

Hur Gorostiaga / **Angelu**

DEMOKRAZIA Euskal Herriarentzat ekimeneko *demoek* Angeluko Maignon auzoko bidegurutzeko seinaleak elebitan jarri zituzten atzo, «euskararendako hizkuntz politikarik eza eta Kontratu-Planean euskararendako eman den diru eskasia» salatzeko.

Frantsesez idatziriko bide seinaleetan herri eta norabideen izenak euskaraz idatziriko pegatinak jarririk, ekintza ikusgarria egin zuten *Demokrazia Euskal Herriarenzat* ekimeneko kideek, Angeluko Maignon auzoko bidegurutze garrantzitsuan (Lapurdi).

Demo-ek salatu zutenez, Garapen Kontseiluak errepideetako bide seinaleak euskaratzeko eskaera egin zuen, baina oraino frantses hutseko bide seinale franko atzeman daiteke. «Oraino urrun gara euskal herritarrek Garapen Kontseiluaren bitartez euskararendako eskatu zuten hizkuntz politika eraginkorretik. Non da euskara esparru publikora zabaltzeko plana?», galdegin zuten bost kideek. Gisa berean, Kontratu Plana izan zuten mintzagai, berrikitan Estatuak eta Akitaniako kontseiluak hitzartua. «Heldu diren zazpi urteetan euskarari eman nahi zaion diruarekin, halako bidegurutze bateko bi itzulgune soilik egin litezke» ohartarazi zuten.

BOB EDME

Demokrazia Euskal Herriarentzat **ekimeneko kideak, atzo, bide seinaleetan euskarazko pegatinak ezartzen.**

BIZKAIKO ARGINDAR PROIEKTUEK ERAGINGO DITUZTEN 3.000 MEGAWATTAK BIDERATZEKO IZANGO DIRA

Hegoaldeko sare elektrikoa zabaltzeko 13.500 milioiko inbertsioak egingo dira

- Bizkaiko Badia proiektuak, eragingarri fiskalik ez balego ere, aurrera egingo duela ziurtatu du Imazek
- Bilboko portuko instalazioak euskal enpresek eraikiko dituzten itxaropena agertu du Eusko Jaurlaritzako sailburuak
- Datozen asteetan ezagutuko dira proiektu honetarako inbertsio kopuruak nahiz lanen adjudikazioa

Joseba Aiartza / **Bilbo**

BIZKAIAN kokatuko diren argindar proiektuek 3.000 megawatteko potentzia eragingo dute. Sare elektrikoak gaur egun ez dauka horrenbesteko argindarra garraiatzeko beste ahalmen, eta horregatik Red Electrica konpainiak 13.500 milioi inbertituko ditu datozen lau urteetan sarea zabaltzeko. Halaxe jakinarazi zuen atzo Luis Imaz Red Electricako EAEko ordezkariak Bilbon, *Garapen jasangarria eta energia azpiegiturak Euskal Herrian* izeneko jardunaldietan.

Bizkaian 330.000 milioi pezeta inguruko inbertsioak daude aurreikusita ziklo konbinatuko argindar proiektuetan. Proiektu nagusiak Muskizen (Petronor), Santurtzin (Iberdrola), Bilboko Portuan (Bizkaiko Badia), Zornotzan (Bizkaia Argindarra) eta energia berrigarriei loturikoak dira. Horrez gain, Castejonen (Nafarroa) beste bi zentral zabalduko dituzte Iberdrolak eta Hidrocantabrico konpainiek. Instalazio hauek 400 edo 800 megawattekoak izango dira.

Red Electrica konpainiak argindar garraioa egiten du Espainian eta Hego Euskal Herrian, indarrean dagoen Lege Elektrikoaren arabera. Konpainia elektriko nagusiek parte hartzen dute enpresa honen kapitalean. Luis Imazek azaldu duenez, tentsio oso handiko argindar linea berri nagusiak Muskiz eta Santurtzi artean, Kantabriatik Gueñesera, Muskiztik Itxasora (Gipuzkoa) eta, gerora, Gasteiztik Iruñera jarriko dira. Horrez gain, Red Electricak subestazio berriak eraikiko ditu Zierbenan eta Muskizen, eta Santurtzikoa indartu egingo du.

Bizkaiko Badia

Bizkaiko Badia proiektuari dagokionez, Josu Jon Imaz sailburuak iragarri du datozen asteetan ezagutuko direla behin-betiko inbertsioak eta lanen adjudikazioak.

JOSU ETXEBARRIOSTE

Josu Jon Imaz Jose Ignacio Arrieta industria sailburu ohiarekin atzo.

JOSU JON IMAZ

«Bizkaiko Badia proiektuak puntakoak dira, gasa gertu eta merke edukita bestelako energia proiektuak bultza ditzakegulako»

TXABER LEZAMIZ

«Kutsadurarik eragiten ez duen energia mota bakarra kontsumitzen ez den energia da»

Sare elektrikoa



J. APEZTEGIA

Proiektu honetarako Bizkaiko Aldundiak onartutako eragingarri fiskalak ikertzen ari dira Europako Batasunean. Horretaz, Imazek ziurtzat eman zuen inbertsioak egin egingo direla, eragingarriekin edo eragingarririk gabe. «Proiektu hau puntakoa da, gasa gertu eta merke daukagun neurrian, beste argindar proiektuak bultzatu ahal izango ditugulako», esan du.

Lanen adjudikazioa «lehiaren arauei jarraituz» egingo dela azpimarratu du sailburuak, lehiaketa publikora bost enpresa talde aurkeztu baitira. Hala ere, Imazek espero du ingeniaritza nahiz ekipo ondasunetako euskal enpresek (Babcock Wilcox eta Mecanica de la Peña) adjudikazioa lortzea, «horrek suspertu egingo baitu euskal industri sarea».

Bizkaiko Badia proiektuek 90.000 milioi pezetaren inbertsioa eragingo dute, gas planta bat eta ziklo konbinatuko 800 megawatteko zentral elektrikoa egiteko. Bazkideak Iberdrola, Repsol, Amoco-BP eta EEE (Energiaren Euskal Erakundea) dira.

Gainerako proiektuei dagokienez, Iberdrolak eta Repsolek Petronorren egingo duten inbertsioa 150.000 milioikoa da, birfinketak uzten duen gasa erabiliz 800 megawatt argindar ekoizteko.

Iberdrolak Santurtziko zentralean zabalduko duen laugarren argindar taldeak 400 megawatt ekoiztuko ditu eta 25.000 milioiko inbertsioa eragingo du, eta Irlandako ESB konpainiak Zornotzan 45.000 milioi inbertituko ditu 800 megawatteko beste zentral bat eraikitzeko.

Azkenik, Jaurlaritzako Energia Egitasmoak beste 68.000 milioi aurreikusten ditu energia berriztagarriei lotutako proiektuetan. Garrantzitsuenak Zabalgarbi eta Elgeako Parke Eolikoa dira.

2005erako helburua: %82ko autohornikuntza

ARGINDAR konpainiek Bizkaian eta Nafarroan zabalduko dituzten ziklo konbinatuko zentralak sektore elektrikoaren liberalizazioarekin etorri dira. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak finkatutako helburu nagusia %82 autorhornikuntza elektrikoa da. Une honetan tasa hori %20koa da. EAE energi kontsumitzaile handia da, Espainiako kontsumo osoaren %10ekin, baina betidanik oso produkzio urria egin du. Gasteizentzat, autorhornikuntza helburu estrategikoa da.

Ingurugiroaren kaltea, kezka nagusietako bat

«KUTSATZEN ez duen energia bakarra, kontsumitzen ez dena da», esan du Txaber Lezamiz Jaurlaritzako Energia zuzendariak. Proiektu energetiko guztiek ingurugiroan eragin kaltegarria dutela onartuta ere, energi iturri berrigarrien aldeko apostuak eta gasaren erabilpenak kaltea gutxitu egiten dutela azpimarratu du Lezamizek. Kalte hori linea elektrikoen kasuan oraindik handiagoa delaeta, sare elektriko berriak irizpide ekologiko zorrotzekin egin behar izango direla onartu du Luis Imazek.

Grezia 2001 urtetik aurrera euroaren eremuan sartzea hobetsi du Bruselak

Maastrichteko Hitzarmena betetzen duela iritzi dio Europako Batzordeak

Agentziak / **Brusela**

Euroaren eremuko hamabigarren herrialdea izan daiteke Grezia datorren urte hasieratik. Europako Batzordeak hala proposatu zion atzo Pedro Solbes Europako Ekonomia komisarioak Europako Parlamentuko Ekonomia Batzordeari. Suediak, aldiz, euroaren eremuan sartzeko bi baldintza ez dituela betetzen azaldu zuen.

EUROPAKO BATZORDEAK Grezia euroaren eremuan sartzeko lehen pauso ofiziala eman zuen atzo Bruselan, herrialde horrek Maastrichteko Hitzarmenean ezarritako baldintzak betetzen dituela aitortu baitzuen Europako Parlamentuko Ekonomia Batzordean. Prozesuak aurrera jarraituz gero, Grezia euroaren eremuan sartuko litzateke 2001 urteko urtarrilaren 1ean.

Pedro Solbes Europako Ekonomia komisarioak azaldu zuenez, «Greziak konbergentzia ekonomiko iraunkorrerako maila handia lortu du». Solbesek aurkeztutako txostenaren arabera, Greziak une honetan Maastrichteko Hitzarmenak eskatutako baldintzak betetzen ditu, bai finantza publikoen egoeran, bai prezio indizenean, bai diru egonkortasunarenean eta bai epe luzeko interes tasetan ere.

1999an Greziako defizit publikoa BPGren %1,6ra murriztu zen, eta Maastrichteko Hitzarmenak euroaren eremura sartzeko defizita gehienez %3koa izatea jartzen du baldintzatzat.



LOUISA GOULIAMAKI / EPA

Yiannos Papandoniou Greziako Ekonomia ministroa.

Zor publikoari dagokionez, %104,4ra jaitsi zen igaro urtean Grezian. Maastrichteko Hitzarmenak %60 erreferentzia balioa ezartzen du gehienez, baina adituen ustez, Hitzarmeneko baldintza honen interpretazio malgu batek, Greziako zor publikoaren beheranzko joera iraunkorra kontuan hartuta, baldintza hori ere «betetzat» emango luke. Hain zuzen, 1998an ere interpretazio malgu hori egin zen gero 1999ako urtarrilaren 1ean moneta batasuna osatu zuten herrialde gehienekin.

Inflazioaren alorrean ere Greziak betetzen du Maastrichteko Hitzarmena, herrialdeko prezio indizea %2raino jaitsi baitzen 1999an. Europako Batzordearen txostenaren arabera, «Grezian prezioen egonkortasuna handia da, oinarri ekonomiko osasuntsuetan finkatuta». Hala ere, txostenaren arabera, Greziak bere egonkortasun estrategiari eutsi behar dio prezioen arloan, «aurrekontu politika zorrotz batekin eta soldaten moderazio politikarekin jarraituz, epe ertainera inflazioak ergindako tentsioen berpizte bat saihesteko».

Azkenik, dracma Europako Diru Sistemaren barruan dago 1998ko martxoaz geroztik, eta epe luzerako bere interes tasak %6,4 azpitik kokatu ziren, eskatutako %7,2aren azpitik.

Greziak betetzen dituen baldintzen errepasoa egiteaz gain, Europako Batzordearen txostenak hainbat gomendio ere egiten dizkie Atenasko agintari ekonomikoei. Defizit publikoaren murrizketan indarrak areagotzeko gomendatu zaio Greziari, baita hainbat sektoretako eta merkatuetako egiturazko erreformekin jarraitzea, bereziki lan merkatuan, gizarte segurantzaren sisteman eta sektore publikoaren pribatizazioan.

Suedia oraindik ez

Euroaren eremuan sartu ala ez erabakitzeko Suediako Gobernuak erreferendum bat aurkeztu nahi duen arren, atzo Europako Batzordeak ukatu egin zuen sartzerik duenik, batik bat Suediak ez dituelako bi baldintza betetzen. Batetik, koroa suediarra ez dago Europako Diru Sistemaren barruan. Eta bestetik, Suediako Banku Zentralaren independentziaren gaineko legedia ez da bateragarria euroaren eremuko egiturarekin.

Beyenako langileek 30.000 litro esne hustu dituzte Asturiasko lantegitik zetorren kamioi batetik

Bilboko plantaren kodea zuten ontziak zeuden barruan

Efe / **Bilbo**

BEYENAKO langileek 30.000 litro esne hustu zituzten atzo Asturiasko lantegitik zetorren kamioi batetik. «Bilboko lantegian ontziratu dela agertzen duen kodea zeramatzaten esne ontziek», adierazi zuten sindikatuek. Kamioia autopistan antzeman zuten. Bilboko lantegiraino eraman eta haren aurrean hustu zuten.

UGT, ELA eta LAB sindikatuek salatu dutenez, Asturiasko Polesa lantegian Bilboko ontziratze kodea duen esne kontzentratua egiten ari dira, eta jarduera hori Europako Batasunak debekatu du.

Iparlat taldeak Bilbon duen lantegia da Beyena, eta apirilaren 17tik greban daude bertako beharginak, lantegia itxiko duela iragarri baitu Iparlatek. Sindikatuek jakinarazi zutenez, txanda bakoitzeko bi orduko lanuzteak egitea erabaki du Iparlateko zentroen arteko batzordeak hilaren 11n, 12an, 15ean eta 16an Nafarroa eta Gipuzkoako lantegietan.

Iberdrolak argindarra salduko dio Marokori bigarren aldiz

Europa Press / **Bilbo**

MAROKORI argindarra saltzeko konkurtsoa irabazi du bigarren aldiz Iberdrolak. Office National L´Electricitek (ONE) deitu zuen konkurtsora, Marokoko argindarraren horniduraz arduratzen den enpresak.

Konpainia elektrikoak atzo jakinarazi zuenez, Iberdrolak 160 mw-ko potentzia hornituko du. Hala, datozen hiru hilabeteetan 300 milioi kilowatt orduko bolumena eragingo du.

Adjudikazioarekin, Iberdrolak bere posizioa sendotuko du Marokon. «Energia merkatuaren liberalizazioan lehiakortasun handia duela» erakusten du, ONEren iritziz.

Euroak dolarrarekiko balioa galtzen jarraitzen du etengabe eta jada 90 zentaboko muga gainditu du

Agentziak / **Frankfurt**

Azken hilabete luzeetako joerarekin jarraituz, euroak Estatu Batuetako dolarrarekiko balioa galtzen jarraitzen du. Atzera gelditu ziren euroak dolarrarekiko parekotasuna (1=1) iritsiko zuen ala ez zioten eztabaidak. Eta are urrutiago gelditu dira euroa dolarrari aurre egiteko moneta indartsu bezala sortu zela zioten ahots arranditsuak. Atzo moneta bakarraren balioak atzera behera egin zuen dolarrarekiko trukean, eta beste muga psikologiko bat pasatu zuen, 90 zentaboena. Europako Banku Zentralak ezarritako truke ofizialean, atzo euro batek 0,8917 dolar balio zituen.

Zenbaitetan ekonomian gertatu ohi denez, zenbat buru hainbat aburu, eta aditu batzuek euroaren ahuleziaren arrazoitzat 0,9032 dolarren muga gainditu izana aurkeztu zuten, beste albiste ekonomiko baten faltan.

Beste zenbait adituk, ordea, Grezia euroaren eremuan sartzeko proposamenari egotzi zioten Europako dibisaren ahuleziaren errua. Dirudienez, zenbait dibisa agentek ez dute argi ikusten Greziak Maastrichteko Hitzarmenak ezarritako konbergentzia baldintzak beteko dituenetz.

Bata dela edo bestea dela, azken jaitsierarekin euroak sortu zenetik bere balioaren %26 galdu du dolarrarekiko. Gaur egun dolar batek 185 pezeta edo 7,33 libera inguru balio ditu.

Adituen ustez, gainera, euroaren ahuleziak oraindik iraun egingo du, hein handi batean euroa ahul baina dolarra indartsu dagoelako. Bitartean, betiere adituen arabera, euroa Europako barne politika arazoak islatzen ari da: Italiako Gobernu krisia edota Jean Claude Trichet Frantziako Bankuko Gobernadoarearen auziperatzea.

International Exchange burtsa sortu da, Europako merkatu globala bultzatzeko

EEBBetako Nasdaq merkatu teknologikoarekin aliantza sinatu du burtsa berriak

Agentziak / **Londres**

Frankfurteko eta Londresko burtsek baieztatu egin zuten atzo bi merkatuek bat egingo dutela udazkenean, International Exchange (iX) burtsa berria sortzeko. Kapitalizazioan Europako lehena eta munduko bigarrena izango da. Etorkizunean Europako merkatuen bat-egitea ekarriko du burtsa berriak.

ALASTAIR GRANT / AP

Werner G. Seifert eta Don Cruickshank, Frankfurt eta Londresko burtsen presidenteak, elkarri eskua ematen.

ALEMANIAKO egunkariek iragarri zuten bezala, International Exchange (iX) burtsa sortuko da udazkenean, Frankfurteko eta Londresko merkatuen bat-egitearen ondorioz. Balioen merkatu berria Europako lehena eta munduko bigarrena izango da kapitalizazioan. Gainera, Estatu Batuetako Nasdaq balore teknologikoen indizearekin aliantza hitzartu du iXk, akzio teknologikoen Europako merkatua sortzeko.

International Exchangen Europako 300 enpresa nagusiek kotizatuko dute, eta Europako salerosketa bolumenaren %53 bereganatuko du. Egoitza Londresen izango du. Eurex Londresko deribatuen merkatua eta Xetra sistema elektroniko alemaniarra erabiliko ditu.

Egunkariek ez dute ondo hartu iX Londresen geratzea. Horien ustez, Frankfurt bigarren mailako burtsa izatera pasatuko litzateke. Izan ere, Frankfurtek salerosketen %80 galduko du Londresen mesederako. Sektore kritikoak beldur dira Frankfurten lanpostuak galtzeko.

Bestalde, Nasdaqen Europako egoitza Frankfurteko burtsan egongo da. Alemaniako Neuer Markt eta Erresuma Batuko TechMark merkatu teknologikoak eta gora doazen teknologia eta bioteknologia sektoreetako akzioen salerosketak bereganatuko ditu.

«Bat-egiteak merkatu globala sortzeko aukera ematen digu, eta horretan lan egingo dugu», esan zuen atzo Don Cruickshank Londresko burtsaren eta iXren presidenteak. Werner G. Seifert Frankfurteko presidente eta iXeko zuzendari exekutiboak adierazi zuenez, «onurak eragingo dizkie inbertsoreei, kotizatzen duten enpresei eta bitartekariei. Likidezia handiaren ondorioz, kostu baxuez baliatuko dira».

Izan ere, adituen ustez, burtsen bat-egite prozesuak bertan kotizatzen duten enpresen eskakizunen ondorioz hasi dira besteak beste. Likidezia eta kapitalizazioa handitzeko beharra sumatu dute enpresek. Dena den, burtsa erraldoiaren sorrerarekin ez dira desagertuko merkatu lokalak. Burtsa bakoitzaren balore handiek Europakoan kotizatuko dute, eta kapitalizazio txikiagoa duten konpainiek, berriz, betiko lekuetan kotizatzen jarraituko dute.

700.000 milioi pezetako kapitalizazioarekin, iXk Euronext burtsari aurre hartuko dio. Paris, Amsterdam eta Bruselako merkatuen aliantzaren ondorioa da Euronext. Adituen arabera, ez da denbora askorik igaroko Euronext iXra gerturatzeko.

Madril eta Milan, 2001. urtean

Madrilgo eta Milango burtsak 2001ean sartuko dira IXn. Dagoeneko bertako presidenteek bat egiteko asmoa dutela adierazten duen idatzi bat sinatu dute. Madrilgo Burtsak atzo adierazi zuenez, «Espainiako gainerako burtsentzat aukerak aztertuko dira». Bilboko Burtsako arduradunen ustez, Europan akordioetara iritsi beharko dute. Bestalde, Europako Batzordeak bere babesa eman dio bat-egiteari. «Europan finantza merkatuek daukaten lekua sendotu egingo du», adierazi zuen.

Bizkaiko Aldundiaren eta Estatuaren arteko afera konpontzeko lanean ari direla dio Zenarruzabeitiak

Erakundeen arteko harremanean «gaizki ulertua» dagoela uste du lehendakariordeak

I. Santamaria / **Gasteiz**

IRAGAN urtarrilean Eusko Jaurlaritzak, EAEko hiru foru aldundiek eta Espainiako Gobernuak sinatu zuten hitzarmen fiskalari buruzko informazioa emateko agerraldia egin zuen Legebiltzarreko Ogasun batzordean Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordeak.

Alde guztiek hitzartu zuten akordioa kontzertu ekonomikoarentzat «oso garrantsitzua» dela adierazi zuen. Alta, oraindik guztiek ez dutela sinaturikoa bete gogoratu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Estatuaren arteko gatazkari buruz ari zela. Alde guztiek euren betebeharrak martxoaren 1a baino lehen egiteko konpromisoa hartu zutela zehaztu zuen.

Lehendakariordeak azaldu zuenez, «guztiek akordioak osorik betetzea litzateke onena. Eusko Jaurlaritzak kudeaketa lan aktiboa egin du eta egiten ari da ezadostasunak gainditu ahal izateko».

«Egun beharrezkotzat jotzen dugu, bai Estatuak arau fiskalen inguruan jarri zituen helegiteak kentzea, bai Bizkaiko Foru Aldundiak arau gatazkatsuak bertan bertan behera uztea», esan zuen. Bi erakundeen arteko harremanean egondako «gaizki ulertuei» egotzi zien lehendakariordeak afera. Irtenbidea erdiesteko «elkarlana» nahitaezkotzat jo zuen.

Burtsa

• J.B. ANDUEZA •

politegiazen.com

KPN eta Telefonicaren eztei bidaiaz hitz egingo genuela zirudien, baina goiza haizetsu esnatu zen. Haize aldakorrarekin, goitik, behetik, joera garbirik gabe ibili zen burtsa. Hori bai, Wall Streetek dardar egin zuen hasi orduko, eta Europan eragin nabarmena izan zuen horrek arratsaldean. KPN eta Edurnezuriren atzoko maitasun istorioa politegia zen egia izateko.

Espainiako ekonomia ministroak jarri dizkio lehen aitzakiak, Terrak muturrekoa hartu zuen (-%9,17) , BSCHk (-%4,19) ere bai eta teknoakzioek eta Telepizzak (-%7,51) aldakortasuna zer den erakutsi zuten: TPIk -%4,15 eta Amadeusek %5,59 galdu zuten. Politegiazen.com.

Bilboko 2000 Indizea

Dibisen merkatua

	1 Euro
Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EEBB)	0,89130
Libra Esterlina	0,57110
100 Yen (Japonia)	0,97460

Beste indizeak ** Eguerdira arte*

New York (Dow Jones)*	10.519,53 (-%1,97)
Tokio (Nikkei)	JAI EGUNA
Madril (IBEX-35)	11.667,90 (-%1,68)
Paris (CAC-40)	6.435,65 (-%1,93)
Londres (FTSE 100)	6.184,80 (-%2,96)
Frankfurt (DAX-XETRA)	7.376,93 (-%2,37)
Milan (Mibtel)	31.487 (-%1,89)

■ **BURTSAK** finantza aktiboen salerosketa antolatzen eta errazten duten enpresak dira. Beraz, ez da harritzekoa Londres eta Frankfurtekoen bat-egitea. Parisek Euronext bultzatu zuen, orain iX dator (Nasdaq lagun hartuta). Bere txikian, Bilbokoak, Madrilgoaren babespean defendatu beharko du bere txokoa. Konkurrentzia beharra bezain eragile ona da.

Aurrerapausorik ez dute erdietsi Bizkaiko egur sektorean, grebaren laugarren astean

Akordiorik lortu ez eta langileak itxialdia egin dute CEBEK patronalaren egoitzan

Haritz Gallastegi / **Bilbo**

Bizkaiko egur sektoreko patronalak eta sindikatuek iragan abenduan hasitako negoziazioek ez dute emaitzarik eman oraingoz. Patronalak ez du bere azken eskaintza aldatzeko asmorik, eta sindikatuak greban jarraitzeko prest daude, beren eskariak onartu arte. Langileek atzo itxialdia egin zuten CEBEKen egoitzan.

BIZKAIKO egur sektoreko grebak ez dirudi konponbide erraza duenik. Langileak greban daude apirilaren 10etik, hitzarmena noiz sinatuko zain. Atzo arratsaldean egindako bileran ere ez ziren akordio batera iritsi. Ondorioz, protesta gisa, CEBEK Bizkaiko Enpresen Konfederazioko egoitzan hiru orduko itxialdia egin zuten.

Sindikatuetako ordezkariek adierazi dutenez, egin beharreko ahalegin guztiak egin dituzte, «aurkeztu dugun azken proposamenean ikus daitekeen bezala». Proposamen honetan hasierako eskariak gutxitu egin dituzte. Euren iritziz, enpresariak prest agertuko lirateke proposamena onartzeko, baina arazoa CEBEKen dago, «egur sektoreko hitzarmena erreferentzia bezala erabili nahi baitute beste sektoreetan negoziatzeko». Hitzarmen honek 3.500 langileri eragiten die.

IÑIGO AZKONA

Bizkaiko egur sektoreko langileek protesta egin zuten CEBEKen egoitza aurrean.

Patronalak ez du atzera egiteko asmorik

CEBEK patronaleko idazkari Francisco Azpiazuk adierazi duenez, sindikatuek eskatutako hitzarmena «onartezina» da. «1999ko abenduan hasi genituen negoziaketak, eta, gure ustez, sindikatuek eskatutakoa ez dago onartzerik». Hala baieztatu zen atzoko bileraren ostean, ez baitzen akordiorik izan. Azpiazu egur sektoreko lau azpisektoreetako ordezkariekin batera azaldu zen komunikabideen aurrean, enpresarien ikuspuntua agertzeko. Argi utzi zuen sindikatuei eginiko azken eskaintzak ez duela aldaketarik izango.

«Grebarako deialdia mahai gainean geneukanean, azken proposamen bat luzatu genien. Proposamen horretan, eta gaur egun ere horri eusten diogu, 2000. urtean soldata %4,5 igotzea proposatu genuen, eta 2001ean aurreko urteko Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) gehi %0,75. Lanorduetan, 16 orduko murrizpena proposatzen dugu», esan zuen.

Azpiazuren esanetan, sektoreka egindako hitzarmenik onena litzateke. «Eskaintza hau patronal honek lau sindikatuei egin dien onena da. Espainian ez da horrelako proposamenik egin». Zenbait enpresak ezingo diola hitzarmenari aurre egin ere azpimarratu zuen CEBEKeko idazkariak.

PAULINO ORIBE / EFE

Lanuztea eta mobilizazioa egin zuten EAEko Administrazioko langileek

Eusko Jaurlaritzarekin lan eskaintza publikoa dela eta, afera hasi zenetik laugarren lanuztea egin zuten atzo administrazioko behin-behineko langileek. Gainera, elkarretaratzea egin zuten Gasteizko hirigunean. Gaur, sektoreko negoziazio mahaia bilduko da berriro, baina sindikatuek ez dute akordio bat lortzeko itxaropen handirik. Bihar, berriz, jardunaldi osoko grebara deitu dute ELA eta LAB sindikatuek.

laburrean

Bi langile zauritu dira Zaratamon eta Zamudion izandako lan istripuetan

LANGILE bat larri zauritu zen atzo Zaratamoko lantegi batean izandako istripu batean. Ezbeharra goizeko 02:00etan jazo zen, behargina bost metroko garabi batetik erori zenean. Langileak 44 urte ditu eta Diman bizi da. Bestalde, atzo A.A.I. langilea arin zauritu zen, Zamudioko Ugaldeguren Poligonoan irristatu ondoren. Istripua goizeko 08:30ean izan zen.

Baionako Portuak lehen hiruhileko «bikaina» izan duela adierazi du Merkataritza Ganberak

AURTENGO lehen hiruhilekoa Baionako Portuaren garraioarendako «bikaina» izan dela adierazi du Merkataritza eta Industria Ganberak. Garraioen kopuruak urtarrilaren lehenetik martxoko azken egunera bitartean %7,27 egin du gora, iazko epe berarekin konparatuz gero. Orotara, tonatik gora garraiatu da Lapurdiko portu herrtatik. Martxoko hilabetea soilik kontuan izanik, gorakada %3,64-koa izan da MIGen arabera.

Bizkaiko Golkoko antxoaren biomasa aztertzen hasi da Eusko Jaurlaritza

EUSKO JAURLARITZAKO Nekazaritza eta Arrantza Saila Bizkaiko Golkoko antxoaren biomasa aztertzen hasi zen atzo AZTI fundazioaren bidez. Antxoaren arrautzak hartu eta egunero zenbat arrautza jartzen dituzten aztertuko da kanpaina horretan. Horrez gain, hezitako antxoa harrapatuko da, ugalkortasun tasa zehazteko. Azterketarekin, zenbat antxoa dagoen zehaztu nahi da.

Ontzigintzaren prezioak jaisteko Hego Korearen 'dumping' praktika aztertuko du Bruselak

ONTZIGINTZAREN prezioak jaisteko Hego Koreako ontziolen *dumping* praktikei buruzko probak jasoko ditu Europako Batzordeak. Proba horiekin, Merkataritzaren Mundu Erakundean (MME) salaketa jarriko du. Bruselak dio prezioen beherakada «jasanezina» dela. Lehian orekari eutsi behar zaiola ohartarazi dio Seuli.

ERRESUMA BATUKO HIRIBURUAK ALKATEA AUKERATUKO DU GAUR, 14 URTEZ UDAL AGINTARIRIK GABE EGON OSTEAN

‘Ken Gorria’, Blairren amesgaiztoa, Londresko alkatetzaren ateetan

- Ken Livingstone laborista disidentea faborito garbia da gaurko udal hauteskundeak gehiengo zabalez irabazteko
- Tony Blair beldur da Livingstone laborismoaren ezker adarraren lider bilakatuko dela eta barne oposizio lan gogorra egingo diola
- Komunikabide laborista batzuek ere hautagai kontserbadorearen aldeko botoa eskatu dute, *Ken Gorria*-ri aurre egiteko

Erredakzioa / **Donostia**

LONDRES Handiko bost milioi hautesleek beren eskubidea baliatuko dute gaur hiriko alkatea eta udal gobernu berriko (Londres Handiko Agintaritza) 25 zinegotziak hautatzeko. Udal hauteskundeak dira Erresuma Batuko beste 152 hiritan ere, baina Londreskoek bereganatu dute arreta handiena, Tony Blair lehen ministroak boterea gal baitezake hiriburuan.

Londresen bertan aginte talde berria eratuz gero Erresuma Batuaren deszentralizazio bidean egingo den beste urrats bat da, Eskozia, Gales eta Ipar Irlandari autonomia eman ondoren. Eta Londresko udal gobernua, Blairrek desegokitzat daukan hautagaiaren eskuetan geratuz gero, arazo larria bilakatuko zaio lehen ministroari. Atzo arte zabaldutako inkestek diotenez, Ken Livingstonek botoen % 50etik gora lor ditzake gaur; hala gertatzen bada ez du bigarren itzulirik beharko eta atze-atzean utziak izango ditu beste hautagaiak: Steve Norris kontserbadorea, Frank Dobson laborista eta Susan Kramer liberal demokrata.

Livingstone alderdi laboristatik kanporatua izan zen, baina horregatik ez du ospea galdu, ezta Dobsonek bere hautagaitza sendotu ere.

Prentsa Livingstoneren aurka

Prentsak ere kolpe handia hartuko du Livingstone hautatzen badute, azken asteotan kanpaina gogorra egin baitu ohiko hautagaien alde. *Financial Times*-ek «bufoi» deitu dio Livingstoneri eta *The Sun* egunkari populista kontserbadoreak independenteei bizkar eman eta bakoitzak bere alderdiari botatzeko eskatu du. *The Express* egunkari populista laboristak, berriz, argi eta garbi eskatu du Norris *tory*-ari emateko botoa, «Dobson ahulari barik». *The Mirror*-ek ere berdin egin du, bere iritziz, «londrestarrak garai modernoetako erokeria handiena egitera doazelako».

Londresko alkateak botere mugatua izango du hiriburuko Polizia, garraioa, ingurugiroa eta kultur politikaren alorretan. Baina izango duen botere mediatikoa, horiek baino garrantzitsuagoa da eta horren beldur da Blair. 1981-1986 bitartean Londresko alkate izan zenean Livingstone, homosexualen aldeko jarrera garbia izan zuen, Ipar Irlandako gatazka elkarrizketa bidez konpontzeko eskatu zuen —gaia tabu zenean—, eta herritarrak bereganatu zituen garraio publikoaren prezioa gutxituta. Politika erradikalegia da hori Blair moderatuarentzat, are gehiago hurrengo urtean hauteskunde orokorrak izanik. Margaret Thatcherrek ere horregatik kendu zion udal boterea Livingstone-i.

STEFAN ROUSSEAU / EPA

Ken Livingstone Londresko alkategaia, kanpaina egiten ari zela, 2000ko otsailean.

Londresko alkategai nagusiak

Ken Livingstone independentea

Ezaxolagabekeriarik sortzen ez duen politikoa da Ken Livingstone. Kontserbadoreek eta Tony Blairren jarraitzaileek ikusi ere ezin dute egin *Ken Gorria*, batik bat Londresko alkate izan zenean (1981-1986) egin zuen politika ezohikoagatik eta harrezkero edozeri buruz iritzia ematean azaltzen duen independentziagatik. Londrestarrak, ordea, gainerako ingelesak baino ezkertiarragoak dira eta maite zuten orduan desberdintasun hori, eta, orain ere bai, antza. Alderdi Laboristako hautagaitza galdu zuen, baina nahikoa garbi geratu zen Blairren aldekoek iruzur egin ziotela. Independente gisa azaldu da orain, baina irabazten badu, berriro Alderdi Laboristan sartzen saiatuko dela iragarri du.

Frank Dobson laborista

Alderdi Laboristaren hautagai ofiziala da edo zehatzago esanda, Tony Blair lehen ministroaren hautagaia. Izan ere, Dobsonek berak ez zuen gogo handirik alkatetzagatik lehiatzeko, baina Blairrek presionatu egin zuen ez zuelako inondik inora nahi Livingstone alkate izatea. Laboristen itzaleko Gobernuan izan zen Margaret Thatcherren agintaldian eta Blairrek Osasun ministro izendatu zuen 1997an. Agindu du ez duela metroa pribatizatuko, nahiz eta hori den Blairren asmoetako bat.

Steve Norris kontserbadorea

Alderdi Kontserbadoreko hautagai ofizialak ere bereak eta bi ikusi ditu alkategai izendatua izateko. Militanteek bi aldiz bota zuten atzera barne bozketetan, baina azkenean onartu behar izan zuten, Jeffrey Archer aurreko hautagaiak uko egin behar izan ziolako, epaiketa batean gezurra esan zuela aitortu ostean. 1992tik 1997ra Garraio Estatu idazkari izan zen arren, emakumezaletasunak egin du ezagun hautesleen artean. Bere programan, Norrisek ez du baztertu Londresko metroa esku pribatuetan uztea eta polizia gehiago ipintzea proposatu du delikuentziari aurre egiteko. Inkestek diotenez, bigarren geratuko da eta bigarren itzulia izango balitz, bera lehiatuko litzateke *Ken Gorriarekin*.

Susan Kramer liberal demokrata

Livingstonerekin batera, Londresen jaiotako bakarra da hautagai nagusien artean. Oxforden Ekonomia ikasi ondoren, Estatu Batuetara joan zen senarrarekin eta Citybank bankuaren lehendakariordetzara iritsi zen. Bi handicap nagusi ditu: batetik, bere alderdia, liberal demokrata, hirugarrena da Ingalaterrako barruti gehienetan, eta bestetik, soslai politiko gutxien duen hautagaia da. Garraio publikoetan aditua izateak lagunduko dio alkate izatera iristen bada, garraioa baita Londresko alkate berriaren eginkizun nagusietakoa. Londresko metroa berritu nahi du, baina pribatizatu beharrean, bonoak merkaturatzea proposatu du. Polizia indartu nahi du eta Londresko auzo baztertuak lagundu.

Beste bi militante bretainiar atxilotu ditu Poliziak Kever-ko atentatuaren ikerketan

Frantziako Barne ministroak esan duenez, ARB eta Emgann «gauza bera dira»

Ander Fadda / **Naoned**

Frantziako Poliziak beste bi militante bretainiar atxilotu zituen atzo arratsaldean, ustez zerikusia dutelako Kever-ko (Quevert) McDonald´s jatetxearen aurkako atentatuarekin. Atxilotuak dira Eric Bainvel Emgann talde independentistako atzerri gaietarako arduraduna eta Klaod An Digou, SAB (Stourm ar Brezhoneg) hizkuntzaren aldeko taldeko burukidea. Jean Pierre Chevenement Frantziako Barne ministroak ez du aukera galdu mugimendu nazionalista kriminalizatzeko. Bere iritziz, atentatuak erakutsi du ARB talde armatua eta Emgann «gauza bera direla».

PARISEN, Ministroen Kontseiluan parte hartu ondoren egindako adierazpenetan, Chevenementek ziurtatu zuen Gael Roblin Emganneko bozeramailea izan zela ARBren izenean Capa berri agentziari diskete bat eman ziona. Diskete horretan Bretainiako Armada Iraultzaileak zioenez, berak ez zuen jarri Keverreko McDonald's jatetxeko langile bat hil zuen bonba. ARBk, ostera, ziurtatu zuen Poliziak nahita isilarazi zuela apirilaren 14an Pornizh-eko McDonald'sen aurkako atentatua, lehergailua erabili ahal izateko.

Frantziako Poliziak ez dio sinesgarritasun handirik eman ARBren agiriari. Bere iritziz, ARBren lehergailuak huts egin zuen eta behar baino beranduago egin zuen eztanda; orain nazionalista bretainiarrak «akatsa» ezkutatzen ari nahian dabiltza.

MARCEL MOCHET / EPA

Polizia frantziarrak aztarna bila Kever-eko McDonald´s jatetxearen kanpoaldean.

Bederatzi atxilotu

Atzo arratsaldean bederatzi lagun zeuden Frantziako Poliziaren eskuetan. Bainvel Saint Herblaingo bere etxean atxilotu zuten eta An Digou, berriz, Groix uhartean bere ikasleekin zegoela. Ondoren, An Digouren An Orianteko (Lorient) etxea arakatu zuten poliziek.

Halaber daude arrestaturik Roblin eta haren neska-lagun Silvie, Christian Georgeault, haren emazte Mireille eta alaba Solenn, Anne Mellier-Riou (Denez Riou presoaren emaztea) eta Pascal Lezze. Azken horren autoan soldatzeko tresna bat, detonadore bat eta hari elektriko bat topatu du Poliziak eta lehergailuak egiteko zirela esan. Henri Pelan Emganneko kideak AP agentziari ziurtatu dioenez, Lezze elektrikaria da eta horregatik zuen materiale hori. «Zaila ikusten dut Lezzek atentatu bat egitea, makuluak behar baititu ibiltzeko», gehitu zuen.

Kargurik gabe aske geratu dira, berriz, beste hiru lagun: ARBren ustezko agiria jaso zuen CAPA agentziako kazetaria eta beste bikote bat. Azken horiek euskal herritarrak zela zabaldu zuten herenegun berri agentzia batzuek, baina EGUNKARIAk ezin izan zuen datu hori baieztu.

Prodik karguz aldatu ditu Batzordeko bi arduradun

Ricardo Levi bozeramailea eta Carlo Trojan idazkari nagusia gogor kritikatuak ziren azken garaiotan

Agentziak / **Brusela**

ROMANO PRODI Europako Batzordeko presidenteak ezustea eragin zuen atzo bere lankide hurbilenetatik bi karguz aldatuta. Orain arte izan dituzten funtzioetatik bazertuak izan direnak Ricardo Levi batzordeko eledun nagusia eta Carlo Trojan idazkari nagusia izan dira.

Levi italiarraren ordez, Jonathan Faull britainiarra egongo da, behin-behinean. Trojan holandarraren kargua hartzeko, berriz, David O'Sulivan irlandarra aukeratu du Prodik. O'Sulivan zen orain arte Romano Prodiren taldeburua eta lan honetan Michel Petite frantziarrak ordezkatuko du.

«Aldaketa hauen helburua da batzordearen lanen hobetzea eta gure mezua eraginkorragoa bihurtzea», azaldu zuen Prodik, atzo egindako prentsaurrekoan. Levi eta Trojanen aurka azken garaiotan izandako kritikei ez diela arreta gehigirik egin ziurtatu zuen Europako batzordeburuak, «ez daukat ohiturarik presioei amore emateko», adierazita. Hala ere, argi da bere bi lankide hurbil hauen irudi txarrak kalte egiten ziela eta, goiz edo berant, atzo jakinarazitako erabaki baten hartzerat behartuta izango zela.

Jacques Santer luxenburgotarrak zuzentzen zuen aurreko batzordeko lankide zen Trojan eta Prodiren agintaldian jardunean jarraitu zuelarik, haren aurkako salaketa ugari zabaldu ziren, zeintzuek zioten oso herabe ibili zela komisario batzuen kontra iruzur egite eta legezkanpo jokatze akusazioak argitzeko.

Levi eledun nagusiari, aldiz, bere kargua nahiko gaizki betetzea leporatzen zioten Europako Batzordearen lanen berri ematen duten kazetariek.

Azken 15 urteotako greba gogorrenari ekin diote Norvegiako langileek

Gas eta petrolio inportazioak eragotziko dituzte luze jotzen badute

Agentziak / **Oslo**

NORVEGIAKO 85.000 langilek greba mugagabeari ekin zioten atzo, patronalak eskaintzen dioten soldata igoera txikiegia dela salatzeko. Grebak jarraipen handia izan zuen garraio publikoetan, egunkarietan, eraikuntza industrian, hoteletan eta errepide bidezko hornikuntzan.

Halaber, eragin handia izan zuen gas eta petrolio putzuetan. Statoil Estatuaren petrolio konpainiak eta Norsk Hydro pribatuak jakinarazi zuten grebak luze jotzen badu gas eta petrolio produkzioa geratu egin beharko dituztela, ezingo dutelako ateratakoa esportatu. Erregaien esportazioa da Norvegiaren aberastasun nagusia, egunero 3,2 milioi petrolio eta gas kupel saltzen baititu.

Supermerkatuek jakinarazi dute oinarrizko elikagai eskasiarik ez dela izango datozen egunotan, baina gozoak eta txokolateak laster amaituko direla.

NHO patronalak eta LO sindikatu nagusiak %4ko soldata igoera hitzartu zuten (inflazioa %2,5 ingurukoa da), baina Norvegiako Bankuak interes tasak %0,25 igo zituenean, ehuneko hori ere igotzea exijitu zuten langileen ordezkariek.

Bi lagun atxilotu dituzte Ipar Irlandan Nelson abokatuaren hilketagatik

Erredakzioa / **Donostia**

IPAR IRLANDAKO Poliziak bi lagun atxilotu ditu Portadownen, ustez zerikusia dutelako Rosemary Nelson abokatu katolikoaren hilketan parte hartu zutelako. Iaz hil zuen Esku Gorriaren Defenditzaileak talde loialistak giza eskubideen aldeko abokatua, bere autoan bonba bat jarrita.

Maiatzaren 11tik aurrera

Bizkaiko herrietako informazioa
EUSKALDUNON EGUNKARIAN

Egunero, Bizkaian

Lehenbiziko 28 aleekin musika klasikoko disko konpaktu bana DOAN.

Maskhadov kexu da ez diotelako utzi Putinekin biltzen

Txetxeniako presidenteak dio harremanak badirela, baina Kremlinek ukatu du

Erredakzioa / **Donostia**

Aslan Maskhadov presidente txetxeniarrak ziurtatu zuen atzo harremanak badaudela Vladimir Putin errusiar agintari nagusiarekin bilera bat antolatzeko. Kremlinek, haatik, gezurtatu zituen berehala hitz hauek. Txetxenian, dena den, gerrak dirau, eta gerrillari independentistek errusiarren aldeko administrari txetxeniar bat eta hiru polizia hil zituzten herenegun.

STR-AP

Soldadu errusiar bat, Groznin patruilatzen, atzo.

TXETXENIAKO presidente independentista Aslan Maskhadovek AFP berri agentziako kazetari bati ziurtatu zion atzo harremanak badirela gaur egun, Vladimir Putin Errusiako presideetarekin bilera bat finkatzeko xedez. Alabaina, Maskhadovek gaineratu zuen helburu hau lortzea nahiko zaila izango dela, orainokoan behintzat. «Gerraren aldekoek, Txetxenian zein Errusian, egin ahalak oro egiten dituzte antzeko bilkurarik ez dadin izan», zehaztu zuen.

Alta, Maskhadoven iritzian, «gerrari amaiera ematen ahal litzateke edonoiz, baina, horretarako, bilera bat nahitaezkoa da alde bateko zein besteko agintari nagusien artean; Putinek nahikoa botere badauka gerra honekin bukatzeko».

Kremlinen aldetik, Maskhadoven hitz hauek berehala gezurtatu zituen Sergei Jastrjembskik, Txetxeniako auzirako Putinen aholkari bereziak. «Oraindik ez dago harremanik; hauek izatekotan, ordea, Maskhadoven eta bere gerrillarien amor ematea hitzartzeko besterik ez lirateke izango», adierazi zuen Jastrjembskik. Haren iritzian, beraz, «Maskhadov alegia hutsez ari da». 1999ko urrian, Txetxeniaren aurkako erasoari ekin zionetik, Moskuk edozein legezkotasun ukatzen dio presidente txetxeniarrari, eta Putinen iritzian, «Errusiarentzako Maskhadov kriminal bat da». Hala ere, Errusiako presidenteak aitortu behar izan zuen, iragan apirilaren 21ean, Maskhadovengandik bake proposamen bat jaso zuela eta beste planteamendu batzuk eginda erantzun ziola. Haatik, Kremlinen arabera, errusiarren proposamen hauei ez zien ihardetsi txetxeniarrek, segurraz ere onartezinak zirelakotz haientzat.

Gerrillari hilak

Errusiaren erasoa hasi zenetik, 2.000 gerrillari txetxeniar hil direla zehaztu du Maskhadov presidenteak

«Luzaz borroka gaitezke»

Maskhadovekin elkarrizketatzeko, Txetxenia hegoaldeko mendi eta basoetan zehar lau egunez oinez ibili behar izan zuen AFPko kazetariak. Azken kilometroak begiak xarpa batez estalirik egin behar izan zituen, oihan baten zokoan kokatutako haitzulo handi batera iritsi arte. Maskhadov han zegoen ehun bat gerrillariz inguratua. Buruzagi txetxeniarrak kazetariari zehaztu zionez, gerra hasiz geroztik, 2.000 gerrillarik bizia galdu dute errusiar soldaduen aurkako borroketan. Ez zuen argitu nahi izan, ordea, gudulari independentistak zenbat diren egun. Errusiar militarren arabera, 3.000 eta 5.000 gerrillari txetxeniar geratzen dira oraindik gudukari eusteko.

Presidente txetxeniarrak, dena den, ziurtatu zuen Errusiako Indar Armatuen aurka luzaz borroka litezkeela gerrillari independentistak. «Mendietako gure baseetatik Txetxeniako edozein lekutan ekiteko ahalak badauzkagu, eta Errusiako Armadaren konboiei, gotorlekuei edo aginteguneei eraso diezaiekegu», azaldu zuen Maskhadovek.

Hitz hauek egiaztatzeko bezala, atzo jakin zen Vedenoko eskualdean errusiarrek jarritako administrazioaren buruzagi txetxeniar bat hil zutela gerrillarri txetxeniarrek asteartean. Honekin batera, hiru polizia errusiarrek bizia galdu zuten. Berri hauek sinesgarritzat eman daitezke, errusiarrek beraiek eman zituztelakotz. Halaber, AVN informazio militar agentziak jakiterat eman zuenez atzo, Errusiako Armadaren zortzi kokalekuk gerrillari txetxeniarren erasoak jasan dituzte azken 24 orduetan.

laburrean

FAROE UHARTEAK

Arazo ekonomikoek zaildu egin dituzte independentziarako negoziazioak

FAROE UHARTEEN independentzia negoziatzeko bigarren bilera egin zuten atzo Kopenhaguen Anfinn Kallsberg uharteetako presidente autonomikoak eta Poul Nyrup Rasmussen Danimarkako lehen ministroak. Bilera martxoaren 17koa baino giro hobean egin zela azpimarratu zuen Kallsbergek, baina ez zuen ezkutatu arazo ekonomikoek negoziazioa etenik dutela. Izan ere, Rasmussenek proposatu du Danimarkak lau urteko epean moztea diru laguntzak, eta Faroeko Gobernuak, berriz, 15 urteko epea exijitu du. Ekainaren 15ean jarraituko dute negoziazioek.

ESPAINIA

PSOEko idazkari nagusi izan nahi duela esango du gaur Rosa Diezek

ROSA DIEZEK gaur iragarriko du ofizialki PSOEko idazkari izateko lehiatuko dela. Eurodiputatu bizkaitarra da lehen hautagai ofiziala uztaileko kongresurako, baina espero da aurki berdin egingo duela Jose Bono Gaztela Mantxako presidenteak ere. Lehiatik kanpo jarri du bere burua Juan Carlos Rodriguez Ibarra Extremadurako lehendakariak.

FRANTZIA

Bi lehergailuk eztanda egin dute Mediterraneoan eta granada batek Parisen

LEHERGAILU batek kalte material handiak eragin zituen atzo 05:00etan Carry le Roueteko udal kasinoan. Ordubete geroago, antzeko atentatua jasan zuen Juan les Pins-eko jolastokiak. Bi herri horiek Mediterraneoko itsasertzean daude. 03:00etan, berriz, granada bat bota zuten Parisko Crazy Horse kabaretaren aurka.

ITALIA

Senatuaren konfiantza jaso du Giuliano Amatoren gobernuak

ITALIAKO senadoreek alde handiz onartu zuten atzo Giuliano Amatoren gobernua. Amato sostengatzen duten zortzi alderdietako buruzagiek bilera saioa hasi dute beren arteko liskarrak ahaztu eta datorren urteko hauteskundeetan bat eginik aurkezteko. Horretarako, izen eta egitura berria emango diote Olibondo zaharkituari, eta lider bat aurkitu beharko dute. Amato gobernuburu hautatua izan arren, ez dago garbi zentro-ezkerrak lider politiko gisa nahi duenik.

Sardiniako espetxeetako 82 buru eta funtzionario atxilotu dituzte tratu txarrengatik

POLIZIAK Sardiniako hainbat espetxetako buruak eta langileak atxilotu ditu, ustez tratu txarrak eragin zizkietelako preso batzuei. Antza denez, espetxeetako funtzionarioek jipoitu egin zituzten presoak beste kartzela batera eramaten ari zirela, egun batzuk aurretik beren egoera txarra salatu zutelako. Bestetik, Poliziak sei lagun atxilotu ditu azken egunotan Milanen, ustez, ezker muturreko talde armatu bateko kide zirelakoan. Agenteek hainbat arma eta lehergailu aurkitu dizkio talde horri.

HARPIDEDUNAREN

txokoa

943 300 222 / 902 300 223

HAUETAKO EDOZEIN ESKAINTZA GUSTUKO BADUZU, DEI EZAZU GURE TELEFONORA, ASTELEHENETIK OSTIRALERA GOIZEKO 9etatik 2etara EDO ARRATSALDEKO 4etatik 6etara.



PILOTARIK ONENA

Bergara / Tolosa

20 sarrera DOAN

ASEGARCEk antolatuta, bi partidu izango dira: lehena, **Bergarako udal kiroldegian maiatzaren 6an, 17:00etan**, eta, bigarrena, **Tolosako Beotibar pilotalekuan, maiatzaren 8an, arratsaldeko 16:00etan**. Bergaran, BARBERITO VI.ak eta ARMENDARIZek TIRAPU eta ERRASTIren aurka jokatuko dute. Tolosan, ALUSTIZAk eta PASCUALek SALABERRIA eta ERRANDONEAren aurka jokatuko dute. Partidu horietaz gainera, beste partidu batzuk ikusteko aukera izango da Bergaran eta Tolosan. Hogei sarrera ditugu Harpidedunaren Txokoan zotz egiteko.

LA PERLA

Talasoterapia (Donostia)

10 sarrera DOAN

Donostian dago La Perla, Kontxako badiari begira. Itsasoko uraren onurak baliatzen ditu, eta hidroterapia teknika berriei lotu: jaccuzziak, relax eta zurrusta bainalekuak, sauna, turkiar bainua, kontraste guneak... Zure osasuna zaindu nahi baduzu, horra, La Perlako Talasoterapia zirkuitua. Hamar sarrera ditugu Harpidedunaren Txokoan zotz egiteko.

JOHN KIRPATRICK

Gernika

10 sarrera DOAN

John Kirkpatrick britainiar folk munduan musika jole ezagunenetakoa dugu. Hauspo tresnetan duen abileziak folketik rock esperimentalera eraman du, eta mundu osoko musikariekiko kolaborazio sorta ederra egin du. Musikari handi hau entzuteko aukera eskainiko digu **Gernika-Lumoko Udalak maiatzaren 5ean**. Hamar sarrera ditugu banatzeko. **Ostiral arratsaldeko 20:30ean** izango den kontzertura joan nahi baduzu, EGUNKARIAra deitu, eta bi sarrera jasoko dituzu.

OSASUNA VILLARREAL

Sarreren zozketan

SARITUAK

Ibero Azpiroz Xabier *Iruñea*

Lasa Gorraiz Xabier *Iruñea*

Aurrez SL / Legarra Mikel *Iruñea*

ETZAKIT

sarreren zozketan

SARITUAK

OIALUME (Hernani)

Jauregi Bixi *Andoain*

Irizar Aranburu Mari Jose *Donostia*

Artano Bereau Helena *Zizurkil*

Arrizabalaga Aizpurua Mikel *Donostia*

Andia Oiartzabal Isabel *Donostia*

KAFE ANTZOKIA (Bilbo)

Santurtziko Udal Euskaltegia *Santurtzi*

Agirrezabal Oiarbide Pello *Urretxu*

Tornero Maguregi Roberto *Erandio*

Aurrekoetxea Arkotxa Inaki *Bilbo*

Torre Altonaga Maria Rosario *Mungia*

Orain, inoiz baino abantaila gehiago harpidedunentzat

GERRILLAK BERAK JOLON ATXIKITAKO 21 LAGUNAK BESTE NONBAITERA ERAMAN DITU

Abu Sayyafek atxikitako lagunetariko 15 erreskatatu ditu Filipinetako Armadak

- Gerrilla musulmanaren Basilango base bati eraso zioten atzo soldaduek, 27 bahituak askatzeko
- Gerrilla eta Gobernua elkarrizketan ari direla onartu du Filipinetako Defentsa ministroak
- Fronte Moroaren atentatuetan gutxienez lau lagun hil dira General Santos hirian

AFP

Filipinetako soldaduak, Abu Sayyafekin borrokan, herenegun, Jolon hildako bi kideren gorpuekin.

Erredakzioa / **Donostia**

ABU SAYYAF gerrilla musulmanak Basilan uhartean, Filipinak hegoaldean, bahituta zituen 27 lagunetariko 15 askatu zituen atzo Filipinetako Armadak. Horietako bost zauritu zirela esan zuen Defentsa ministro Orlando Mercadok. Gerrillari batzuk ere hil egin zirela adierazi zuten lekuko iturriek. Operazio militarra baino lehenago, hiru bahitu askatu zituen Abu Sayyafek. Beraz, bederatzi daude gerrillaren esku.

Ikasleak dira bahitutakoak. 27 lagunak martxoaren 20an hartu zituen gerrillak. Ondoren, Basilango mendietan ofentsiba hasi zuen Armadak apirilaren 22an. Bahituak zeuden gunera heldu ziren soldaduak, baina beste nonbaitera joanak ziren guztiak.

Azkenean, soldaduek atzo jakin zuten non ziren bahituak eta gerrillariak. Abu Sayyafek lekuko irrati batekin hitz egin zuen esateko hiru bahitu libratu zituela eta besteen askatzea negoziatu nahi zuela Filipinetako lehendakariorde Gloria Macapagan Arroyorekin.

Gerrilla horrek berak 21 lagun atxiki ditu Jolo uhartean, Filipinak hegoaldean, joan den apirilaren 23tik. Horiei buruz berri kontrajarriak kaleratu ziren atzo. Heregun bi tiroketa gertatu ziren Abu Sayyafeko gerrillarien eta Filipinetako soldaduen artean, eta gutxienez bi soldadu hil ziren. Bost orduz luzatu zen bigarren tiroketa, eta horren ondorioz, bi bahitu atzerritar hil zirela adierazi zuen gerrillak: batek tiro bat jaso zuen eta besteari bihotzekoak eman zion.

Bi horiek hilda ez, baizik eta zaurituta zeudela esan zuten Defentsa ministroak eta Nur Misuarik, Gobernuaren eta gerrillaren arteko bitartekariak. Tiroketen ondoren, bahituak beste leku batera eraman zituzten gerrillariek, baina Armadak inguratutako eremu barruan zeudela zehaztu zuen Mercadok. Bahituetako gehienak atzerritarrak dira.

Azpimarratzekoa da Joloko bahituen krisia hasi zenetik, gerrilla horrek lehen aldiz egin duela zuzeneko hartuemana Filipinetako Gobernuarekin. Gobernuko Informazio ministro Ronaldo Punok atzo esan zuenez, gerrillaren ordezkari Abu Sabaya eta lehendakariorde Arroyo elkarrekin mintzatu dira. Horretarako baimena eman du Filipinetako presidente Joseph Estradak.

Bien arteko harremanak ez direla negoziazioak azpimarratu zuen atzo Punok. Gerrillak deklarazio bat helarazi duela gaineratu zuen Defentsa ministroak.

Hiru bahiketa

Mindanao eskualdean, Filipinak hegoaldean, gerrilla musulmanek 50 lagun atxiki dituzte hiru bahiketatan. Abu Sayyafek 21 lagun ditu Jolo uhartean eta 9 Basilanen. Askapen Islamikorako Fronte Moroak, berriz, 20 Cotabato probintzian.

Fronte Moroaren bahiketa

Mindanao uhartean borrokan ari da, baita ere, beste gerrilla bat: Askapen Islamikorako Fronte Moroa. Horrek «erabateko gerra» aldarrikatu zion Gobernuari herenegun. Ondoren, lau bonba lehertarazi zituen General Santos hirian, uharte horretan bertan, eta gutxienez lau lagun hil ziren.

Handik gertu, Fronte Moroak 70 lagun bahitu zituen atzo Cotabato probintzian. 50 lagun aske utzi zituen gerora, baina 20 atxikita zituen.

Gerrilla musulmanak borrokan ari dira Mindanaon estatu islamikoa sortzeko helburuarekin. Abu Sayyafek 1990ean hartu zituen armak, eta Basilanen sortu nahi du estatu musulmana. Askapen Islamikorako Fronte Moroa, berriz, 1978an sortu zen, Askapen Nazionalerako Fronte Morotik zatituta.

Israelgo hegazkinek gutxienez 14 zibil zauritu dituzte Libanon, «oker batengatik»

- *Ekialde Erdiko bake hizketaldiek ez dute aurrerako urratsik egin gaur arte*

Erredakzioa / **Donostia**

ISRAELGO hegazkinen bonbardaketek gutxienez 14 lagun zauritu zituzten atzo Libano hegoaldean, Arab Salin eta Habbutx herrietan. Israelgo Indar Armatuetako bozeramaile Oded Ben Amik adierazi zuenez, hegazkinek «oker» egin zituzten bonbardaketak. Izan ere, biktima guztiak etxebizitzen eraikin batean zeuden.

Azpimarratzekoa da segurtasun eremutik kanpo egin zirela bonbardaketak. Israelek 1978az geroztik okupatua du eremu hori.

Bonbardaketak eta artilleria erasoak gertatu ziren, baita ere, herenegun. Libano Hegoaldeko Armadak — Israelen aliatua— Baaratxit herriari eraso zion, eta gutxienez zibil bat zauritu.

Ondoren, Hezbola talde xiiak 20 obus jaurtiki zituen Israelen Remieko posizioetara. Israelgo Armadak erasoari erantzun zion aire-lurreko misilak botaz Jater inguruan.

Bestalde, Israel eta PAN Palestinako Aginte Nazionaleko ordezkariak hizketan ari dira Israelgo Eilat hirian. Oinarrizko akordioa lortzea dute helburu, gero behin betiko akordioa negoziatzeko. Baina ugariak dira zailtasunak eta ezadostasunak.

Rossen ahalegina

Ekialde Erdiko bake prozesuan EEBBen bitartekari Dennis Ross herenegun heldu zen Eilatera. Berehala bildu zen Israelgo ordezkaritzako buru Oded Eranekin eta PANeko ministro Abeb Ribo eta Saeb Erekatekin.

Datozen egunetan elkarrizketak «sakontzeko» asmoa du, ordea, gaur arte aurrerako urratsik egin ez delako. Elkarrizketetan aurrerapausoak egiten badira, baliteke geroago EEBBetako Estatu idazkari Madeleine Albrightek parte hartzea.

Lur okupatzaileak ez dituela kanporatuko esan du Mugabek bozen kanpainaren hasieran

Zimbaweko lehendakariak 'Lurra ekonomia da; ekonomia lurra da' leloa aurkeztu du

Agentziak / **Harare**

Zimbaweko lehendakari Robert Mugabek jabe zurien etxaldeak okupatzen ari direnen jarrera defendatu du. «Ez diezaiogun inori ere sinesten utz gerra beteranoei erretiratzeko esango diegunik», esan zuen atzo Mugabek bere alderdiak Legebiltzarrerako hauteskundeetarako prestatu duen kanpaina aurkezteko egindako ekitaldian. ZANU Zimbaweko Batasun Nazional Afrikarrak lurren okupazioaren legitimitatea hartu du boz horien ardatz gisa. Leloa ezin argiago ageri da gatazka horri lotua: 'Lurra ekonomia da; ekonomia lurra da'.

HAUTESKUNDEAK gertu daudela eta, giro politikoa gori-gori dago Zimbawen. Gerra beteranoek jabe zurien etxaldeak okupatu zituztenetik herrialde horretan areagotu den tentsioa handitu egin da Legebiltzarrerako bozen kanpainaren aurkezpenean. Ekitaldi horretan lur okupatzaile beltzen kontrako ezer aginduko ez duela berretsi du Mugabek.

Mugaberen alderdiak kanpainarako aukeratutako leloak argi utzi du presidenteak okupazioen defentsa sutsua egingo duela herrialdeko bizilagun behartsuenen botoak bereganatzeko. 'Lurra ekonomia da; ekonomia lurra da' izango da ZANU Zimbaweko Batasun Nazional Afrikarraren leloa udaberri honetan egingo diren bozetarako. Hauteskundeak, teorian, hil honetan egin beharko lirateke, baina Zimbaweko azkenaldiko gertakari politikoek atzeratu egin dute deialdia. Data edozein izan liteke hurrengo hiru hilabeteen barruan.

«Ez diezaiogun inori ere pentsatzen utz gerra beteranoei lurralde horietatk irteteko esango diegunik», esan zuen atzo Mugabek alderdiaren programaren aurkezpenean. Presidenteak zurien lur emankorrek beltzen eskuetara pasatu behar dutela adierazi zuen. «Zurien eskuetan 12 milioi hektarea daude. Guk horren erdiak behar ditugu», esan zuen Mugabek.



CHRISTINE NESBITT / AP

Robert Mugabe atzo Zimbaweko hiriburuan Hararen, egindako agerraldian, ZANU bere alderdiaren hauteskunde kanpaina aurkezteko.

Zenbait adituren iritziz, ZANUren kanpainak orain arteko indarkeria areagotu besterik ez du egingo, beltzen okupazioa legeztatuko duelako nolabait. Hauteskundeak egin arte zurien eta oposizioaren kontrako erasoak ugalduko diren beldur dira iturri hauek.

Atzo bertan, esaterako, Aldaketa Demokratikorako Mugimendua oposizioko talde nagusiko jarraitzaile bat hil egin zuten herrialdeko ipar-ekialdean. Talde horretako hamalau kide hil dituzte horrenbestez Zimbawen.

Lehendakaritzarako bozei begira

Oposizioak dei egin die herritarrei Mugaberen kontrako botoa ematera hauteskundeetan. Mugabek galduko balu, ZANUren lehen porrota izango litzateke Zimbawek 1980. urtean independentzia lortu zuenetik. Oposizioaren garaipena, gainera, aurrerariko lituzke, seguruena, lehendakaritzarako bozak. Horiek 2002. urterako aurreikusita daude printzipioz, eta oposizioa data horri begira dago.

Zimbaweko iturri diplomatikoek, hala ere, Mugabek bereak eta bost egingo dituela esan dute, botereari eusteko geroan ere.

Gerra beteranoetako buruzagi Chenierai Hunzvi, bestalde, Harareko Gorte Nagusiaren aurrean izan zen atzo zurien etxaldeen okupazioak direla eta. Epaitegiak legez kanpo jo ditu okupazioak, eta Hunzviri ekintza horien erantzukizuna egotzi. Epaileek iruzur akusazioak ere egin dituzte haren kontra.

Sierra Leonako errebeldeen buruzagia inguratu dute Nazio Batuen tropek

NBEko zazpi soldadu gerrillaren kontrako borrokan hil eta gero hartu dute erabakia

Agentziak / **Freetown**

NBE Nazio Batuen Erakundeko soldaduek Foday Sankoh gerrillariaren etxea inguratu zuten atzo Sierra Leonako hiriburuan, Freetownen. Sankoh RUF Fronte Iraultzaile Batua taldeko buruzagia da.

Sankohren etxea inguratzeko erabakia azken egunotako enfrentamenduen ondorioa da, NBEren iturrien arabera. RUF taldearen kontrako borroketan gutxienez, NBEko zazpi soldaduk galdu dute bizia. Gainera, NBEko 50 soldadu atxikiak zituen RUFek herrialdeko hiru leku desberdinetan.

NBE erakundeko bozeramaile batek atzo New Yorken adierazi zuenez, operazioaren helburua «Sankoh jauna eskura izango dela seguru egotea» da.

Ordu batzuk lehenago Parisen argitaratutako prentsa ohar baten bidez NEBko idazkari nagui Kofi Annanek bere «haserrea» azaldu zuen «Sierra Leonan NBEko tropen kontra nahita eta etengabe gertatzen ari diren erasoengatik».

Gutxienez 19 lagun hil dituzte Aljerian errepideko kontrol faltsu batean

Agentziak / **Aljer**

HEMERETZI pertsona hil ziren atzo, gutxienez, ustez talde integristek errepide batean jarritako kontrol faltsu batean.

Sarraskia Hamdania herrian gertatu zen, Blida eta Medea hirien artean, Aljerretik hegoldean, hiriburutik 70 kilometrora. Atentatua atzo arratsaldeko seiak inguruan gertatu zen, iturri ofizialen arabera.

Biktimak autobus batean zihoazen. Gidaria kontrolari iskintxo egiten saiatu zen, baina ibilgailua bide ertzean erori eta hantxe gelditu zen.

Lockerbie-ko epaia onartuko duela adierazi du Gaddafik

Bi akusatu libiarrek errugabeak direla adierazi dute Holandan osatu den nazioarteko auzitegiaren aurrean

Agentziak / **Camp Zeist**

LIBIAKO presidente Muammar el Gaddafik Lockerbieko atentatuari buruzko epaia onartuko duela esan zuen atzo nazioarteko hedabideetan kaleratutako elkarrizketa batean. Prozeduraren ondorioz Libiako beste funtzionari batzuk edo hura bera auzipetzea «hutsala» izango litzateke. Gaddafi koronelaren arabera, erabaki horrek ez luke fruiturik emango.

Libiako presidenteak «begirunea» adierazi zien atentatuan hildako 270 lagunen senideei. Ekintza horrekin zerikusirik ez zuela izan esan zuen Gaddafik.

Pan Am Boeing 747 hegazkineko 259 bidaiariak eta Lockerbie herriko (Eskozia) hamaika bizilagun hil ziren 1988ko abenduaren 21ean airean izandako leherketaren ondorioz. Abioiak Londres-New York bidaia egiten zuen. Eztanda hegazkina Heathrowko aireportutik aireratu eta ordu erdira gertatu zen.

Akusatuen agerpena

Al-Amine Khalifa Fhima eta Abdel Basset Ali El-Megrahi Libiako zerbitzu sekretuetako kide biek errugabeak direla adierazi zuten atzo Camp Zeist-en (Holanda) Lockerbieko atentatua dela eta beraien kontra egiten ari den epaiketaren lehendabiziko egunean.

Libiarren abokatuek esan zutenez, defentsak behar beste froga aurkeztuko ditu akusatuak errugabeak direla agertzeko. Atzo hamar izen arabiar irakurri zituzten abokatuek, ustez atentatuarekin zerikusia izan zutelakoan.

Palestinaren Askapenerako Fronte Popularra-Komando Nagusia eta Palestinaren Salbaziorako Fronte Popularra erakundeak ere aipatu ziren atentaua eragin izanaren susmagarri gisa.

• **Saskibaloia**

ACB: Tau Baskonia finalerdietara sailkatuko da gaur, Gasteizen, Caja San Fernandori irabazten baldin badio → 36

• **Mendia**

Annapurna: Felix eta Alberto Iñurrategik utzi egin dute espedizioa «baldintza txarrengatik», eta etxera itzuliko dira → 39

Athletic ◆ Entrenatzaileak dio lasaitasun handiagoarekin ekipoa onenen artean egongo zela

Luis Fernandez, penatuta

Gertatu behar ez zuten gauzak gertatu direla dio frantziarrak

Ramon Basaldua / **Bilbo**

DENBORALDIAREN balorazioa egiteari ekin zion atzo Luis Fernandezek Liga amaitzeko hiru jardunaldi geratzen diren arren. Entrenatzailea penatuta dago bere ustez Athleticek aukera bikaina galdu duelako «denboraldian gauza handiak egiteko». Barruan zuen guztia bota zuen frantziarrak atzo Lezaman iragarri gabeko prentsaurrekoan.

Athleticeko entrenatzailea kexu agertu da azken bi hilabeteetan taldearen inguruan gertatutakoarekin. «Taldea bide onetik zihoanean gertatu behar ez zuten gauza batzuk gertatu dira. Pena handia eman dit ekipoak aukera handiak zituelako berriro Europan sartzeko, beste urte batzuetan baino aukera handiagoak», adierazi zuen atzo Luis Fernandezek. «Aurreko denboraldia ez zen hau bezain ona izan. Honetan aukera handiagoa genuen. Taldea bide onetik zihoan eta oso ondo kokatuta bukatu zuen lehenengo itzulia».

Entrenatzaile frantziarraren aburuz, urduritasun handiegia egon da taldearen inguruan. «Ezin dut ahaztu azken bi hilabeteetan gertatutakoa. Lasaitasun handiagoa egon izan balitz eta urduri jarri izan ez bagina kontu batzuetan, taldeak oso goian amaituko zuen sailkapenean. Ez dut inolako zalantzarik».



Xouse Simal

Luis Fernandez, Lezaman, entrenamendu batean.

Talde barruko giroari buruzko eztabaida

Hasiera batean, Luis Fernandezek ez zuen zehaztu nahi izan zein izan den urduritasunaren iturri nagusia. Prentsaurrekoa aurrera joan ahala, berriz, egoneza eta haserrea eragin dioten kontuak azaldu zituen. «Garbi utzi nahi dut ez dagoela ezinikusirik aldagelan. Nire ustez giroa oso ona da. Talde barruko giroari buruz esandako gauzak ez dira bidezkoak izan». Horregaz batera, hasierako hamaikakoa zelan osatzeak sortutako eztabaida ere hizpide izan zuen entrenatzaileak. Ez zituen Julen Guerreroren eta Ismael Urzaizen izenak aipatu baina Luis Fernandezen ustez eztabaida hori kaltegarria izan da taldearentzat.

Jokalari batzuen sasoi makala, lesionatuak eta arbitroen «lan kaskarra» ere aipatu zituen atzo Luis Fernandezek.

Athleticeko entrenatzailearentzat mingarria izan da Dragoslav Stepanovicekin alderatu izana. «Horrek ez dio inori laguntzen. Athleticek duen filosofiarekin klubari kalterik ez egiten saiatu behar da eta elkartasun handiagoa erakutsi. Une txarrak eta hanka-sartzeak egon daitezke, baina laguntzeko ahalegina egin behar da».

Luis Fernandezek ez du jarraituko Athleticen, abenduan beste urtebeterako kontratua sinatu zuen arren. Frantziarrak esan du orduan ez zitzaiola burutik pasatu kontratua ez betetzea. «Kontratua luzatu nuenean betetzea espero nuen. Ez zitzaidan burutik pasatzen taldea uztea, ez nuelako Athletic uzteko gogorik. Bost urteko proiektua bukatu nahi nuen eta talde sendoa eta lehiakorra utzi», zioen atzo.

Giroa

«Talde barruko giroari buruz esandako gauzak ez dira bidezkoak izan. Giroa oso ona da»

Filosofia

«Athleticen filosofiarekin klubari kalterik ez egiten saiatu behar da eta elkartasun handiagoa erakutsi»

Sei jokalarik jokatu ezin Racingen aurkako partiduan

Athleticeko sei jokalarik ezingo dute jokatu igandean. Alkizari ebakuntza egin diote eta atzo itzuli zen Bilbora Murtziatik. Ezquerrok eta Larrainzarrek bihurtuta dituzte orkatilak eta medikuek ez dute presaka ibili nahi errekuperazioan. Tikok asteak daramatza ezker abduktorea minduta eta medikuek atsedena ematea erabaki dute. Mikel Lasak kontraktura du bizkarrean eta Yestek bihurdura orkatilean.

Urzaizek dio jokatu barik ezin duela golik sartu

Urzaizek ez zuen minutu bat bera ere jokatu Romaredan Zaragozaren aurka. Aurrelari nafarrak minutu gutxi jokatu ditu azken jardunaldietan. Nafarrak aitortu egin du ez duela gol askorik sartu aurtengo denboraldian. «Egia da, bai, baina jokatu barik ezin dut golik sartu» esan zuen.

Luis Aragones da hautagai nagusia Rojoren hutsunea betetzeko Zaragozan

Zaragozan ere uste dute Txetxu Rojoko bertako taldea utzi egingo duela eta Athleticera etorriko dela, eta entrenatzaile bila hasiak dira. Luis Aragones da hautagai nagusia Rojok utziko duen hutsunea betetzeko. Aragonesek jaso du dagoeneko Zaragozaren eskaintza.

Athleticek Zalla garaitu du Guerreroren gol batez, 0-1

Zallaren 75. urteurrena ospatzeko atzo jokatutako Zalla-Athletic partida 0-1 amaitu zen; Guerrerok 14. minutuan gola sartu zuen. Athletic 18:00etan entrenatuko da gaur.

Reala ◆ Entrenatzailearen adierazpenek zeresan handia sortu dute jokalarien artean

Ekaitzaren ostean, bilerak

Jokalariek bi batzar egin zituzten atzo Zubietan: bat beraiek, bestea Javier Clementerekin

PABLO S. QUIZA

Javier Clemente eta Realeko jokalariak, Zubietan, entrenamendu batean.

Jon Balenziaga / **Donostia**

JAVIER CLEMENTEK astelehenean eginiko adierazpenek hautsa harrotu dute Realeko jokalarien artean. Entrenatzaileak ez zuen zuzenki aipatu zein jokalariri bideratuak ziren bere kritikak, baina Clementeren hitzak arreta handiz jarraitu beharrik ez zen izan, batik bat Javier de Pedro, Jose Felix Guerrero eta Iñigo Idiakezi buruz ari zela konturatzeko. Clementek kazetarien aurrean esan zituenak esatea ez zaie ongi iruditu jokalariei eta atzoko lan saioa hasi aurretik ordu eta erdiz bilduta izan ziren entrenatzailea eta jokalariak. Hamabietan amaitu zuten, eta ondoren Zubietako berdegunera atera eta ordu eta laurdenez entrenatu ziren. Gero berriz ere, Clementek eta Roberto Lopez Ufartek Zubietatik alde egitean, bigarren bilera bat egin zuten jokalariek, orduan beraiek bakarrik.

Jokalariek, ordea, ez zuten aditzera eman bilera batean zein bestean hitz egindakoa. Komunikabideei ezer ez esateko erabakia adostu zuten. Atzoko lan saioa amaitu ondoren, kazetariok Andoni Iraola Realeko prentsa-arduradunari Loren kapitaina prentsa aretora joan zedin eskatu genion, baina kapitainak muzin egin zion eskakizunari. Hala ere, ordubete gero Radio Euskadin mintzatu zen Loren, baina han ere ez zuen bileran azterturikoa aipatu. «Hitz egitea beti da ona. Luze mintzatu gara eta hori beti da positiboa», esan zuen.

Txuri urdinen kapitainak, jokalariek euren kasa bigarren bilera bat egin zutela aitortzearekin batera, aldageletan hitz egindakoa ez dela publiko egin behar esan zuen. «Egia da, bai, entrenamenduaren ondoren jokalariak bildu egin garela, baina bilera batean zein bestean esandakoak gure artean geratu behar du. Ikuspuntu desberdinak zeuden talde barruan eta guztiak aztertu ditugu. Hala ere, garrantzitsuena gure artean esandakoa komunikabideetara ez iristea da. Ez dugu beti lortzen, baina arazoak konpontzeko modurik onena aldageletan esandakoa ez kanporatzea da». Lorenentzat, neurri batean, horrelako egoera ulertzekoa da. «Denboraldi amaiera gero eta gertuago dago eta, neurri batean, horrelako gauzak gertatzea normala da».

Isiltasuna

Jokalariek ez zuten ezer esan bileretako edukien berri

Arazorik ez

Hala ere, ziotenez, taldean arazorik ez da

Hitz egiteko prestatu ziren gainontzeko jokalariek ere antzeko adierazpenak egin zituzten. Igor Jauregik, esaterako, besterik gabe, hitz egin beharra zutela esan zuen. «Gure artean zenbait gairi buruz hitz egin beharra genuen eta, hitz egin ondoren, aldagela barruan geratuko direla erabaki dugu». Jokalari tolosarrak ez du uste talde barnean arazorik dagoenik. «Beti dago zer aztertua, baina ez dago arazorik. Ea azken hiru partiduetan Lehen Mailan mantentzea lortu eta ahalik eta ongien amaitzen dugun Liga».

Guerrerok, bestalde, ez zituen Clementeren astelehenekо adierazpenak aztertu nahi izan. «Guk nahi duguna da aldagela barruan hitz egiten dena hor geratzea. Esperoan gaude. Entrenatzaileak gurekin hitz egin du, guk berarekin ere bai, eta hori da guztia». Sa Pintok familia bat direla esan zuen. «Galtzen denean eta irabazten denean, beti hitz egiten da, familia bat bezala garelako».

Jauregi, Idiakez eta Sa Pinto titular ziurrenik etzi, Valentzian

J. Balenziaga / **Donostia**

BALITEKE Igor Jauregi, Iñigo Idiakez eta Ricardo Sa Pinto etzi Valentziaren aurka Mestallan hasieratik aritzea. Atzoko lan saioan Javier Clementek partidu txiki bat antolatu zuen, eta ustezko titularren taldean aipatutako jokalariak aritu ziren. Atean, Alvarez aritu zen Albertoren ordez, baina pentsatzekoa da azken honek jokatuko duela. Kontuak kontu ondorengo jokalariak aritu ziren talde batean. Alvarez; Fuentes, Gurrutxaga, Pikabea, Aranzabal, Jauregi, Sa Pinto, Idiakez, Khokhlov, Aranburu, Jankauskas.

Hamaikako hau baieztatuko balitz, Idiakezek aspaldiko partez aukera bat izango luke hasieratik aritzeko, titular gisa azken partidua urtarrilaren 9an jokatu baitzuen, Oviedoren aurka lehen itzuliko azken neurketan. Sa Pinto, bestalde, Valentziaren aurkako hamaikakoan segurua da partidu bateko zigorra bete ondoren. Igor Jauregik, berriz, itxaropen gehiegi egitea baino nahiago du itxarotea. Izan ere, litekeena da Juan Gomez azkenean Valentziaren aurka jokatzeko moduan egotea. Eduardo Escobar Realeko sendagileak astelehenean argentinarrak belaunean okerdura bat zuela esan zuen, baina atzo sendagileak berak huts egin zuela onartu zuen azterketa egiteko orduan eta balitekeela Gomez larunbaterako osatzea. Hala ere, argentinarrak atzoko lan saioan, berotze ariketak baino ez zituen egin Mutiu Adepojurekin batera. Azken honek, ezker belauna hazita zuen eta badaezpada ez zuen lan saio osoa egin.

Corinori gaur egingo diote ebakuntza

Sergio Corino jokalariari gaur egingo dio ebakuntza Borrell sendagileak Bartzelonako Asepeyo ospitalean. Corino bizkaitarrak pubiseko arozoak ahaztu eta datorren denboraldiaurrearako prest egotea nahi luke.

Bestetik, Reala gaur ateak itxita entrenatuko da Anoetan, 10:30ean.

Alaves ◆ Santiago Bernabeun berragertzeko moduan da argentinarra

«Edonon irabazteko gai garela erakutsi dugu»

Desiok beren buruari begiratu behar diotela dio, eta ez Madrili

JOSEBA OLALDE

Desio eta Tellez, entrenamendu batean. Bi jokalariak baikor agertu dira Real Madrilen aurkako partiduari begira.

Asier Errasti / **Gasteiz**

HERMES ALDO DESIO argentinarra atzo itzuli zen Alaveseko entrenemenduetara, azken egunetan eztarriko infekzio bat izan ostean. Oraindik ere «ahul samar» dagoela onartu arren, osatzeko «irrikan» dagoela eta larunbatean Santiago Bernabeun jokatzeko prest izango dela nabarmendu zuen argentinarrak. Gainera, Real Madrili aurre egin diezaioketela uste du Desiok: «Guk geure buruari begiratu behar diogu eta ez Real Madrili. Izan ere, edozein zelaitan irabaz dezakegula eta edozeini aurrez aurrez joka diezaiokegula erakutsi dugu».

Alavesek bere buruari begiratu behar diola uste arren, Desiok argi du Real Madril Real Madril dela eta, horregatik, larunbateko partidua «oso zaila» izango dela nabarmentzen du: «Hiru partidu falta dira eta beraiek Liga ahalik eta ondoen amaitu nahiko dute. Guk berriz, Txapeldunen Liga bi puntura daukagu eta garrantzitsua litzateke aukera hori ez galtzea. Egia da Real Madrilek Txapeldunen Ligako finalerdietan izan dezakeela burua, nekatuta egon daiteekela Bayernen aurka jokatu ostean, baja asko izan ditzakeela... Alta, ez dugu ahaztu behar aurrean Real Madril izango dugula eta, ondorioz, oso partidu zaila izango dela».

Laugarren eta Txapeldunen Liga gabe?

Bestalde, Valentziak edo Real Madrilek Txapeldunen Liga irabazteko aukera ere mintzagai izan zuen Desiok. Izan ere, bietako batek Txapeldunen Liga irabazten badu eta Ligan bosgarren edo seigarren geratzen bada, laugarren sailkatuak ez luke Txapeldunen Liga jokatuko. Tamalgarria litzateke hori Desiorentzat: «Egia esan, tamalgarria litzateke. Zer gertatzen den ikusi beharko da, baina ez litzateke batere atsegina».

■

Josete taldekideekin entrenatzen hasi da

Jose Tomas Valdominos 'Josete' oso ondo errekuperatu da ezker izterrean izan zuen zuntz hausturatik eta atzo dagoeneko gainerako taldekideekin entrenatzen hasi zen. Cosmin Contrak berriz, atzean utzi ditu sabelean zituen arazoak eta atzo normaltasun osoz entrenatu zen.

■

Madrilera bidaia antolatu du Alavesek

Alavesek larunbateko Real Madril-Alaves partidua ikusteko, bidaia antolatu du Santiago Bernabeura. Jarraitzaileek autobusez egingo dute bidaia eta larunbatean bertan, 14:30ean, irtengo dira Madril aldera. Bidaiaren balioa 2.200 pezetakoa izango da, eta jarraitzaileak partiduaren ostean itzuliko dira.

■

Eggenek ezingo du larunbatean jokatu

Dan Eggenek ezingo du igandean Santiago Bernabeun jokatu, Espainiako Futbol Federazioko Lehiaketa Batzordeak partidu bateko zigorra ezarri baitio. Eggenek bi txartel hori ikusi zituen igandean Valladoliden aurka.

■

Bueno Grimal izango da epailea

Jose Ignacio Bueno Grimal aragoiarra izango da larunbatean Real Madrilek eta Alavesek jokatuko duten partiduko epaile nagusia. Bueno Grimalek 43 urte ditu eta 1992. urtean egin zuen debuta Lehen Mailan.

hor zain

Iruretak uste du Deportivok eutsiko diola presioari

Deportivok bi puntuko aldea ateratzen dio Bartzelonari Espainiako Ligan, hiru jardunaldiren faltan. Eta Celtaren aurka galdu zuten arren, Liga irabazteko egokiera ona dutela uste du Javier Iruretagoiena entrenatzaileak. «Nik diodan bakarra da liderrak garela, eta 20 jardunaldi egin ditugula sailkapen buru; eta hainbeste denboran eutsi badiogu presioari, ez dut arrazoirik ikusten orain ez eusteko».

Lazio utzi egingo du Alen Boksicek

Beste hiru urterako kontratua izan arren, Alen Boksic kroaziarrak ez du Lazion jarraituko. Lesio ugari izan ditu Italian, eta ez da batere ondo moldatu Sven Goran Eriksson entrenatzailearekin. Claudio Lopez Laziora joango da Valentziatik, eta oso litekeena da Boksic truke horretan sartzea.

Nevio Scala, Besiktas taldera

Nevio Scala entrenatzaile italiarrak Turkiako Besiktas taldea zuzenduko du hurrengo bi denboraldietan. Hans Peter Briegel alemaniarrak aurreko astean utzi zion Besiktas entrenatzeari, eta haren lekua beteko du Scalak. Aurrez Parma eta Borussia Dortmund entrenatu izan ditu Nevio Scalak.

Berti Vogts ere Alemaniako hautatzailearen aurka agertu da

Erich Ribbeck garai zailak ari da igarotzen Alemaniako hautatzaile gisa, eta Berti Vogts selekzionatzaile ohia ere haren aurka agertu da: «Jokalari batzuek nahiago badute Txapeldunen Liga jokatu, eta selekzioarekin zati bat bakarrik, jokalari gazteei aukera eman behar lieke».

Youri Djorkaeff, Kaiserlautern uzteko prest

Kaiserlautern ez bada Europako txapelketaren bat jokatzeko sailkatzen, ez duela taldean jarraituko esan du Djorkaeffek.

Osasuna ◆

Zaleen laguntza eskatu du Mirandak, igandean Sadar betetzeko

Nafarrek funtsezko partida jokatuko dute Villarrealen kontra

Erredakzioa / **Iruñea**

OSASUNAK denboraldiko partidarik garrantzitsuena jokatuko du igandean, Sadarren, Villarrealen kontra. Talde nafarra laugarrena da Bigarren mailako zerrendan, joan den igandean Elx taldearen aurka irabazi ondoren, eta igoeratik hiru puntura dago, 57 punturekin. Villarreal nafarren aurkari zuzena da, bigarrena baita sailkapenean, gorritxoek baino lau puntu gehiagorekin.

Igandeko partida Osasunarentzat hain garrantzitsua dela kontuan hartuta, taldeko lehendakari Javier Mirandak deialdia egin die zale guztiei, Sadar bete dezaten. «Lehen mailara igo nahi badugu irabazi egin behar dugu igandean, eta, horretarako, zale guztien laguntza behar du Osasunak», azpimarratu du Mirandak.

Villarrealek 4.000 sarrera eskatu zizkion Osasunari igandeko partidarako, baina talde nafarreko zuzendaritzak 1.500 besterik ez ematea erabaki du.

Bestalde, Mirandak ezagutzera eman du Osasunak Nafarroako Kutxarekin duen hitzarmena bost urterako berritu eginen duela. Bigarren mailan gelditzen bada, 55 milioi pezeta jasoko ditu urtero, eta Lehenengo mailara igotzen bada, berriz, 85 urtero.

Alexek eta Arponek ez dute jokatuko

Osasunako jokalariei dagokienez, asteartean atseden hartu ondoren Taxoaren entrenatu ziren atzo, berriz ere, igandean Villarrealen kontra jokatuko duten partida prestatzeko.

Miguel Angel Lotina entrenatzaileak ezin izanen du oraindik Arpon zelairatu Villarrealen aurka, aurrelariak barizela duelako. Alex Fernandez jokalari kataluniarra ere ez da oraindik osatu giharretako lesioaz eta ezin izanen du igandean jokatu. Alex Fernandez, hala ere, entrenatzen hasi zen atzo, bere kabuz.

Futbola Txapeldunen Ligako finalerdiak

MODELO

Anelka eta Linke, atzo Madrilen jokatutako partiduan.

Rauli esker

Haren goleko bi paseak erabakigarriak izan ziren atzo

Enekoitz Esnaola / **Donostia**

REAL MADRIL-EK Raul du, eta horixe da talde asko eta askorekin daukan diferentzia: horrelako oso-oso jokalari gutxi daudela eta Real Madril mutil hartaz baliatzen dela. Behin eta berriro. Denboraldi honetan, adibidez, garbi ikusi da Espainiako Ligan, Raul izan baita taldea gora igo duena. Eta Txapeldunen Ligan ere ari da ikusten. Atzo azkena.

Del Bosque Real Madrileko entrenatzaileak ere badu zerikusia bere ekipoaren gorakadan. Gizon azkarra da, badaki jokalariak direla protagonista eta ez bera —«ahalik eta gutxien egin behar zaie enbarazu jokalariei», esaten du Del Bosquek—, eta atzo ere bere jokalarien eta Bayern Munichekoen araberako taktika atera zuen. Eta ondo atera. Del Bosquek badaki —futboleko jarraitzaileek dakiten bezala— Bayernek bost defentsako sistema erabiltzen duela, eta erdi-puntan pasatzaile onik ez edukita, zaila dela Bayernen defentsa zulatzea. Horregatik jarri zuen erdi-puntan Raul. Jokalari hau aurrelaria da berez, baina, edozeren gainetik, punta-puntako jokalaria da, eta erasoko edozein tokitan moldatzen da bikain. Lehen ere erakutsia zegoen, gainera, badakiela erdi-puntan ederki jokatzen. Atzo beste erakustaldi bat eman zuen, batez ere lehen zatian. Eta orduantxe utzi zuen oso bere alde kanporaketa Real Madrilek, Anelkak eta Jeremiesek —honek bere atean— sartutako golekin. Raulen paseei esker iritsi ziren bi golak: aurrenekoan sakon sartu zion baloia Anelkari, eta horrek ezin hobeto bukatu zuen Kahnen aurrean. 2-0ekoan, berriz, area ertzetik ederki sartu Michel Salgadori, honek Kahni izkin egin eta Jeremiesek, nahigabe, bere atean gola.

Real Madril	Bayern Munich
2	0

Real Madril.- Casillas; Michel Salgado, Ivan Campo, Helguera, Karanka, Roberto Carlos; McManaman, Redondo, Raul; Anelka *(Balic, 78m.)*, Morientes *(Savio, 60m.)*.

Bayern Munich.- Kahn; Salihamidzic *(Santacruz, 77m.)*, Babbel, Linke, Tarnat *(Wiesinger, 46m.)*, Lizarazu; Fink, Jeremies, Scholl; Elber *(Jancker, 77m.)*, Paulo Sergio.

GOLAK: 1-0: Anelkak (4m.); **2-0:** Jeremiesek, bere atean (32m.).

ARBITROA: Ander Frisk (Suedia). Txartel horiak: Michel Salgadori, Karankari, Roberto Carlosi, Scholli.

hitz bitan

Karanka ez da ariko hurrena: Aitor Karankak, Real Madrileko zentral gasteiztarrak ezingo du jokatu hurrengo asteartean Municheko itzulikoan atzo atera zioten txartelagatik. Garrantzitsua izango da Real Madrilentzat hark ez jokatzea, ederki ari delako, eta Hierrok min hartuta segitzen duelako. Michel ere ez da ariko.

Bayern gaizki

Partiduak ez zuen askoz gehiago izan kontatzeko, Real Madrilek ez zuelako arriskatu handik aurrera, eta Bayern Munich gaizki aritu zelako partidu osoan zehar.

Alde ederra dago Txapeldunen Ligako lehen fasean Madrilen jokatu zuen Bayernen eta atzokoaren artean. Orduan 2-4 irabazi zuen, eta beldurtzeko moduko ekipoa izan zen. Atzo ez; atzo erraz galdu zuen eta ez zuen errespeturik sortu.

Garrantzitsua izan da Matthaus libero beteranoak alde egitea —EEBBetara joan zen orain pare bat hilabete—. Izan ere, haren ordez Jeremies erdilaria libero postura atzeratu du entrenatzaileak eta Jeremiesen tokian atzo, adibidez, Fink aritu zen. Asko galdu du Bayernek mugimendu horrekin, Jeremies ez baita Matthaus, ez baita taldeari atzetik ordena handia jartzen diona, eta Link, berriz, ez zaio hankapera iristen Jeremiesi erdilari gisa.

Galduta bezala ibili zen Bayern Munich, eta urruti samarretik egindako jaurtiketak izan ziren bere aukerarik onenak. Kornerrean eduki zuen beste bat ona, bukaerabukaeran, baina Finkek kanpora errematatu zuen. Sari handiegia zuketen.

2-0, beraz, atzo. Baina kanporaketa hau ez dago amaituta, Real Madril Raul bakarrik baita ia. Izugarri da hori, baina nahikoa bai?

Bartzelonako jokalariek zale guztiei laguntza emateko eskatu diete

Efe / **Bartzelona**

BARTZELONAK zartako ikaragarria jaso zuen Mestallan Valentziaren aurkako norgehiagokan, eta 4-1eko emaitzarekin aukera urriak ditu Txapeldunen Ligako finalerako txartela eskuratzeko.

Bartzelonako jokalariek ez dute amore eman eta zaleen laguntza eskatu dute itzuliko partidurako. «Oso zaila izango da aurrera egitea, Chelsearen aurka gainditu genuen kanporaketa baino zailagoa. Izan ere, Valentzia Chelsea baino talde hobea baita. Gauzak zelan dauden ikusita, inoiz baino gehiago behar dugu zaleen laguntza eta babesa», adierazi du Dani Garciak.

Bartzelonak 3-0 irabazi zion Valentziari Ligako partiduan, eta Bartzelonako jokalariek ez dute itxaropena galtzen. «Guztion artean eta konfiantzaz emaitzari buelta eman diezaiokegu. Partidu bakoitza zeharo ezberdina da. Lehenbailehen ahaztu behar dugu Mestallako norgehiagoka» adierazi du Danik.

Angulo: «Gutxik egiten zuten gure alde»

Miguel Angel Angulo izan zen herenegungo izarra, Valentziako jokalariak bi gol sartu zituelako, eta penaltia ere berari egin ziotelako. Hala ere, taldearen lana azpimarratu zuen atzo Angulok, eta ez berea. «Gu izan gara Europako ustekabea. Lehen gutxik egiten zuten gure alde eta orain finala jokatzea amesten dugu. Uste dut ikamiken garaietan ondo egoten jakin izan dugula, eta handik indarberrituta atera garela», zioen atzo Angulok.

Funtsezko beste gauza bat ere badu Valentziak, jokalari haren irudiko: «Beste ekipoek baino prestaketa fisiko hobea daukagu. Ekipo batzuk behera doaz eta gu, aldiz, bizi-bizi gaude, nola Espainiako Ligan hala Europan».

Saskibaloia ACB Ligako final-laurdenak

Erabakitzeko unea heldu da

Baskoniak gaur irabazten badu finalerdietako txartela lortuko du

Jon Rejado / **Gasteiz**

BASKONIAK gaur erabaki dezake final-laurdenetako kanporaketa, Gasteizen (21:00, Sportmania). Horretarako Caja San Fernando azken bi norgehiagoketan bezala garaitu behar du. Gaur du Baskoniak unerik aproposena kanporaketako hirugarren puntua lortzeko, eta, horrela, finalerdietara pasatzeko. Gaur ez irabaziz gero, Sevillan jokatuko luketen bosgarren partiduan erabakiko litzateke kanporaketa.

Azken bi norgehiagoketan gertatu den bezala Baskoniak hutsune nabarmenarekin jokatuko du gaurko partidua: Juanan Morales duda izango da berriro. Atzo Lamasek argitu zuen pibotaren egoera: «Ebakuntza egingo diote, baina norgehiagoka batean parte har badezake, parte hartuko du», azaldu zuen Lamasek. Oberto ez dago egoera fisiko onenean, azken hiru partiduetan erakutsi duen bezala. Oraindik hilabete eta erdi geldirik eduki zuen lesioaren arrastoak gelditzen dira.

GIGANTES

Fortier eta Mills lehian, Caja San Fernando eta Tau Baskoniaren arteko kanporaketako partidu batean.

Garaipena edo kalera

Sevillako taldea garaipenaren bila aterako da hasiera-hasieratik, hori baita denboraldia ez bukatzeko gelditzen zaion aukera bakarra. Partziala 2-1 kontra izateak hil ala bizikoa bihurtzen du gaurko partidua. Javier Imbrodaren jokalariek dena emango dute hasieratik, eta lehenengo minututik ahalik eta tarte handiena ateratzen saiatuko dira haien eta Tau Baskoniaren artean.

Gaur erabaki daitezke finalerdietan ikusiko diren taldeak, Unicajak eta Baskoniak garaipen bakarra behar baitute sailkatzeko.

Laugarren partiduak

Gaur:

Tau-C.S. Fernando	2-1 (21:00, Sport.)
Unicaja-Bartzelona	2-1 (21:00, Canal+)

Lamas: «Taldearen muinak erabakiko du partidua»

JULIO CESAR LAMASEK indibidualtasunek izan dezaketen garrantziari indarra kendu zion, eta, aurreko partiduetan gertatu zen bezala, talde onenak irabaziko duela azaldu zuen: «Taldearen muinak erabakiko du partidu hau», azaldu zuen atzo Tau Baskoniaren entrenatzaileak, partidu erabakigarriaren bezperan.

Gaur arte jokatutako partiduetan hainbat jokalari nabarmendu dira: Turner, Esteller, Solana, Garbajosa, Mills... Hala ere, Lamasek azpimarratu zuen beste edonork egin dezakeela partidu biribila, eta horregatik ez dela batere erraza zer gertatuko den jakitea.

Lamasek aurreratu zuen nekea ez dela izango faktore erabakigarria, lehenengo kanporaketan behintzat. Entrenatzaile argentinarraren ustez, talde bat lau partidutan ezin da guztiz nekatu.

Gaurko partiduan, jokalari bakoitzaren jarrerak nekea baino garrantzi handiagoa izango duela nabarmendu zuen Lamasek: «Oso nekatuta egon arren, jarrera da baloi baten atzetik joatera bultzatzen duena».

Gaurko partidurako Tau Baskoniaren oinarriko jokoa ez du aldatuko: «Oso gutxi alda daiteke teknikoki partidu batetik bestera; azken batean denok dugu jokatzeko orduan eredu bat», azaldu zuen argentinarrak.

«Aurkariak nola jokatuko duen gutxi gorabehera jakin dezakezun arren, hiruko saskiraketetan zer nolako batez bestekoak izango dituzten jakitea ezinezkoa da», azaldu zuen Baskoniako entrenatzaileak.

Buesa Arenan gaur izango den giroa «bikaina» izango dela espero du Lamasek: «Pabilioia beti bezala egotea nahi dut», adierazi zuen.

Azkenik, aurreko partiduetan egondako istiluei garrantzia kendu zien Lamasek.

NBA

San Antonio txapelduna kanporatu egin du Phoenix Sunsek

Sacramentok jipoia eman zion Lakersi, eta bosgarren partidua behartu

Agentziak / **Washington**

SAN ANTONIO SPURS-EK ezin izango du NBAko txapeldunen eraztuna defendatu, Phoenix Sunsek kanporatu egin duelako laugarren partidua 89-78 irabazita. Jason Kidden itzulera erabakigarria izan zen Phoenixen, orkatila hautsi eta sei astera. 9 puntu eta 10 asistentzia lortu zituen Kiddek, baina itzulerak zenbaki horiek baino askoz eragin handiagoa izan zuen. «Taldean denok txoratzen geunden jokatuko zuela jakin genuenean. Nire lana erraztuko zuena banekien», esan zuen Penny Hardawayk. San Antonioko tekniko Scott Skilesek ere Kidden itzulera erabakigarria izan zela nabarmendu zuen: «Alde handia zen Kidd, alde izugarria».

Tim Duncan lesionatuta zelarik, San Antonion David Robinson izan zen, beste *Dorre Bikia*, erantzukizuna hartu zuena. 21 puntu eta 16 errebote lortu zituen Almiranteak, baina taldekideek ez zioten asko lagundu.

Portland Trail Blazers ere konferentziako finalerdietara sailkatu da, laugarren partiduan Minnesotari 77-85 irabazita. Sabonis eta Wallace (15na puntu) izan ziren onenak.

Los Angeles Lakersek, bestalde, huts egin du Sacramentoren kantxan bigarren aldiz (101-88), eta Kaliforniara itzuli beharko dute bosgarren partidua jokatzera, hil edo bizikoa. Sacramento Kingsen aulkia erabakigarria izan zen kanporaketako laugarren partiduan.

Kanporaketak

Miami-Detroit	3-0
New York-Toronto	3-0
Philadelphia-Charlotte	3-1
Indiana-Milwaukee	2-2
Portland-Minnesota	3-1
L.A. Lakers-Sacramento	2-2
San Antonio-**Phoenix**	1-3
Utah-Seattle	2-1

Eskubaloia Asobal Ligako final-laurdenak

Lehian aritzeko prest

Bidasoan, Cazal jokatzeko moduan da; Kantabrian, Adjic eta Agrem kili-kolo dabiltza

Juanma Sarasola / **Donostia**

BIDASOAK neurketa gogorra du gaur Kantabriaren aurka Santanderren (Espainia). Asobal Ligako final-laurdenentako aurreneko partida La Albericia pabilioian jokatuko da, 20:45etik aurrera.

Irundarrak bosgarren dira sailkapenean, eta kantabriarrak laugarren. Bidasoak Ligan bi bider gainditu du Kantabria, eta oraingoan ere irabazteko asmoarekin joango dira Julian Ruizen mutilak. Natxo Vico eta Patrick Cazal erabat osatu dira, eta beraz, jokatzeko moduan dira.

Bidasoako presidente Javier Sesmak onartzen duenez, «arrunt zaila da Bartzelona, Ademar eta Portlanden aurretik sailkatzea, egun daukaten aurrekontu eta mailarekin; guk talde ona dugu eta goiti egiten saiatuko gara, baina laugarren postua ere ona litzateke guretzat».

Kantabriako entrenatzaile Jovan Elezovicek bere taldean uste ona duela adierazi zuen atzo: «Denboraldian zehar baino prestatuago eta motibatuago gabiltza, eta irabazteko aukerak ditugu». Kantabrian azken unea arte ez da jakingo Adjic eta Agrem jokatzeko moduan egongo diren.

Julian Ruiz • BIDASOAKO ENTRENATZAILEA •

GARI GARAIALDE

«Lehia aski berdindua ikusten dut»

■ **Nola ikusten duzu Kantabriaren aurkako lehia?**

Aski berdindua ikusten dut; laugarren eta bosgarren postuan sailkatutako taldeon arteko lehia izango da, eta ez da erraza izango irabaztea.

■ **Alde handia al dago Ligako Cantabria eta kanporaketakoaren artean?**

Ezberdina da Ligako eta kanporaketetako dinamika. Ligan bi aldiz garaitu genituen, baina ezin dugu hori orain gehiegi kontuan hartu.

■ **Nola planteatuko duzu kanporaketa?**

Partidu bat irabazi behar dugu gutxienez Santanderren. Lehenbizikoa irabaztea beti da garrantzitsua, itxaropenerako atea irekitzen baitu, animoak emateaz gain.

■ **Zer iritzi duzu Kantabria taldeari buruz?**

Kantabriak talde ona izaten jarraitzen du: orekatua, zabala, eta orain esaten den moduan, *sakona*. Jokalari on franko ditu, eta hiru partidako kanporaketetarako egokia da: jokalariek freskoago egoteko aukera dute.

■ **Nola biziko duzu taldekide ohi eta herrikideen aurkako lehia?**

Beno... ez da hasierako lehietan bezalakoa izango, zirrara apalagoa izango da orain. Ligan bi bider jokatu dugu, eta aurreneko aldiko sentimenduak lausotu dira.

■ **Zernahi gisaz, zure herria da...**

Bai, eta lehiatzen aritu nintzen taldea ere bai. Hitzordu berezia izango da, dudarik gabe.

■ **Uste duzu Bidasoak bolada ona atxikiko duela?**

Hala izan bedi! Denboraldi hasieran gure taldea, maila aldetik, Kantabriarena baino beherago zegoen; baina jokoa hobetu dugu, eta orain antzeko maila dugu bi taldeok.

■ **Lehen eta azken neurketak Santanderren jokatuko dira...**

Bai, eta balio duena garaipena da; irabaztera atera behar da, besterik gabe.

Errekopa poltsikoan eta segi jokoan; Portland-Galdar gaur

Erredakzioa / **Donostia**

OSPAKIZUNEN biharamuna bazter utzita, eta Errekopa sakelan duela, Portlandek Asobal Ligako konpromisoei aurre egingo die gaur; finallaurdenetako lehenbiziko partida izango du Galdarren aurka, 20:30ean.

Animoz gainezka ibili arren, iruindarrek nekea eta konfiantza sobera izan dezakete beren kontra. Gainera, kanariarrek denboraldi bikaina egin dute, eta kanporaketa prestatzeko bi aste izan dituzte. Gauzak horrela, Portlandeko entrenatzaile *Zupo* Ekisoainek bere jokalariak gaurko norgehiagokan zentratzea eta «irabazteko eginahal guziak egitea» espero du.

«Neurketa zaila izango da, eta zaleen laguntza arrunt garrantzitsua; baliteke hasieran pittin bat despistatuta ibiltzea, baina *txip*-a aldatu eta animotsu eta lasai jokatu behar dugu», adierazi zuen Ekisoainek.

Galdarrek, bestalde, Rajic eta Paraxenko gabe jokatuko du, lesionatuta baitaude. Alta, Jordi Ribera teknikoak Portland erlaxatua aurkitzeko itxaropena du, baina ez da gehiegi fio: «Portlandek denboraldian zehar tentsiopean eta gaizki jokatuz irabazi baldin badu, lasaiago dagoela, zer ez du egingo?».

Bi taldeen hasierako taldeak hauek izango dira: Portland: Norklit, Mainer, Barbeito, Martin, Villaldea, Kiselev, eta Errekondo. Galdar: Moyano, Carvajal, Saavedra, De la Hoz, Muñoz, Bermejo, eta Prieto.

JOXE LACALLE

Errekopako garaipena San Fermini eskaini diote Portland taldekoek. Atzo arratsaldeko 18:00etan Portland San Antonioko jokalari, tekniko eta zuzendariek Dunaferren aurka irabazitako Errekopako trofeoa Nafarroako patroiari eskaini zioten.

Txirrindularitza ◆ Laurent Jalabert ihes egiten ahalegindu zen azken kilometroetan

Cipollinik erakutsi du burua

Esprinter italiarra erraz gailendu zen Romandiako lehen etapan

Xabier Usabiaga / **Donostia**

MARIO CIPOLLINI ez da oraino agortu, eta 33 urte izan arren pedalei azkar eragiten die, txirrindulariak tropelean helmugaratzen direnean. Atzo erraz menderatu zituen aurkariak Romandiako itzuliko etapa luzeenean (225,1 kilometro) eta Le Bouvereteko helmugan denboraldiko laugarren garaipena eskuratu zuen. Aurreko hirurak (Etruschi Saria eta Mediterraneoko eta Valentziako etapa bana) Milan-San Remo prestatzen ari zela lortu zituen otsailean, baina, gripeak eragin ahuldadea tarteko, 43. postua baino ez zuen eskuratu San Remon. Ostean ere gaixorik ibili zen eta martxoaren 31n istripua izan zuen, entrenatzen ari zela zakur bat jo baitzuen. Geroztik, Giroa prestatzen aritu da, eta ezagun du sasoian ekingo diola bere herriko itzuliari. Jada, 149 garaipen lortu ditu Cipollinik 1989an debuta egin zuenetik, eta bera da profesionalen tropelean garaipen gehien eskuratu duena.

Locarno eta Le Bouveret arteko etapa luzea izan zen, luzeegia eduki askoko etapa izateko. Ohiko ihesaldia Phonak taldeko Dominique Perras kanadarrak egin zuen atzokoan, eta tropelarekin bederatzi minututik gorako diferentzia izan bazuen ere, ez zuen bere asmoa bete, helmugarako 40 bat kilometrora harrapatu baitzuten. Handik aurrera izan zen zalapartarik, batez ere ONCE-Deutsche Bankeko Laurent Jalaberti, iazko garaileari, jostaketarako gogoa etorri zitzaionean. Frantziarrari segika beste hamar lagunek alde egin zioten tropelari, eta elkarren artean hainbestean aritu zirenez, Saecok tiraka zekarren tropela estu eta larri ibili zen haiekin guztiekin bat egiteko. Ihesean zihoazenak ez baitziren edonor: Laurent Jalabert, Isidro Nozal, Axel Merkcx, Joan Le Boulanger, Andrea Peron, Alessandro Petacchi, Juan Miguel Cuenca, Simone Bertoletti, Benjamin Brooks, Jan Boven eta Patrick Calcagni. Iheskideen hartu-eman ona hausten hasi zen, ordea, helmuga gerturatu ahala, eta azken pankartarako kilometro bi falta zirela elkartu zituen denak Saecoren ahaleginak. Esprintean Cipollinik ez zuen hutsik egin, eta lidergoan Paolo Savoldellik segitzen du, txirrindulari guztiak ailegatu baitziren tropelean.

Gaur Montreauxtik Le Chaux des Fondsera joango dira (162,1 kilometro).

FABRICE COFFRINI / AP

Mario Cipollini, Romandiako lehen esprintean irabazle.

Romandiako itzulia

1. etapa
1. M. Cipollini (Saeco) 6:28.19
2. F. Guidi (La Française) ..... d.b.
3. T. Braikia (Linda) ..... d.b.
4. M. Zberg (Rabobank) ..... d.b.
5. Y. Ledanois (La Française) ... d.b.

Nagusia
1. P. Savoldelli (Saeco) 6:35.50
2. M. Cipollini (Seaco) 10era
3. M.A. Peña (ONCE) 11ra
4. I. Cuesta (ONCE) ..... d.b.
5. D. Muller (Swiss Post) 12ra

Arturas Kasputisek etapa eta lidergoa Dunkerken

X. U. / **Donostia**

OHIKOA ez bada ere, hasiera-hasieratik ihes eginda lortu zuen garaipena Arturas Kasputis lituaniarrak, Dunkerkeko Lau egunetako bigarren etapan, eta bide batez lidergoa eskuratu zuen. Etapako hamargarren kilometroan alde egin zuen Kasputisek, Danien Nazon frantziarra eta Daniele Contrini italiarra lagun zituela. Haiekin biekin egin zituen helmugara arteko ia kilometro guztiak, baina 36 kilometrora bakarrik alde egitea erabaki zuen AG2R taldeko lituaniarrak. Kilometro horiek guztiak jazarpen moduan egin behar izan zituen, atzetik beste boskote batek alde egin baitzuen tropeletik: Andrei Txmilek, Christophe Moreauk, Cedric Vasseurrek, Didier Rousek eta Cristian Morenik. Azkenean 35 segunduko abantailaz lortu zuen denboraldiko lehen garaipena Kasputisek.

Dunkerkeko Lau Egunak

2. etapa
1. A. Kasputis (Ag2R) 4:16.43
2. A. Txmil (Lotto) 35era
3. C. Moreau (Festina) ..... d.b.

Nagusia
1. A. Kasputis (Ag2R) 8:33.30
2. A. Piziks (J&J) 18ra
3. M. Backstedt (C.A.) 34ra

Euskalteleko Mikel Artetxe nagusitu da Portugalen

X. U. / **Donostia**

EUSKALTEL-EUSKADI taldeak denboraldiko laugarren garaipena eskuratu zuen atzo Portugalgo Jornal de Noticias itzuliko lehen etapan, eta Mikel Artetxek profesionaletako estreinako etapa eta lidergoa. 30en bat lagun helmugaratu ziren Vila Realeko helmugara 171,3 kilometro egin ostean, eta esprintean nagusitu zen Larrabetzuko 23 urteko txirrindularia, azken pedalkaden indarraz gain oso ondo kokatu baitzen azken kilometro bihurrian.

Atzoko garaipenari esker Artetxek mendekua hartu zuen, antolakuntzak haren taldeari egindako kaltearengatik. Izan ere, helmugarako 16 kilometro falta zirela Igor Flores zihoan ihesi minutu eta erdiko abantailarekin, eta okerreko bidetik bidali zuten txirrindulari nafarra. Akatsaren eraginez, helmugarako zortzi kilometrora harrapatu zuten Flores.

Journal de Noticias

1. etapa
1. **M. Artetxe** (Euskaltel) ... 4:58.47
2. Y. Sourkov (LA Pecol) ..... d.b.
3. J. Sampaio (P. Ravesa) ..... d.b.

Nagusia
1. **M. Artetxe** (Euskaltel) ... 4:58.47
2. Y. Sourkov (LA Pecol) 04ra
3. J. Carvalho (Paredes) ..... d.b.

esprintak

Pantani etxean ari da entrenatzen

Martxoaren 23an utzi zuen Marco Pantanik Cesenaticoko bere etxea, eta handik landa hasi zituen errekuperazio lanak. Orain jakin da bere etxe inguruan ari dela entrenatzen Emilio Magni medikuaren aginduetara. Denbora gutxi barru taldeko manager Manuela Ronchirekin batzartzekoa da, bere egoera zehazteko eta itzulera egunari buruz hitz egiteko.

Fitxaketa kontuak hasi dira jada

Italiako egunkariek diotenez, talde berria sortzekoa da Belgikan, eta ziklista oso onek izango bide dute lekua: Johan Museeuwk, Wilfried Peetersek, Tom Steelsek, Bart Leysenek eta Max Van Heexwijkek (denak Mapeikoak). Zuzendaria Patrick Lefevre izango litzateke. Diotenez, Fassa Bortoloko zuzendari Giancarlo Ferrettik gustuko ditu Michele Bartoli eta Amica Chips taldeko Ivan Basso, eta baita Frank Vandenbroucke ere, baina, dirudienez, azken hau ONCEtik gertu egon liteke. Pantanik Mercatone Uno utziko duela ere badiote.

Abraham Olano Alcobendasen berragertuko da

Abraham Olanok korritu zuen azken proba Lieja-Bastogne-Lieja izan zen (apirilaren 16an); geroztik Denian (Espainia) da atseden hartu eta entrenatzen. ONCEko txirrindularia heldu den igandean itzuliko da karreretara, Alcobendasko klasikoan. Segidan, hilaren 9tik 14ra, Asturiasko itzulian izango da, 1994an irabazi zuen proban hain zuzen ere.

Iberdrola jaun eta jabe Extremaduran

Roberto Arroyo da lehenbiziko etapako bi zatiak jokatu ostean Extremadurako itzuliko (Espainia) liderra. Goizeko taldekako erlojupekoa Iberdrolak irabazi zuen, Banakaren aurretik, eta orduan jantzi zuen lider elastikoa Roberto Arroyok. Arratsaldean Tavira taldeko Ruben Martinez espainiarra nagusitu zen, eta Arroyok eutsi egin zion lehen postuari.

Mendia ◆ Felix eta Alberto Iñurrategiren espedizioak bertan beheiti utzi du Annapurnako igoera

Iñurrategitarrak, etxera

Eguraldi txarrak eraginda erabaki dute etxera itzultzea

Erredakzioa / **Donostia**

BERTAN BEHEITI utzi behar izan dute Iñurrategi anaiek Annapurnako gailurrera (Nepal, 8.091 metro) egitekoa zuten igoera. Eguraldi txarra izan dira arrazoia. Felix eta Alberto Iñurrategi Iñurrategi & EITB 2000 espedizioko kide dira, eta herenegun iritsiak ziren Annapurnako oinarrizko kanpamendura, Manasluko gailurra egin ondoren (8.163 metro).

Euskal espedizioa bakarra zen Annapurnako kanpamendu basean, aurretik egondako beste espedizioek ospa egin ondoren. Beste espedizioetako kideek baldintza txarrez ohartarazi zituzten Aretxabaletakoak, baina igoera egiterik zegoenetz bertatik bertara ziurtatu nahi izan zuten bi anaiek. Hala, Felix eta Alberto Iñurrategik igoera ezin egin zela ikusi zuten, eta arriskatzea merezi ez zuela ohartuta, etxera itzultzea deliberatu zuten. Felix Iñurrategik honela azaldu zion Euskadi Irratiari atzo hartutako erabakia: «Asier Arangurenek [ETBko berriemaile berezia] walki bitartez deitu digu, eta erantzun argia eman diogu: etxera!». «Paretari begiratu diogu, eta oso baldintza txarretan ikusi dugu; gure lepoa arriskuan jartzea ez da gure estiloa, eta ez dugu beste aterabiderik ikusi; beraz, etxera itzultzea erabaki dugu».

DESNIVEL

Annapurnan oso baldintza txarrak egokitu zaizkie Iñurrategi anaiei.

FELIX IÑURRATEGI

«Gure begiekin ikusi dugu oso baldintza txarrak zeudela; beste aterabiderik ez, eta itzultzea erabaki dugu»

Espediziolariok bide alemaniarra segitzeko asmoa zuten, «seguruena baita», baina Felixek esan zuenez, «ataria erabat hautsia dago, elur eta izotz jausiak daude, eta alpinoan hortik gora joatea oso arriskutsua ikusi dugu».

Hala eta guziz ere, Iñurrategi anaiek «porrot sentsaziorik» ez dutela erantsi zuten.

Aretxabaletako bi anaiak bi aste barru etxean izango dira berriz. Oraingoz, «sasoi betean» direnez, atseden pixka bat hartu ondoren, entrenatzen segitu eta udaran Pakistango Karakorum mendikateko G-I eta G-II gailurrak egiteko helburua dute.

Annapurnari dagokionez, «lasai pentsatuko dugu berriz noiz eta nola saiatu», gaineratu zuen Felix Iñurrategik.

Retena-Odisea Everest 2000 espedizioa bihar bigarren kanpamendua ezartzen saiatuko da

Erredakzioa / **Iruñea**

NAFAR eta aragoitarrek osatutako Retena-Odisea Everest 2000 espedizioa bigarren kanpamendua ezartzen ahaleginduko da bihar, apiril bukaeran huts egin ondoren. Bigarren kanpamendua 7.700 metrora ezarri nahi dute, eguraldi txarrak aurreneko saioa galarazi ostean; orduan 100 kilometro orduko haizeek eta elurte arinek espedizioko kideen asmoa bertan beheiti utzi zuten.

Atzerapenak atzerapen, espedizioburu Iñaki Otxoa de Oltzak Everest gailurra maiatzaren 10erako zapaltzeko konfiantza du: «Everest bere alderik latzena erakusten ari zaigu; bost egun daramatzagu haize bortitzekin eta elurrarekin, eta honek bigarren kanpamendurako bidea eteten digu. Nolanahi ere, geroz eta hobeki moldatzen ari gara, eta erraldoi honek bere alde atsegina erakustsi zain gaude gailurrera igotzeko».

Ipar aldetik gailurra iristeko zailtasun hauek gainditzen saiatuko dira, eta maiatzaren 18ko ilbeteak eguraldi ona ekartzea espero dute.

1 Formula ◆ McLareneko gidaria onik atera zen herenegun hegazkin istripu larri batetik; «miraria» izan dela dio

David Coulthard: «Hilko nintzela uste nuen benetan»

Agentziak / **Montecarlo**

DAVID COULTHARD gidari eskoziarra onik atera zen herenegun Lyonen izaniko hegazkin istripu larritik. Londrestik Nizara joatekoa zen Coulthard, learjet pribatuan; baina Lyonen lur hartu behar izan zuten halabeharrez, eta istripuan hegazkineko pilotua eta kopilotua hil ziren.

Coulthardek esan du bera, bere neska-laguna eta bere prestatzailea istriputik onik atera izana «miraria» izan zela: «Benetan pentsatu nuen hilko nintzela. Istripua gertatu baino minutu bat lehenago, dena normal zihoan. Batbatean, pilotuak jakinarazi zigun motor bat matxuratu zela. Ezin izan genuen ezer egin pilotuari eta kopilotuari laguntzeko, hegazkinaren aurreko aldeak su hartu baitzuen. Guk suertea izan dugu eta onik atera gara. Baina doluminak agertu nahi dizkiet bi pilotuen senideei».

Atzo jada Montecarlora iritsi zen David Coulthard, Lyongo ospitale batean mediku azterketa egin ondoren. McLareneko pilotuak ez dauka zauririk, eta Montmelon Espainiako Sari Nagusia jokatuko duela iragarri zuen haren ordezkari Ian Cunninghamek.

ROLLAND QUADRINI / AP

David Coultharden learjet pribatua, istripua izan ondoren.

Munduko Txapelketaren sailkapenean bigarren dago Coulthard, Ferrari taldeko Michael Schummacherren ondotik. Silverstonen Britainia Handiko Sari Nagusia irabazi zuen Coulthardek, bigarren urtez jarraian, eta igandean Bartzelonan lehiatzeko batere arazorik ez duela izango adierazi du haren ordezkariak. «Zauririk ez dauka Coulthardek. *Shock* handi samarra bai istripuagatik, baina hori normala da. Hegazkin istripuaren ondoren berarekin hitz egin dut, eta ondo dago», esan zuen Coultharden ordezkari Ian Cunninghamek.

Pilota ◆ Bigarrena, Tirapu-Zearrak Berasaluze VIII.a-Errastirekin (16-22)

Alustizak erabaki zuen azkenean Legazpin

Tabernarekin, Unanue-Rairen kontra irabazi zuen (22-21)

Enekoitz Telleria / **Donostia**

ONGI ezagutzen du Martin Alustizak Legazpiko frontoia. Etxetik, Seguratik, ez zaio urruti gelditzen eta afizionatutan ere behin baino gehiagotan jokatutakoa da han. Atzo, horretaz baliatuz edo, berak erabaki zuen 16-19 edo 20-21 ere kontra izan zuen partidua, eta 22-21 irabazi zuen Tabernarekin Unanue eta Rairen kontra. Legazpiko Santakruzetako lehenengo partidua zen hori. Bigarrena, Tirapuk eta Zearrak irabazi zuten Berasaluze VIII.a-Errastiren kontra (16-22).

65 minutuko partidu gogorra eta orekatua irten zen lehenengoa. Gorriak 6-0 aurrea hartu arren, erreakzionatu zuten Unanuek eta Raik eta gorabehera handiekin joan ziren 9nakotik aurrera: 12-9, 14-10, 15-11, 16-14, 16-19, 20-19 eta 20-21. Alustizak hartu zuen ardura orduan. Sotamanoz bueltatu zuen Unanueren sakea lehenengo, eta jendartetik gantxoa ondoren. Aukerakoa zuena Unanuek huts egin zuen, (21-21). Hirugarren koadrotik zabalera dejada eginez amaitu zuen Alustizak (22-21).

Bigarrena, errazago irabazi zuten Tirapu-Zearrak. Abiadura handia eman zioten pilotari eta lan asko izan zuen Errastik. Zearra oso ongi.



PABLO S. QUIZA

Martin Alustizak bere maisutasuna erakutsi zuen atzo.

Arretxe-Eugi finalerdia Zarautzen jokatuko da

Maiatzaren 14an, Zarauzko Aritzbatalde pilotalekuan jokatuko da azkenenean Arretxe eta Eugiren arteko Eskuz Banakako Txapelketako finalerdia. Asegarcek ez zuen finalerdia Ogetan jokatzerik nahi, Arretxek airez sartzeko arazoak izan ditzakeelako han. Labriten, Belokik eta Nagorek jokatuko dute bezperan, eta Atano III.ean jokatzeko ez dira ados jarri bi enpresak. Zarautz, pilotari zein enpresarien gustukoa da, nahiz eta mila lagun ingururentzako tokia baino ez daukan. 17:00etan hasiko da Aritzbataldeko jaialdia, eta ETB1ek zuzenean emango du.

txokoan

Telefonica Irekiko lehenengo finalerdia gaur

Bilboko Deportivo pilotalekuan jokatuko da gaur Telefonica Irekiko lehenengo finalerdia. Insausti-Fernando eta Ziskar II.a-Garmak jokatuko dute palaz. Insausti eta Ziskar II.a sasoiko daude. Euskal Herriko txapelketako bi aurrelari onenetakoak izan ziren, eta atzean indar gutxiago bi lagun jarri zizkieten horregatik, nahiz eta maila ona eman duten nola Fernandok hala Garmak. Ziskar II.a sakearekin min egiten saiatuko da gaur ere.

Altuna II.ak eta Eizagirrek ordaina hartzeko aukera dute Galarretan

Biak ere aspaldian bikain jokatzen ari diren arren, ez zuten Garikoitz Altunak eta Eizagirrek partidu txukunik egin joan zen asteartean Euskalen, eta 40-27 galdu zuten Ezkurra eta Urretabizkaia II.aren kontra. Ezkurrak —oporretatik bueltan bigarren partidua zuen— asko jokatu zuen eta ez zien inolako aukerarik eman. Gaur dute ordukoaren ordaina hartzeko aukera Galarretan. Ezkurra, Zubeldiarekin arituko da.

gaurko partiduak

GALARRETA. 16:00 (La2 19:00).
- Agirresarobe-Urko / Zalakain-Amenabar
- Ezkurra-Zubeldia / Altuna II.a-Eizagirre
- Zeberio II.a-Aizpuru / Altuna I.a-Lizaso
- Sarasua-Urretabizkaia II.a / Bitoria-Zandio.

DEPORTIVO. 17:00.
- Zabalza-Agirre / Egibar-Ziskar I.a
- **Telefonica Irekiko finalerdia (pala):**

Insausti-Fernando / Ziskar II.a-Garma
- Urkia-Garrido / Daniel-Rekalde.

biharko partiduak

AZPEITIA. 22:30 (ETB1).
- **Kilometroak 2000aren aldeko jaialdia:**
- Goñi II.a-Goñi III.a / Olaizola II.a-Zezeaga
- Otaegi-Sukia / Etxaniz II.a-Hirigoien.

ZUMAIA. 22:30.
- Sanchez-Beldarrain / Urkia-Torre
- **Telefonica Irekia (zesta):**

Goikoetxea-Elizegi / Alberdi II.a-Enbil.

laburrean

T R I A T L O I A

■ Eneko Llanos Sydneyko Joko Olinpikoetan arituko da

ESPAINIAKO triatloi selekzioarekin Sydneyko Joko Olinpikoeta parte hartzeko txartela lortu du Eneko Llanos euskal herritarrak. Bera da Espainiako selekzioarekin ariko direnen artean Munduko ranking-ean postu onena lortu duen triatleta. Ivan Raña, Jose Merchan eta Maribel Blanco izango dira bere taldekideak Australian.

D U A T L O I A

■ Eibar Hiriko IX. Duatloia jokatuko da larunbatean

DUATLOIKO Euskal Zirkuiturako puntuagarria izan da aurten ere Eibar Hiriko Duatloia —zirkuituko zaharrena ere bada—, eta larunbatean, maiatzaren 6an, jokatuko da Eibarren (15:30). Partehartzaileek, 5 kilometro egin beharko dituzte korrika herri barruko zirkuitoan, 30 kilometro bizikletaz —Karabietako igoera tartean— eta beste 5 korrika bukatzeko.

A T L E T I S M O A

■ Dieter Baumannen errekurtsoak ez du aurrera egin

ZIGORTUTA jarraituko du Dieter Bauman atleta alemaniarrak udazkenean egin entrenamenduetan nandrolonarekin postibo emateagatik, ez du-eta erabaki horren aurka jarritako errekurtsoak aurrera egin. Korrikalariak dio errugabea dela, eta bere aurkako konplot bat dagoela tartean.

■ Hil egin da, Pragan, mailu jaurtiketa batean kolpatutako Zuzana Krejcova korrikalari gaztea

JOAN zen astelehenean jaso zuen Zuzan Krejcova atleta txekiarrak mailu jaurtiketan erabiltzen den mailu baten kolpea, Turnov hiriko bilkuran eta atzo hil zen kolpeak eragindako zaurien ondorioz. Vladimir Masek jaurtitzaile txekiarrak —finalista izan zen Sevillako Mundialean— jaurtiki zuen 7 kiloko mailua, baina desbideratu egin zen bost bat metro. Krejcovak ez zituen entzun nonbait epaileen eta antolatzaileen abisuak eta bete-betean eman zion mailuak. 800 metroetan etorkizun handiko korrikalaria zen Krejcova.

O L I N P I S M O A

■ Juan Antonio Samaranch: «Nik bete dut nire zikloa»

MEXIKORA egiten ari den bisitan NBOko lehendakari Juan Antonio Samaranchek esandakoa da: «Gustura nago egun Nazioarteko Batzorde Olinpikoa garbi dagoelako. Bete dira niretzat helburu guztiak. Guztiak dauka amaiera bat eta nik bete duk nire zikloa». Samaranchek gaineratu zuen, Mario Vazquez Raña mexikarrak, Panamerikako Kirol Erakundeen eta Batzorde Olinpiko Nazional Elkarteko presidenteak, badituela dohainak, bere kargua hartzeko.

T E N I S A

■ Portasek kanporatu du Rios, ezustean, Mallorcan

ATZOKO jardunaldiko ustekabe nagusia eman zuen Albert Portasek Mallorcako Torneoan, Marcelo Riosi —bigarren zerrendaburua zen— hiru setetan irabazita (2-6, 7-6 eta 6-4). Tillstrom suediarraren kontra jokatu beharko du Portasek orain final-laurdenetan. Iefgeni Kafelnikov, Marat Safin eta Carlos Moyak ere aurrera jarraitzen dute.

■ Martina Hingis final-laurdenetara Hanburgon

SYLVIA PLISCHKE austriarra bi setetan (6-4 eta 6-1) hartu zuen atzo mendean Martina Hingisek Hanburgoko torneoan, eta final-laurdenetan da, horrenbestez. Anke Huber, Lubomira Bacheva eta Sabine Appelmans atzo aurrera egin zuten beste tenislariak.

A R E T O F U T B O L A

■ Paulo Amancio 'Tachinha' entrenatzailea MRA Xotatik hurbil

DATORREN denboraldian MRA Xota areto futboleko Ohorezko Mailan entrenatzeko aurre-akordioa lortu zuten atzo talde nafarrak eta Paulo Amancio *Tachinha* entrenatzaile brasildarrak. Joan den asteburuan Irurtzunen izan zen, eta kontratua sinatzea baino ez da falta. Larunbatean dute nafarrek etxean denboraldiko azken partidua O' Parruloren kontra.

Egunkaria

Gaur irekiko ditu ateak Durangoko 25. Azokak

Egunkaria

Arzalluz: «Ez gara ETA eta Gobernuaren tarteko izango»

Hasi da ofizialki Ipar Euskal Herriko hauteskunde kampaina

Egunkaria

Parisek Defentsa Sekretua erabili du epaileei GALen ikerketa eragozteko

Barrionuevoren suplikatorioa eskatuta

Zorionak Euskal Herria

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa ◆ Hego Amerikako bira

TXILEKO ETA ARGENTINAKO ANTZOKI GARRANTZITSUETAN ESKAINIKO DITU HAINBAT EMANALDI MAIATZEAN

Hego Amerikako birarekin indartuko du EOSek nazioarteko proiekzioa

- Ravel eta Arriaga euskal konpositoreen obrak prestatu dituzte Txile eta Argentinako sei emanaldietarako
- Zirkuitu klasiko garrantzitsuan joko dute, eta hemengo musikaren erakusle izan nahi dute, Gilbert Varga zuzendariak dioenez
- Joaquin Atxukarro bilbotarra eseriko da pianoan, konposizio horietako bakarkako doinuak interpretatzeko

Amagoia Mujika / **Donostia**

«ZUZENDARITZA berria abian jarri genuenean zenbait erronka zehaztu genituen. Alde batetik, barrura begira musikarien ahalik eta maila onena lortzea zen helburuetako bat, eta kanpora begira, berriz, gure orkestra egiten ari zen lana eta gure musika atzerrian erakustea. Aspalditik genuen buruan Hego Amerikako bira hau, apustu horretan lehen proiektua». German Ormazabal Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari nagusiak eman zituen biraren zergatien azalpenak: «Ez genuen edonolako bira egin nahi, eta lan asko egin ondoren lortu dugu Txileko eta Argentinako zirkuitu garrantzitsuenean sartzea. Gilbert Vargaren laguntza ezinbestekoa izan da, prestigio handia baitu Hego Amerikan».



EDURNE KOCH

Joaquin Atxukarro piano jolea Gilbert Varga zuzendariaren aholkuak entzuten prentsaurrekoa baino lehenago egin zuten entseguan.

Gilbert Varga zuzendari

Gilbert Vargak zuzenduko ditu, hain zuzen, kontzertuok, eta ongi ezagutzen ditu birako antzoki gehienak. Haietan, duela hainbat urte interpretazio anitz eginak ditu bere aitarekin batera.

Errepertoriorako Maurice Ravel lapurtarraren (1875-1937) eta Juan Crisostomo Arriaga bizkaitarraren (1806-1826) obra bana aukeratu ditu, *Piano eta orkestrarako Kontzertua Sol Maiorrean*, eta *Los Esclavos felices* obertura, hurrenez hurren. Aukeraketa ongi pentsatua dagoela adierazi zuen Vargak: «Gure konpositoreen lan bikainak munduan zehar barreiatu nahi ditugu, EOS egiten ari den lana erakustearekin batera. Horregatik obra hauek. Euskal kulturaren enbaxadore izango gara Hego Amerikan. Garrantzitsua da adieraztea Euskal Herrian zer gertatzen den». Obra horietan piano bakarlari Joaquin Atxukarro bilbotarra izango da, nazioartean oso ezaguna. EOSeko musikariak eta haien soinua ongi ezagutzen ditu, eta oso ziur esan zuen atzo, emanaldi bikainak eskainiko dituztela.

GILBERT VARGA
Ezagutaraztera

«Euskal Herrian zer gertatzen den adieraztea garrantzitsua da. Hemengo musikarien lana erakutsiko dugu»

Lehenengo atalean izango dira protagonistak Ravel, Arriaga eta Atxukarro bera. Bigarren atalean, berriz, orkestrak bakarrik joko du, eta Tchaikowskyren laugarren sinfonia aukeratu du Vargak, orkestraren izaerari ongi egokitzen zaiolako pieza hori.

Aipatutako obrez gain, arrakasta izanez gero, erabaki dute zein obra oparitu entzuleei: «Guridiren *El Caserio* laneko pasarte bat eta *Diez melodías vascas* obrako seigarrena», zehaztuzuen Vargak.

Euskal Herrian egiten den musika klasikoa erakutsi nahi izatea du berezitasunetako bat birak, baina berezia da gainera Txilen eta Argentinan dagoen euskal komunitate handiarengatik, German Ormazabalek adierazi zuenez.

Maiatzaren 10ean izango da lehen kontzertua Argentinako Kordobako San Martin antzokian. Ondoren Rosario, Buenos Aires, eta Bahia Blancan eskainiko dituzte emanaldiak. Azkenik, Txilera abiatuko dira azken kontzertua Santiagon eskaintzeko. Munduko orkestra handi askoren ondoan izango dira egunotan: «Berlingo Filarmonika eta beste askorekin egingo dugu topo».

Atzerrian izango dituzten bira anitzen hasiera dela esan zuen atzo Vargak, eta orkestrako musikarientzat erronka handiak direla: «Erronka zenbat eta handiagoak izan gainera, orduan eta motibazio handiagoa dute, eta beraz, presio handiarekin musika kalitatea izugarria lortzen ari gara. Orain oso une onean dago orkestra».

Obren hautaketa

ONGI pentsaturik aukeratu ditu Gilbert Varga zuzendariak eskainiko dituzten obrak. Alde batetik, euskal konpositoreen arteko aukeraketa egin du, eta nazioartean ezagun diren Ravel eta Arriagaren musika interpretatzea erabaki. Euskal konpositoreak izateaz gainera, obren berezitasunak zerikusi handia izan du aukeraketan. Obra zailak dira biak, ongi joz gero bai orkestrari eta bai Joaquin Atxukarro piano jole solista luzitzeko modukoak.

Bigarren atalerako Tchaikowsky aukeratu du, Vargak bi arrazoirengatik: «Aurten jo dugu ohiko lekuetan, eta orain berriz hartzean, musikariek oso ongi menderatzen dute. Bestetik, orkestraren kolorea erakusteko uste dut obrarik aproposenetakoa dela».

Joaquin Atxukarro • PIANO JOLEA •

EDURNE KOCH

«Zoritxarrekoa nintzateke pianoa lasaitasunagatik utziko banu»

Amagoia Mujika / **Donostia**

BILBON jaioa da Joaquin Atxukarro, eta oso gaztetatik ibili da han eta hemen piano emanaldiak eskaintzen. Orain Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin Hego Amerikara joango da, jiran, eta oso gustura dago etxekoekin doalako.

■ **Euskadiko Orkestra Sinfonikoa sortu zenetik izan duzu harekin harremana. Nolako bilakaera izan du 18 urteotan?**

Izugarrizko aldea dago oraingo eta hasierako orkestraren artean. Hasieran ere sendo hasi zen, baina gero eta diziplina handiagoa du, eta gaur egun munduko edozein lekutan jotzeko gai da, leku onenetan. Etortzen naizen guztietan ikusten diot aldea; kalitateaz gain, gertutasunagatik-edo konfiantza handia ematen dit. Sorreran parte-hartze handia izan nuen, eta orain noizbehinka harekin jotzeko ohitura ez nuke galdu nahi.

■ **Orduko eta gaurko piano jolearen artean ere egongo da alderik. Esperientziak zertan eragin dizu?**

Ziurtasuna eta ezagutza eman dit, eta hainbat gauza hotzago begiratzeko gaitasuna, nahiz eta berez oso emozionala naizen. Kontzertuei errespetua galdu gabe, funtzionamenduaren ezagutzaile handia naiz, eta hainbat zuzendariren teknikak eta gidatzeko moduak ezagutzen ditut. Horri esker, interpretazio gaitasuna eta eremua zabaldu zait. Baina funtsean, hasieran nintzena izaten jarraitzen dut, kontzertu bakoitza erronka bat da, eta etengabe berrituz, teknika hobetuz joan behar da kontzertuak eskaini nahi badira. Ikasketa prozesua ez da sekula amaitzen.

■ **Alde batetik bestera ibiltzen, ikasten etengabe, ez al duzu inoiz geratzeko gogorik izan?**

Egiten dudana maite dut, eta zoritxarrekoa nintzateke pianoa lasaitasunagatik utziko banu. Hori baino arrazoi handiagoa beharko nuke nire bizitza aldatzeko. Bizitza etengabeko aukeraketa da. Hala ere, nik pianoa jotzea erabaki nuenean, aukera baino gehiago eginbeharra zen. Ezinbestekoa bilakatu zen pianoa. Musika egin ahal izatea zoragarria da. Brahms, Ravel, Bach, Beethoven eta musikari handiekin harreman izpiritual eta mentala dut, utzi didatena interpretatuz, gozatuz eta sakonduz lortu dudan harremana. Hori da niretzat garrantzitsuena.

■ **Handiekin harreman hori lortzeko zein izan duzu orkestra lagunik onena, zein gogoan duzun une gogoangarriena?**

Zaila da bakar bat aipatzea. Berlingo Filarmonikoarekin jo nuen eguna ez dut ahaztu. New Yorkeko Filarmonikarekin, edo Londresekoarekin emandako kontzertuak... Baina agian burura gehien etortzen zaidan unea 1946ko maiatzaren 13an Bilbon eskainitako kontzertua da. Galtza motzetan Mozarten kontzertu bat ematera. Oraindik ere zirrara sortzen dit gogoratzeak.

■ **Jira hau ere berezia izango da, ezta?**

Euskal konpositoreak, gure kultura orkestrarekin atzerrian erakustea oso berezia da, eta, gainera, ez dugu ahaztu behar euskal komunitate handia dagoen lekuetara goazela. Berezia izango dela ez dut dudarik.

Une gogoangarriak

«1946an Mozart jotzera galtza motzetan atera nintzen unea gogoratzeak oraindik ere zirrara sortzen dit»

laburrean

MUSIKA

■ Müsikaren Egüna maiatzaren 19tik 21era bitartean egingo da Urdiñarben

EGUNKARI honek atzo azaldutakoa zuzenduz, Urdiñarbeko Müsikaren Egüna maiatzaren 19tik 21era bitartean egingo da. Eztabaida bat, dantza eta kantu tradizionalen inguruko gaualdia eta igandeko jai egun nagusiak osatuko dute egiteraua. Besteak beste, Harry Verdecho Okzitaniako taldeak eta musika tziganoa jotzen duten Slonovski Bal eta Czezkomor taldeek joko dute jaialdian.

■ Bilbao Orkestra Sinfonikoaren kontzertuak gaur eta bihar Euskalduna jauregian

JUANJO MENAREN zuzendaritzapean joko du Bilbao Orkestra Sinfonikoak gaur eta bihar Euskalduna jauregian. Anton Larrauri konpositore bilbotarraren *Lainoa* partitura joko dute lehendabizi. Joko duten bigarren lana Txaikovskiren *Biolin eta orkestrarako kontzertua re maiorrean* izango da. Xostakovitxen *5. sinfonia re minorrean* izango da eskainiko duten hirugarren lana.

ARTEA

■ 'Ezkerraldea Plastika' erakusketa zentsuratu gabe jarriko dute Zierbenan, Portugaleten eta Barakaldon

SESTAOKO alkateak zentsuraturiko *Ezkerraldea Plastika* erakusketa kolektiboa osorik ikusi ahal izango da Zierbenan, Portugaleten eta Barakaldon. Obren ondoan idazki bat jarriko da, ohartarazteko zenbait irudik jendearen sentsibilitatea min dezaketela, Portugaleteko alkate Mikel Kabiezesek azaldu duenez. «Artisten zein gurasoen eskubideak bermatzeko» hartu dela neurria esan zuen Kabiezesek.

ANTZERKIA

■ Faeminok eta Cansadok 'Visto o no visto' ikuskizuna eskainiko dute Arriaga antzokian maiatzaren 7ra arte

FAEMINO ETA CANSADO umoristek euren ikuskizun berria maiatzaren 7ra arte eskainiko dute Bilboko Arriaga antzokian. Umoristek elkarrekin daramatzaten 15 urteetan prestatu duten bosgarren ikuskizun da *Visto o no visto*. Faeminok eta Cansadok elkarrizketa berriak prestatu dituzte, kasu batzuetan lehendik ere erabilitako pertsonaiak sartzen badituzte ere.

■ Gus Marionetas taldeak Lleidako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdian parte hartuko du

HOGEITA SEI konpainia hautatu dituzte Lleidako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko antolatzaileek aurtengo ekitaldirako. Horien artean Nafarroako Gus Marionetas taldea dago. *El traje nuevo del emperador (Enperadorearen jantzi berria)* ikuskizuna aurkeztuko du Gus Marionetasek. Argentina, Peru, India, Bulgaria, Hungaria, Brasil, Frantzia eta EEBBetako taldeak bilduko dira jaialdian.

DANTZA

■ 'Mandala' lana eskainiko du Transit dantza konpainiak Barakaldo antzokian

MARIA ROVIRAK, 98an Espainiako Dantza Sari Nazionala jaso zuen koreografo eta zuzendariak, *Mandala* ikuskizun berria eskainiko du bihar Barakaldo antzokian, Transit konpainiarekin. Dantza ikuskizun berri horretan jazza, *ambient* musikaa, *rap*-a eta *techno*-a erabiltzen dituzte. Indar handiko ikuskizuna da, eta konpainiako kideek etenik gabe egiten dute dantza, hasieratik amaiera arte.

■ Ereintza dantza taldeak zenbait ekitaldi antolatu ditu astebururako Errenterian

DANTZA ESKOLEN erakustaldi batek zabalduko ditu bihar Errenteriako Ereintza dantza taldeak astebururako antolatu dituen ekitaldiak. Errenteria Hiria kulturgunean egingo da ekitaldia, eta Thalia, Natalia y Fermin, Irungo Sabtza Garaikideko Eskola eta Txingudi ikastolako taldeak agertuko dira bertan. Larunbatean, berriz, Asturiasko dantzari eta gaitarien desfilea egingo da arratsean, eta gauean Ereintza dantza taldeak ikuskizun berria aurkeztuko du. Igande eguerdian, dantzari eta gaitarien emanaldia izango da Zumardian.

Obabako irakurleak

Iruñeko Biurdana Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak Bernardo Atxagaren liburuaren jendaurreko irakurraldia egin zuen atzo, Nafarroako idazle, kirolari, aktore, kazetari, ikasle eta irakasleekin

Euskal liburu baten jendaurreko aurreneko irakurketa egin zuten atzo Iruñeko Biurdana Bigarren Hezkuntzako ikastetxean. Bernardo Atxagaren *Obabakoak* aukeratu zuten okasiorako, eta Nafarroako kirol, telebista, zinema, literatura, irakaskuntza, dantza eta beste hainbat arlotako 40 lagunen artean irakurri zituzten liburuko hainbat pasarte. Irakurketari Bernardo Atxagak berak eman zion amaiera, ikastetxeko ikasle eta irakasleen berotasuna eta txaloak jaso ondoren.

Ekitaldi polita izan zen atzokoa; irakurleek gogoz parte hartu zuten —Mikel Goñi pilotaria, Iñaki Perurena harrijasotzaile eta aktorea, Pablo Antoñana idazlea, Xabier Mikel Errekondo Portlandeko jokalaria, Rikardo Ederra Sortzen-eko kidea eta Iñigo Olaetxea bertsolaria, beste batzuen artean—, eta Biurdanako ikasleek ere lepo bete zuten aretoa, goizeko 09:30etik arratsaldeko 15:00ak arte.

Biurdanako ikastetxeko Euskara Departamentuko buru Carmen Uharte alde batetik bestera ibili zen atzo, goiz osoan, irakurraldian parte hartu behar zuten lagunei harrera egiten, eta dena behar zen bezala ateratzen ari zela ziurtatzen. «Gaztelaniaz *Kixote*-ren irakurraldia egiten dute urtero, eta euskaraz ere gauza bera egin genezakeela pentsatu genuen. Guk, ordea, ez dugu klasiko bat aukeratu, gure bidea bestelakoa izan behar zuela uste genuelako; aurrerako bidea, alegia. Hori kontuan hartuta, Bernardo Atxaga aukeratu genuen, gure idazlerik ezagunena delako eta bere liburuak hizkuntza askotara itzuli dituztelako», azaldu zigun Uhartek.

Biurdanako ikasleek ikasgelaka parte hartu zuten atzoko irakurraldian. Ordu erdiko txandak antolatu zituzten antolatzaileek, eta bakoitzean bost gonbidatuk parte hartu zuten.

Txanda guztien artean azkena izan zen Biurdanako ikasleen eta irakasleen arteko zalaparta gehien sortu zuena, Bernardo Atxagak berak parte hartu zuelako, Maxi Gomez, Iñaki Perurena harrijasotzailea, Anabel Arraiza aktorea eta Josetxo Lizartza kazetariarekin batera.



JOXE LACALLE

***Obabakoak* bizirik.** Bernardo Atxagak amaitu zuen, atzo, *Obabakoak* liburuaren irakurkaldia. Jendea erruz hurlbidu zen bera eta gainontzeko *irakurle* ezagunak entzutera. *Obabakoak* «oraindik bizirik» dagoela ikusi ahal izan zuen idazle asteasuarrak.

ATXAGA
Pablo Antoñana

«Bere lan guztiak gaztelaniaz egin arren euskal idazle baten obra irakurtzera etorri da»

Anaitasunaren sinbolo

Bernardo Atxagak *Obabakoak* liburuko azken lerroak aukeratu zituen irakurraldia amaitzeko. Kostatu zitzaion, hala ere, irakurraldirako prestatu agertokira ailegatzea, hamaika autografo sinatu behar izan baitzituen aurretik. Bai eta irakurraldia amaitu ondoren ere. Denek eraman nahi zuten Atxagaren bisitaren oroigarria etxera. Idazleak guztiei egin zien kasu.

Kontent ageri zen atzo Atxaga Biurdanako ikastetxekoek antolatu ekitaldiarekin, bai eta apur bat hunkituta ere jendearen erantzunarekin. Hori dela eta, *Obabakoak* liburuaren azken lerroak irakurri ondoren, antolatzaileen lana eskertu zuen, biziki.

Atzoko ekitaldiak, bestalde, *Obabakoak* ez dela desegin, eta «oraindik bizirik» dagoela erakutsi zion Asteasuko idazleari, berak aitortu zuenez. Duela hamabi urteko maiatzean bukatu zuela gogoratu zuen idazleak.

JOXE LACALLE

Aurpegi ezagun ugari. Kulturako, kiroletako eta komunikabideetako jendea bildu zen *Obabakoak* liburuaren zati bat irakurtzera, tartean aurpegi ezagun ugari.

Atxagak, bestalde, Pablo Antoñana idazle nafarraren parte-hartzea eskertu zuen irakurraldia amaitu ondoren, eta «bi idazle ezberdinen arteko anaitasunaren sinbolotzat» jo zuen. «Esanahi berezia du Antoñana gaur hona etorri izanak. Nafarroako idazle dekanoa da, garrantzitsuena, agian, eta bere lan guztiak gaztelaniaz egin arren, dakien euskararekin euskal idazle baten obra bat jendaurrean irakurtzera etorri da», adierazi zuen, esker onez.

Atxagak, halaber, azken boladan Nafarroan euskararen kontra bizi izan den giroa aipatu zuen, eta, «agintarien tontokerien aurrean», gizartean Antoñanaren eta beraren arteko anaitasunaren sinboloa gailenduko dela azpimarratu zuen.

Edurne Elizondo
IRUÑEA

Luther Guitar Junior Johnsonen blues doinuak entzuteko parada Getxon

'Got to find a way' bere azken lana dakar Gwendolyn aretora

Erredakzioa / **Bilbo**

LUTHER 'GUITAR JUNIOR' JOHNSON hiru Grammy saridun bluesmanak kontzertua eskainiko du gaur iluntzean Getxoko Gwendolyne aretoan. Mississippiko gitarrajoleak, bere The Magic Rockers taldea lagun duela, bere errepertorioko ale klasikoak eta berrienak taularatuko ditu. Kontzertu horrek *Got to find a way* bere azkenengo lana aurkezteko balioko du, gainera. Azken lan horrek blues tradizionalaren sailean Grammy saria jaso berri du.

Hiru Grammy guztira

Walkin' the dog, *You're gonna missme when I'm dead and gone*, eta *Got to find away* izan dira hiru Grammy sariak jasotzeko baliagarri izan dituen lanak. Luther Johnson Itta Benan, Mississippin jaio zen eta umetan ekin zion gitarra jotzeari. Hasiera batean gitarra akustikoarekin aritzen zen, baina laster hartu zuen esku artean gitarra elektrikoa, 11 urte zituela, hain zuzen ere.

Chicagora alde egitea erabaki zuen eta hango klubetan jaso zuen musika arloko jakintza, Magic Sam, Muddy Waters eta Howlin' Wolf bezalako musikarien zuzenenko ekitaldiak entzunez.

Sant Louis izan zuen beste geltokietako bat. Ez zuen askorik behar izan gitarra jolerik entzutetsuenen artean bere burua sartzeko. Lortutako arrakastari esker Magic Samen bandan jo ahal izan zuen bi urtetan. Bakarreko bideari ekin zion ondoren. eta izen handirik ez zuten zigilu txiki batzuekin single pare bat atera eta gero Muddy Watersen taldean sartu zen. Haiekin batera atera ahal izan zuen bere lehenengo lan luzea *UNK In funk*. gero beste bi atera zituzten *Luther's blues* eta *Muddy Mississippi Waters Live*. Han egitekoak egin zituela eta Bostonera alde egin zuen The Magic Rockers taldea sortzeko.

Lobo Antunes: «Isiltasunera eta musikara hurbiltzen saiatzen ari naiz»

'Exhortacion a los cocodrilos' eleberria aurkeztu du idazle portugaldarrak

Efe / **Madril**

Antonio Lobo Antunes, munduko idazle handienetako bat eta hainbatetan Nobel Sarirako hautagaia izandakoa, *Exhortacion a los cocodrilos* eleberriaren inguruan mintzatu zen atzo Madrilen. Bere idazle jardunaren inguruko hainbat kontu ere izan zituen hizpide, eta besteak beste, esan zuen Mahler-en *5. Sinfonia*, Beethoven-en *3. Sinfonia* eta beste hainbati erreparatu diela bere eleberrietako egiturak osatzeko. «Hala, ezinezko perfekziorantz noa, eta isiltasunera eta musikara hurbiltzen saiatzen ari naiz gero eta gehiago», Lobo Antunesen hitzetan.

SIRUELA argitaldariak kaleratu berri du *Exhortacion a los cocodrilos* eleberria Espainiako estatuan —duela bi urte argitaratu zen Portugalen— eta laster plazaratuko du Antonio Lobo Antunesen beraren obra guztien bilduma.

Lobo Antunesek psikiatria utzi zuen literaturan murgiltzeko, eta hamabi ordu ere egiten ditu idazten egun batean. Izan ere, lana da bere obsesioa. «Lan asko egiten baduzu puntu bat iristen da non eskua burua baino azkarragoa den eta eskuari jarraitu besterik ez duzun egin behar». Liburuak «organismo bizidunak» dira Lobo Antunesen aburuz: «Liburuek beren bizitza dute».



LUIS TORRES / EFE

Antonio Lobo Antunes (eskuinean) eta Jacobo Fizt James Stuart editorea.

Egitura sinfonikoa

Biolentzia, beldurra eta boterea jorratu ditu egileak *Exhortacion a los cocodrilos* liburuan, *Manual de Inquisidores* eta *Esplendor de Portugal* lanetan egin zuen moduan. Hainbat ahotsetako abesbatza bezala mintzatzen dira pertsonaiak, eta iragana, oraina eta etorkizuna nahasten dira haien kontzientzietan. Lau emakume, Krabelinen Iraultzako garaian diharduten eskuin muturreko lau terroristaren neskalagunak, dira *Exhortacion a los cocodrilos* eleberriko protagonistak. Egilearen hitzetan, hori da bere eleberririk onena.

Lobo Antunesek dio beste hiru eleberri baino ez dituela idatziko, eta haietan ez duela erabiliko bere ohiko estiloa: «Erronkak ez badira planteatzen ez du merezi ez bizitzeak ez idazteak».

Maitasun istorio bat da buruan dauzkan lan berrietako bat. Benetako istorio batean oinarrituko da egilea. Hiesa dela kausa hil zen trabesti bat, eta horren ostean bere buruaz beste egin zuen bere mutil-laguna dira protagonistak.

Idazteko garaian dituen eraginen inguruan ere mintzatu zen Lobo Antunes atzo –Faulkner edota Joyce-ren eraginak dituela esan ohi dute kritikariek–, eta zalantzarik izan gabe azaldu zuen bere kabuz egin dela idazle, eta telebista programa batek izan duela berarengan eragin handiena. Txorien kantuek sinfonien egitura zutela baieztatzen saiatu zen telebista programa hori. Programa hori ikusi ondoren hauxe esan zion bere buruari: «Hori da nik egin behar dudana, egitura sinfonikoa erabili, eta pertsonaiak izatea orkestra bateko musika tresnak bezalakoak». Lobo Antunesek musika ikasketak eginak ditu, eta horri esker eraman zuen ideia hori bere eleberrietara, «nire kabuz konposatzera iritsi nintzen arte».

Hori guztia garrantzitsuagoa da bere literaturan, Julio Verne, Alphonse Daudet eta miretsi izan dituen gainerako idazleak baino. Bi egile horien lanak irakurri zituen begiak «garbiak» zituenean. Begiradaren «inozotasuna» da garrantzitsuena Lobo Antunesen aburuz, «Joyceren itzulipurdi teknikoen gainetik, literaturarekin harreman sentsuala behar duen idazle batentzat».

Miarritzeko Besta Musikalek arrakasta handia izan dute, bai publikoaren aldetik, bai ikusgarrien kalitatearen aldetik

Biarritz Culture elkarteko arduradunek bere atseginaren berri eman dute aurtengo edizioaren bilanean

Erredakzioa / **Baiona**

BIARRITZ CULTURE elkarteak «ohiz kanpoko» edizio gisa baloratu du Miarritzeko besta kulturalen aurtengo ospakizuna. Hamargarren edizioak iaz baino % 30 ikus-entzule gehiago bildu ditu. Orotara 4.800 sarrera zenbatu dituzte, iaz baino mila gehiago.

Elkarteko arduradunek eta Micheline Banzet-Lawton zuzendari artistikoak «egitarauaren kalitateak» sortu dien atseginaren berri eman zuten. «Hiri handietako edo gela handietako programaketen gisako kalitatea» azpimarratu zuten. «Artista guztiak espero genuena baino harago joan dira», gehitu zuen Banzet-Lawtonek.

«Jazzaren publikoak aparteko besta jarraitu du Portal eta *free jazz*-aren gailurrean diren musikari guztiekin», Banzet-Lawtonen hitzetan.

Biarritz Culturek «kalitate handiko» bi orkestra bururen parte-hartzea ere azpimarratu zuen. Myung-Whum Chung «mende berri honetako orkestra buru handienetarik bat da» Banzet-Lawtonen ustez. Jean-Claude Casadesus Miarritzen agertzea biziki pozgarritzat jo zuen. Yuri Bashmet Miarritzen «hartzeko pribilejio ikaragarria» ere goraipatu zuen Biarritz Culture elkarteak. Bezperan Pekinen eta biharamunean Kolonian jotzen zuela azpimarratu zuen.

Biarritz Culture elkartea jadanik hasia da 11. edizioaren prestatzen. Harremanetan sartuak dira zenbaitekin. Heldu den urteko besta musikalak ere kalitate handikoa izan daitezen bilatzen du.

Damian Muñoz koreografoaren 'Asire' lana ikusi ahal izango da gaur Iruñean

Eszena 2000 dantza jaialdiko bigarren ikuskizuna da

Erredakzioa / **Iruñea**

DAMIAN MUÑOZ dantzari gasteiztarrak gaur arratsaldeko 20:00etan aurkeztuko du *Asire* lana Iruñean, Nafarroako Antzerki Eskolan. Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatu du emanaldia, Eszena 2000 dantza jaialdiaren barruan.

Asire koreografiaren egilea eta zuzendari artistikoa da Damian Muñoz, eta dantzari gisa ere ariko da emanaldian, Virginia Garcia, Silvia Machado, Valenti Rocamora eta Paco Nevadorekin batera. Borja Ramos da musikaren egilea.

Damian Muñozek iragan otsailean estreinatu zuen *Asire* Gasteizen. Bost pertsonaiaren bizitzako azken ordua kontatzen du *Asire* lanak. Joko baten moduan sortu zitzaion ideia egileari. «Bizitzaren azken orduan zer egin galdera aintzat hartuta, mundu sinestezin batean murgildu ginen, eta horrek ikerketa prozesu sakon batera eraman gintuen», Damian Muñozen hitzetan.

Atsekabea eta egonezina

Geratzen den denbora pasatzeko, agortzeko beharra erakutsi nahi du *Asire* koreografiak. Une horretako atsekabea eta egonezina. «Lehenengo uneetako irrealtasunak eta zentzugabekeriak izan ostean, barne gatazka sortzen da, erantzunik gabeko galderak etortzen dira, esan gabeko hitzak, gizakiaren arimaren baitan dauden asmo hilak», Damian Muñozek azaldu duenez.

Bost dantzariak erritmo biziaz aritzen dira hori guztia adierazteko. Izan ere, muturreko egoera da, eta hor nahasten dira magia, sentsualtasuna, ironia, bertigoa, hutsunea, samina eta samurtasuna.

Damian Muñozek 1995. urtean sortu zuen bere konpainia, eta urteotan 10 ikuskizun aurkeztu ditu.

Asier Altuna: «Tradizioen trilogia asmoa alde batera utzi dugu film luzeari ekiteko»

'Txotx' lanaren zuzendariak beren lehen film luzerako gidoia idazten ari dira

Jon Eskisabel / **Donostia**

Asier Altuna eta Telmo Esnal beren lehen film luzerako gidoia idazten ari dira. Bi zinemagileok arrakasta ezagutu zuten euskal tradizioen eta nekazari giroaren ikuspegi bukolikoaz eta nostalgikoaz trufatzen ziren beren lehen bi film laburrekin, *Txotx* eta *40 ezetz*. Film luzea itxurakeriazko istorio bat izango da, baserriko girotik kanpokoa.

EUSKAL tradizioen inguruko trilogia bat egiteko ideia izan zuten Asier Altunak eta Telmo Esnalek. Sagardotegiak eta idi apustuak filmatu ondoren, estropaden inguruko film labur bat egiteko asmoa zuten. «Getariako estropadetara joan ginen, eta Kortarekin hitz egin genuen. Munstro bat da Korta. Baina gero film luzearen egitasmoa sortu zen, ikusi genuen momentua zela jauzia emateko, eta, oraingoz, alde batera utzi dugu hura», azaldu du Altunak.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak zinemarako gidoiak idazteko bideratzen dituen diru laguntzetako bat eskuratu zuten Altunak eta Esnalek, eta horrek aukera eman die lana patxadaz hartzeko. «Oso lasai ari gara, oso gustura. Diru laguntzak aukera ematen du gidoiari behar besteko denbora eskaintzeko». Gidoia idazten dira oraindik, baina aurrera daiteke film luzeak ez duela zerikusi handirik izango *Txotx* edo *40 ezetz* laburrekin. «Baserriko giroa albora lagako dugu, eta 15.000 biztanleko herri batean kokatuko dugu itxurakeriaren inguruko istorioa».



GARI GARAIALDE

Asier Altuna zinemagilea, Donostian, atzo.

ASIER ALTUNA

«'Txotx' eta '40 ezetz' filmekin giro eta estilo propioak lortu genituen, eta hori izan zen garrantzitsuena»

Lehen bi film laburretatik zerbait nabarmentzekotan, estiloa nabarmenduko luke Altunak. «Oso berezkoa den giroa lortu genuen, eta hori oso garrantzitsua da. Umorea oso euskalduna zen, beltza eta lizuna. Jakin genuen euskal pertsonaia topikoei buelta ematen. Beti pentsatu izan da baserritarrak oso jende prestua eta zintzoa dela, eta horretaz barre egin nahi genuen», dio Altunak. Bi filmek arrakasta handia izan zuten, batez ere *Txotx*-ek, baita zenbait sari jaso ere. Hainbat jaialditan aurkeztu dira, eta oraindik hortik zehar ari dira pantailaratzen. Esaterako, *40 ezetz* Errusian eskainiko dute aurki.

Eztabaidak dira Altunaren eta Esnalen arteko lanaren oinarria. «Gidoia idazterakoan erraiak uzten ditugu. Filmaketan, berriz, ardurak banatuago daude. Telmok eramaten du gidaritza, ni bigarren mailan geratzen naiz».

Hitzaldia gaur, Donostian

Donostia Kulturak antolaturiko Berriketan zikloan hizlari izango dira gaur Asier Altuna eta Telmo Esnal, Larrotxene kultur etxean. *Txotx* eta *40 ezetz* eskainiko dira 20:15-ean, eta ondoren solasaldia izango da. Iñaki Elizaldek zabaldu zuen zikloa, eta Tinieblas Gonzalezek itxiko du, ekainaren 8an.

Jose Luis Rebordinos Donostia Kulturako zinema arduradunaren esanetan, «azken hamarkadan Euskal Herrian egin den film labur onenetakoa da *Txotx*. Argiztapena eta argazkia zoragarriak dira. Nabaritzen da zinema ondo ezagutzen duen jendeak egina dela».

Oliver Lake saxofoi jolearen laukoteak Donostian joko du gaur gauean

Worl Saxophone Quartet ezagunaren sortzaileetako bat izan zen musikaria

Erredakzioa / **Donostia**

JAZZ musikaren azken hamarkadetan ekimen ugaritan aritu den musikaria da Oliver Lake. Chicagoko Musika Sortzailea Bultzatzeko Elkartean (AACM) inspiraturik, Black Artist's Group musika kolektiboa sortu zuen 60ko hamarkadan. *Loft jazz* izeneko joera berriaren garapenean parte hartu zuen 70eko urteetan, eta 1976an World Saxophone Quartet *free jazz* talde arrakastatsua sortu zuen. Geldi geratzerik ez duten musikari horietako bat da Oliver Lake, beraz. Poeta ere bada.

Saxofoi altuaren eskala guztian mugitzeko duen erraztasunagatik Eric Dolphy gogorarazten du Lakek, baina, aldi berean, tresnari ateratzen dion soinu sarkor eta blues kutsukoak Maceo Parker handiaren eremura hurbiltzen du. Halaber, inprobisazioaren eta konposaketaren arteko nahasketaren barruan egiten dituen erritmo, doinu eta harmonia aldaketak dira Lakeren jotzeko ezaugarriak.

Gaur Donostiako Gaztesezena aretoan (20:30) bere laukotearekin izango da Oliver Lake: Reggie Washington (baxua), Lyndon Achee (bateria metalikoa) eta Damon Duewhiterekin (bateria).

irudietan

EGUNKARIA

Miren Bermudez txapeldun. Miren Bermudez dantzari irundarrak irabazi du Doinu Zaharren Euskadiko. II. Txapelketa. Bigarren tokian Itziar Arretxe geratu da, eta hirugarrenean Nagore Indakoetxea.

EGUNKARIA

John Kirkpatrick biran. Akordeoi jole ingelesak Euskal Herrian emango dituen hiru kontzertuetako lehena eskainiko du gaur Bilboko Euskalduna jauregian. Bihar Gernikan eta etzi Andoainen joko du.

GARI GARAIALDE

Garcia Berlanga Donostian. Nosferatuk, Rafael Azkona gidoigileari eskainitako zikloan, *El verdugo (Borreroa)* film ospetsua eskaini zuen atzo. Luis Garcia Berlanga zuzendaria emanaldira etorri zen.

Euskal kulturaren hamarkada erabakigarria aztertuko dute 'Euskonews & Median'

Arlo askotan inflexio puntu izan zen 1960-1970 tarteaz mintzatuko dira adituak

Iñigo Olabarri / **Bilbo**

Eusko Ikaskuntzaren *Euskonews & Media* astekari elektronikoak antolatuta, *Euskal kultura hamarkada erabakigarri batean 1960-1970* jardunaldia izango da gaur Bilbon. Astekari elektronikoan gai hori jorratu duten adituek euren iritziak trukatuko dituzte Bizkaiko Foru Artxibategian.

JAGOBA MANTEROLA

Patri Urkizu izango da hizlarietako bat.

• DYA	948171717
• Gurutze Gorria	088
• Errepideetako informazioa	948237000 948427500
• Guardia Zibila	948221100
• Eguneko Psikiatri O.	948273812/61
• Nafarroako Ospitalea	948422100
• Bideko Ama Birjina O.	948429400
• Noaingo aireportua	948168700
• Iruñeko Autobus geltokia	948223854
• Renfeko geltokia	948130202
• Radio Taxi	948221212
• Teletaxi	948232300

zozketak ◆

Bonoloto

Astelehena, 1	Asteartea, 2	Asteazkena, 3	Ostirala, 28
12 - 28 - 30 40 - 44 - 48	03 - 23 - 24 26 - 43 - 45	11 - 16 - 19 27 - 29 - 31	07 - 14 - 22 33 - 35 - 38
OSAGARRIA: 06	OSAGARRIA: 18	OSAGARRIA: 08	OSAGARRIA: 23
ITZULKETA: 2	ITZULKETA: 2	ITZULKETA: 8	ITZULKETA: 8

Lotteria primitiboa

Osteguna, 27	Larunbata, 29	Igandea, 30 Saritzarra
10 - 12 - 24 35 - 44 - 48	04 - 13 - 26 32 - 36 - 38	05 - 10 - 12 13 - 21 - 47
OSAGARRIA: 19	OSAGARRIA: 10	OSAGARRIA: 23
ITZULKETA: 9	ITZULKETA: 7	ITZULKETA: 3

ONCE

ASTELEHENA-1	ASTEARTEA-2	ASTEAZKENA-3	OSTEGUNA-27	Kupoitzarra OSTIRALA-28	Superkupoia IGANDEA-30
jaieguna	02.756	54.803	61.568	39.669	78.817
				180 seriea	026 seriea

telebista ◆ irratia

Euskadi Gazteko 'Hi bizi haiz hi' saioa Gasteizen egingo dute gaur

Irratsaio horretan Kemen elkartearen aldeko enkantea egiten ari dira

Erredakzioa / **Donostia**

Euskadi Gazteko *Hi bizi haiz hi* irratsaioa Miramongo estudioetatik atera eta lehenengo aldiz Gasteizen egingo dute gaur. Berezia izango da gaurko programa, eta hainbat sorpresa egongo dira.

EZOHIKO saioa egingo dute gaur Dani Arizalak eta Ainhoa Urkiak Gasteizko Caja Vital Kutxaren Dendaraba egoitzan, arratsaldeko 18:30etik aurrera. *Hi bizi haiz hi* sortu zenetik (duela lau urte) jendaurrean egingo duten lehenengo aldia izango da gaurkoa. Ezbairik gabe, ekimenak interesa sortuko du programaren jaraitzaileen artean, orain arte entzun eta imajinatu bakarrik egin dutena bertatik bertara ikusteko aukera izango baitute.

Astero parte hartzen duten kolaboratzaileak Gasteizen izango dira gaur: Anbotoko Mari sorginak eta Meiel aztiak jendarteko hainbat lagunen etorkizuna iragarriko dute, eta Amaia Vazquez sexologoak gazteen galderei erantzungo die.

EGUNKARIA

Betagarri musika taldeko zenbait kide elkarrizketatuko dituzte gaur *Hi bizi haiz hi* irratsaio berezian.

19:00etan, berriz, zenbait gonbidatu berezi izango dituzte *Hi bizi haiz hi* saioan: Betagarri musika taldeko kideak eta Igor Gonzalez de Galdeano txirrindularia.

Azkenik, aste honetan bertan saioak enkante bat hasi du, aldi honetako azkena, zeinak ekainaren 15a arte iraungo duen. Entzuleek bigarren eskuko gauzak jarriko dituzte salgai eta erosteko aukera ere izango dute. Salerosketan eskuratzen den dirua Kemen Euskadiko Elbarrien Kirol Elkarteak jasoko du, eta diruarekin kirola egiteko materiala erosi ahal izango dute.

Kemen elkartea ehun bat pertsona elbarrik osatzen dute, baina elbarritasunik gabeko kideak ere onartzen dituzte. Ez dute kiroletan soilik jarduten, eta ikasketa sustapenerako ikastaroak ere antolatzen dituzte. Horiei esker, elbarri gehiago daude kirola egin dezaketenak.

txoritxoari mokoka ◆ Ines Intxausti

Ezin dut ekidin

2000. urte telebisiboan sortu da gutxienez koadro psikologiko berri bat. Hemendik aurrera oso zabalduta egongo da bai psikologoen kontsultetan bai kaleko apreziazio humanoetan honako hau: «Lagun hau *Gran Hermano*-n sartzeko modukoa da». Eta sinets iezadazue, nik ezagutzen ditut lauzpabost horrelakoak. Atzo arte ez nekien ekoizpena zergatik egiten zitzaidan hain arrotza. Konexio bakoitzean beste munduko telebista ikusten egongo banintz bezala sentitu naiz. Hau da, Asiako herri exotiko batean zaude, hotel batean, eta bertako telebista pizten duzu. Ez duzu ezer ulertzen. Ez hitzak, ezta irudiak ere. *Gran Hermano*-n gauza bera gertatzen da. Hamar lagun horiek Espainako azken esperpento tipikoak dira. Telebistan edozein gauza egiteko prest dauden gazte mota berriarekin osatu baitute taldea. Eta ni ez naiz espainola. Are gehiago, atzoko artikuluan «hemengo» neska bat dagoela esan nuenean okerturik nenbilen zentzu batean. Izan ere, programaren sarrerako atalean —Aberri Eguna zen eta ez nuen aukera izan osorik ikusteko— Milak, seguraski bere efebo berria bilbotarra delako edo, *«y la vasca Vanessa...»* esan zuen nonbait. Vanessaren ama platoan zegoen, eta Milaren hitzak entzuterakoan aurpegia erabat aldatu zitzaion. Publizitatearen ondoren, Mercedesek zuzendu egin behar zuen esandakoa, eta barkamena eskatu zion neskari *vasca* zela esateagatik eta ez *navarra*. Beraz, bertan ez dago euskaldunik, nire zorionerako. Produktua ezin espainolagoa da. Ezin dut imajinatu hamar horiek baino pertsona zabarragorik. Eta saio arruntagorik ere ez. Hala eta guztiz ere, hori pellokeria hutsa da. Zeure burua pertsona normaltzat baduzu, gauza bera pentsatuko duzu, maitea. Tele 5ekoek, muga guztiak hautsi nahian dabiltzanez, erakutsiko dizkigute datorren egun hauetan manipulazioarekin zein leku sumaezineraino eraman dezaketen audientzia itsu zabarra. Hasteko, kanpoko telefono deiekin edozein balorazio nahi beste truka dezakete, saioaren ibilbidea zuzendu edota okertzeko. Baina argi dago *Gran Hermano* dela espainolek merezi duten saioa eta telebista mota. Askoz ere zintzoagoa iruditzen zait lagun batek ordenadorearen pantailara bidalitako orria. *Siento un dálmata* deitzen da. Bertan katuka begira dagoen neska harritu bat dago, eta dalmata batek atzean ipurditik itsatsia dalmata sodomita bat dauka. Horregatik dio *«siento un dálmata»*. Sentibera eta sentikorra delako. Gran Perro dalmata hori.

laburrean

Juan Jose Ibarretxe elkarrizketatuko dute gaur gauean ETB2an

Eusko Jaurlaritzako lehendakari Juan Jose Ibarretxe elkarrizketatuko dute gaur gauean, 21:30ean, ETB2 katean, *Teleberri* albistegiaren ondoren. Ajuria Enea jauregian egingo dute saio berezia, eta kazetariak Uxue Barkos eta Iñigo Herce izango dira.

Pedro Migel Etxenike 'Sorginen laratza' saioan

Euskal Herriko Unibertsitateko fisika katedradun Pedro Migel Etxenike gonbidatuko dute gaur ETB1 kateko *Sorginen laratza* saiora. International Physics Center-eko presidente izendatu berri dute Etxenike, eta Xabier Euzkitzerekin hainbat gaiez ariko da, 22:30etik aurrera. Bestetik, Ane Gabarain eta Jose Ramon Soroiz aktoreek *Bizikop* atala eskainiko dute.

Herri txikiak aztergai 'Bertatik bertara' saioan

Gazte jendeak alde egiten duela eta, herri txikiek bizirik irauteko dituzten eragozpenen inguruan jardungo dute gaur 21:15ean ETB1 kateko *Bertatik bertara* saioan. Joxe Mari Gabiria kazetaria Mutiloan izan da, eta bertan jendea bizitzen gelditzeko egiten ari den ekimenak kontatuko ditu. Horretaz gain, Iñaki Leturiak Gipuzkoako larreak hegazkinez nola ongarritzen dituzten erakutsiko du.

Quiero TV plataforma digital berria gaur hasiko da emititzen

Kapital pribatuko telebista digital berri batek gaur hasiko du bere ibilbidea 14 kate tematikorekin eta hainbat zerbitzu interaktiborekin. Quiero TV-ko bazkideek Interneten sartzeko aukera izango dute. Sei kate zinemakoak izango dira eta besteen gaiak bidaiak, musika, kirolak, haurrentzako saioak eta telesailak izango dira.

telebista ◆ irratia

Carlos Garaikoetxeari elkarrizketa

ETB1 • 09:30ean

Gaurko *El Punto...* saioan Carlos Garaikoetxea EAko lehendakari ohiarekin hitz egingo dute, egoera politikoari buruz.

Rosa Diezi elkarrizketa 'El informal'-en

T5 • 21:30ean

El informal umorezko saioan PSOEko Rosa Diezi egingo diote elkarrizketa. Felix Alvarez kazetariak egingo dio.

Kalamuaren propietateak aztergai

F2 • 20:50ean

Enjoyé spécial izeneko saioan kalamuak sendagai moduan erabiltzeko dituen propietateei buruz hitz egingo dute.

TVE1

06:00: **Canal 24 horas.**
07:30: **Telediario matinal.**
09:00: **Los desayunos de TVE.** Gonbidatua: Juan Carlos Aparicio.
09:50: **La usurpadora.**
11:20: **Saber vivir.**
12:45: **Así son las cosas.** .
13:35: **Noticias.**
13:45: **Magazine territorial.**
14:30: **Corazón de Primavera.**
15:00: **Telediario 1.**
16:00: **El Tiempo.**
16:05: **Calle nueva.** Telesaila
16:45: **Maria Emilia.** Telesaila
17:45: **Maria Emilia.**
18:40: **El precio justo.** Lehiaketa.
19:55: **Gente.**
21:00: **Telediario 2.** Albistegia.
21:55: **El tiempo.**
22:00: **Zinema.**
Vaqueros en Nueva York. Zuz.: Greg Champion. Akt.: Woody Harrelson, Kiefer Sutherland, Dylan McDermot. 1994.
00:10: **Cosas que importan.**
01:55: **Telediario 3.** Albistegia.
02:30: **Se ha escrito un crimen.**
03:30: **Corazón de Primavera.** Errepikapena.
04:00: **Telediario 4.** Albistegia.
04:30: **Huracán.** Telesaila.
05:15: **Gente.** Errepikapena.

LA 2

06:00: **Euronews.**
06:30: **El arca de Noe.**
07:00: **That's English.**
07:30: **TPH Club.**
09:30: **Empleate a fondo.**
10:00: **TV educativa: la aventura del saber.**
11:00: **Zinema.**
Rifles de Béngala. Zuz.: Laslo Benedek. Akt.: Rock Hudson, Arlene Dahl. 1954.
12:30: **Canciones de Eurovisión.**
13:00: **TPH Club.**
15:15: **Saber y ganar.**
15:45: **Grandes Documentales.**
16:50: **El escarabajo verde.**
17:50: **Hyakutake.**
19:00: **Salto al infinito.**
20:00: **Informativo territorial.**
20:30: **Goles europeos. Txapeldunen liga.**
22:00: **La 2 noticias.**
22:25: **El Tiempo.**
22:30: **La noche abierta.**
23:55: **Loteria primitiva.**
00:00: **Vertigo.**
01:00: **Los libros.**
02:00: **Conciertos de Radio-3.** Gorky´s zygotic mincy.
02:30: **Zinema.**
La moza del cántaro. Zuz.: Florian Rey. Akt.: Paquita Rico, Peter Damon. 1953.
03:45: **Zinema.**
Trigo limpio. Zuz.: Ignacio F. Iquino. Akt.: Nuria Espert, Victor Valverde. 1962.

TF1

05:50: **Papa revient demain.**
06:15: **Passioni.**
06:40: **TF1 info.**
06:45: **Météo.**
06:50: **TF! jeunesse.**
08:30: **Téléshopping.**
09:05: **La clinique sour les palmiers.** Foiletoia.
10:20: **Le docteur Mène l'enquête.** Telesaila.
11:15: **Dallas.** Telesaila.
12:05: **Tac o Tac TV.**
12:15: **Le juste prix.**
12:50: **A vrai dire.**
13:00: **Le journal.**
13:55: **Les feux de l'amour.** Foiletoia.
14:45: **Arabesque.** Telesaila.
15:45: **Magnum.** Telesaila.
16:40: **Pacific blue.** Telesaila.
17:35: **Sunsent beach.** Telesaila.
18:25: **Exclusif.**
19:05: **Le bigdil.**
19:55: **Hyper net.**
20:00: **Le journal.**
20:55: **Les Cordier, juge et flic.** Telesaila.
22:45: **Made in America:**
L'écho de la peur. Zuzendaria: Walter Kleinhard. Aktoreak: Josie Bissett, Jason Beghe.
00:25: **Formule foot.**
01:00: **TF1 nuit.**
01:10: **Météo.**
01:15: **Très pêche.**
02:05: **Reportages.**
02:30: **Idéal palace.**
03:20: **Histoires naturelles.**
04:25: **Musique.**
04:50: **Histoires naturelles.**

FRANCE 2

05:30: **La chance aux chansons.**
06:30: **Télématin.**
08:35: **Amoureusement vôtre.** Foiletoia.
09:00: **Amour, gloire et beauté.** Foiletoia.
09:30: **C'est au programme.**
10:55: **Flash info.**
11:00: **Motus.**
11:35: **Les Z'Amours.**
12:20: **Pyramide.**
12:50: **Rapports du loto.**
13:00: **Le Journal.**
13:50: **Un cas pour deux.** Telesaila.
16:00: **Tiercé.**
16:10: **La chace aux chansons.**
16:55: **Des chiffres et des letrres.**
17:30: **Nash bridges.**
18:20: **Face caméra.**
18:45: **Friends.** Telesaila.
19:15: **Qui est qui?**
19:50: **Un gars, une fille.** Telesaila.
20:00: **Le journal.**
20:50: **Envoye special.** Magazina.
23:05: **Zinema:**
Le destin. Zuzendaria: Youssef Chahine. Aktorea: Nour El Cherif.
01:20: **Le journal.**
01:45: **Nikita.** Telesaila.
02:25: **Mezzo l'info.**
02:40: **Urti.**
03:10: **Les Z'Amours.**
03:40: **24 heures d'info.**
04:00: **Délirenlair.**
04:15: **La vie a l'endroit.**

FRANCE 3

06:00: **Euronews.**
06:40: **Les minikeums.**
08:45: **Un jour en France.**
09:55: **Corky, un enfant pas comme les autres.**
10:40: **Drôles de dames.**
11:30: **Bon appetit, bien sur.**
11:55: **Le 12-13.**
13:20: **Regions.com.**
13:45: **Keno.**
13:55: **C'est mon choix.**
14:50: **Telefilma:**
Tel père... quel fils! Zuzendaria: Jay Sandrich. Aktoreak: Jack Lemmon, Jonathan Silverman.
16:20: **Les zinzins de l'espace.**
16:35: **Les minikeums.**
17:45: **Le kadox.**
18:20: **Questions pour un champion.** Lehiaketa.
18:45: **Un livre, un jour.**
18:50: **Le 19-20.**
20:05: **Fa si la.**
20:35: **Tout le sport.**
20:55: **Zinema:**
Malice. Zuzendaria: Harold Becker. Aktoreak: Alec Baldwin, Nicol Kidman.
22:45: **Soir 3.**
23:20: **Prise directe.**
00:3: **Saga-cites.**
01:00: **Espace francophone.**
01:25: **C'est mon choix.**
02:10: **Nocturnales.**
02:45: **Amaiera.**

A 3

07:10: **Cosquillas magicas.** Telesaila.
07:40: **Club Megatrix.** Haurrentzako saioa.
09:15: **Noticias.** Albistegia.
09:30: **El primer café.**
10:30: **Antena 3 directo.**
11:00: **Como la vida misma.**
13:30: **Farmacia de guardia (Nafarroan).**
13:35: **Albistegia (EA-En).**
14:00: **Nada es para siempre.** Telesaila.
14:30: **Sabrina.**
15:00: **Noticias 1.**
16:00: **Sabor a ti.**
19:15: **Alta tensión.**
20:30: **Los Simpson.**
21:00: **Noticias-2.**
21:55: **Sorteo del cupón de la ONCE.**
22:00: **Manos a la obra.** Telesaila.

23:30
Abierto 24 horas

Telesaila.

00:45: **Alerta 112.**
01:30: **Noticias 3.**
02:00: **The marshal.** Telesaila.
03:00: **Televenta.**
04:35: **Zinema.**
El hombre elefante. Zuz.: Jach Hofsiss. Akt.: Glen Close, Philp Anglim. 1982.

T 5

05:45: **Avance programación.**
06:30: **Informativos Telecinco.**
10:00: **Vacaciones en el mar.** Telesaila.
11:00: **Gran hermano.**
11:20: **Día a día.**
14:00: **El juego del eromillón.** Lehiaketa.
14:30: **Informativos Telecinco.** Albisteak.
15:25: **Al salir de clase.**
16:15: **Gran hermano.**
16:50: **Zinema.**
El oscuro camino a casa. Zuz.: Glen Jordan. Akt: Rebecca De Mornay. 1999.
18:50: **Historias de hoy.**
19:45: **¿Quiere ser millonario?** Lehiaketa.
20:30: **Informativos telecinco.** Albistegia.
21:30: **Gran hermano.**
21:45: **El informal.**
22:05: **7 Vidas.**

23:00
Ally McBeal

Telesaila.

00:00: **Crónicas marcianas.**
02:00: **Informativos telecinco.**
02:45: **Infocomerciales.**
04:45: **Zinema.**
Canción triste del día de boda. Zuzendaria: Paul Lynch. Aktoreak: Barbara Billingsley, Eileen Brennan. 1988.

M 6

05:50: **M comme musique.**
08:00: **M6 express.**
09:05: **M6 boutique.**
11:55: **M6 express.**
12:05: **Moesha.**
12:35: **Docteur Quinn, femme médecin.** Telesaila.
13:35: **Telefilma.**
Le coeur en équilibre. Zuzendaria: John Erman. Aktoreak: Tyne Daly, Terry O'Quinn.
15:20: **Raven.**
16:10: **M comme musique.**
17:35: **Les nouvelles aventures de Robin des bois.**
18:30: **Loïs et Clark.**
19:15: **Cosby show.**
19:54: **6 minutes.**
20:05: **Notre belle famille.**
20:40: **Passe simple**
20:50: **Stargate: SG-1.** Telesaila.
22:35: **The crow: stairway to heaven.**
00:20: **Chapeau melon et bottes de cuir.**
01:10: **M comme musique.**
02:10: **Turbo.**
02:40: **Fan de.**
03:05: **Des clips et des bulles.**
03:25: **Everlast.**
04:10: **Frequenstar.**
05:00: **Live Stage.**
05:25: **Plus vite que la musique.**

CANAL + (e)

06:00: **Música noche. Sibelious Sinfonias 1 y 2.** 07:31: **Cuadernos de rodaje.** 08:00: **Noticias CNN+.** 08:20: **No va+.** 09:10: **Lo + Plus.** 10:00: **Zinema: El coductor.** 11:21: **Zinema: Oscar y Lucinda.** 13:30: **Los 40 principales.** 14:00: **Más deporte.** 14:55: **CNN+. Noticias.** 15:00: **Los lios de Caroline.** Telesaila. 15:30: **Documental supervivencia.** 16:23: **Zinema: Los méritos de Madame Curie.** 18:08: **Piezas.** 18:28: **Zinema: Heroes a la fuerza.** 20:00: **Lo + Plus.** 20:50: **Previo baloncesto.** 21:00: **ACB.** 22:45: **Zinema: Go for gold (¡A por el oro!).** 00:27: **Nuestro cine.** 00:43: **Zinema: El faro.** 02:03: **Zinema: A caer el sol.** 03:35: **Zinema: Juguetes de guerra.** 05:16: **Zinema: Mi hija Hildegart.**

CANAL + (f)

07:00: **Le journal de l'emploi.** 07:05: **Teletubbies.** 07:30: **TV+.** 08:30: **Zinema: J'aimerais pas crever un dimanche.** 09:55: **La télé des fous.** 10:10: **Le journal du cinéma.** 10:15: **Zinema: Le grand galop.** 12:00: **La semaine des guignols.** 12:25: **Flash info.** 12:30: **Le journal du cinéma.** 12:40: **Un autre journal.** 13:40: **Le journal de l'emploi.** 13:45: **Le journal du cinéma.** 14:05: **Zinema: Disparus.** 15:55: **Le vrai journal.** 16:45: **Zinema: Trafic d'influence.** 18:25: **Flash info.** 18:20: **Nulle part ailleurs.** 19:30: **Football.** 20:00: **Multifoot.** 22:00: **Jour de foot.** 23:00: **Exodes.** 23:05: **Zinema: Festen.** 00:45: **Surprises.** 00:50: **Spin city.** 01:10: **Seinfeld.** 01:35: **Dilbert.** 02:00: **Golfa.** 03:25: **Izotz Hockeya.** 05:25: **Zinema: Babel.**

LA CINQ

03:00: **C'est mercredi.** 04:45: **Le journal de l'histoire.** 05:30: **Les amphis de la cinquième.** 06:25: **Méthode Victor.** 06:45: **Ça tourne Bromby.** 08:10: **Les écrans du savoir.** 10:00: **Passe-partout.** 10:20: **Les grandes aventures du 20e siècle.** 10:50: **Arrêt sur images.** 11:45: **Cellulo.** 12:15: **Studio conseils.** 12:45: **100% question.** 13:10: **Le monde des animaux.** 13:40: **Le journal de la santé.** 14:00: **Les enquêtes du National Geographic.** 14:30: **La cinquième rencontre...** 15:25: **Entretien.** 16:00: **Je veux mon entreprise (4/4).** 16:35: **Alfred Hitchcock presente.** 17:00: **Silence, ça pousse!** 17:10: **Fête des bébés.** 17:30: **100% question.** 17:55: **Côté cinquième.** 18:30: **Le monde des animaux.** 18:55: **C'est quoi la France?**

ARTE

19:00: **Cuba.** Dokumentala. 19:45: **Arte info.** 20:15: **La médecine de demain.** 20:45: **Zinema: Je pense à vous.** 22:10: **Managers, encore un effort!** Dokumentala. 23:05: **Débat.** 23:35: **Ikea en kit.** Dokumentala. 00:20: **Le grand Nettoyage.** Dokumentala. 01:15: **Cambodge, la terre des ames errantes.** Dokumenala. 03:00: **Amaiera.**

telebista ◆ irratia

Gorky´s Zygotic Mynci Radio 3-eko kontzertuan

La2 • 01:30ean

La2 katean, *Los Conciertos de Radio 3* saioan, Gorky´s Zygotic Mynci taldearen kontzertua emango dute gaur.

ETB 1

06:25: **Bertatik Bertara.** Errepikapena.
07:00: **Superbat.** Marrazki bizidunak eta telesailak. 'Sable zalduna eta izarretako sheriffak', 'Ninja Dortokak', 'Hirukiak', 'Hartz txiki', 'Dinosauroen harana', 'Tom eta Jerry', 'Addams familia', Bugs Bunny', 'Pumby'.
09:10: **Euskal Herrritik.** Dokumentala.
09:40: **Hau komeria.**
10:10: **Sorginen laratza.** Errepikapena.
11:35: **Bidaide.** Dokumentalak.
12:55: **Iparraldearen orena.**
13:05: **Sylvan.** Marrazki bizidunak.
13:30: **Gaur egun.** Albistegia.
14:05: **Otorduan Karlos Argiñano.** Oilaskoa laranjarekin.
14:25: **Goenkale.** Errepikapena.
15:05: **Gizona eta txakurra.** telesaila.
15:30: **Bidaide.**
16:25: **Egin kontu.**
18:05: **Sheherazzade printzesa.**
18:35: **G. I. Joe soldaduak.**
18:55: **Parker Lewiswk ez du sekula galtzen.** Telesaila.
19:20: **Bosteko familia.** Telesaila.
20:05: **Otorduan Kalos Argiñano.** Oilaskoa laranjarekin.
20:28: **Gaur egun.**
21:15: **Bertatik bertara.**
21:45: **Goenkale.**
22:30: **Sorginen laratza.**
00:00: **Euskadi Gaztea.**
01:05: **Bakarrik.**
02:50: **Egin kontu.**
04:25: **Tigrearen lurraldea.**
05:15: **Elkartasunaren bideak.**
05:40: **Ikusgela.**

ETB 2

07:15: **Del pais de los vascos.** Agotes.
07:35: **La historia de Euskal Herria.**
08:10: **Palabras de ley.**
08:40: **Vida salvaje.** Pájaros del amazonas.
09:30: **El punto...** Gonbidatua: Karmelo Sainz de la Maza (EUDEL-eko presidentea).
10:00: **Forum.** Gonbidatua: Ander Lipus.
10:30: **La cocina de Pedro Subijana.**
11:00: **El show de Jeff Foxworthy .**Telesaila.
11:25: **Luz de Luna.** Telesaila.
12:15: **Remington Steele.** Telesaila.
13:05: **Bonanza.** Telesaila.
13:40: **Informativo territorial.**
14:00: **¡Mira, Mira!**
14:28: **Teleberri.**
15:30: **Lo que faltaba.**
17:50: **Zinema.**
Río sin retorno. Zuz.: Otto Preminger. Akt.: Marilyn Monroe, Rony Calhoun, Robert Mitchum. 1954.
19:20: **Esta es mi gente.**
20:30: **Mejorando lo presente.**
20:58: **Teleberri.** Juan Jose Ibarretxeri elkarrizketa.
22:00: **Zinema.**
La guerra de los Rose. Zuz.: Danny De Vito. Akt.: Michael Douglas, Kathleen Turner, Danny De Vito. 1989.
00:15: **Zinema.**
Aulas turbulentas. Zuz.: Spike Lee. Akt.: Larry Fishburne, Giancarlo Esposito, Tisha Campbell. 1988.
02:15: **Lo que faltaba.**
04:15: **Forum.**

gaurko filmak

Ane Muñoz

■ LA GUERRA DE LOS ROSE. Danny De Vito (*Matilda*, 1997) aktore eta errealizatzaileak zuzendutako bigarren film arrakastatsu honek ez du aurkezpenik behar. Rosetarrak, gero eta okerrago moldatzen diren senar-emazte gazteak dira. Filmaren erdialdetik aurrera gorroto bizia sortuko da bien artean, eta batak besteari egingo dizkion gaiztakeria gehiegizkoek —astakeria galantak— ikusleak izutzea eta ezeroso sentitzea lortuko dute. Michael Douglas eta Kathleen Turner izar garestiek osatzen dute bikote hori. Aktore erakargarriak dira, bai, baina ez dira askorik luzitzen kameraren atzealdean ezkutatu den De Vitoren aginduetara. Nahikoa komedia entretenigarria da, umore beltzez bustia, eta, tarteka, elkarrizketa azkarren bat ere entzungo duzue. Bestalde, batak besteari egingo dizkion joko maltzurrak ezatseginak eta basatiegiak dira.

■ RIFLES DE BENGALA. Abenturazko zinta zahartxo honek ez du balio handirik, baina zuzena da, eta batik bat gustura ikusten da Rock Hudson aktore guapoari esker. Benedek zuzendariak beste aktore interesgarri batzuk ere deitu zituen Hudson erakagarriaren alboan aktore talde polita osatzeko; Arlene Dahl azaltzen da, tartean. Ingelesek India kolonizatuta zuteneko garaian kokatua dago, eta Rock Hudson izarra da protagonista hutsa. Zuzendariak artxiboko irudi ugari erabili zituen, eta filmatutako planoekin muntaketa onargarria lortu.

■ TRIGO LIMPIO. Ignacio F. Iquino errealizatzaileak zuzendutako melodrama politiko eskuindar zahar hau zuzena da kalitate aldetik, argumentua eta edukiaren mezua erabat atzerakoiak diren arren. Zuri-beltzezko argazki landua eta narraketa zuzena azpimarratzekoak ditu. Nuria Espert da protagonista, Ismael Merloren eta Victor Valverderen alboan. Oso berandu igorriko dutela ohartarazten dizuet.

Mitchum eta Monroe izarrak ibaian behera

■ RIO SIN RETORNO. Otto Premingerren klasiko honek mitozaleak gustura bilduko ditu pantaila txikiaren aurrean, hamaikagarren aldiz igorriko duten arren. Izan ere, izar distiratsuek argiztatzen dituzten sekuentziez osatutako abenturazko melodrama ederra baita, oso polita, gozagarria, eta une entretenigarria igarotzeko aproposa. Paregabeak dira, adibidez, Marilyn Monroe eta Robert Mitchum izar maitaleak ibaian behera doazeneko planoak, dekoratu naturaletan filmatuak.

Rifles de Bengala	♠♠♠	
1954, Laslo Benedek, 84 m.		11:00 La2
El oscuro camino a casa	♠♠	
1999, Glenn Jordan, 93 m.		16:50 T5
Río sin retorno	♠♠♠♠	
1954, Otto Preminger, 82 m.		17:50 ETB2
Je pense à vous	♠♠♠	
1991, L. eta J.P. Dardenne, 85 m.		20:45 arte
Malice	♠	
1993, Harold Becker, 105 m.		20:55 F3
Vaqueros en Nueva York	♠♠	
1994, Gregg Champion, 102 m.		22:00 TVE1
La guerra de los Rose	♠♠♠	
1989, Danny De Vito, 111 m.		22:00 ETB2
Le desdin	♠♠♠	
1997, Youssef Chahine, 135 m.		23:05 F2
Aulas turbulentas	♠♠	
1988, Spike Lee, 115 m.		00:15 ETB2
La moza del cántaro	♠	
1953, Florian Rey, 74 m.		02:30 La2
Trigo limpio	♠♠♠	
1962, Ignacio F. Iquino, 92 m.		03:45 La2
El hombre elefante	♠♠	
1982, Jack Hofsiss, 82 m.		04:30 A3
Canción triste del día de boda	♠♠	
1988, Paul Lynch, 91 m.		04:45 T5

♠ TXARRA ♠♠ ESKASA ♠♠♠ BALEKOA ♠♠♠♠ ONA ♠♠♠♠♠ BIKAINA

Marilyn Monroe da *Río sin retorno* pelikulako antzezleetako bat.

irratia ◆

Bilbo Hiria irratia. 10:00etan hasi eta 13:00ak bitartean, *Ibaizabal* magazinean, gai ugariri buruzko kontuak entzuteko aukera izango da. Jon Torrek, Itoizko urtegiari buruz egingo du berba, eta Joseba Maciasek hitzaldi batzuen berri emango du. Hitzaldi horietan, Guatemalako eta Chiapasko jendeak hartuko parte. Aurrerago erakusketa bat egingo dute gai horri buruz. Gainera, ohiko kolaboratzaileak ere bertan izango dira: Irigarai eta *Argia*-ko Xabi Letona. Arratsaldeko 16:00etan, *Haratago* eztabaida saioa eskainiko dute. Ondoren, 17:30ean, *Ziutateaz* magazina izango da. Bertan, Jauko Barik musika taldeak bere azken diskoa aurkeztuko du. Elkartasunaren Egunaren antolatzaile batekin ere hitz egingo dute saioan. Elkartasunaren Eguna larunbatean egingo da Bilbon. 20:00etan, mendizaletasunaren gaia jorratzen duen *Igo eta jeitsi* saioa eskainio du Felipe Iñarrak.

Euskalerria Irratia. Goizeko 08:30ean, goizeko albistegia eskainiko dute. 10:00etan *Zokobetailu* magazinaren txanda helduko da, eta bertan bi elkarrizketa egingo dituzte: Ander Arrazola medikuari bata, eta Koldo Azkonari bestea. Eguerdiko 13:30ean, *Egunean egunekoa* informatiboa eskainiko dute, eta arratsaldeko 15:00etan, *Bazkalburukoa* saioa izango da. Saio horretan musika eta albisteak tartekatzen dituzte.

Ohorezko Lehendakaria: MARTIN UGALDE • **Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** JOAN MARI TORREALDAI • **Kontseilari Ordezkaria:** IÑAKI URIA • **Zuzendaria:** MARTXELO OTAMENDI • **Gerentea:** FERNANDO FURUNDARENA • **Publizitatea:** IDOIA SANZ.
Egoitza Nagusia: Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain ✆ 943300222 / Erredakzioko faxa: 943300255-943590354 / Publizitateko faxa: 943300707 • **Web gunea:** www.egunkaria.com
• **Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com / **publizitatea:** publi@egunkaria.com

Egunkaria
Osteguna, 2000ko maiatzaren 4a
XI. urtea / 2.918. zenbakia

Batzorde Parekidea: 72564 E • Lege Gordailua: SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDk IKUSKATURIKO HEDAPENA
Ordezkaritzak: • **Araba:** San Antonio, 20-1. ezker / 01005 Gasteiz / ✆ 945233872 / Faxa: 945233873 Publizitatea: ✆ 945131965 • **Nafarroa:** Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea / ✆ 948178078-79 / Faxa: 948178077 / ✆ Publizitatea: 948176686 • **Bizkaia:** Egia Jenerala, 3-behea / 48010 Bilbo / ✆ 944104046 / Faxa: 944103715 / ✆ Publizitate Orokorra: 944701199-80 / Publizitate Lokala: 944701114 • **Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pannecau 14, 1/503 Posta kutxatila, 64100 Baiona / ✆ 559593575 / Faxa: 559257511

'Torito', Guinness errekorretik urrun

JOSU ETXEBARRIOSTE

Goian, Jose Olabarrieta jabea *Torito* idia

Zorrotzako hiltegira eramaten. Behean, idia hilda.

Atzo Bilboko hiltegian hil zuten idi handiak ez zuen 1.204 kiloko pisua gainditu

JOSU ETXEBARRIOSTE

1997. URTEAN hil zuten Guinness errekorra duen idi itzela. Derion hazitako animalia hark 1.204 kiloko pisu garbia zuen. Jabea, Santos Aurrekoetxea. Munduan oraindik ez dute idi handiagorik hiltzerik lortu. Hori bai, saiatu, saiatzen dira. Atzo bertan, eguerdi aldera, poza eta tristura, biak batera, zuten Bilboko hiltegian. Jose Olabarrieta Goierriko baserritarrak familia osoa bertan bildu zuen, *Torito*, «etxeko kidea zena», hiltzen ikusteko. Ordu horretan 1.440 kilo pisatzen zuen idiak. Neurriak ere harritzekoak ziren: 3 metroko perimetroa, 1,78 metroko altuera eta 2,80 metroko luzera.

Olabarrietak, makila eskutan, animalia «penaz» agurtuko zuela onartu zuen, «zortzi urtez baserrian eduki ondoren». *Torito*-k ukuilu handi batean egiten zuen bizitza. Egun, Erandioko baserritarrak beste hainbat idi ditu baserrian, baina «bat ere ez *Torito* bezain handia».

Animaliak lasai zegoela ematen zuen, euskal musika belarri ondoan bazuen ere. Jose Olabarrietak azaldu zigun Ercoreca supermerkatu kateak erosi diola *Torito*, «kiloa 1.500 pezetan». Erlojuan 12:25ak zirenean, zezena hiltegian barrena eraman zuten. Familia osoa eta hainbat lagun atzetik abiatu ziren, bata eta txano zuriak jantzirik.

Teknologiak eta metodologiak azken urteetan zer-nolako garapena izan duen ikusteko aukera paregabea eskaintzen du Bilboko hiltegiak. *Torito* buruan tiro bakar batekin hil ezin eta bigarrena eman zioten. Olabarrietaren emazteak atsekabez begiratzen zion animaliari. «Zortzi urte izan dira *Torito*-ri egunero jana ematen, eta orain horrela ikusteak pena ematen dit», azaldu zigun Miren Olabarrietak.

Aitak ez zion animaliaren prestaketari begirik kendu. Tristura nabarmen zuen aurpegian. Baskulara 13:15ean heldu zen idia, garbi eta jadanik bi zati eginda. Orduan zetorren erronka. Lehen zatiak 512 kilogramo eta bigarrenak 507. Guztira, beraz, 1.019 kilogramo; gainditu beharreko Guinness errekorretik nahiko urrun. Jadanik lan guztiak bukatutzat eman zuten hiltegian. Poztasun aurpegiak aldatuta, idia probatzera joan ziren bertokoak. Hori bai, pisuaren inguruko apustuek, *Torito* baskulatik pasatzean, diru mugimendua eragin zuten lantegian. Gehienek, mila kilora iritsiko ez zelakoan, diru zorroa atera behar izan zuten.

Atzoko ahaleginak erakutsi du Guinness errekorra lortzeak gero eta esfortzu handiagoa eskatzen duela, nahiz eta *Torito*-k «ezer berezirik ez jan». Sinetsi egin behar.

Iker Gomez
BILBO

Servicios Inmobiliarios
KURSAL, S.L.
Inmobiliari Zerbitzuak
ETXEBIZITZAK SALGAI
LARRATXO-DONOSTI - Igogailua, 4 logela, 2 bainu, Garajea, trasteroa
ANDOAIN – ETXE-ADOSATU EDERRA - 4 logela, 3 bainu, txoko, e.a
NAFARROA- MILAGROn Etxebizitza
NAFARROA-CAPARROSOn bi solairuko etxea, baratze txiki batekin.
ERRIOXA-STO.DOMINGOn - Etxebizitza haundia, 4 logela, 2 bainu, egongela haundia, 600 m.ko lur soroa, e.a.
Tel. 943293715 / T.Mug. 667 709072

barkatu ama

Elkartasun eguna Bilbon

aste honetan

ABLEak Ixteko Mugimendua · Xahutondoren azkena · Flitter · Joseina Etxeberria

Internet en irristatzen

jabi zabala
irristatzen@egunkaria.com

Ume gaiztoak

'Phreaker'-ak ez dira gaizkile hutsak

Interneten era guztietako gaiztakeriak biltzen diren ustea zabaltzen dute saretik kanpo haren gainean gutxien dakiten hedabideek: pedofiloen, droga saltzaileen, terroristen eta pirata informatikoen bilgunea den halako Tortuga uharte berria dirudi sareak guztiz *offline* dauden albistegietako aurkezleen ahoetan, hori guztia sexuaren inguruan dagoen industria aitatu barik. Egia da horrelako jarduerak badirela sarean, handik at bezalaxe, baina guztiz marjinalak diren arren Internet hitzarekin erlazionatzean irudi faltsu hori sortzen da konektaturik ez dauden askoren buruan.

Phreaker-en kasua izugarri exajeratu den jarduera baten adibidea da. Euren jakituria hainbat zerbitzu ordaindu gabe erabiltzeko erabiltzen dituztenak dira *phreaker*-ak, eta helburu maltzurrekin aritzen direnak *cracker*-ak dira besterik gabe. Hala ere, sailkapen honetan ez dago erabateko adostasunik eta beste hitz batzuk ere badabiltza hortik,

hainbat jarduera mota sailkatzeko.

Phreaker-ak legez kanpoko jarduera bultzatzen dituzte: kodetutako telebista ikusteko kodeak eta programak zabalduz, telefono kabinetatik doan deitzeko trikimailuak asmatuz, sakelako telefonoen txartelak klonatzeko bideak erakutsiz... Jakintza hori guztia zabaltzean jarrrera nolabait «politikoa» dutela argi dago, eta ez dute aberastearren jarduten. Normalean garrantzi gutxiko kaltea eragiten dute etsai dituzten enpresa handien fakturazioan.

Legez kanpoko ekintzen zirrara sentitzeko ari dira, euren aurkikuntzak publikatzeko arriskatzen dira. Ez dira ohiko gaizkileak, haiek ezkutuan ibiltzen baitira. Hauek sareko ume gaiztoak besterik ez dira. Batzuk aipatzearren, CPNE, Akelarre, Twisted Minds, Twin Phreaks eta TDD.

Helbideak:

CPNE
- cpne.cjb.net/

Akelarre
- members.tripod.com/~grupo_akelarre/

TDD
- www.webcrunchers.com/tdd



AHTren kontrako bizikleta martxa

Proiektu txikitzaileen aurka

Tolosa eta Irun arteko bizikleta martxa egingo da asteburu honetan, AHT gelditzeko eskatuz. AHTren Aurkako Asanbladak antolatu duen martxa horren helburua maiatzaren 20an Irunen eta Hendaian egingo den manifestaziorako deialdia egitea da, AHTren egitasmoa eta gainerako azpiegitura lan erraldoiak geldiaraztea eskatzeko. Lehenengo etapa Tolosa-Tolosa izango da, eta arratsaldeko 20:00etan hasiko da. Bigarrena Tolosatik abiatuko da goizeko 10:00etan, eta hainbat herri igaro ondoren, Errenteriara iritsiko da 20:00ak aldera. Igandean, goizeko 10:30ean abiatuko da martxa eta 13:30erako iritsiko da Irunera.

Lehiaketak

Gazteak eta arrazakeria ■ Arrasate. Gazteak eta arrazakeria gai hartuta, argazki lehiaketa antolatu du Arrasateko Udalak. Lehiaketa bi mailatan banatua egongo da: Debagoieneko 14-18 bitarteko gazteak eta 19-35 urte bitarteko edozein. Lanak aurkezteko epea urriaren 11n amaituko da, eta helbide honetara bidali behar dira: Udaleko Gazteen Zerbitzua, Udaletxea, 20.500 Arrasate. Posta elektronikoa: gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net. Informazio gehiago eskuratzeko telefonoa: 943 77 00 65

Erakusketak

Rocka eta argazkia. ■ Durango. J..A. Areta Goñi Juxe argazkilariaren lana ikusgai izango da hilaren 14 arte Durangoko Berbaro tabernan. Juxek rock kontzertuetan ateratako irudiak biltzen ditu erakusketak, eta, besteak beste, Hellacopters, Flaming Sideburns, Nomads, Zen Guerrilla, Nashville Pussy, Crettin 66, Hydromatics eta Supersuckersen argazkiak ikus daitezke.

Ikastaroak

Komiki tailerra ■ Basauri. Rober Garai komikigileak gidatuko du tailerra, eta 14 urtetik gorako gazteei zuzenduko zaie. Ekainaren 8ra egingo da, astearte eta ostegunetan, 18:30etatik 20:30etara.

Proposamenak

Gazte astea ■ Eskoriatza. Eskoriatzako Gazte Asanbladak (EGAS) antolatu du Gazte Astea eta igande arte iraungo du. Gaur, 19:00etan, Kalamudia elkarteko kide batek hitzaldia eskainiko du Gazte Asanbladaren lokalean, eta 22:00etatik aurrera ikasleen gaua hasiko da: garagardo festa, triki poteoa, eta dantza lehiaketa plazan (00:00etan). Bihar, ostirala, okupazioari buruzko hitzaldia izango da kultur etxean, 19:00etan. Donostiako Etxe Okupatuen Asanblada eta Duinako partaideek hartuko dute parte. 22:30ean kontzertua izango da Bi Luma taldearekin Unibertsitateko aretoan. Amaitzeko, larunbatean Akelarrea izango da Aitzorrotzen.

Bertso astea Oiartzunen

Larunbatarekin batera bertso astea hasiko da Oiartzunen, eta hilaren 13ra bitartean bertsoaren inguruko hainbat ekitaldi jasoko ditu:

Maiatzak 6: Bertsoa, poesia eta zerbait gehiago Pagoa garagardotegian, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Aitor Sarriegi eta Karlos Aizpuruarekin (19:00etan)

Maiatzak 7: On Manuel Lekuona bertsopaper lehiaketako sari banaketa Oiartzungo udal areto nagusian (11:30ean). Ondoren hamaiketakoa izango da. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera jaialdi nagusia Elorsoro kiroldegian, honako bertsolari hauekin: Joxe Agirre, Maialen Lujanbio, Jon Martin, Martiarena, Jokin Sorozabal, Sustrai Kolina eta Jexux Mari Irazu.

Maiatzak 12: Herri txapelketako finala Girizia elkartean, 21:00etatik aurrera (Ainhoa Agirreazaldegi, Juanito Mitxelena, Xumai Murua, Koxme Lizaso, Amets Arzallus eta Zuhaitz Lizarralde ariko dira).

Maiatzak 13: Bertso berriak, oiartzuarrek jarriak. Iluntzeko 19:30etik aurrera, Gaztetxean, Sorgin Zulon eta Amazkarren.

argitalpena

'Ostiela!'

Kalean da jada 2000. urteko udaberriari dagokion *Ostiela!* aldizkaria. 17. zenbakia da argitaratu berri dutena, eta bi ardatz nagusi ditu: sexua-pornoa eta utopia. Gai nagusia sexua eta pornoa dira: *Lizunki* izeneko gehigarria, idazlan bereziak, komikiak... sexu zein pornoaren alderdi ugari landu dituzte. Bigarren gai nagusian, berriz, Jon Aranok Mikel Aramendiri egindako elkarrizketa nabarmentzen da gehien.

Bi ardatz nagusi hauez gain, aldizkariaren ohiko ataletan, Benigniren testu bat itzuli dute kulturan. *Jainko ezinhobearen aurka* da idazlanaren izenburua. Gizartea sailean, berriz, *Cromagnongo geneak euskaldunak ote?* gaia jorratu du Inazio Ayestaranek.

Zinema

Rock & Zinema ■ Donostia. Rockak eta zinemak izan duten harremanari buruzko zikloa egiten ari dira Donostiako Lugaritzen eta oraindik bi film ikusi ahal izango dira. Maiatzaren 11n *The Commitments* filma eta 24an *Velvet Goldmine*. Bi emankizunak arratsaldeko 20:15ean izango dira.

Asier Iraola

• Donostiako ABLEak Ixteko Mugimenduko kidea •

ABLEak itxi nahi dituen mugimendua sortu berri da Donostian. Ald Baterako Laneko Enpresak ugaritzen ari dira han eta hemen, eta horiek gazteen lan prekarietatearen erantzule nagusiak direla salatu nahi du mugimenduak. Helburu finko bat du talde berriak: ABLEak ixtea.

▼ edurne koch

«Ekintza alaien bitartez itxi nahi ditugu ABLEak»

«ABLEek zer funtzio betetzen duten jakinarazi nahi diegu gazteei»

mikel lizarralde

Martxoaren 31n eratu zen ABLEak Ixteko Mugimendua Donostian, eta dagoeneko finkatu du zeintzuk izango diren bere helburu nagusiak: hirian dauden ABLEak (Aldi Baterako Laneko Enpresak) ixtea, eta jendea gai honen inguruan kontzientziatzea. Asier Iraola taldeko kideak azaldu dizkigu taldearen nondik norakoak.

■ Asko hitz egiten da ABLEei buruz. Horiek dira gazteen etsai nagusiak gaur egun?

Etsai nagusiak ez dira, beste prekarietate mota batzuk ere badirelako: etxebizitza, lanpostu bera lortzea, praktikak... hamaika kontu daude. Guk bizi-baldintza duin batzuk eskatzen ditugu, eta lan baldintzek erabat eragozten dute hori. Lan baldintzen arabera, pertsona bat sar daiteke pisu batean edo ez, edo bizi daiteke independente edo ez. Testuinguru honetan guztian, ikusten dugu ABLEek sortzen duten kaltea izugarria dela, eta erabiltzen dituztela hor oinarrian dagoen langabezia estaltzeko. ABLEen eskaintza publikoa da, baina aldarrikatu nahi dugu haiek direla lan prekarioena eskaintzen dutenak eta langileak esklabotzat hartzen dituztenak.

■ Handitzen ala gutxitzen ari da ABLEen kopurua?

Gaur egun 30 inguru dira Donostian. Egia esanda, gero eta lan gehiago dago halako enpresentzat, eta gero eta jende gehiagok jotzen du halako enpresetara, sortu duten beharragatik. Beren eskaintza alternatiba ona balitz bezala aurkezten dute, baina gero jendeak ez daki zein diren eskaintzen dizkioten baldintzak, eta horiek zein ondorio izan ditzaketen. Kontratu kopurua igo den heinean, ABLEak ere ugaritu egin dira. Hala ere, orain dela urte batzuk ABLEak beheko solairuetan egoten ziren kokatuak, eta jendearentzat erraza zen haietara biltzea. Orain, urteetan egin den borrokaren ondorioz, pisuetan daude ABLE gehienak, eta horrek haien lana ere eragotzi egiten du.

■ ABLEak Ixteko Mugimendua sortu berria da, baina horren atzean badago lan bat ere. Mugimendua sortu baino lehen ere ABLE batzuk itxi dituzue.

Bai, itxi ditugu batzuk. Lehenago Gazte Koordinadora egon zen Donostian, eta horrek hainbat erakunde bildu eta eragile lana egiten zuen. Hiru urtetan ABLE batzuk itxi zituen gaur egun planteatzen ditugun ekimenen antzekoekin: ABLEekin gogaikarri jartzen nazkatu arte... Kontzientzia nahiko zabaldua egon da Donostian, eta Gazte Koordinadoraz aparte ere, beste erakunde batzuek ere egin dituzte ABLEak ixteko ekimenak: Jarraik, CNTk...

■ Eta zergatik sortu behar izan duzue mugimendua orain?

Gazte Koordinadora pixkanaka desagertuz joan zen, utzikeriagatik edo; eta han geundenok azterketa egin genuen. Gazte Koordinadoran erakundeak zeuden ordezkatuak, eta pentsatu genuen arazo honek erakundeak gainditzen dituela, jende gehiago ere ukitzen duela. Gainera, batzar honetara datorren jendea gogoz dator, eta oso barneratuta du arazoa zein den. Azken batean, mugimendu honek markatu dituen helburuak betetzeko prest dago jendea, eta horregatik da errealagoa.

■ ABLEak Ixteko Mugimendua izena jarri diozue taldeari. Hori du helburu bakarra edo baditu beste batzuk?

Gure helburua ABLEak ixtea da; baina, horretaz gain, halako enpresek zer funtzio betetzen duten ere jakinarazi nahi diegu gazteei. ABLEak ixtea helburu bat da, eta jendea kontzientziatzea beste bat. Borroka hau ahalik eta esparru gehienetara ireki nahi dugu, eta horregatik ireki dugu jendearekin hitz egiteko epe bat. Hainbat erakunderekin hitz egingo dugu mugimenduaren berri emateko, eta haien inplikazioa eskatzeko. Baina horren guztiaren helburua ABLEak ixtea da, lehenengo bat, gero beste bat, eta gero beste bat.

■ ABLEak ixtea duzue helburu nagusia. Zeintzuk izango dira, ildo horretan, zuen lan tresnak?

Ekintza alaien bitartez itxi nahi ditugu ABLEak, jendearen arreta piztu nahian. Eta horren barruan aukera asko daude: kanpatzea ABLEen aurrean, simaurra botatzea... ekintza deigarriak egin nahi ditugu. Horretaz aparte, ABLEen jabeak dira egoeraren eragile, eta haiek ere presionatuko ditugu.

■ Dagoeneko finkatu duzue zein den zuen lehenengo helburua: Code enpresa. Zuen jopuntuak iragarrita, ez duzue espero nolabaiteko defentsa bat euren aldetik?

Gure borroka hasteko Code aukeratu dugu Donostiako erdialdean dagoelako, eta jendeak ikus dezakeelako. Eta ez dakit nola jar daitezkeen defentsiban. Guk garbi daukagu egia gurekin dagoela, eta hori alde dugu.

Kultour kronika

harkaitz cano

Harripiletan ezkutatu idazleak

Beti egon ohi da Katebegi Galduen Atzemaileren bat belaunaldi berriekin kezkatuegi. Gabiaren gorenera igo, eskua kopetan bisera gisara jarri eta idazle gazteak bistatzen ez badira apuratuta agertzen dira, berehala hasten dira belaunaldi berriek idazteari utzi egin ote dioten galdezka. Joan zen urte amaieran, egunkari batek erreportaia zabala argitaratu zuen belaunaldi gazteek euskal literaturan argitaratzeko dituzten balizko trabak aipatzen zituena. Urte honetako lehen hilabeteetako uztak, ordea, teoria hau hankaz gora jarri du, hirurogeita hamarreko hamarkadan jaiotako hiru idazle gazteren lehen liburuek ikusi baitute argia, hirurak Elkarlanean argitaletxearen eskutik. **Julen Gabiria** galdakarraren *Connemara gure bihotzetan* eleberria eta **Ana Urkiza** ondarrutarraren *Desira izoztuak* eta **Xabier Etxaniz Rojo** donostiarraren *Begiak itxi eta kitto* ipuin bildumak dira Elkarlanean etxearen apustua osatzen duten *troika* gaztearen partaide. Hirurak zaku berean sartzerik ez dagoen arren —ez dute elkarren zerikusi gehiegirik, nork bere idazkera eta tonu bereiztua izaki—, beren lehen liburua izateak lotzen ditu hirurak. Aipatu hiru idazleek badute beste puntu komun bat ere: hango eta hemengo lehiaketetan saituak izan dira, literatur lehiaketek batzuei behintzat zerbaiterako balio izan diela frogatuz. Horrek ez lituzke, ordea, lehiaketetan saritu baino zaurituago izan diren haiek desanimatu behar.

Honenbestez, pultsu narratibo berrien argitaratzea —ezen ez sortzea, ez baitira gauetik goizera sortu idazle hauek— datu baikorra delakoan nago. Katebegi Galduen Atzemaileek beren egoitzetara erretiratu beste aukerarik ez dute. Idazle gazteak beti egon dira eta daude, eta haietako asko, arrazoi bategatik edo besteagatik libururik gabeko idazleak diren arren, beren aukeraren zain daude harripiletan ezkutaturik. Idazten edo ez idazten. Izan ere, La Bruyère-ren aipuak dioenez, idazle batzuen meritua ongi idaztean badatza ere, beste batzuena ez idaztean datza. Eta ez gaitasunik ez dutelako.

Ironiaren katarsia

Rosaura tiene un fantasma komedia eroa da Iruñeko Xahutondo taldearen azken antzezlana. Miguel Campion taldekideak idatzi du obra. Calderon de la Barcaren *La vida es sueño* taularatzeko asmoz dabilen antzerki talde bitxi baten gorabeherak dira antzezlanaren muina.

Xahutondoko kideak oholtza gainean.

Xahutondo, antzezle nafarren haztegi

Nafarroako hiriburuko Gurutze plazan daude Xahutondo antzerki taldearen sustraiak. Mari Jose Goiatxe irakasleak Ximenez de Radá eta Principe de Viana institutuetan eman ohi zituen eskoletara zihoazen gazte batzuek sortu baitzuten Xahutondo duela 11 urte.

Goiatxek ezinbesteko garrantzia du Xahutondoren bizitzan, Aedos antzerki taldearen hondorapenetik bizirik irten ziren hiru ikasle ohiei bere babes osoa eskaini baitzien Xahutondo sortzeko erabakia hartu zutenean. Gaur egun Gurutze plazako institutuko antzerki taldea eta Xahutondo bera ere zuzentzen ditu Goiatxek.

Iruñeko antzerki maitale gazteenen topaleku da Xahutondo, zinez. Azken hamarkada honetan 50 pertsonak baino gehiagok hartu baitute parte Xahutondok taularatutako antzezlan sarituetan. Alexei Arbusoven *La promesa* estreinako antzezlanarekin erdietsi zuen bere lehen saria Xahutondok, 1990. urtean. Harrezkeroztik, Dario Fo, Tennessee Williams, William Shakespeare eta beste hainbat egile handiren obrak eraman ditu oholtzetara, arrakasta handiz.

Rosaura tiene un fantasma antzezlana, ostera, Miguel Campion taldekideak idatzi du. Komedia ironiko eta ausarta da. Erronka benetakoa egun Xahutondo osatzen duten hogei gazterentzat. Dirua muga den arren, irudimenak ez du mugarik. Hortaz, duintasun handiko antzezlan aske eta dibertigarria atontzea lortu dute orain ere Xahutondoko kideek. Izan ere, arte kontuetan ez dago amateurrik.

Fitxa teknikoa

Antzezlana: *Rosaura tiene un fantasma.*
Taldea: Xahutondo.
Zuzendariak: Maria Jose Goiatxe, Raul Arbeloa eta David Ilundain.
Egilea: Miguel Campion.
Antzezleak: Jaime Segura, Edurne Azpeitia, Belen Iñarritu, Fernando Garcia-Tapia, Otxin Etxaide, Veronica Fernandez, Maria Puyo, Aritz Parra, Eneko Pelaez, Reyes Ilintxeta, Idoia Izko.
Argiztapena: David Ilundain.
Soinua: Alejandro Les.
Musika: Mikel Salas.
Eszenografia: Alejandro Les.
Diseinu grafikoa: Arturo Baranguan eta Fernando Garcia-Tapia.
Jantziak: Virginia Moriones.
Kontaktua: 696-038 661 (David Ilundain).

iñaki lazkano

Ironia, kritika soziala eta antzerkia uztartzen dituen antzezlan dibertigarria dakar orain Iruñeko Xahutondo antzerki taldeak. *Rosaura tiene un fantasmà* antzerkiari buruz hitz egiten duen antzezlana da. Katarsis izeneko antzerki talde patetiko baten komeriak baititu ardatz.

Calderon de la Barcaren *La vida es sueño* oholtzetara eramatea dute amets Katarsis taldeko antzezleek gau eta egun. Diru beharrak, ordea, gustuko ez duten antzezlan bat taularatzera bultzatuko ditu; Rosaurak Katarsiseko lagunak kontratatu baititu amak hil aurretik idatzitako obra antzezteko. Aipatu obra horrek *La vida es santa* du izenburu, eta penitentzia gordinegia dirudi Katarsiseko lagunentzat.

Rosaurak ez du antzerkia maite, eta bost axola zaio ama zenak idatzitako obra puritano hori. Amaren herentzia jaso ahal izateko, ordea, *La vida es santa* obra antzeztea ezinbestekoa omen. Arrazoi horrexegatik joko du Katarsis taldekoengana. Txarra izan arren, merkeena delako. Gauzak, baina, korapilatu egingo dira erabat, eta Katarsis taldeko kideek ikusleak nahiz Rosaura bera ere harri eta zur utziko dituen antzezlan bat taularatuko dute amaieran. Hori gutxi balitz bezala, Rosauraren amaren mamuak ere bazterrak nahasiko ditu.

Rosaura tiene un fantasma ironiaz blaitutako antzezlana dela aitortu du Reyes Ilintxeta Xahutondo taldeko kideak: «Oso obra dibertigarria da. Gizartean puri-purian dauden gauza asko salatzen dira bertan, baina betiere ironia erabiliz. Hala, esaterako, Katarsis taldeko kide guztiak gezurretan zein zurikerietan lardaskatzen dira antzezlaneko rolik garrantzitsuena lortzeko. Hori, nolabait, gizartean gertatzen denaren isla ere bada. Baina kritika garratzean erori ordez, umorea da nagusi era horretako salaketak plazaratzen direnean ere. Gauza guztiez —baita bere buruaz ere— barre egiten duen antzezlan entretenigarria baita *Rosaura tiene un fantasma*».

Ikasi, ondo pasa eta ikusleei barrea eragin

Miguel Campionek Xahutondo taldearentzat espreski idatzi du *Rosaura tiene un fantasma* antzezlana. Egun Madrilen bizi da, eta gidoiak egiten ditu zinemarako eta telebistarako. Urrun egon arren, Xahutondo taldearekin duen harremana ez da eten, eta aipatu obra pipertsua da horren lekuko. Aitzitik, musikaren garrantzia ere ezin da ahantzi inolaz. *Rosaura tiene un fantasma* antzezlanean tarte musikalik ere ez baita falta. Mikel Salas nafarrak —Iñaki Elizalde zinemagilearen ohiko musikaria— ondu du musika.

Xahutondoko kideak oso gustura daude antzezlanak jasotako harrera onarekin, baina orain, Nafarroko antzokietara ez ezik, Euskal Herriko beste antzokietara ere eraman nahi lukete obra. Horixe dio Reyes Ilintxetak, bederen. «Obra hau berezia da. Askatasun osoz egindako antzezlana baita. Guk oso ondo pasatzen dugu, eta jendeak ere gurekin primeran pasatzen duela uste dugu, obrak irauten duen artean barrezka egoten baita. Ez dugu besterik nahi: ikasi, ondo pasa eta une atsegin bat igaroarazi ikusleari. Nafarroan ez ezik, Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetan ere aritzea litzateke, beharbada, aurten gure erronkarik nagusia».

Rosaura tiene un fantasma Iruñeko Nafarroako Antzerki Eskolan jokatu zuen estreinakoz Xahutondok, iragan hilean. Maiatzaren 12an eta 13an, berriz, Iruñeko Gurutze Plazako institutuetako areto nagusian izanen da ikusgai.

Elkartasun brigadak

CUBA MEXIKO
NICARAGUA
COLOMBIA

Bilbo 4790703 Gasteiz 149379
Iruña 206055 Donostia 340404

Ez ahaztu Hegoaldea !!

Komite Internazionalistak

Arinago, arinago! Lola,

Tom Tykwer gazteak Alemaniako zinema astindu du hilaren 12an Hego Euskal Herrian ikusgai izanen den *Lola Rennt* apurtzailearekin. *Lola Rennt* filmaren arrakastak Hollywoodeko ateak zabaldu dizkio Franka Potente aktore erakargarriari.

Moritz Bleibtreu eta Franka Potente *Lola Rennt* filmaren irudi batean.

iñaki lazkano

Berlin. Udako egun sargori bat. Lola (Franka Potente) ohi baino beranduxeago iritsi da etxera. Ilea gorriz tindatuta darama, eta kolore iluneko tatuaje ikusgarri batek inguratzen du bere zila. Ederra da. Telefono urduriak etengabe apurtu du etxe bakartiko isiltasuna. Telefono hariaz bestaldean Manni (Moritz Bleibtreu) dago. Haren mutil-laguna. Mannik mafiako kide batentzat egiten du lan, eta 100.000 markoz betetako poltsa bat galdu du. Lur jota dago. Hogei minutu besterik ez ditu-eta galdutakoa berreskuratzeko. Tarte horretan dirua itzultzen ez badu, bereak egin du.

Lolak etxetik alde egin eta korrika gurutzatu ditu Berlingo kaleak. Patuaren orratz ilunen aurka doa lasterka. Abiada bizian. Ez daki zelan aurkitu diru kopuru hori hain denbora urrian, baina ezin du segundorik galdu. Manniren bizia arrisku larrian baitago. Aitari eska diezaioke dirua, baina ez dago haren aurrean burua makurtzeko prest. Eskaleak, lekaimeak, haurrak eta gangsterrak uzten ditu atzean erlojuaren zenbaki digitalak sekula baino azkarrago aldatzen diren bitartean. Kontu handiz hartu behar ditu erabakiak hil edo biziko lasterketa ero horretan. Denborak ez baitu su-etenik eskaintzen. Arinago egin beharko du lasterka, itxaropena zimeldu ez dadin.

Tom Tykwer gaztea da Alemaniako zinemagile belaunaldi berriaren izarrik distiratsuena, ezbairik gabe. *Die Tödliche Maria* estreinako film bereziaren arrakastaren ostean, kritikaren laudorioak jaso zituen gure zinema aretorik kutunetara ere iritsi zen *Winterschläfer* bitxiarengatik. *Lola Rennt* bere proposamenik ausartena da. Estetika iraultzailea eta irudimena ezin hobeto uztartzen baititu Tom Tykwerrek Sundanceko ikusleen bedeinkapena erdietsi zuen film apurtzaile honetan.

Estetika berritzailez ehundutako 'thriller' irudimentsu bezain ikusgarria da 'Lola Rennt'

Zoriari buruzko gogoetak estetika iraultzaileaz

Kaletik korrika zihoan neska gazte baten irudia oroimenean iltzatuta geratu zitzaion Tykwerri duela lau urte. Eta irudi hura oinarri hartuta sortu zuen *Lola Rennt* berritzailea. Zoriak gure bizitzan duen eragina du ardatz Tykwerren hirugarren filmak. Ideia hori behar bezala adierazteko, egitura narratibo bitxi eta konplexu bat eskaini dio bere *thriller* ikusgarrienari zuzendari alemaniarrak. Beraz, Lola iradokitzailearen lasterketa urduriaren hiru bertsio dakarzkigu Tykwerrek. Hiru bertsio horietan abiapuntua berbera den arren, garapena ezberdina da oso. Ondorioz, amaiera ere aldatu egiten da bertsio batetik bestera.

Lola Rennt irudimentsuaren berritasuna, baina, bere egitura bitxian baino areago, darabilen estetika bisual iraultzailean datza. Hala, kolore zuri-beltzeko irudiak Lolaren lasterketako eszenak urratu eta iraganera garamatzaten *flash-back*-ak adierazteko erabiltzen ditu Tykwerrek. Argazkiak, *flash-forward* anitzetarako. Bideo-irudiak, Lola eta Manni agertzen ez diren istoriotxoetarako. Eta 35 mm-koak, berriz, biak azaltzen diren eszena guztietarako. Animaziozko irudiak ere tartekatzen ditu Tykwerrek hiru bertsioen izaera berezia aldarrikatzeko, nolabait. Musikak ere ezinbesteko garrantzia du. Johnny Klimek eta Reinhold Heil musikariek egokiro nahasten baitituzte *acid* musika, pop elektronikoa eta *rapa*; Lolaren taupada eroak euren intentsitate osoan islatuz.

Zoriari buruzko gogoeta bihurriak aberastasun estetikoz zipriztintzen dituen *thriller* ikusgarria da *Lola Rennt*. Irudimenez nahiz zorabiatzeko moduko erritmo biziz osatutako film entretenigarria, zinez. Oasi txiki bat gogoeta aspergarri eta astunez itotako zinema alemaniarraren basamortu antzuan.

ZER IKUSI

ANTZERKIA

Izarretako Bitakora. ■ (Maskarada). Ostegunean, Trapagako pilotalekuan, 20:15ean.

Ordago! ■ (Punto Fijo). Ostegunean, ostiralean eta larunbatean, Bilboko La Fundicion aretoan, 20:30ean.

Visto y no visto. ■ (Faemino y Cansado). Ostegunean, Bilboko Arriaga antzokian, 20:00etan. Ostiralean, 19:00etan eta 22:30ean. Larunbatean, 22:30ean. Igandean, 19:00etan.

Olimpo. ■ (Kajoi Eszena). Ostiralean, Ordiziko Herri Antzokian, 22:15ean.

Ozeanoko pianista. ■ (Tanttaka). Ostiralean, Elorrioko Arriola kultur aretoan, 22:30ean.

Los emigrados. ■ (Txalo). Larunbatean, Getxo Antzokian, 20:00etan.

Transcabaret. ■ Asteartean, Gasteizko El Parral tabernan, 20:30ean.

DANTZA

Asire. ■ (Damian Muñoz). Ostegunean, Iruñeko ENT aretoan, 20:00etan. Ostiralean, Elgoibarko Herriko Antzokian, 22:30ean. Larunbatean, Donostiako Egia kultur etxean, 20:00etan.

ZINEMA

DARDARA Zikloa (Goieniz Zinekluba): La semilla del diablo. ■ (Zuz: Roman Polanski). Asteartean, Beasaingo Usurbe antzokian, 21:30ean.

Centauros del desierto. ■ (Zuz: John Ford). Ostegunean, Bergarako Novedades aretoan, 21:30ean.

Elkartasunaren jauzia

EGITARAUA

5. pabiloia

11:00: Hasierako kalejira
11:00: Egun osoan zehar artisautza, umeen gunea, jolas
11:30: Herri kirolen hasiera 5. eszenatokian
12:00: Umeen animazioa 6. eszenatokian
13:20: Dantzaldia 6. eszenatokian
13:45: Egaña, Sarasua eta Mikel Mendizabal bertsolar
15:00: Umeen animazioa 6. eszenatokiaren inguruan
15:30: Herri kirolak 6. eszenatokian
17:30: Amuriza, Elortza, Iturriaga, Lopategi, Irazu, Silveira, Maia eta Lujanbio bertsolariak
19:00: Ekitaldi politikoa eta Anje Duhalde eta Mikel
20:00: Musikaldia 6. eszenatokian

Elkartasun Eguna iaz ospatu zen lehen aldiz, Bilbon. Arrakasta itzela izan zuen ekimenak, eta datorren larunbatean, berr ere, euskal preso eta errefuxiatuen inguruan indarrak bilduko dituzte milaka pertsonak. Musika eta antzerki taldeak, pailazoak, eskulangileak, artistak, kirolariak, bertsolariak, dantzariak... Guztiak bilduko dira larunbatean Bilboko Erakusta

jon maya

Elkartasuna «sentimendutik abiatzen den ekintzarako abiaburua» dela dio Antton Lopez Ruiz preso elorriarrak. Elkartasuna emozioz bideratzen dela deritzo, eta preso batentzako elkartasuna eremu libre bat dela uste du: «Oso eremu zabala da». Hiztegian ere honako hau esaten da *elkartasun* hitzaren ondoan: *Helburu bera izan edo gauza bera komeni zaiela ikusten duten lagunen artean elkarrekin aritzeko sortzen den batasuna.* Batasun bat da; sentimendutik ateratzen den batasuna, eta eremu zabal baten jabe dena. Milaka keinu eta ahalegin sartzen dira giro zabal horren baitan. Keinu guztiek, ordea, leku berean inoiz baino ozenago egingo dute topo larunbatean: Bilboko Erakustazokan, Elkartasun Egunean.

Iazko helburua «bihurgunea» sortu eta euskal preso eta errefuxiatuen egoera ahalik eta gehien zabaltzea zen. Aurten ere helburua errepika zitekeen, baina antolatzaileen asmoa ez da iazkoari jarraipena ematea edo besterik gabe jaialdi erraldoi bat antolatzea. Urrunago heldu nahi dute. «Elkartasunaren mugak gainditu eta inplikazio handia eskuratuz ahalik eta sektore, talde eta jende multzo gehienetara iristea da xedea», azaldu dio *Barkatu ama*-ri Amnistiaren Aldeko Batzordeen eta Elkartasun Egunaren antolakuntzako kide Anderrek. Bestalde, urte osoan egiten diren elkartasunezko ekintza guztiak bildu eta egun batean, jai giroan, «ahalegin horiek guztiak» elkartzea lortu nahi dute.

Aurten ahalegina areagotu egin dute eskaintza ahalik eta zabalena izateko. «Zirrikitu eta txoko» guztietara ailegatzea da asmoa, eta jaialdia iazkoa baino irekiagoa izan dadin saiatu dira. Kontzertu erraldoiak izango dira, berriro ere. Ez dira faltako Euskal Herritik zein atzerritik etorritako taldeak. Besteak beste, Bilboko Erakustazokan izango dira Mikel Urdangarin, Kashbad, Doctor Deseo, Hemendik at, Joxe Ripiau, Pilt, Barrikada, Fermin Muguruza Dub Manifest, Fundamental, Get Animal, Fun People... Bost kontinenteetatik etorritako taldeek hartuko dutela parte.

Bost kontinenteetatik etorritako taldeek hartuko dute parte Elkartasun Egunean

Baina musikariak ez dira protagonista bakarrak izango aurten. Elkartasun Eguneko berrikuntza nagusia ildo horretatik dator. Antolakuntzak pabilioi erraldoi bat irekiko du (bosgarrena) egun osoan hainbat ekitaldik lekua izan dezaten bertan, hala nola herri kirolen gailurrean dauden kirolarien probak, arte erakusketak, eskulangintza, umeentzako animazioa, bertso saioak, dantza emanaldiak... Elkartasuna adierazteko aukera zabaldu diete kultura eta kirol munduko beste sektore batzuei, eta, bide batez, Elkartasun Egunera biltzeko beste arrazoi bat eman diote jende askori. Kalitatezko izenak ageri dira 5.

Gorka Lazkano

• Musikaria eta preso ohia •

«Bakoitzak ahal duen neurrian egin behar du bultza»

Kashbad taldeko baxu jolea da 23 urteko oreretar hau. Iaz ezin izan zuen Elkartasun Egunean parte hartu kartzelan zegoelako, baina aurten bertan izango da, gogotsu, bere taldekideekin batera.

Musikari zaren aldetik, zer esan nahi du zuretzat larunbatekoa bezalako jaialdi batean parte hartzeak?

Hasteko, izugarria da horrenbeste jenderen aurrean jotzea. Taldeentzat gauza berria da horrenbeste jenderen aurrean eta horrenbeste talderekin elkarrekin jotzea; esperientzia polita da. Motiboa jakinda, gainera, politagoa oraindik ere.

Espetxeko ziegetara nola heltzen da ahalegin hori guztia?

Antolakuntza aldetik izugarrizko lana, koordinazioa eta muntajea dela pentsatzen duzu. Kideen artean ere komentarioak entzuten ziren horrenbeste talde, horrenbeste jende atzerritar eta abar ikusita. Izugarri eskertzen da hori guztia barrutik.

Urtean zehar, zein urrats egin behar dira elkartasuna adierazten jarraitzeko?

Kontzertuak eta horrelakoak beti daude presoen alde, eta hortik kanpo ere deialdi dezente badaude kartelada, manifestazio eta beste modu batzuetan; beste gauza bat da jendeak parte hartzen duen ala ez. Festarako mundu guztiak ematen du izena, baina beste gauza batzuetan ere parte hartu behar du jendeak. Denon gogoetan badago elkartasun hori, baina norberaren bihotzean egoteaz gain, kalera ere atera behar da. Bakoitzak ahal duen neurrian bultzada egin behar du.



ZENATOKIA TX- EDARIEN TXOSNA B- OGITARTEKOEN TXOSNA TB- TABAKO TXOSNA TK- TIKETAK

1, 2, 3 eta 4. pabilioiak

	1. Eszenatokia	2. Eszenatokia	3. Eszenatokia
17:00etatik 20:00etara:	Kontrairo	Imuntzo eta Beloki	Bad f-line
	Mikel Urdangarin	Balerdi Balerdi	Hemendik at
	Leihotikan	Urreztieta Konexion	Fe De Ratas
	Mallacan	Gallus	ill
20:00etatik 00:00etara	Lif	Dixebra	NCC
	Non Demontre	Los Soneros del Changui	Marea
	Rip	Petti	Kashbad
	Dut	Diambutu Thiossane	Doctor Deseo
00:00etatik aurrera	Fundamental	Skarnio	Deep Reduction
	F. Muguruza Dub Manifest	Ñaco Goñi y los Bluescavidas	Damned
	Senza Sicura	Arpioni	Kop
	Mokoka	Las Ratas	Ekon
	SA	2 Dj	Species
			2 Dj

	4. Eszenatokia
21:30etatik 00:00etara:	Joxe Ripiau
	Laurel Aitken
	π.L.T.
00:00etatik aurrera	Anestesia
	Fun People
	Barricada
	Get Animal
	Ene Bada

pabilioiko egitarauan: Perurena aita-semeak, Saralegi, Basterretxea, Oteiza, Zumeta, Egaña, Sarasua, Lizaso...

Borondate hutsez

Antolakuntzako kide Anderrek parte-hartzaile guztiek borondatea azpimarratu du. «Musutruk heldu dira guztiak, bai kanpokoak eta bai atzerrikoak ere, eta hori eskertzekoa da». Elkartasunak egindako deiak zer-nolako erantzuna duen erakusten du horrek, ezbairik gabe. Eta guztien ahalegin horrek Elkartasunaren Egunaren helburuak bete daitezen «izugarri» laguntzen du. «Unez uneko egoera politikoa edozein izanda ere, euskal preso, errefuxiatu eta errepresaliatuen egoerak ez du hobera egin, eta askotan okerrera egin du, gose grebak adierazten duen moduan». Egoera hori izanik, badago arrazoi ugari, beraz, Elkartasun Eguna egiten jarraitzeko.

Horri guztiari «egoera tamalgarri honek ekartzen duen gastu ekonomikoa» gehitu behar zaio. Elkartasun Egunaren beste helburuetariko bat da hori, hain zuzen ere: «Presoei kuota bat bidaltzen zaie hilero, medikuak bidaltzen zaizkie... oso gastu handiak daude». Eta Elkartasun Eguna laguntza handia da preso zein senideentzako. Iazko jaialdiaren ostean presoei bidaltzen zaien kuota zertxobait gehitzea lortu zen, eta arrakasta itzela izan zen diru aldetik ere.

Aurtengo jaiak ere arrakasta handia izatea espero dute antolatzaileek. Iaz hamahiru mila lagun pasatxo bildu ziren Bilboko Erakustazokan, eta aurten «gutxienez» kopuru hori berdinduko dela uste dute. Egoera politikoa salbuespen hartuta, gainontzeko faktoreak aldekoak direla deritzo Anderrek: «Iaz oso ondo atera zen jaialdia, eta aurten jende asko berriz etorriko dela badakigu, baita jende berria ere, eta, horrez gain, 5. pabiloiarekin beste jende multzo bat erakarriko dugula uste dugu». Bete-betean, larunbatean hainbat sentsibilizazio politikotako eta presoei elkartasuna adierazteko gogoz dauden milaka lagun bilduko direla ziur daude Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kideak.

Hamaika urte jotzen, lau disko kalean eta hamaika kontzertu. Hori da Flitter taldearen lehen aroaren emaitza. Izan ere, orain, *Rastafari* mamao diskoa kaleratu berri dute, eta garai berri bati ekingo diote. Iñakiren ordez, Migelek jarriko du ahotsa hemendik aurrera, eta, azaleko ahotsa ez ezik, barneko ideiak ere eraberrituta dakartzate.

Flitter

«Disko hau aro berri baten hasiera da»

jon maya

Taldean badago aldaketa berri eta garrantzitsu bat. Abeslaria aldatu duzue; nola eragin du honek taldearen jardunean?

Aldaketa nabaria da. Flitterrek 11 urte daramatza jotzen, eta norbaitek Flitterren disko bat entzuten duenean oroitzen duen azkena Iñakiren ahotsa da. Orain Migel dago taldean, eta beste kontu bat da. Ahotsa, bakoitzak gure barnean daramagun intrumentu fisikoa da, ezberdina da guztiena, eta ezberdintasun hori igarri egiten da. Argi dagoena da Iñaki gauza bat dela eta ni beste beste bat, eta norbaitek orain Flitterren diskoa entzuten badu, ez da konturatu ere egingo Flitter entzuten ari dela. Ahots bakoitzak bere nortasuna du.

Disko berri hau Migel taldean dagoenetik landu duzue, denbora gutxian. Nahiko bat-batekoa da ezta?

Bai, abuztuan hasi ginen prestatzen, eta irailean estudioetara sartu ginen, sei hilabetez bertan jarduteko. Ez zuen zentzurik disko zahar bat abeslari berri batekin aurkezteak, eta orduan, indarberritu eta lanean hasi ginen berehala. Taldearen aro berri baten hasiera da hau. Orain taldekide berri bat dago, beste buru bat pentsatzeko eta ideiak emateko. Diskoa orain artekoetan azkarren eginikoa da. Hilabete eta erdian oinarri batzuk jarri genituen, eta gero grabazioan egin genituen moldaketa, letra eta ñabardura guztiak. Letrak, adibidez, guztiak estudioan sartutakoan egin genituen.

Beste aldaketa bat disketxearena da. Gorrekin hasi zineten, gero Mil A Gritosekin grabatu zenuten, eta orain berriro ere Gorrera itzuli zarete.

Beti egon da harreman oso ona Gorrekin. Besterik gabe, kontratu hobea eskaintzen zigutelako alde egin genuen lehen, eta orain arrazoi beragatik itzuli gara. Guk aurreko diskoa ere kaleratu nahi genuen [esan du Patxik, Gor disketxearen ordezkariak], oso ona zen, baina orduan posible izan ez zenez, oraingo hau kaleratu dugu. Reggae, metal eta pop estiloak ageri dira *Rastafari mamao*-n; nola uztartzen dira elkarren artean eta nola jaso ahal izango ditu entzuleak? Berez ageri dira, ia-ia aurretik pentsatu gabe. Musika ezberdinak entzutearen ondorioz ateratzen da disko hau, ituri eta eragin askotarikoen ondorioz. Ez da ezer ere asmatu nahi. Gauza asko gustatzen zaizkigu, eta horiek elkartu ditugu, abesti bakoitzaren arabera era batera edo bestera. Ildo horretan aurreko diskoaren jarraipen bat da *Rastafari mamao*.

Hala ere, argitaratu dituzuen bost diskoak oso ezberdinak dira elkarren artean?

Bai, oso ezberdinak dira. Lehena rockeroena da (*Flitter*, 1992an); bigarrenean, metal-punkyarekin hasi ginen (*Stop miseria*, 1994an); hirugarrena nahiko metal eta trasheroa da (*Ciudadano Masokista*, 1996an); aurrekoan erritmo latinoak hasten dira sartzen(*La Vida ke kotxina es*, 1998an), eta oraingoa beroagoa da oraindik. Ozono geruzaren arabera goaz gu ere, asko eragiten digu horrek.

Zertan igartzen da berotasun hori disko berri honetan?

Metal talde gehienek indar handia erabiltzen dute, baina oso laua da dena, ez duzu melodiarik, ñabardurarik, musika notarik edo kolorerik entzuten. Disko honek agian horrelako gehiago dauka. *Kaña* badu, baina ez da disko *kañero* bat.

Letren edukiak betiko estilokoak dira, salaketa soziala jorratzen da batez ere.

Bai, baina gaiak gehiago estaltzen saiatu gara, ez dira kantu hain zuzenak. Milaka talde asko daude intsumisioa, bortxaketa eta abarri buruz hitz egiten dutenak. Guk ere egiten dugu, baina gai hauek beste ikuspegi batetik kontatzen saiatzen gara. Eta badaude inoiz lantzen ez diren eta landu beharko liratekeen beste gai batzuk ere, informatika eta etorkizunaren kontu horiek guztiak adibidez. Gu saiatu gara pixka bat horiek ere lantzen.

La patilla kantuarekin arrakasta handia izan zenuten; ba al dago antzeko kanturik disko honetan?

Bai, horrekin alderatuz, *La Chelito*-k antzeko arrakasta izan dezake. *La patilla* egiten hogei minutu pasatu genituen, eta *La Chelito*-rekin hamar. Beraz, honek arrakasta gehiago izango duela uste dugu.

Andres Navajas

«Norbaitek orain Flitter entzuten badu, ez da konturatu ere egingo Flitter entzuten ari dela»

Punk-rocka bizirik da

Punk-rockak, benetako punk-rocka izateko, basatia eta zuzena izan behar omen du, azaleko apaindura handirik gabekoa. The Stoogesek, MC5 eta lehenago Sonicsek ere argi asko erakutsi zuten zein den punkaren izpiritua, gandorren beharrik ez duen punkaren izaera. Bada, izpiritu horrek bizirik dirau gaur egun ere, eta horren bi adibide Euskal Herrian izango ditugu asteburu honetan: Sonny Vincent eta Deniz Tek & Deep Reduction.

Sonny Vincent

Gure artean nahikoa ezezagunak diren hainbat talde gidatu ditu Sonny Vincent newyorktarrak azken 25 urteotan (Testors, Sonny Vincent and The Extreme, Model Prisoner, Shotgun Rationale, The Dons); baina talde horietan egindako lanagatik baino ezagunagoa egin da beste izen batzuengatik. Izan ere, bere deiturak EEBBetako talderik interesgarrienen diskoetan azaldu izan dira, eta lagun ospetsuekin jotzeko aukera ere izan du. Mink Deville, Violent Femmes, The Cramps, Dead Boys, Iggy Pop, Suicide, Bob Stinson (The Replacements), Richard Hell, Lou Reed... EEBBetako rock musikaren "izar" ugari ageri da haren kurrikulumean. *Parallax in wondeland* bere izenean kaleratu duen azken lanean ere –Munster Recordsek argitaratu du–, musikari mitikoz inguratu da ostera ere punk zuzen eta klasikoko disko bat egiteko. Hala, Wayne Kramer (MC5), Scott eta Ron Asheton (The Stooges) eta Captain Sensiblek (Damned) hartu dute parte Vincenten diskoan.

Gaur egun bi proiektutan banatzen du bere denbora New Yorkekoak. Alde batetik, The Dons taldean jotzen du bi musikari holandarrekin batera; eta, bestetik, bere izenarekin azaltzen zaigu diskoetan eta zuzenean. Azken formatu horretan etorriko zaigu Euskal Herrira, baina, beti bezala, ondo lagundua azalduko zaigu –Loveslug eta Beasts of Bourbon taldeetako kide ohiek jotzen dute harekin–.

Sonny Vincent

Bergarako Go-Jam aretoan.

Bihar, 22:00etan.

Deniz Tek & Deep Reduction

Deep Reduction Deniz Tek gitarra jole beteranoaren talde berria da. EEBBetan jaioa, MC5 eta The Stoogesen musikarekin hazi zen Tek, baina 70eko hamarkadaren hasieran Australiara alde egin zuen arte musika zaletasun hori ez zen gauzatu inolako proiektutan. Kanguruen herrialdean, ordea, bai. Rob Youngerrekin batera –gerora New Christs taldean– Radio Birdman sortu zuen 1974an, eta taldea hamarkadaren amaierarekin batera itzali bazen ere, haren eragina eta itzala izugarria izan da ondorengo hamarkadetan ere. Gaur egun ezagutzen den rock australiar indartsuaren ikur izan ziren, eta rock'n'roll talde askok –Buenavistako harrobiko askok, esaterako– eredu izan dituzte lehen pausoak emateko orduan.

Baina, esan bezala, Radio Birdman amaitu zen, eta harrezkeroztik Deniz Tekek hainbat proiektu gidatu ditu. Horietako azkena Deep Reduction da, 60ko hamarkadako garage musika, sustrai beltzeko rocka, punk-rocka eta popa uztartzen dituen taldea. Joera horiek guztiak antzeman daitezke taldearen izen bereko lehenengo diskoan. Gaur, osteguna, Irungo Tunk! aretoan aurkeztuko dute diskoa, eta Deniz eta lagunak baino lehen Señor Nok joko du. Ezinbesteko proposamena, beraz, rock'n'roll egarria asetzeko.

Deniz Tek & Deep Reduction eta Señor No

Irungo Tunk! aretoan.

Gaur, 21:30ean.

Stratovarius

Heavyaren berotasuna hotzaren lurraldetik

Hotz egin ohi du Finlandian, Helsinkin; handia, gainera, baina ez Stratovariusen musika izoztu eta moteltzeko adinakoa. Heavy gogorra, beroa, egiten du Finlandiako talde beterano horrek, eta kontzertuetan euren lurraldean ez duten berotasuna erakusten dute.

Badira urte batzuk (1982) euren erritmo gogorrekin Europako ipar-ekialdea astintzen hasi zirela. Hala ere, aldaketa ugari izan dituzte taldean, eta 1995 arte ez zuten bat egin gaur egun Stratovarius osatzen duten kideek: Timo Tolki gitarrarekin, Timo Kotipelto ahotsarekin, Jari Kanulainen baxuan, Jens Johanson teklatuekin eta Jörg Michael baterian. Bostak elkartutakoan ziztu bizian egin zuen gora taldeak, eta mundu guztian heavyaren erreferentzia bilakatu ziren. *Episode* (1996), *Visions* (1997) eta *Destinity* (1998) diskoek arrakasta itzela izan zuten, eta urrezko diskoak, jira handiak, *top ten*-etan aste asko ematea eta abar gauza arruntak hasi ziren bilakatzen Stratovariusentzat.

Kaleratu berri duten azken lanak, *Infinite*-k, bere estiloari jarraitzen dio bete-betean eta gordin-gordin. Kantu ikasterraz zein melodikoak eta metal progresiboaren zenbait ereserki. Horrelako doinuak nagusitzen dira disko berrian.

Stratovarius Donostian izango da bihar, Rhapsody eta Sonata Artica taldeekin batera. Metal gau indartsua, beraz, biharkoa. ■ **jon maya**

Statovarius, Rhapsody eta Sonata Artica

Bihar, ostirala

Donostiako Anoeta kiroldegian, 20:00etan.

KAFE ANTZOKIA

• ETZAKIT
"Goiz edo noiz?" disko berriaren aurkezpen kontzertua.
2000/05/04 osteguna
Gaueko 22:00etan
Sarrera: 500 pta. "LAGUNAK" prezio erdian.

• TIPICO ORIENTAL CUBANO
Cubako Troba Zaharra
2000/05/05 ostirala
Gaueko 22:00etan
Aurresalmenta: 1.200 pta. (Kafe Antzokia eta Power Records). Takilan: 1.500 pta.

• EUSKALDUNON EGUNKARIA...
"Bizkaia" gehigarriaren aurkezpen jaia.
2000/05/10 asteazkena
Arratsaldeko 20:30etan

• SACRATIF
Bilboko Jazz taldea.
2000/05/12 ostirala
Gaueko 22:00etan
Doako sarrera.

SAN VICENTE 2 48001 BILBO TEL: 94 424 46 25

Bide Ertzean

Tel: 94 623 18 24 / Fax:94 658 24 86

Montorroste kalea 2.zkia Pk:93 - 48230 Elorrio-Bizkaia
Email: tkk.soinua@euskalnet.net

diskoak

Hefner

Boxing Hefner ▪ Too Pure

Fidelity wars **bigarren lan bikainak Darren Haymanen talentua baieztatu ondoren, *Boxing Hefner* izeneko bilduma oraindik bete gabeko hutsune diskografikoak betetzera dator. besteak beste, 1996tik hona singleetan, irratirako emanaldietan eta argitaratu gabeko grabazioetan barreiatutako materiala biltzen du lan honek. Kontuan izanik abesti horiek aurkitzea nahiko zaila dela, *Boxing Hefner* eskuratu beharreko lana da Hefneren zaleentzat.**

Bilduma honek Darren Hayman abesti egile maitatuenetakoa izatera eraman duten ezaugarri guztiak gordetzen ditu: freskotasuna, kantu molde ezagunekin zerbait berria egiteko gaitasuna, giza harremanen gainean arakatzen duten hitz zorrotzak eta, ororen gainetik, pasioa. Violent Femmes, hasierako Pavement eta Jonathan Richman –haren *To hide a little thought* abestiaren bertsioa azaltzen da lan honetan– erreferentzia saihestezinak dira Hefnerri buruz hitz egiteko orduan, baina Haymanek eta bere taldekideek beren kantu guztietan jartzen duten pasioa nortasun eragile bat da.

***Boxing Hefner*-en dagoeneko ezaguna den ereserkien zerrendari beste bi gehitzen dizkio taldeak –*The hymn for the coffee* eta *The hymn for the things we didn't do*–, eta gainontzekoen artean taldearen aurpegi ezberdinak goza ditzakegu: *Christian girls* single berria eredugarria da, dantza egiteko aproposa, eta *Hello kitten* disdiratsuak ere buru asko mugitu beharko lituzke. Baina Darren Haymanen bihotzean dena ez da alaitasuna, eta *Blind girl with Halo* eta *Destroyed cowboy falls*-ek samindura islatzen dute beste ezeren gainetik. Amaitzeko, inoiz egin duen kanturik zoragarrienetako bat eskaintzen digu Darrenek *Boxing Hefner* hau ixteko: *Twisting Mary's arm*, country giroz blaitutako melodia ahaztezina.** ▪ mikel lizarralde

Khaled

Kenza ▪ Barclay / Universal

Khaled ez da geldirik geratzen diren horietakoa: gero eta iturri gehiagoz baliatzen da, jatorrizko nortasuna galdu gabe. Lan berri honetan bi ekoizle bildu ditu: Steve Hillage eta Lati Kronlund. Londres, Kairo, New York, Paris eta Frantziako hegoaldean grabatu dira kantu hauek, bertako artistak eta giroak bereganatuz. Beraz, räi, funk, jazz, soul, Egiptoko leloak, Indiako giroak, Marokoko dantzak eta balada izugarriak topatzen ditugu, besteak beste. Zaila da kantu eder hauen guztien artean bata edo bestea aukeratzea, bakoitzak aparteko balioa baitu: *Aalach Tloumouni* –Egiptoko soka orkestra batez–, Idir aljeriarraren *El Harba Wine*, *C'est la nuit* –*Aïcha* himnoa sortu zuenarena, hau da, Jean-Jacques Goldmanena–, *Imagine* –Noa israeldarrarekin batera, arabieraz, hebraieraz eta ingelesez–, *Trigue Lycée* –Khaledek grabaturiko lehenengo kantua–, *E'Dir E'Sseba* –New Yorkeko funk eta jazzaz–, *Ya Aachkou* –instrumentu tradizionalekin soinu garaikidea, funk, soul eta jazzaz-, *Melha... Kenza* izenburua bigarren alabaren izena dugu, *altxorra* esan nahi duena. Hau da, hau, familia-gizona. Gero eta gehiago gustatzen zait aljeriarraren lana: ahotsa, soinua, konponketak, musikariak... Oraingoan ere, galtzea bekatua izan liteke. ▪ **joseba martin**

Askoren artean

The million dollar hotel ▪ Island-Universal

Ez dut ikusi Wim Wendersen filma, eta ez dakit CD honetan azaltzen diren kantuek zer funtzio betetzen duten istorioan, baina esan dezaket abestiok gozatzeko ez dela derrigorrezkoa irudien euskarria. Bere filmetan ohikoa den bezala, musikari bikainez inguratu da Wenders bere azken lanean ere –John Hassell, Brian Eno, Bill Frisell, Greg Cohen eta beste hainbatek osatzen dute The MDH (The Million Dollar) Band– eta Bonok ere (U2) ezinbesteko parte hartzea izan du. Hain zuzen ere, Salman Rushdie idazlearen testu batean oinarritutako *The ground beneath her feet* U2ren kantu bikainak irekitzen du diskoa. Ez da U2ren parte-hartze bakarra, *Stateless* eta *The first time* kantuaren bertsio berri bat ere azaltzen baitira. Bonok zuzenean hartu du parte proiektuan, eta haren ahotsa entzun dezakegu *Never let me go* atmosferikoan, *Falling at your feet*-en –U2ren une onenak gogora ekartzen dituen abestia– eta *Dancin' shoes-bluessy*-an.

Sergio Ruiz-en

Eraso! taldeko abeslaria

10 ezinbestekoak

1. *I* (Led Zeppelin)
Aitari kentzen nizkion diskoetatik gehien gustatzen zitzaidana zen. Rock musikaren nondik norakoa izango zenaren abiapuntua da.

2. *Made in Japan* (Deep Purple)
Ez zara inoiz aspertzen horrelako disko bat entzuten. Ahotsaren indarra izugarrizkoa da, eta kontzertu ahaztezina da.

3. *Jaiotze basatia* (Su Ta Gar)
Musikaren munduan disko hau entzun eta gero sartu nintzen. Barru-barruan sartu zitzaidan bere musika, eta bertan esaten zen guztia.

4. *Kill'em all* (Metallica)
Trash musikan talde aitzindaria da. 1983. urteen kaleratu zen, ordura arteko moldeak hautsiz, eta geroago izandako arrakastaren lehen urratsak izan ziren.

5. *Cowboys from hell* (Pantera)
Hauen agresibitateak txunditu ninduen gehien, ordura arte egiten zen metal musikan ez baitzegoen horrenbeste agresibitaterik.

6. *Burn my eyes* (Machine Head)
Indar eta sentiberatasun handiko diskoa da. Oso gomendagarria.

7. *Roots* (Sepultura)
Brasildarren diskorik osatuena da, eta, gainera, beren iturri eta ideiak oso ondo egokitzen dira. Izugarrizko indarra eta mezua eta dauzka.

8. *Korn* (Korn)
Moldeak hautsiz hasi zen talde hau. Freskotasun galanta, testu indartsu eta gogorrak eta izugarrizko pertsonalitatea duen taldea da.

9. *Ten* (Pearl Jam)
Lehen aldiz entzun nituenean, 70eko hamarkadako ukitua sumatu nuen, baina gero Eddie Wedderen ahotsaren indarrak hunkitu egin ninduen.

10. *Denbora* (π.l.t.)
Talde on bat entzuteko ez dugula atzerrira joan behar erakusten digu. Bigarren lanean denetik jorratu zuten, eta maila oso handia lortu zuten. Letrak, musika, kontzeptua; barru-barrutik egina dago.

antena jarrita

Ertz. Bertze musikak izeneko jaialdi interesgarria egingo da ekainaren 9an eta 10ean Beran, eta dagoeneko finkatuta dago egitaraua. Lehenengo egunean Alejandra & Underwood (Londres eta New York), Francisco Lopez (Madril) eta Amy Denio (Seattle) ariko dira, eta bigarrenean, berriz, Evol (Bartzelona), DJ Cuit-Bros (Bartzelona), Equalizers (Bartzelona, Suso Saizen proiektua), Voodoo Muzak (Euskal Herria), Mass (Londres) eta Eardrum (Londres). Musika elektronikoa izango da nagusi jaialdian, baina proposamen inprobisatzaileak (Mass) eta elektroakustikoak ere ez dira faltako (Amy Denio).

Disko bakarra kaleratu zuen bizirik zegoela –*Grace*, 90eko hamarkadako diskorik ikaragarrienetakoa–, baina **Jeff Buckley**ren ondarea ondo ari dira administratzen. Bere bigarren diskoa izan behar zuena maketekin osatu ondoren, orain zuzeneko diskoari iritsi zaio txanda. Laster izango da kalean eta bere izenburua *Mystery white boy* izango da.

Ian Curtis eta Joy Division taldeari buruzko filma egingo omen dute laster, eta zuzendaria Danny Boyle izango da, *Trainspotting* filmaren egilea.

Tom Waitsen abestien moldaketekin disko bat izango dugu laster kalean. *New coat of paint* izenburua izango du CDak, eta bertan, besteak beste, Screamin' Jay Hawkins zenak, Lydia Lunchek, Andre Williamsek eta Kid Congo Powersek (Gun Club, Nick Cave & The Bad Seeds) Waitsen kantuen gainean egindako bertsioak azalduko dira. Orain dela urte batzuk, beste musikari batzuek ere *Swordfish-trombones*-en egilearen kantuak jaso zituzten, *Step right up* lanean orduan.

Gainontzean, doinu iradokitzaileak dira nagusi soinu bandan; jazz kutsuko melodia ederrak batez ere. Eta badira bitxikeria batzuk ere: alde batetik, Lou Reeden *Satellite of love* kantua hiru bertsiotan azaltzen zaigu –Milla Jovovich aktoreak sentsualitatez janzten du horietako bat–; eta bestetik, *Anarchy in the UK* Sex Pistolsen kantuaren bertsioa –hemen Anarchy in the USA– eskaintzen digu gaztelaniaz Tito Larrivak. Unerik eskasena da, ene ustez, baina ez du ezkutatzen aurreko guztiaren onura. ▪ **mikel lizarralde**

kontzertuen agenda

Leku hau zabalik duzu zure ekitaldien berri emateko

Abisua astearte eguerdiko 14:00ak baino lehen eman ezazu, arren

Osteguna 4

- BEASAIN ▸ **Oskorri.** (Pub ibiltaria). Usurbe antzokian, 21:00etan. Sarrera: 1.000 pezeta.
- BILBO ▸ **Etzakit.** Kafe antzokian, 22:00etan. 500 pezetan.
- ▸ **John Kirkpatrick.** Euskalduna jauregian, 20:30etan.
- ▸ **Yellowstone, Karma Police** eta **John Wayne.** Bilborock aretoan, 20:00etan. Bilbo Hiria pop-rock lehiaketa. Metal atala.
- BOCHUM ▸ **Fermin Muguruza Dub Manifest.** Bahnhof Langendeer-en.
- DONOSTIA ▸ **Oliver Lake Quartet Jazz.** Gazteszena aretoan, 20:30etan.
- ▸ **JC Perez.** Lugaritz kultur etxean, 20:30etan.
- ▸ **D. Duran & M. Cagigal.** Burunda tabernan, 22:00etan.
- ▸ **DJ Pez.** Etxekalten.
- ▸ **Nice Noise.** Irish Discon (Ilunben), 20:30etan.
- ▸ **DJ M&M** eta **DJ Lou K.** Konploten (Amara Zaharrean), 00:00etan.
- GASTEIZ ▸ **Joxe Ripiau.** Unibertsitateko kanpusean, 19:00etan. Doan.
- GETXO ▸ **Luther *Guitar Junior* Johnson & The Magic Rocker.** Gwendolyne aretoan, 20:00etan. Chicagoko blues gitarra jole klasikoa.
- IRUN ▸ **Deniz Tek & Deep Reduction** eta **Señor No.** Tunk aretoan, 21:30etan. 1.500 pezetan.
- IRUÑEA ▸ **Discipulos de Dionisos.** Terminal aretoan, 21:30etan.
- SESTAO ▸ **La Banda de Moe.** Cha-Cha pubean, 21:00etan.

Ostirala 5

- BASAURI ▸ **A Room With A View** eta **Garden.** Ibaigane kultur etxean, 21:00etan. 300 pezetan.
- BERGARA ▸ **Sonny Vincent** eta **Factoria 77.** Go-Jam aretoan, 22:00etan. 800 pezetan.
- BERMEO ▸ **Oskorri & The PUb Ibiltaria.** Pilotalekuan, 22:00etan.
- BERRIZ ▸ **Zea Mays.**
- BILBO ▸ **Tipico Oriental Cubano.** Kafe antzokian, 22:00etan. 1.200 / 1.500 pezetan.
- DONOSTIA ▸ **Stratovarius, Rhapsody** eta **Sonata Arctica.** Anoeta kiroldegian, 20:30ean.
- ▸ **Juan Perro.** Kursaaleko auditorioan, 21:00etan. 2.500 / 3.000 / 3.500 pezetan.
- ▸ **DJ Makala.** Etxekalten.
- ESKORIATZA ▸ **Bi Luma.** Unibertsitateko aretoan, 22:30etan.
- GASTEIZ ▸ **Doctor Deseo.** Gallery aretoan (Elefante Blanco zena).
- GERNIKA ▸ **John Kirkpatrick.** Zineman, 20:30etan.
- HERNANI ▸ **Etzakit.** Oialume dantzalekuan, 22:00etan.
- KOLONIA ▸ **Fermin Muguruza Dub Manifest.** Mützen.
- LASARTE ▸ **Benito Lertxundi.** Manuel Lekuona kultur etxean, 22:30etan.
- ▸ **DJ Blami, DJ Ecleptic** eta **DJ Xemar.** Zulo aretoan. House musika.
- OIARTZUN ▸ **Betagarri.** Pagoa aretoan, 23:00etan.
- SANTURTZI ▸ **Rodrigo, Adolfo y Guzman.** Serantes kultur aretoan, 20:30ean.
- TOLOSA ▸ **Jauko Barik.** Bonberenean, 23:00etan. AHTren aurkako bizikleta martxaren barruan.
- URDULIZ ▸ **She´s.** Txiberrin.
- URDUÑA ▸ **Las Ratas.** Azokan, 23:00etan.
- ZALLA ▸ **Electrobikinis.** PK2 aretoan, 22:00etan.

Larunbata 6

- ANDOAIN ▸ **John Kirkpatrick.** La Salle aretoan, 20:00etan.
- AZKOITIA ▸ **Asgarth eta Selektah kolektiboa.** Plazan.
- BARTZELONA ▸ **Electrobikinis.** Sidecar aretoan, 22:00etan.
- BILBO ▸ **Elkartasun Eguna.** Erakustazokan. Ikus erdialdeko orrialdeak.
- ▸ **Juan Perro.** Euskalduna jauregian.
- DONOSTIA ▸ **DJ Kigo.** Etxekalten.
- ETXALAR ▸ **En Medio.** Herriko ostatuan, 22:00etan. Santanderreko taldea.
- HIRIBURU ▸ **Oskorri & The Pub Ibiltaria.** Pilotalekuan, 21:00etan.
- IRUN ▸ **Mastretta.** Tunk! aretoan, 23:00etan. 1.200 / 1.500 pezetan.
- LASARTE ▸ **Geronacion.** Zulo aretoan.
- LESAKA ▸ **ill.** Atxaspi ostatuan, 22:30etan.
- OÑATI ▸ **Eztanda.** San Migel txiki auzoan, 23:00etan.
- VILLARROBLEDO (ALBACETE) ▸ **Koma, MCD, La Polla, Rosendo, Platero y Tu, Baron Rojo, Mojinos Escozíos, Burning** eta **Loquillo.** Viñarock jaialdian.

Igandea 7

- ANOETA ▸ **Eztanda.** 16:30etan.
- BASUSARRI ▸ **Steppin' Jogo, Mokoka, Mutxiko, Ixil Ta Edan** eta **Hats.** Plazan, 20:00etan. 20 liberatan.
- DONOSTIA ▸ **Oskorri & The Pub Ibiltaria.** Egiako kultur etxean, 17:30etan.
- EIBAR ▸ **Mikel Urdangarin.** Portalean, 19:30etan.
- HERNANI ▸ **Hemendik At.** Oialume dantzalekuan, 20:30etan.
- IRUÑEA ▸ **Juan Perro.** Gaiarre antzokian. Sarrera: 3.000 pezeta.
- LARRABETZU ▸ **Ene Bada.** Bizkargi egunaren barruan; 18:00etan.
- OIARTZUN ▸ **Species.** Pagoa aretoan, 20:00etan.
- URRUÑA ▸ **Arpioni** eta **Eztanda.** Iturbide kiroldegian, 19:30etan. Kultur astearen barruan.

Asteazkena 10

- ATARRABIA ▸ **Oskorri & The Pub Ibiltaria.** Pilotalekuan, 20:00etan.
- LEIOA ▸ **Juan Carlos Perez.** EHUko unibertsitateko areto nagusian, 12:00etan.

Santiago Auseronek aspaldi jantzi zuen Juan Perro izen artistikoa, Radio Futura talde historiakoaren ibilbidea amaitu zenean. Beti ere musika munduan sortzen diren ideia berrietara irekia, Juan Perrok *Mr. Hambre* diskoa aurkeztu zuen orain dela gutxi, eta horixe bera aurkeztuko du datozen egunotan Euskal Herrian. Bihar Donostiako Kursaalean izango da, larunbatean Bilboko Euskalduna jauregian eta igandean Iruñeko Gaiarre antzokian.

ZOZKETAK

Hechos Contra el Decoro taldearen single berria zozketatu behar dugu Barkatu ama-ko irakurleen artean. *Linea de fuga*, maiatzaren 11an argitaratuko duten disko berriaren aurrerapen singlean *Voz of Babilon* eta *Abril de mil novecientos ausencia* abestiak azaltzen dira, eta 20 ale ditugu zuentzako. Agur polit bat bidaltzearekin nahikoa izango duzue zozketan parte hartzeko. Egunkaria, Barkatu ama, gudarien etorbidea z/g, 20.140 Andoain, Gipuzkoa edo barkatu_ama@egunkaria.com

Lagun hauek dira Zea Maysen single eta kamiseta banaren irabazleak: Deme Galan (Soraluze), Iñaki Otamendi (Andoain), Jose Mari Ruiz de Alegria (Bermeo), Maria Alkorta (Eibar), Natalia Vega (Bilbo), Zelia Irurozki (Iruñea), Eztitxu Etxeberria (Ataun), Igor Zunzunegi (Zizurkil), Katti Pochelu (Baiona) eta Estibaliz Blazquez (Erandio)

PAGOA
OIARTZUN ARETOA

BETAGARRI
+ Josu Bravo + DJ
Maiatzak 5 ostirala - 23:00-06:00
SARRERA: 800 pta.

EGAÑA - SARASUA
Bertsolariak
Maiatzak 6 larunbata - 19:00

SPECIES
Maiatzak 7 igandea - 20:00
SARRERA: 1000 pta.

Maiatzak 12 - 23:00 AVALANCH
13 - 23:00 KING PRAWN (LONDON)
8 - 22:00 LA POLLA RECORDS
20 - 23:00 DR. DESEO
26 - 23:00 BAD F LINE + 2 KATE
27 - 23:00 ANJE DUHALDE
Ekainak 4 - 20:00 MARTIRES DEL COMPAS
10 - 23:00 BUZZCOCKS (USA)

EZKONTZAK - BODAK
MENU BEREZIAK 8.000 pezetatik aurrera.
PAGOA JATETXEA Tel.: 943 49 26 13

Makrogaragardotegia
fabrika
+ tabernak
+ jatetxea
+ kontzertu aretoa
Sarrerak salgai:
Oiartzunen: Pagoa - Amazkar - Kastro - Sorgintzulo - Miren - Donostian: Bilintx - Azoka - Frudisk - Irunen: Bertso Hop - Skola Music
PAGOA Garagardotegia - Ergoien auzoa - Oiartzun
Erreserba tel.: 943 492 613 - Faxa: 943 491 134

azken portuko tabernan

jon maya

Joseina Etxeberria

«Segituan aspertzen naiz egiten ari naizenarekin»



▼ edurne koch

Nortasun agiria

Ataundarra da, 1968. urteko apirilaren 20an jaiotakoa. Ikasketak herrian bertan hasi zituen, Ataungo eskolan, eta OHOko 8. maila amaitutakoan Beasainera joan zen, Alkartasuna Lizeora. Unibertsitate garaian, berriz, Leioan ikasi zuen Kazetaritza. Orduantxe abiatu zen irratian. Bere lehenengo esperientzia Gramola irratian izan zuen, unibertsitateko lehenengo ikasturtean zegoela, eta 1990. urteaz geroztik Euskadi Gazteako esataria da.

Irribarretsu, alai eta zirrara bizian. Joseina Etxeberria ezinegonean eta CD bat eskutan duela ikustea da ohikoena. Musikari lotuta; horrela bizi da.

Oso gazte harrapatu zuten musika doinuek. 1977an larunbat iluntze batean Boney Mren kontzertu bat ikusi zuen telebistaz, eta horrek erakarri zuen lehenbizikoz. Geroago, Status Quok ere zirrara sortu zion, baina «benetan zaletasuna sortu zidana Ramones taldearen zuzeneko disko bikoitza izan zen, 79-80 urteen inguruan». Rock gogorarrekin abiatu zen (AC DC, Ramones...), gero britainiar bolada heldu zitzaion (The Cure...), eta geroago denetik entzuten jardun da. Jazza, new agea, klasikoa... denetarik heldu da Joseinaren belarrietara.

Bere bizitzako unerik gozoenetakoak Bilboko Kafe Antzokian igaro ditu. Izan ere, Antzokiaren hastapentan Dj bezala aritu zen, eta «momentu izugarriak» igaro zituen. «Iragan larunbatean lagun baten ezkontzara joan nintzen, eta lagunak esan zidan jende gazte asko egongo zela eta nahiago zuela nik Dj lana egitea musika talde bat ekartzea baino; Antzokiko garai ahaztezinak heldu zitzaizkidan gogora, izugarri gozatu nuen». Jende aurreko lan horrek pizten zuen gehien: «Jende guztia dantzan ikustea, edo kantu batekin jendea *strepteese* egiten hastea... Gozamena zen hura guztia». Lan ordutegiarengatik utzi behar izan zuen hura, baina «pena oso handiz».

Izaeraz «hausturazalea» da. «Segituan aspertzen naiz egiten ari naizenarekin», dio. Jazteko eran, lanean eta oro har bizitzan gertatzen zaio hori. Horregatik, beti atsegin du gauza berriak egitea, aldatzea... Barregarri geratzeari beldur dio, eta horrek asko kezkatzen du. Horrekin gaixorik dagoela ere esaten diote batzuek. Afari batean denen begiraden helburu izatea, kaletik norbaitek begiratzea... Horrelako kontuek sarri lotsatzen dute. «Ahultasun» puntu bat ere nabari du bere izaeran: «Defektu bat izan daiteke, baina nire buruaren ontasun bezala ere ikusten dut, horrek gainditzeko ahalegina eskatzen dit eta».

Aldaketen zale, bere ustez egin duen aldaketarik handiena «horrela bizitzea» da. «Ni baserri giro batetik nator, eta telebistan kontzertuak aurkezten aritzea edo Dj izatea aldaketa izugarria da niretzat». Beste aldaketa handi bat, orain lauzpabost urte EEBBtara joan zenean egin zuen: «Itxuraz eta pentsaeraz aldatu nintzen; nik uste irekiago itzuli nintzela». Aurrera begira, berriz, egoera politikoaren eraginak sor diezaioke aldaketa bere ustez: «Lehen apolitikoa nintzen, baina orain gero eta gehiago kezkatzen naiz; Espainiako zein Euskal Herriko komunikabide batzuek euskal munduari eta euskaldunoi ematen diguten *kaña* ikusita, gero eta abertzaleagoa ari naiz bihurtzen». Irudiarekin lotutako gauzak interesatzen zaizkio batez ere: «Bidaiatzea, diseinua, pintura, arkitektura, arropa, jendearen itxura...». Baina beste afizio batzuk ere baditu: «Kirola ez dut gehiegi atsegin, baina tenisa bai, makinak, kamioiak eta horrelakoak ere bai...». Ataun ala Donostia erabakitzea zail geratzen zaio. Orain bitan bananduta dago, eta batean dagoenean bestera joateko gogoz dabil. Batak «orain arteko guztia» eskaintzen dio, eta besteak «proiektu eta ilusio berriak».

bat-batean

- **Zer atsegin duzu gehien?**
  Ingurukoekin komunikatzea
- **Eta gorroto?**
  Harrokeria eta itxurakeria
- **Hiru kantu?**
  Oh, oh I love her so (Ramones), *Sherry Darling* (Bruce Springsteen) eta *Why does my hurt feel so bad* (Moby)
- **Amets bat?**
  Zoriontasuna
- **Parrandarako leku bat?**
  Etxea
- **Eta oporretarako?**
  Edozein
- **Edateko?**
  Ura
- **Pertsonaia bat?**
  Carlos Iturgaitz
- **Nori egingo zenioke elkarrizketa hau?**
  Joey Ramoneri

eklipsearen ostean

igor estankona

Pagadiari begira zeuden

Basoa gurutzatzeak birikak berdatzen zizkigun eta barriketarako gogoa geneukan, brometan bizi ginela zirudien, saltoka hilko ginela, eta gure albotik pasatzen ziren zozoak gure kantua imitatzen ahalegintzen ziren.

Bezperako euri zaparradek erreka haserretu zuten eta mehatxuka jaisten zen, zekartzan zuhaitz adar erraldoiak erakutsiz. Baina munstro haren ertzetan bake arraro eta gozo bat sumatzen zen, inontzaren bakea, tantakadena hosto gazteetatik erortzen. Eta bake haren erdian, edo hobeto esanda, bake haren azpian, bikote bat zegoen eroritako zuhaitz baten enborraren gainean eserita, musurik eman gabe, batak bestea leun helduta.

Arreta beraiengana erori zitzaidan eta galdu, pentsamenduak irakurri nizkien, eta uste dut konturatu zirela, baina, hala ere, sartzen utzi zidaten, eguzkia irten zen eta alboz laztandu zituen, batak basora begiratzen zuen eta besteak basora begira ari zenari begiratzen zion. Ia haizerik ez zebilenez geldi zeuden euren ileak, ia. Ez dakit ziur zer zeukan buruan basora begira ari zenak, uste dut habia bat egiten ari zela sastraka artean pentsamenduarekin eta besteak zerbait galdetu nahi zion, mila gauza otutzen zitzaizkion bikoteari esatekoak, batzuk gramatikalki ezinezkoak baina beste batzuk zuzenak, eta iruditu zitzaidan zerbait esan ziola azkenean belarrira. Bai. Zerbait esan zion ezin izan nuena aditu, galdera bat, erregu bat. Jadanik ia bukatuta zegoen habiaren inguruan lekurik zuen galdetzen zion, amorante bezala edo harrapari bezala biziko zen, beretzat hartu ahalko zituen egunen batean batera izango zituzten umeetatik arrak, bestearen aurka hazteko balore artezetan, edo zuzenean hil eta jan behar ote zituen. Inork ez zuen ezer esan. Klasera isilik jarraitu genuen.